


Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Herriko Unibertsitatea

DOKTOREGO TESIA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

XIX. MENDEKO EUSKAL GRAMATIKAGINTZARI

BURUZKO IKERKETAK

Egilea: Ricardo Gómez López

Zuzendaria: Beñat Oyharçabal

VITORIA-GASTEIZ, 2006

Aurkibidea

ESKER ONEZ	XI
0 SARRERA	XIII
0.1 Aurkezpena	xiii
0.2 Helburua	xiv
0.3 Iturriak	xvii
0.4 Metodoa	xix
0.5 Euskal gramatikagintzaren historiografiaz	xxvii
0.6 XIX. mendea arteko euskal gramatikagintzaren historia laburra.....	xxx
0.7 Egitura.....	liv
I. EGILEAK	1
1 PABLO PEDRO ASTARLOA (1752-1806)	5
1.1 Sarrera.....	5
1.2 Astarloaren lanez eta <i>Diskurtso filosofikoen garrantziaz</i>	6
1.3 <i>Apologian aitortutako iturriak</i>	12
1.4 XVIII. mendeko hizkuntz ideiak Europan.....	15
1.4.1 <i>Gramatika orokorraren zabalkundea</i>	<i>15</i>
1.4.2 <i>Hizkuntzaren jatorriari buruzko eztabaidak</i>	<i>17</i>
1.4.3 <i>Munduko hizkuntzen datu-bildumak</i>	<i>23</i>
1.5 Hizkuntzaren jatorriari buruzko teoriak. Astarloaren abiapuntuak	25
1.5.1 <i>Lehen hizkuntza bakarra izan zen</i>	<i>26</i>
1.5.2 <i>Lehen hizkuntza naturala izan zen</i>	<i>28</i>
1.5.3 <i>Lehen hizkuntza artikulatua izan zen</i>	<i>29</i>
1.5.4 <i>Lehen hizkuntza perfektua izan zen.....</i>	<i>29</i>
1.5.4.1 <i>Egokitasuna</i>	<i>31</i>
1.5.4.2 <i>Ekonomia.....</i>	<i>34</i>
1.5.4.3 <i>Eufonia</i>	<i>43</i>
1.5.5 <i>Hizkuntz aldaketa eta gramatika unibertsala</i>	<i>44</i>
1.6 Hondar oharpenak	45
2 W. VON HUMBOLDTEK EUSKAL GRAMATIKARI EGINDAKO EKARPENA.....	49
2.1 Sarrera.....	49
2.2 Iturriak.....	52

2.3	Humboldtten euskarari buruzko lanak	54
2.4	Humboldtten zenbait ekarpen	56
2.4.1	<i>Hitzaren definizioa</i>	56
2.4.2	<i>Kategorien zehazgabetasuna</i>	57
2.4.3	<i>Mugagabea</i>	60
2.4.4	<i>Kasuak eta preposizioak (edo postposizioak)</i>	62
2.4.5	<i>Superlatiboa = genitibo plurala</i>	66
2.4.6	<i>Erlatiboko konplementatzailea = lokatiboko atzizkia</i>	67
2.4.7	<i>Partitiboa = ablatiboa</i>	69
2.4.8	<i>Beste zenbait etimologia</i>	69
2.4.9	<i>Aditz bakarra, laguntzaile batzuk</i>	71
2.5	Ondorioak	74
3	DARRIGOLEN GRAMATIKA	75
3.1	Sarrera	75
3.2	Volney Sariaren irabazle	77
3.2.1	<i>Darrigol</i>	80
3.2.2	<i>Segure</i>	80
3.2.3	<i>Izengabea</i>	81
3.2.4	<i>Lagarde</i>	83
3.2.5	<i>Görres</i>	84
3.2.6	<i>Epaiaz</i>	86
3.3	Dissertationen egitura eta ezaugarri orokorrak	87
3.3.1	<i>Egitura</i>	88
3.3.2	<i>Ezaugarri orokorrak</i>	89
3.4	Darrigolen gramatikaren zenbait gai	91
3.4.1	<i>Erroak eta kategoriak</i>	91
3.4.2	<i>Mugagabea</i>	92
3.4.3	<i>Kasuak eta preposizioak</i>	94
3.4.4	<i>Aditza</i>	99
3.4.5	<i>Sintaxia</i>	101
3.5	Ondorio gisa	108
4	BONAPARTE PRINTZEAREN INGURUKO HIZKUNTZ EZTABAIDAK	111
4.1	Sarrera	111
4.2	Europako hizkuntzalaritzaren eragina	113
4.2.1	<i>Gramatika historiko-konparatzailea</i>	113
4.2.2	<i>Schleicher – Vinson konexioa</i>	115
4.3	Zientziaz eta metodoaz	126
4.3.1	<i>Euskalariak kritikagai</i>	126
4.3.2	<i>Metodo zientifikoaz</i>	132
4.3.3	<i>Eztabaidaren moldeez</i>	137
4.3.4	<i>Euskalarien metodoez</i>	139
4.4	Euskara eta mundu zabaleko beste hizkuntzak	145
4.4.1	<i>Euskara eta hizkuntza eransleak</i>	145
4.4.2	<i>Euskararen sailkapen tipologikoa finduz</i>	150
4.4.3	<i>Euskara eta turanismoa</i>	153
4.5	La question ibérienne	156
4.5.1	<i>Iberismoaren hastapenak</i>	156

4.5.2	<i>Bonaparte: iberismoaren alde</i>	157
4.5.2.1	Korsikako zenbait toponimoren euskal jatorria	158
4.5.2.2	Baita eta ga “hitzak”	159
4.5.2.3	Gaztelaniazko -ez eta portugesezko -es atzizkiak	161
4.5.3	<i>Vinson: iberismoaren kontra</i>	162
4.5.4	<i>Van Eys: frogatu gabeko hipotesia</i>	164
4.5.5	<i>Campión: kontrakoei erantzunez</i>	165
4.5.6	<i>Luchaire: iberismo kritikoa</i>	166
4.6	Euskararen desagerpenaz	169
4.6.1	<i>Euskal hiztegia egokia ote?</i>	169
4.6.2	<i>Hizkuntzen eta gizarteen bilakaeraz</i>	173
4.7	Euskalkiez	177
4.7.1	<i>Euskalkien arteko erlazioak</i>	177
4.7.2	<i>Euskararen nondik norakoak: Hegoaldetik Iparraldera</i>	181
4.7.2.1	Ü eta û soinuak	182
4.7.2.2	Da / dago.....	183
4.7.2.3	Esan / erran	184
4.7.2.4	Bai(t)-	184
4.7.2.5	-ek ergatibo plurala	185
4.7.3	<i>Iparraldetik Hegoaldera</i>	186
4.8	Bukatzeko	187
5	VAN EYSEN <i>ESSAI DE GRAMMAIRE DE LA LANGUE BASQUE</i> (1865, 1867)	191
5.1	Sarrera	191
5.2	Ohar bio-bibliografikoak	192
5.3	EGLBren edizioak	199
5.4	EGLBren ekarpena euskal gramatikari	201
5.4.1	<i>EGLBren helburuak eta iturriak</i>	202
5.4.2	<i>Ortografia eta ahoskera</i>	205
5.4.3	<i>Artikulua eta deklinabidea</i>	207
5.4.4	<i>Adjektiboa</i>	210
5.4.5	<i>Izenordainak</i>	211
5.4.6	<i>Zenbatzaileak</i>	214
5.4.7	<i>Atzizkiak</i>	215
5.4.8	<i>Aditza</i>	218
5.4.9	<i>Adberbioa</i>	221
5.4.10	<i>Juntagailua</i>	222
5.4.11	<i>Sintaxia</i>	223
5.5	EGLBren kritikak	225
5.6	Azken oharrak	227
II. GAIAK	229	
6	ARTIKULUA ETA “ARTIKULUA” EUSKAL GRAMATIKA-TRADIZIOAN	233
6.1	Sarrera	233
6.2	Artikulua euskarari eta hizkuntza indoeuroparretan	234
6.2.1	<i>Artikulua “tradiziozko” gramatikagintzan</i>	234
6.2.2	<i>Euskal artikulua. Ezaugarri tipologikoak</i>	236
6.3	Artikulua eta “artikulua”. Bost adibide	237
6.3.1	<i>Oihenart (1638/1656)</i>	237

6.3.2	<i>Larramendi (1729)</i>	241
6.3.3	<i>Astarloa (1883 [1805])</i>	245
6.3.4	<i>Zabala (1848)</i>	248
6.3.5	<i>Lardizabal (1856)</i>	252
6.4	Ondorioak	253
7	“ADITZ BAKARRAREN” TEORIA XIX. MENDEKO EUSKAL GRAMATIKAGINTZAN....	255
7.1	Sarrera	255
7.2	Euskal aditzaren sailkapenak XIX. mendea arte	256
7.3	Gramatika orokorra eta aditz bakarraren teoria	261
7.4	Humboldt	265
7.5	Darrigol (1827)	268
7.6	Abbadie (1836)	277
7.7	Chaho (1836)	281
7.8	Inchauspe (1858)	284
7.9	Bonaparte (1869, 1876, 1877)	288
7.10	Azkue (1891)	293
7.11	Arana-Goiri [ca. 1888]	299
7.12	Ondorioak	301
8	OBJEKTU-KOMUNZTADURA XIX ETA XX. MENDEETAKO EUSKAL GRAMATIKETAN	303
8.1	Sarrera	303
8.2	Astarloa (1883 [1805])	305
8.3	Aditz bakarraren teoria eta euskal aditzaren objektu-komunztadura .	310
8.3.1	<i>Darrigol (1827)</i>	310
8.3.2	<i>Chaho (1836)</i>	313
8.3.3	<i>Inchauspe (1858)</i>	314
8.3.4	<i>Bonaparte (1869, 1876, 1877)</i>	316
8.3.5	<i>Campión (1884)</i>	318
8.3.6	<i>Azkue (1891)</i>	319
8.4	Teoria pasibista	320
8.4.1	<i>Stempf (1890)</i>	322
8.4.2	<i>Schuchardt (1893, 1895, 1923)</i>	323
8.5	Tradiziozko teoria	325
8.5.1	<i>Ribáry (1877)</i>	326
8.5.2	<i>Azkue (1925)</i>	327
8.5.3	<i>Lafitte (1944)</i>	329
8.6	Aspektu-denborazko teoria	330
8.7	Ondorioak	332
9	ONDORIOAK	335
10	BIBLIOGRAFIA	345
INDEX NOMINUM	399	
TAULEN AURKIBIDEA	407	

Esker onez

Tesi-lan hau ezin izango nukeen burutu hainbat jenderen aholku, iruzkin, laguntza eta bultzada izan ez banitu. Nekez adieraz dezaket guztiei zor diedan esker ona eta ziur naiz hurrengo lerro hauek ez direla inola ere aski izango zorra kitatzeko.

Lehen tokia merezi du, eta ez zerrenda honetan bakarrik, tesi zuzendari izan dudan Beñat Oyharçabalek. Etengabe jaso ditut haren laguntza eta aholkua; eta, aurrekoa bezain garrantzitsua, une zailtan hain beharrezkoa izan dudan akuilu samurra.

Nire esker ona adierazi nahi diet hainbeste liburu eta artikulu lortzen lagundu didaten Koldo Mitxelena Liburutegiko langileei, bereziki Berta Ausín, Esperanza Iñurrieta eta Lourdes Saenz de Castillori.

Tesiaren kapituluak eta aurreko idatzaldiak egiteko Eusko Jaurlaritzak, CICYT-ek eta EHUK emandako ikerketa-proiektuen diru-laguntza izan dut. Bihoakie hemendik erakunde hauei ere nire esker ona.

Mila esker, orobat, kapituluaren aurreko idatzaldiak irakurri eta bere iruzkin eta oharrekin aberastu zituzten guztiei, eta ez nuke inor ahaztu nahi: Xabier Artiagoitia, Iñaki Camino, Agurtzane Elordui, María Luisa García Lekunberri, Joaquín Gorrochategui, Bernhard Hurch, Joseba A. Lakarra, Juan José Larrea, Lourdes Oñederra, Frans Plank, Pello Salaburu, Blanca Urgell eta Koldo Zuazo.

Kapitulu batzuen aurreko bertsioak zenbait ikastaro eta biltzarretan aurkeztutako hitzaldiei dagozkie. Nire eskerrik zintzoenak agerrarazi nahi dizkiet bertan entzule izan nituen guztiei.

Ez ditut aipatzeke utzi nahi Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko kideak, urte luze hauetan une oro eman didaten laguntzagatik eta beraiengan beti aurkitu dudan makulu sendoagatik.

Deustun zein Gasteizen Hizkuntzalaritza Mintegiak izandako bileretan asko ikasi dut; besteak beste, kritikak eta iruzkinak egiten eta jasotzen eta neure lana aberasteko baliatzen. Ezin ditut Mintegian parte hartu duten guztiak hemen aipatu; zerrenda luzeegia litzateke eta, gainera, nire oroimenak traizionatu egingo ninduke segurki.

“Euskal Filologiaren Hastapenak” eta, bereziki, “Euskal Filologiako IMA” eta “Euskal Hizkuntz Ideien Historia” irakasgaietan parte hartu duten ikasleei beren galderak, oharak eta zalantzak eskertu behar dizkiet, tesi honetako lerro asko zorrozteko balio izan baitidate.

Emilio Ridruejo irakasleari biziki eskertu nahi diot tesian lan argitaratuak erabil zitezkeela ohartarazi eta bide horri ekitea aholkatu zidalako. Hori gabe, ez dakit tesia inoiz amaituko nuen.

Hainbat adiskide izan ditut akuilu urteotan, eta hala ere adiskide izaten jarraitzen dute: Itziar Aduriz, Rafael Águila, Andrés Arteaga, Antonio Duplá, Agurtzane Elordui, Garbiñe Etxabe, Juan José Larrea, Lourdes Oñederra.

Azkenik, baina inondik ez apalenik, eskerrik berezienak hainbat eta hainbat arrazoiengatik amari eta aita zenari. Mila esker, Naza, lan honetan eman dudan denbora asko zuri kendu dizudalako eta, batez ere, eskerrik asko zure maitasunagatik.

Doktorego tesi hau 2006ko uztailaren 26an defendatu zen, EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetzan dagoen Areto Urdinean. Epaimahaia honako doktore hauek osatu zuten: Joseba Andoni Lakarra Andrinua (epaimahaiburu), Blanca Urgell Lázaro (idazkari), María Luisa Calero Vaquera (kide), José Jesús Gómez Asencio (kide) eta Emilio Ridruejo Alonso (kide). Tesiak bikain *cum laude* kalifikazioa lortu zuen aho batez. Nire esker ona adierazi nahi diet epaimahian parte hartu zutenei beren kritika, ohar eta iruzkin guztiz baliagarriengatik.

0 Sarrera

0.1 Aurkezpena

Doktorego tesi hau XIX. mendeko euskal gramatikagintzaren historiari buruzko zortzi ikerlanez osaturik dago (1-8 kapituluak). Euskal gramatikagintzaren historia oraino idatzi gabe dago. Konparazio baterako, hainbeste hutsune dituen euskalaritzaren historiaren barruan hiztegi-gintza zaharra askoz gehiago eta sakonago aztertu da; Joseba A. Lakarraren (1993) eta Blanca Urgellen (2000) tesiak eta Sarasolaren (1997b) katedrako txostena dira horren lekuko.

XIX. mendeko gramatikagintza hautatu dut, euskalaritzaren esparruan orduantxe hasten delako gramatika-lanen ekoizpen jarraitua; izan ere, aurreko 180 urteetan dozena bat gramatika-lanek aztertzen dute euskara, eta euren artean oso sakontasun eta zehaztasun maila desberdina nabaritzen dugu (ik. §0.6). Bestalde, mende horretako euskal gramatikagintzak interes berezia du, Europako hizkuntz eta filosofia ideiak nola eta noraino sartu ziren ikertzeko.

Beraz, honelako tesi-lan batek nahitaez ikuspuntu historikoa izan behar du. Horregatik, gramatika-testuak ulertu eta interpretatu ditut, inondik ere ez epaitu. Halaber, aztertu ditudan autoreen testuetatik ez dut inongo ondoriorik atera nahi izan

hizkuntzalaritzaren edota euskararen orainari eta geroari buruz. Bai, ordea, ahalegindu naiz autoreok hartu zituzten jarrerak zergatik hartu zituzten ulertzen, euren helburuak agerrarazten, euren lanen edukiak azaltzen eta euren iturriak eta eraginak ikertzen.

Tesi-lan hau osatzen duten zortzi kapituluek ez dute XIX. mendeko euskal gramatikagintzaren historia osoa biltzen; aitzitik, alde batetik, XIX. mendeko zenbait euskalariren lanak aztertzen dira (1-5 kapituluak) eta, bestetik, gramatika-gai batzuek euskal tradizioan zehar, batik bat XIX. mendean zehar, izan zituzten analisiak aurkezten dira (6-8 kapituluak). Kapitulu guztiak aurrez argitaratutako lanetan oinarritzen dira; halere, guztiak zuzendu, osatu eta eguneratu dira, erdaraz argitaratu zirenak euskaratu dira eta bat edo beste —bereziki hirugarrena, Darrigoli buruzkoa— nabarmenki luzatu da. Nolanahi ere den, kapitulu bakoitzaren lehen oin-oharrak haren iturriak zehazten ditu, argigarri gisa.

0.2 Helburua

Tesi honetan XIX. mendeko euskal gramatikari buruzko ideien historia aztertuko dut. Ez dut mende horretako gramatikagintzaren historia osoa hartzeko asmorik; orduko gramatikari eta gramatika-gai batzuen aurkezpena eta analisisa egitea da ene xede nagusia.

Aztertuko dudan garaia 90 bat urtez luzatzen da, 1803tik 1891ra bitarteko epea, alegia. Jakina, aukeratu ditudan denbora mugak beste edozein bezain arbitrarioak dira; alabaina, hautapena justifikatzeko balio badu, euskal gramatikagintzaren historian berebiziko garrantzia duten bi autore hartu ditut abiapuntu eta helmuga,

hurrenez hurren: Pablo Pedro Astarloa (1752-1806) eta Resurrección M^a Azkue (1864-1951).¹ Astarloa XVIII. mendeko tradizio filosofikoarekin lotzen da, eta hasiera eman zion Euskal Herrian XIX. mendeko hizkuntz ideietan gramatika orokor eta filosofikoaren tradizioari, mendeko joera teoriko nagusia. Horregatik, Astarloak argitaratutako lehen liburua, *Apología de la lengua bascongada* (1803), hartu dut *terminus a quo* gisa.

Beste alde batetik, Azkueren *Euskal Izkindea* (1891) da tesi honen *terminus ad quem*. Izan ere, Azkue gaztearen gramatika-liburu honekin euskararen azterketan metodo *a priori*-zkoak eta logikazaleak erabiltzeko joera hasi zen, XX. mendeko lehen hamarkadetan Euskal Herriko gramatikarien artean nagusituko zena (cf. Alberdi 1989b). Eskuarki autore hauek euskara ustezko lehengo egoerara bihurtzen saiatu ziren (hor daude aditz trinkoen paradigmak “berreskuratze” ahaleginak, esaterako). Talde honen fruitu nabarmenena Mitxelenak *hiperbizkaiera* deitu zuena izan zen.² Lakak (1986, 1987a, 1987b, 1987c) erakutsi du hiperbizkaieraren iturburua Azkueren *Euskal Izkindean* (1891) eta bertan proposatu eta erabilitako aditz-sistema berrian dagoela, hain zuzen ere. Halaber, Lakak frogatu du *Izkindearen* iturri nagusia Astarloaren lana izan zela; zehazkiago, Astarloaren *Diskurtso*

¹ Oso noizbehinka bada ere, aintzat hartuko ditut tesiari ezarri dizkiodan denbora-mugetatik kanpoko autoreak eta lanak ere; batik bat, lehenagokoak 6. kapituluari eta geroagokoak 8.ean.

² Honela definitu zuen Mitxelenak hiperbizkaiera: “algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida en que tiene menos coparticipes o, en otras palabras, en la medida en que no es vasco común” (Mitxelena 1981: 300).

filosofikoen irakurketa itsu bat, erregulartasun eta logikarako gehiegizko atxikimendua sorrarazi zuena. Arana-Goirik Azkueren proposamena jaso zuen eta aranatarren eskolakoek bereziki —baina ez soilik— onartu, erabili eta hedatu egin zuten. Areago, aranatar zenbait (Arriandiaga, Etxaide edo Soloeta-Dima, kasu) bizkaierarekiko joera garbizalea euskara osora zabaltzen saiatu ziren.

Paradoxikoa badirudi ere, hautatu ditudan hasiera eta amaiera Hego Euskal Herriko autoreak dira, baina XIX. mendeko gramatika-lan teoriko gehienak, tesian zehar agertuko denez, Ipar Euskal Herriko eta atzerriko autoreek egin zituzten.

Zergatik XIX. mendeko euskal gramatikagintza? Esan daiteke euskal gramatikagintzak XIX. mendean lortu zituela nolabaiteko jarraikortasuna eta hedakuntza. Egia da, izan, argitaratutako lehen euskal gramatika-liburua Larramendiren *El imposible vencido* (1729) izan zela, baina aintzat hartu behar da ere XVIII. mendean beste euskal gramatika bat bakarrik argitaratu zela, Martin Harrietena (1741). Bestalde, saio antzuak ere izan ziren, hala nola Oyangurenena, eta argitaratu gabe geratu ziren Etxeberri Sarakoaren eta Urteren lanak, kasu (ik. Oyharçabal 1989 eta hemengo §0.6). Hala ere, eta hauxe azpimarratu nahi nuke, XVII. eta XVIII. mendeetan agertutako gramatika-lanak berak ere XIX. mende hasieran hasi ziren entzutea eta eragina lortzen, baita lehenbiziko kritikak jasotzen ere. Bada, Oihenarten gramatika analisi batzuk Humboldttek aipatu eta berriz ezagutarazi zituen —eta beronen bitartez, ziurrenik, van Eysek jaso (ik., esate baterako, §5.4.3)—; Astarloak ere Oihenart aipatzen du haren iturrien artean (ik. §1.3). Hervásek bere hizkuntz katalogoan Larramendiren gramatika izan zuen iturri nagusietako bat eta, honela, Europan ezagutarazi zuen; Añibarrok eta Lardizabalek, besteak beste,

Larramendiren *Artea* erruz erabili zuten euren gramatika-lanak egiteko (inork berdin egin zuen, baina iturria aitortu gabe; ik. §3.2.3); Astarloak eta Humboldték Larramendiren latinarekiko atxikimendua kritikatu zuten. Harriet, bestalde, gutxiagotan aipatzen da, eta sarri haren proposamen batzuk irrigarri jartzeko.

Bestalde, euskal gramatikagintzari dagokionez, XIX. mendea mende “frantsesa”³ da. Batetik, Frantziako gramatika orokor eta filosofikoaren eragina mende honetan gauzatzen delako gure esparruan eta, bestetik, frantses hezkuntzako autoreen presentzia oso nabarmena delako garaiko bibliografian: Iparraldekoen artean Darrigol, Abbadie, Chaho, Archu, Gèze, Inchauspe, Duvoisin, Fabre eta Ithurry aipa daitezke, zerrenda ere inola agortu gabe, eta frantsesen⁴ artean Lécuse, Bonaparte, Charencey, Luchaire edo Vinson.

0.3 Iturriak

Ikerketa historiografiko honen iturri nagusiak XIX. mendeko gramatika-lan teorikoak dira, nahiz eta ez ditudan erabat albora utzi lan “praktikoagoak”, hala nola euskararen ikasliburuak (esaterako, Zabala 1848) eta gramatika deskriptiboak (Camió 1884, kasu).

XIX. mendean euskal gramatikagintzan egundoko gorakada izan zen. Baina lan gehienak euskararen irakasliburu eta gramatika didaktikoak izan ziren, XVII.

³ Beñat Oyharçabali (a.a.) hartu diot deitura.

⁴ Eta frantsesten artean: zehazkiago, van Eysi buruz ari naiz, holandarra izanik ere, bere lan gehienak frantsesez idatzi baitzituen.

mendean abiatu zen tradizioari jarraituz. Hainbat eta hainbat dira, zein luze zein labur, Euskal Herrian edo atzerrian argitaraturik, euskararen xehetasun, arau, paradigma, hiztegiño eta adibideak eskaintzen dituzten lanak, hizkuntzak ikasten laguntzea edota euskararen deskribapen soila ematea helburu dutenak. Zerrenda inola ere agortzeko asmorik gabe, hona adibide batzuk: Añibarro [ca. 1804], Astigarraga (1825), Lécuse (1826), Hiriart (1840), Iturriaga (1841), Archu (1848, 1852), Zabala (1848), Jauregui (1850), Lardizabal (1856), Inchauspe (1858), Fabre (1862, 1873), Eguren (1867, 1876), Gèze (1873), Campi3n (1884), Ithurry (1895), Huici (1899), etab. Gramatika-lan didaktiko edota deskriptibo hauek, oro har, ene ikerketatik kanpo utzi ditut, noiz edo behin sartu-irten batzuk egin baditut ere (ik. batik bat §§6.3.4, 6.3.5, 7.8, 8.3.3, 8.3.5 eta 8.5). Alta, XIX. mendeko eztabaida eta ekarpen teorikoetan zeresan gutxi izan zuten eta, kasurik hoberenean, lan teorikoagoek esana errepikatzerara edo laburtzerara mugatu ziren, eskola-liburuetan ohi den bezala. Aztergai interesgarria litzateke, inondik ere, gramatika-lan teorikoagoen analisisiek euskararen eskuliburuetan zenbateko eta zer-nolako oihartzuna izan zuten miaztea.

Bestalde, “teoriko”tzat hartu ditudan gramatikariak honako hauek dira nagusiki, hurrenkera kronologikoan azaldurik: Astarloa, Humboldt, Darrigol, Abbadie, Chaho, Bonaparte, van Eys, Vinson, Azkue eta Schuchardt, azken hau gutxixeago aztertu badut ere. Autore hauen lanetan, euskararen deskribapen saioak ez ezik, zenbait joera filosofikoren zantzuak edota hizkuntzalaritza orokorrarekiko arduraren metodologikoa ere aurki ditzakegu.

0.4 Metodoa

Alexandre Koyré zientziaren historialariak idatzi zuenez, “gehiegizko metodologia arriskutsua da” (*apud* Lindberg 1992 [2002: 450]). Hala ere, beharrezko deritzot tesilan hau zein bidetatik mugitu den eta zein iltzeri eutsi dion laburki bederen azaltzeari.⁵

Historiaz ari garelarik, ez dago azpimarratu beharrik aurreko hizkuntz kontzepzioen behin eta betiko berreraiketa edo interpretazio bakar bat ez dagoela. Alde batetik, gauza ezaguna da historiaren berezko alderdi subjektiboa. Bestetik, inork pentsatuko balu hizkuntzalaritzaren historia arrisku horretatik at burutu daitekeela, aintzat har beza hizkuntzalaritzaren historialariak hizkuntzalari ere izan ohi direla —izan beharko luketela (cf. Malkiel & Langdon 1969: 432)— eta, ildo horretatik, zeinek hizkuntzalaritzari buruz bere interes, metodo eta helburuak dituela.

Honek guztiak ikerketa historiografikoak ezinbestean baldintzatzen ditu: zein gai hautatu eta zein alboratu, zeinetan enfasi berezia jarri, etab. Nolanahi ere den, hizkuntzalaritzaren historiaren erabilera irristakor biri ihes egiten saiatu beharra dago beti, eta halaxe egiten saiatu naiz ikerlan honetan: Alde batetik, iraganeko ideia, kontzeptu eta teoriak gaurkoei arbaso ospetsuak bilatzeko erabiltzea.⁶ Bestetik, guztiz kontrakoa dena, gaurko teoriaren bati ospea kentzen saiatzeko erabiltzea. Izan

⁵ Atal honetan Gómez (1997b) lanaz baliatu naiz.

⁶ Jokabide baztergarri honen adibide ezagunena, dudarik gabe, Chomskyren *Cartesian Linguistics* (1966) liburua dugu; izan ere, luze kritikatu zaio Chomskyri bere ikuspegi arrazionalista eta sortzaileak justifikatzeko aitzindari nobleak bilatzea beste helbururik ez zuela izan.

ere, lan historiografikoa behar bezala egingo badugu, iragana izan zen bezala jasotzen ahalegindu behar dugu, ahal den neurrian bederen. Iragana orainaren moldeen arabera begiratzea iragana desitxuratzeko bide segurua da.

Subjektibotasuna dagoela ohartzeak ez du, dena dela, berau desagerrarazten, jakina. Besterik gabe etsi eta onar dezakegu edo, zentzuzkoagoa dirudiena, historia guztien alderdi subjektiboa aintzat harturik ere, behintzat historialariari datuekiko zintzotasun, zuhurtasun eta koherentzia osoz joka dezala eska. Hymes-ek dioenez (1974: 20), irizpide honexek bereiziko lituzke, azken buruan, historialaria eta nobelagilea.

Hizkuntzalaritzaren historiari buruzko ikerketak XVIII. mende bukaeran hasi ziren —zientzia gehienek historiak bezala— eta XIX. mendean, bereziki hizkuntzalaritza historikoaren argira, jarraitu zuten.⁷ Hala eta guztiz ere, arlo honi buruzko interesa XX. mendeko hirurogeietako hamarkadan biziagotu zen.⁸ Bizkorraldiaren bi eragile garrantzitsu aipatu nahi nituzke: batetik, Kuhn-en (1962) zientziaren historiari buruzko ikuspegi berritzailea —bereziki “paradigma” eta “iraultza zientifikoa” kontzeptuak sartu ziren hizkuntzalaritzaren historiaren esparruan—; bestetik, Chomskyren (1966) liburu iradokigarria eta honek sorrarazi zuen eztabaida sutua.⁹

⁷ Hizkuntzalaritzaren historiaren lehen urteotako emaitzen zerrenda dakarte Robins-ek (1978a), Swiggers-ek (1980a: 108) eta Koerner-ek (1994: 1.581-1.682).

⁸ Hizkuntzalaritzaren historiografiaren sorreraz, ik., besteak beste, Simone (1975), Koerner (1978b), Auroux (1980) eta Swiggers (1980b).

⁹ Liburuaren iruzkin eta kritiken zerrenda luze baterako, ik. Koerner & Tajima (1986: 24-27). Hala ere, Swiggers-ek (1980a: 107) iradoki zuenez, Chomskyk gatazka guztiak galdu bide zituen, baina

Halaber, hizkuntzalaritzaren historiografiaren bizkorraldiak bost ondorio zuzen izan zituen, besteak beste:

- a. Aldizkari espezializatuen agerpena: *Historiographia Linguistica* (1973an sortua), *Histoire-Epistémologie-Langage* (1979an) eta, berrikiago, *Beiträge zur Geschichte der Sprachwissenschaft* (1991n).
- b. Eskuliburu ugaltzea —Robins (1967) delarik hasierako erakusgarri nabariena eta Auroux *et al.* (2000-2006) orain arteko gailurra— eta liburu-bilduma bereziak agertzea; esate baterako, John Benjamins argitaletxeak kaleratutako “Studies in the History of Language Sciences” —honezkero ehun liburutik gora atera dituen— eta Nodus argitaletxearen “Materialien zur Geschichte der Sprachwissenschaft und der Semiotik”, “The Henry Sweet Society Studies in the History of Linguistics” eta beste zenbait.
- c. Hizkuntzalaritzaren historiaz jarduteko elkarte zientifikoek sorrera: Frantziako *Société d’histoire et d’épistémologie des sciences du langage* (SHESL), 1978an sortua; Britainia Handiko *Henry Sweet Society for the History of Linguistic Ideas*, 1984an sortua; *North American Association for the History of the Language Sciences* (NAAHoLS), 1987an sortua; Alemaniako *Studienkreis ‘Geschichte der Sprachwissenschaft’* (SGdS), 1989an sortua; *Sociedad Española de Historiografía Lingüística* (SEHL), 1995ean sortua; Herbehereetako *Werkerband ‘Geschiedenis van de Taalkunde’*, eta *Asociación*

bizkitartean gerra irabazi du eta honezkero “Cartesian Linguistics” terminoa hizkuntzalaritzaren historiografian sartu eta onartu egin da. Hizkuntzalaritzaren historian “iraultza” kontzeptua aplikatu daitekeen, eta zein neurritan, eztabaidari buruz, ik., kasurako, Joseph (1995) eta Koerner (1999a).

de Jóvenes Investigadores de Historiografía e Historia de la Lengua Española (AJIHLE), 1999an sortua.

- d. Hirurogeietako hamarkadan bertan, 1964 eta 1968 urteetan zehazkiago, hizkuntzalaritzaren historiari buruzko lehen bi nazioarteko biltzarrak egin ziren; biltzar haietako lanak Hymes (1974) liburuan bildu ziren.
- e. Arloaren metodologiari eta epistemologiari buruzko interesa orduantxe pizten da; hurbilketa eta proposamen metodologiko berrien gorabeherak Koerner-ek laburbildu ditu zenbait artikulutan (ik., esaterako, Koerner 1994).

Hizkuntzalaritzaren historiaren helburu nagusia hizkuntzalaritzako ezagutza nola erdietsi, formulatu eta aditzera eman den, eta horrek guztiak denboran zehar nolako bilakaera izan duen, deskribatzea eta azaltzea da (Swiggers 1990: 21). Horregatik, hizkuntzalaritzaren historialariak egile, lan eta gertaeren hurrenkera kronologikoa aurkezteari eta historia aurrerapen erregular eta etengabe hutsa bailitzan aztertzeari —*Progress-by-Accumulation* delako ereduari alegia— ihes egin behar dio. Izan ere, zientzia baten historia ezin da giza eta gizarte erakundeen historia —nazio baten, literatur aro baten edo hizkuntza baten historia, kasu— bezala egin. Giza eta gizarte erakundeen historiak emaitzen edo gertaeren berreraiketa eta euren hurrenkera biltzen ditu; zientzia baten historiak, aldiz, emaitza horiek erdiesteko prozedura kognitiboak ere —eta batez ere— nabarmendu behar ditu (Simone 1975: 355). Beraz, sortzen den lehenbiziko arazoa hizkuntzalaritzaren historiarako eredu baliagarriak bilatzea da, nolabaiteko “egokitzapen esplikatzailea” lortzeko balio duten ereduak bilatzea.

Laurogeietako hamarkadatik aurrera hizkuntzalaritzaren historiaren metodologiari buruzko eztabaida handia izan da, hainbat liburu, artikulua eta biltzarretan gauzatu

dena, hala nola Grotzsch (1982), Schmitter (1982, 1987) eta Schmitter & van der Wal (1998). Hizkuntzalaritzaren historiografiaren metodologiaz aztertu eta hausnartu duten egileen artean, berebiziko lekua merezi dute Koerner eta Swiggers-ek.¹⁰ Oraindik ez dago arloko ikerlari guztiek onarturiko metodo bakarra; badira, haatik, zabalkunde handia lortu duten zenbait kontzeptu eta joera erabilgarri.

Esate baterako, autore batzuek —Brekle (1986) eta Swiggers (1990) aipa daitezke, besteak beste— diziplina honetako bi hurbilketa-mota nagusi bereizi dituzte: edukien edo teorien berreraiketa hutsaz arduratzen dena (*content-oriented*) eta eduki-teoriok gizarte eta kultur testuinguruan kokatzen saiatzen dena (*context-oriented*). Halarik ere, ez dirudi bi hurbilketa hauek kontrajarriak daudenik. Egia da batean eta bestean aztergaia era desberdinez begiratzen dela, baita neurri batean metodologia desberdina erabiltzen dutela ere. Aldiz, edukiak eta testuinguruak beti ditugu nolabait ere hertsiki loturik, biak batera gertatzen baitira (nahiz eta gure oharmenean aski bereizirik ager daitezkeen).¹¹ Hortaz, hizkuntzalaritzaren

¹⁰ Zerrenda inola ere agortzeko asmorik gabe, ik. Koerner (1982, 1987a, 1987b, 1989b, 1990, 1993, 1994, 1999a, 199b, 1999d, 2003), Swiggers (1980a, 1980b, 1981a, 1983, 1984a, 1990, 1991) eta Swiggers, Desmet & Jooen (1998).

¹¹ Hizkuntzaren azterketa diakronikoarekiko paralelismo bat bila daiteke: gramatika historikoa (hizkuntzaren “edukiez” arduratzen dena) eta hizkuntzaren historia (hizkuntzaren “testuinguruaz” arduratzen dena). Nolanahi ere den, hizkuntzalaritzaren historiaren arazoa konplexuagoa dateke, hirugarren faktore bat, gogoetagaia den hizkuntzaren edo hizkuntzen barne bilakaera bera ere aintzat hartu behar baitugu.

historiazko jarduerari modu batez baino gehiagoz hel dakioke eta hauxe da diziplinari sortzen zaion lehen ardura.¹²

Tesi-lan honen lehen partean (1-5. kapituluak) zenbait euskalari zaharren lanen oinarritzko azterketa eta deskribapena izan dut eginkizun. Autore baten lanaren deskribapena eta azterketa hiru ildotatik bideratu daitezke (Wells 1979: 26): haren helburuak, erabilitako metodoak eta aintzat hartzen dituen iritziak. Hiru faktore hauek, espazioaren hiru dimentsioek legez, nolabaiteko izaera berezia dute eta zein bere aldetik ere azter daiteke; honela jokatzuz gero, faktore bakoitzean euskalarien arteko adostasunak eta desadostasunak aiseago zehaztu ahal dira. Azken buruan, lortu nahi izan dudana testuaren interpretazio osoa izan da: historikoa, kritikoa eta, zenbaitetan, are filologikoa ere (interpretazioa ez baita, jakina, iritzi hutsetik idokitzen). Helburu hori lortzeko eta kapitulu hauek prestatzeko —ez nahitaez aurkezteko—, oso kontuan izan dut Koerner-ek (1994: 1.575-1.576) proposatu zuen honako lan-egitaraua:

- a. Lehenbizi, aztergai den lana idatzi zen garaiko giro intelektuala (*climate of opinion*) zehazki ezagutzea. Izan ere, hizkuntz ideiak ez dira sekula sortu garaiko beste joera intelektualetatik erabat bereizirik. Zenbaitetan, egoera sozio-ekonomikoaren edota politikoaren eragina ere aintzat hartu beharko da. Azken finean, lehenengo urrats honen xedea lana testuinguruan kokatzea da.

¹² Hizkuntzalaritzaren historiak bestelako hurbilketa baliagarriak garatu ditu, jakina. Hurbilketa hauek, gainera, ez dira elkarren baztergarri; bat baino gehiago konbina daitezke ikerlan batean. Adibide batzuen aurkezpenerako, ik. Koerner (1974, 1978a, 1982, 1994), Robins (1978) eta Swiggers

- b. Bigarren urrats batean, historialariaren iritzien eta gaurko teorien abstrakzioa egin beharko litzateke; aztertzen ari garen lanean azaltzen diren helburu, metodo eta teoriak, baita erabiltzen den terminologia ere, barnetik ulertzen eta azaltzen saiatu behar genuke, gaurko hizkuntzalaritzari batere erreferentziarik egin gabe.
- c. Lan hori burutu ondoren baizik ezin diezaiokegu ekin aztertzen ari garen lana oraingo hizkuntzalaritzara hurbiltzeari, egokitzeari nolabait esateko. Horrela, laneko teoriak eta hiztegi teknikoa gaurko adierazpideen bitartez azaltzen saia gaitzke eta konparazioak sartu, baina egiten ari garen hurbilketa teoriko eta terminologikoaz uneoro irakurleari ohartaraziz.

Ene iritziz, hizkuntzalaritzaren historiografiaren ikuspegi interesgarri eta aberasgarrienera bat hizkuntzalaritzaren historia problemen —eta euren konponbideen—, tekniken eta ereduaren historiatzat hartzen duena da; betiere zientzi tradizioekin, gizarte eta kultur testuinguruekin eta gizabanakoen erdiespenekin lotzen saiatzen den heinean. Ikerlana aztergai zehatz baten inguruan antolatzea —historian zehar nolako aldaketak jasan dituen aztertuz— da proposatu den aukera bat: kontzeptu baten definizioak, perpaus-atalen sailkapenak, gramatika-analisirako irizpideak... dira hurbilketa honetako helburu. Ziurrenik hurbilketa interesgarri eta emankorrenetarikoa dugu euskalaritzaren historiografiaren hastapen hauetan eta halaxe agerrarazi nahi izan dut tesi-lan honen bigarren partean (6-8. kapituluak).

(1990); ik. orobat, euskarazko laburpen baterako, Gómez (1997b).

Horretarako, testu zaharrak berrirakurri baino zerbait gehiago egiten saiatu naiz. Ez dut aski izan datuak aurkeztu eta deskribatzea, gaurko diskurtso baten bitartez berridatzi, laburtu eta egungo irakurleen eskura jarriz, lan hori berez baliagarri gerta badaiteke ere. Batik bat testuak interpretatzen saiatu naiz, testuak berak eta euren testuingurua —bereziki Europako gramatika tradizioari dagokiona— aintzat hartuz; euskalari zaharrek erabili zituzten terminoek zer esan nahi zuten (hots, euren lanaren barruan, euren gramatika ideien barruan zer esan nahi zuten) argitu nahi izan dut; zenbaitetan, azterketa gramatikalak testuinguru filosofikoan kokatzea ere izan dut helburu. Funtsean, aztertu ditudan testuek erakutsitako teoria gramatikal eta linguistikoak azaleratzen saiatu naiz. Ez diot, ordea, leku berezirik eskaini testuen garaiko gizarte eta kultur egoerari; esan nahi baitut ez dudala tesian zehar orduko giro intelektuala (*climate of opinion*) aurkeztu, nahiz eta testuak eta autoreak aztertzerakoan oso kontuan izan dudana, lehentxeago esan bezala.

Metodoari buruzko gogoeta hauek bi oharpenekin bukatu nahi nituzke. Batetik, aztergaiak hautatzeko orduan, joera arrunta da gaurko euskalaritzan interesatzen zaizkigunak euskalari zaharrek nola ikusi zituzten begiratzea. Zilegi da, jakina, eta erakargarri; baina ez dugu pentsatu behar gai horiek berak nahitaez haien intereseko gai nagusiak ere izan zirenik. Beste alde batetik, hizkuntz ideien egokitasuna neurtzeko modurik zuzenena beren garaiko galderei nola erantzun zieten ebaluatzea da. Beraz, aspaldiko euskalari baten lana ezin dugu epaitu gaurko euskalaritzarekin erkatuz; aitzitik, aurrekoekin eta garaikideekin erkatu beharko genuke. Zituzten helburuak, eta ez gureak, ondo bete zituzten neurtu behar dugu.

0.5 Euskal gramatikagintzaren historiografiaz

Euskalaritzaren historiografia aski alor berria da;¹³ bereziki azken hogeitun urteotan landu da modu jarraian eta helburu zehatz bat lortzeko asmoz: euskarari buruzko hizkuntz ideia zaharrak ulertzea eta berreraikitzea, testuak behar bezala interpretatuz eta euren testuingurua kokatuz. Horretarako, hizkuntzalaritzaren historiografiak landu dituen metodoak eta ikuspegiak erabili ditu (horietako batzuk aurreko atalean azaldu ditut). Euskalari zaharrei buruz lehenago idatzitako lan bakanek jite bio-bibliografikoa izan zuten, gehienbat.¹⁴ Ordea, laurogeietako hamarkadan liburu eta artikulu multzo aski handia kaleratu zen eta, garrantzitsuagoa dena, euskalaritzaren historiografiaren ereduak zeharo aldatu ziren, zenbait euskalariren lanak ikuspuntu berri batetik aztertu eta atzerriko hizkuntz tradizioak kontuan hartzen hasi baitziren.

Ene irudiko, euskalaritzaren historiografiaren bultzada markatu zuen gertaera nagusia laurogeietako hamarkadaren erdian kausitzen dugu: Larramendiren lanari buruzko ikuspegiaren aldaketa sakona, hain zuzen ere (cf. 182. oin-oharrean aipaturiko lanak). Zinez uste dut harrezkero euskalaritzaren historiari buruzko ikerketek norabide berri bat hartu dutela. Bultzada honen erakusgarri deritzet, orobat, handik urte gutxitara UPV/EHUren Donostiako Uda Ikastaroen barruan antolatu

¹³ Atal honetan Gómez (1997a) erabili dut.

¹⁴ XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako lan bio-bibliografikoei dagokienez, ik., besteak beste, Vinson (1881, 1893), Pouvreau eta Urteri buruz hurrenez hurren; Villabaso (1887), Astarloari buruz; Dodgson (1898, 1901), Mikoletaz lehena eta Añibarro eta Zabalaz ere bigarrena; Lacombe (1907, 1908a, b, 1914-1917, 1918), Bonaparte printzeaz lehena eta van Eysi buruz hurrenak; Daranatz (1909), Astarloa, Zamakola eta Erroz, eta Urquijo (1911, 1920, 1927), orokorra lehena, Schuchardti

ziren bi ikastaro monografikoei: “Euskalaritza XVIII eta XIX. mendeetan” (1988an) eta “Euskalaritza XX. mendean” (1989an), biak Joseba A. Lakarrak zuzenduak. Bestalde, artean aurkeztu ziren lan gehienak *ASJU* aldizkarian argitaratu ziren eta geroago Gómez eta Lakarrak (1992) bildu zituzten, beste zenbait artikuluz zaharrago eta berriagorekin batera.

Goraxeago aipatu lan bio-bibliografikoen aldean, azken hogeitun urteotan zenbait euskalariren lanak sakonago aztertu dira. Aipa ditzadan hemen, zerrenda inondik ere ez agortu nahian, Pozari buruzko Juaristiren lanak (Juaristi 1991), Oihenarti buruzko *Asociación de Jóvenes Investigadores de Historiografía e Historia de la Lengua Española* ugaritxoak —Euskaltzaindiaren XII. biltzarrean aurkeztutako zenbait lan (Euskaltzaindia 1994), bereziki Oyharçabal (1994)—,¹⁵ Pouvreau (Lakarra 1995; Kerejeta 1997), Urte (Urkizu 1989; Lakarra 1994b), Larramendi (Lakarra 1985a, 1985b, 1992; Sarasola 1986; Gómez 1991; Urgell 2000), Martin Harriet (Lakarra 1994a), Astarloa (Laka 1989; Altzibar 1997; Gómez 1999, 2002c, 2004), Humboldt (Gómez 1996; El Zarka 2000, 2002; Vollmann 2000, 2002; Hurch 2003a, 2003b), Abbadie (Oyharçabal 1998), Chaho (Urkizu 1991a), Bonaparte eta ingurukoak (Granja Pascual 1986; Gómez 1989, 2002b; Sarasola 1989; Suárez 2000), edo Azkue gaztea eta Arana-Goirirekikoak (Laka 1986, 1987a). Halaber, euskalarien arteko konparaketa-lan batzuk burutu dira, Oihenart eta Larramendiren gramatika-lanen artekoak, esaterako (Oyharçabal 1993), baita zenbait euskalariren lanak Europako

buruz bigarrena eta Vinsonez azkena.

¹⁵ Saroihandy (1923) ahaztu gabe, askoz zaharragoa izanik ere, Oihenarten gramatika-lanaren balioaz

Mendebaldeko hizkuntz tradizioaren testuinguruan kokatzen saiatu ere: Larramendiren aurreko hiztegiak (Lakarra 1993), Larramendirena berarena (Urgell 2000) edo Astarloaren teoriaren oinarriak (Gómez 1999, 2004).

Nolanahi ere den, aurreko zerrenda —osoa ez izanagatik ere— kontuz aztertuz gero, erraz ohar gaitezke euskalaritzaren alorren artean desoreka garbia dagoela. Beharbada aurreko hamarkadetan arreta handiagoa lortu zuten euskal apologisten lanak, Tovarrek (1980) aski ongi bildu zituenak,¹⁶ gutxixeago ikertu dira azken urteotan (Zubiaur 1990 salbuespen nagusia izanik). Eta, ezbairik gabe, euskal hiztegiak zaharra askoz gehiago eta sakonkiago aztertu da, gramatikakintza zaharra baino. Hala, adibidez, doktorego tesi batzuek hiztegi zaharren edizio eta azterketa izan dute helburu: Urkizu (1989), Lakarra (1993) eta Urgell (2000). Orobat, euskal hiztegiak zaharrena historia ederki laburtua aurki dezakegu (Sarasola 1997b; Urgell 1997, 2003).

Aitzitik, euskal gramatikakintzaren historiografiak ez du inola ere halako mailarik lortu. Honi loturik, gramatika-testu zaharren edizio gehienak aspaldi argitaratu ziren¹⁷ —hainbatetan huts ugari izanik edota testu ez osoak emanik— eta berrikiago

ohartarazi zuen lehena izan zelako.

¹⁶ Ik., hala ere, Mitxelenaren iruzkina (Mitxelena 1980).

¹⁷ Cf., edizio zaharrena artean, Sampere y Miquel (1880), Astarloa (1883), Dodgson (1897), Webster (1900), Urquijo (1907), Humboldt (1933-1934) eta Garate (1933, 1935); gerra ondoko edizioen artean, honako hauek nabarmendu daitezke: Garate (1961a), Villasante (1970), Urkizu (1971), Kintana (1972) eta Satrustegi (1977).

agertuetarik gehienak edizio faksimileak ditugu.¹⁸ Azken hamarkadetan ondu diren edizioei bagagozkie, Lakarrarenak (1987, 1997 eta 1999) dira zainduenetakoak, nahiz eta ediziozileak interes handiagoa duen Lécuse-ren eta Voltaire-ren hiztegiez gramatikez baino. Bestalde, Grazeko Unibertsitatean Bernhard Hurchek zuzendutako Humboldt Project-en asmoa da Humboldték euskarari buruz idatzi zituen lan guztiak argitaratzea. Haatik, oraingoz eman dituzten argitalpen bakarrak bi dira: Bi eskuizkriburen edizio paleografiko elektronikoa (Humboldt 2001) eta Humboldtén paperen artean zeuden beste egile batzuen lanen edizioa (Hurch 2002).

0.6 XIX. mendea arteko euskal gramatikagintzaren historia laburra

Euskal gramatikagintzak ez du corpus zabalegirik, inguruko tradizio handienekin (espainola, frantsesa, ingelesa, etab.) konparatuz gero behinik behin. Baina Europako esparruan ez da inondik ere makalenetakoa, ezta berrienetakoa ere; kontuan har bedi hainbat eta hainbat hizkuntzak ez zutela gramatika idatzirik izan XIX. mendea iritsi arte (norvegiera eta bulgariera, kasu).¹⁹ Euskara aintzat hartzen duen lehen gramatika-lan ezaguna²⁰ Voltaire-ren *L'Interpret ou Traduction du français*

¹⁸ Nolanahi ere den, edizio faksimileek leku berezia izan dute euskal gramatikagintza zaharraren azterketetan, askotan eta ezinbestean gaur ere testu zahar batzuk irakurtzeko iturri behinenak direlako. Hala gertatu da, esate baterako, 70 eta 80etako hamarkadetan Hordagok argitaratu zituen faksimileekin (ik. Larramendi 1729, Inchauspe 1858, Archu 1852, Gèze 1873, Vinson 1892b eta Ithurry 1895) edo beste argitaletxe batzuen eskutik kaleratuekin (ik., esaterako, Astarloa 1803, Darrigol 1827, Bonaparte 1869 eta Campión 1884).

¹⁹ Europako gramatikagintza tradizioen agerpenaz, ik. Auroux-ek (1992: 74-75) dakarren taula.

²⁰ Larramendiren aurreko gramatika-lanei buruz, ik. bereziki Oyharçabal (1989). Autore honek hiru ikuspegi bereizten ditu euskara aztertu zuten lehen lanetan: ikuspegi historiko edota apologetikoa

espagnol & basque hizkuntz eskuliburuan dugu (ca. 1620).²¹ Lehen edizio moderno osoa Lakarrak ondu zuen (1997, 1999), gehienbat Voltoireren interes lexikografikoak eta euskararen historiarekikoak hartaraturik. Hala ere, haren hitzaurrean Voltoireren gramatikaren laburpena eskaintzen digu (Lakarra 1997: 11-12). Lakarrak dioenez, gramatika erabat lexikoa da; berrogei orrialdetan, eta frantsesetik abiatuak, Voltoirek zenbait kategoria eta azpikategoriaren hitz zerrenda besterik ez du ematen: lehenik, adberbio, preposizio eta juntagailuak, gero izenordainak eta, horien ondoren, aditz denbora eta moduak; azkenean, singular eta pluralaren adibideak ematen ditu, denak absolutiboan.²² Hortaz, Voltoirek ez du deklinabideaz deus esaten, ez bada zeharka eta inolako loturarik gabe, frantsesezko preposizio eta izenordainen itzulpenek euskarazko deklinabide atzizkiak agertzea eskatzen duten neurrian.

Askoz garrantzitsuagoak ditugu Arnaud Oihenartek *Notitia utriusque Vasconiae* historia-liburuan euskal gramatika aurkezteko idatzi zituen kapituluak, lehen liburuko XI. eta bereziki XIV.a. *Notitia* lehenik 1638an argitaratu zen eta bigarrenik, gehiketa eta zuzenketa garrantzitsuak sartu ondoren, 1656an.²³ Liburua

zutenak (Oihenart bereziki), ikuspegi didaktikoa zutenak (Voltaire eta Mikoleta) eta ikuspegi deskribatzailea zutenak (Urte, nahiz helburu didaktikoa ere sumatzen dion, eta beharbada galdurik dauden Pouvreau, Bidegaray eta Oyangurenen lanak).

²¹ Alde batera uzten ditut Garibairen gramatikazko ohar bakanak; ik. Zubiaur (1989).

²² Jakina, izenen, adjektiboen eta aditzen adibideak —baina ez soilik kategoria hauetakoak— gramatikaren ondoren datorren hiztegi alfabetikoan sartzen ditu.

²³ Vinsonek *Notitiaren* argitalpen bakoitzeko aleak erkatu zituen eta diferentziak zerrendatu (1891-1898: 80-82). Hizpide dugun zatiari dagokionez, Vinsonek adierazten du bigarren argitalpeneko XIV. kapitulari plegu bat (zortzi orrialde) gehitu zitzaiola, orrialde berriak zenbatu gabe eta, hortaz, zenbakuntza aldatu gabe; halaber, kapitulua guztiz eraberritu zela. Baina ez du kapituluaren edukian

gaztelaniara itzuli zen *RIEV* aldizkarian (1926-1928) eta, latinezko testuaren faksimilearekin batera, 1992an berrargitaratu zen.²⁴ Historialaria izanagatik, euskal gramatikagintza zaharrean Oihenartek leku berezia merezi du, zalantza izpirik gabe; Oihenart da lehen euskal gramatikarietarik analisi zorrotz eta originalenak eskaini zizkiguna, ondoko euskalariengan eragin ñimiñoa izan bazuten ere. Euskal gramatikari eskainitako kapitulu labur eta mamitsuetan Europako Mendebaldean eredu nagusia zen gramatika greko-latindarraren mendekotasuna nabarmena da. Hala eta guztiz ere, aldian behin Oihenart gauza da eredu klasikoa gainditzeko eta euskararen deskribapen beregaina eta egokiagoa burutzeko.

Aipagarri da Oihenarten ideien artean gaur egun erabateko balioa duten hainbat ere aurki daitezkeela; ekarpen hauek, dena den, denbora luzea beharko zuten euskalaritzaren barruan arrakasta eta onarpena lortzeko —batzuetan Oihenarten aitzindaritasuna ezezagun edo isilpean gertatu zelarik ere— eta, ikusiko dugunez, baten bat eztabaidagai zen oraindik XIX. mendearen hondarrean. Hona ekarpen horietariko batzuk:

XI. kapituluaren gaia *-a* eta *-ak* singularreko eta pluraleko artikulua direla erakustea da (xehetasun gehiagotarako, ik. §6.3.1). Aldiz, garaiko iritzi nagusiaren

gertatutako aldaketez deus zehazten; xehetasunak hurrengo lan baterako utziz, funtsean bigarren argitalpenak izenordainei, deklinaezinei eta silaben kantitateari buruzko atalak (“De Pronomine”, “De Indeclinabilibus” eta “De syllabarum quantitate”, hurrenez hurren) erantsi ditu eta aditzari buruzko informazioa askoz luzeagoa da, eta desberdin antolatua.

²⁴ Hala eta guztiz ere, Gorosterratzuren itzulpenak huts eta hutsune franko ditu. Horregatik, eta Oihenarten testuak euskal gramatikagintzaren historian duen garrantziagatik, edizio berri bat merezi

arabera (Marineo Siculo, Merula, Garibai; geroago Pouvreau, Urte, Harriet eta Etxeberri Sarakoa), izenkien bukaerak edo nominatiboaren atzizkiak ziren. Hala ere, uste hau ez zen euskalaritzatik zeharo baztertuko Larramendik (1729) zorrozki kritikatu zuen arte.

XIV. kapituluaren hasieran, Oihenartek euskal deklinabide mota bi bereizi zituen, artikuluduna eta artikulugabea, egun *mugatu* eta *mugagabe* deiturez ezagutzen ditugunak, hain zuzen; lehenbizikoa singularra edo plurala izan daitekeela ere adierazi zuen. Alabaina mugagabea ez zen berriz euskal gramatikagintzan azalduko Astarloaren eta Humboldten lanak iritsi arte. Geroxeago Darrigolek (1827) mugagabeaz ohartu den lehena izan dela baieztatu zuen, eta uste oker honek Villasanteren *Historia de la literatura vasca*-raino iraun zen, Mitxelenak (1973) salatu bezala (ik. orobat §2.4.3).

Deklinabidearen arloan jarraituz, euskararen kasuen artean latinaren paradigmatak kanpo geratzen diren kasu ergatiboa (*casus agendi* edo *activus*) eta partitiboa (*casus negandi seu dubitandi*) identifikatu zituen eta euskarak akusatibo eta bokatorik ez duela adierazi zuen. Berriz ere, euskal kasu-sistemaren ezaugarri hauek Astarloaren eta Humboldten lanen zain geratu beharko dute ezagutza eta onarpen zabala izan dezaten. Oyharçabalek (1993) ohartarazi zuen bezala, Oihenartek deklinabide paradigmak eratzean ikuspegi morfologiko formala baliatu zuen. Alta, batetik, artikuludun/artikulugabe aurkaritzan sartzen diren atzizkiak

bakarrik onartzen ditu, halakotzat jotzen ez dituen leku-denborazkoak kanpoan utziz (postposiziotzat jo zituen, hain zuzen ere); beste alde batetik, kasu eta atzizkien arteko bana-banako egokitasuna ezartzen du, aipatu bi kasu berezien identifikatzea ahalbidetuz, edo erraztuz bederen.²⁵

Aditzaren azterketari dagokionez, euskararen berezko aditz-jokoa trinkoa dela (*coniugatio propria*), eta ez perifrastikoa (*coniugatio impropria*), proposatu zuen (ik. §7.2). Ondoko gramatikariek, Larramendi buruzagi, perifrastikoaren jatortasuna eta antzintasuna aldarrikatuko dute eta Oihenarten iritzia ez da XIX. mende hondarra arte berragertuko, garaile berragertzeko ere; jarrera bakoitzaren aldekoen zerrenda ez oso baterako, ik. Gómez (1989: 361) eta hemengo 125. or. Laguntzaileen sistema aski ongi eman zuen Oihenartek, lau laguntzaile aipatu baitzituen —*nais, dud, adi* eta *esac*— eta modu eta denboren arteko euren banaketa egoki bereizi. Van Eysen proposamenak iritsi arte, ez zen lauko eskema hau berragertuko; ik. Gómez (2002b) eta hemengo §5.4.8.

Sylvain Pouvreaux gramatika ohar batzuk utzi zituen bere eskuizkribuetan eta egun Parisko Liburutegi Nazionaleko Fond Basque-Celte-ren 8. eskuizkribuan daude, 1-3 orrietan zehazki. Oharrok Vinsonek argitaratu zituen bi aldiz (Vinson 1881, 1892b). Pentsatu izan da testu hau Pouvreaux prestatu nahi zuen gramatika-lan baten zatiak edo zirriborroak direla (Oyharçabal 1989: 63) eta hala ematen dute aditzera Pouvreaux idazten dituen kapitulu eta atal izenburuek; ez dakigu, halere,

²⁵ Izan ere, partitiboa paradigma artikulugabeen bakarrik sartzen da, sei kasu dituen bakarra.

gramatika-lan hura inoiz burutu zuen. Pouvreauren gramatika ideiak ez dira oso originalak: ez du *-a* artikulutzat hartzen, nominatibo singulartzat baizik; latinaren komuntadura-ereduari jarraituz, uste du izenak kasua galtzen duela adjektiboarekin edo beste hitz batzuekin (*bat*, *batzuk*, erakusleak) azaltzen denean, salbuespen gisa guretzat berezko *-a* duten hitzak aipatzen dituela (*aita*, *ama*, *alaba*...); jatorrizko adjektiboak eta adjektibo eratorriak bereizten ditu, bigarrenak *-zko*, *-ko(a)* eta *-ren(a)* atzizkiak dituenak izanik; bi nominatibo bereizten ditu, aditz substantibo edo pasiboekin erabiltzen dena (*-a*) eta aditz aktiboekin erabiltzen dena (*-ac*); paradigma mugagabeko atzizki bereziaz ohartu zen, baina ez zen konturatu mugagabearen izaeraz. Nabarmentzekoa da gramatika zati hauetan Pouvreaux bere hiztegia aipatzen duela: “Cette petite particule vsurpee par syncope ou abbreuiation du mot d’Ecina que vous verrez dans mon dictionnaire sert pour expliquer le défaut du verbe non possum, je ne puis” (ik. Vinson 1892b: 7-8).²⁶

Rafael Mikoleta bilbotarrak *Modo breue de aprender la lengua Vizcayna* idatzi zuen 1653an. Eskuizkribua Londresko British Museum-en dago eta XIX. mende amaieran argitaratu zen estreinako (Sampere y Miquel 1880, Dodgson 1897). XX. mendean Zelaietak osorik argitaratu zuen bitan (1988, 1995) eta Mikoletaren lanaren zati batzuek —baina inoiz ez gramatikak— zenbait edizio izan dituzte (Mitxelena 1964: 132-135, Sarasola 1983: 188-208). Mikoletaren gramatika

Singularrak eta pluralak, aldiz, bosna kasu dituzte.

²⁶ Vinsonek hauxe eranstean du oin-ohar batean: “Au lieu de ‘mon dictionnaire’ le ms. portait d’abord ‘le dictionnaire que je vous fournis’” (1892b: 7).

oso laburra da eta ez dago garbi argitaratzeko asmorik izan zuen ala, enkarguz, pertsona bati euskara ikasten laguntzeko ondu zuen (cf. Zelaieta 1995: 6-7).

Mikoletaren gramatika hiru atal bereiz daitezke. Lana hasten da “*Modo breve de sauer declinar los nombres vascongados*” atalarekin. Bertan, Mikoletak adierazten du euskal izenek eta adjektiboek *-a* eta *-ac* amaiera dutela, izen bereziek izan ezik; izenak, adjektiboarekin agertzean, bukaera galtzen du. *Xaun* izenaren deklinabidea aurkezten du, singularrean eta pluralean; jakina, mugagabeaz ez du deus esaten. Mikoletaren paradigmetan, latinaren sei kasuak agertzen dira. Haren azterketa latinari oso atxikia agertzen zaigu, kasuen funtzioak aintzat hartzen baititu (nahiz eta Larramendiren mailara heldu gabe; ik. beherago): hala, Mikoletak datiboaren azpian egungo destinatiboa ere sartzen du eta ablatiboaren azpian, inesiboa eta soziationa; genitiboari artikulua gehitzen dio (sing. *Xaunená* ‘del Señor’, pl. *Xaunenác* ‘de los Señores’); alabaina ergatiboaren atzizkiak ez ditu ematen.

Mikoletaren gramatikaren bigarren zatia “*Conjugacion de los Verbos Vascongados*” izenburuarekin hasten dena litzateke. Lehenbizi, *eguin* aditzaren jokia aurkezten du eta ohartarazten du aditz ez-ergatibo batzuekin ere (*neutros* deitzen die Mikoletak) erabiltzen dela, hala nola, *loo* ‘dormir’ eta *ossa* ‘haze frio’. *Ysan* aditzaren jokia eskaintzen du. Atal honen amaieran, Mikoletak adierazten du joko guztien berri ematea ezinezkoa dela eta erabilerak irakasten duela.

Hirugarren atala “*Otras reglitas sueltas*” izenburuaren ondoren dator. Besteak beste, konparatiboez eta zenbait postposizioen erabileraz (*ra*, *ic* edo *ganíc*) dihardu. Amaieran, *egon*-en bidez eratutako pasiboak eta *egon* aditzaren orainaldiko eta lehenaldiko paradigmak agerrarazten ditu.

Jacques Bela politikari eta legegizon zuberotarrak euskal gramatika bat eta hiztegi bat idatzi zituen, egun galdurik daudenak. Esan izan da lan hauek *Tablettes* entziklopedia moduko lan mardulean —plegu-laurdeneko 6 liburuki— eta oraingoz argitaragabeen zeudela, antza denez falta den liburukian, hain zuzen ere (Peillen 1988: 98).²⁷ Halarik ere, Clément-Simonek emandako datuen arabera, badirudi *Dictionnaire basque* eta *Compendium de grammaire basque* lanak *Tablettes*-etatik berezirik zeudela; *Tablettes*-etan aipatzen ditu Belak, baina ez ziren haien zati bat. Beste alde batetik, Peillenen ustez (1988: 128), gramatikari eta hiztegiari zegozkien orrialdeak Joan Felipe birbilobak hartu zituen eta bere gramatika eta hiztegirako baliatu; nolana ere den, Joan Felipe Belaren hiztegian ez da oraingoz birraitonaren hiztegiaren arrastorik ziurtatu ahal izan. Jacques Belak erretrau bilduma txiki bat ere utzi zigun (cf. Mitxelena 1964b: 183-186).

Dominique Bidegaray frantziskotarraren gramatika ere galdu da, baina haren lanen arrastoak jarraitu ahal dira Nafarroako Estatuaren Deliberamenduen Erregistroan, lehenik Daranatzek (1914-1917) eta gero Oyharçabalek (1989) egin bezala. 1675-1679 urteen artean Bidegarayk zenbait diru-eskari aurkeztu zituen bere lanak argitaratzeko. 1675eko agiriek dioskute Bidegarayk hogeitaz euskara-frantses- latin hiztegi hirukoitz bat ondu zuela, gazteek Euskal Herritik atera gabe zientzien

²⁷ Cf. orobat Prevost & d'Amat (1951; *apud* Ajasse 2005: 35): “On conserve de lui *Tablettes*, encyclopédie méthodique en 6 volumes (l'un d'eux est perdu) où il traite *de omni re scibili* et aussi de lui-même”. Bide batez, Ajasse-ren katalogokoa liburuki galdua izan liteke: “Le présent manuscrit est sans doute celui que Roman d'Amat considérait perdu” (2005: 35). Hala ere, katalogokoa laugarren liburukia da (*Juss-Off*) eta Clément-Simonek hirugarren liburukia (*Exemples-Justice*) falta dela dio

ataria den latina ikasteko. Bidegarayk 4.000 liberako diru-laguntza eskatu zuen lau urtetan lana argitaratzeko; hala ere, Estatuek uko egin zioten. Hurrengo urtean bigarren eskari bat egin zuen eta bertan hiztegiari gaztelania erantsi zion. Halaber, deliberamenduan azaltzen da euskara ez dela arautu ezta zientzietan erabili, eta azpimarratzen da euskara dela hebreeraren antza duen hizkuntza bakarra eta, hebreera izan ezik, zientzia eta elokuentziarako egokiena. Bidegarayren lanak nazioarteko harremanetarako eta merkataritza erlazioetarako ekar lezakeen abantaila ere nabarmentzen da. Hartara, Estatuek batzorde bat izendatu zuten eskaria azter zezaten.

1677ko batzarrean Bidegarayk eskaria berretsi zuen eta batzordeak hiztegia eta *Rudimens* direlakoak —hots, Etxeberri Sarakoak gramatikaren *hatsapenak* deituko zituenak— onuragarri eta erabilgarriak izango zirela baieztatu zuen. Gramatikan euskararen deklinabidea eta aditz-jokoa azaltzen zirela aipatzen da: “Qu’ils fairont enfin rapport sans doute des Rudimens basques qu’ils ont pareillement examinez, où il réduit cette langue en règles et que de la manière curieuse et surprenante de décliner et conjuguer qui y est observée”; era berean, hebreerarekiko erkatzeari eusten zaio, bi hizkuntzetan aditzek generoa baitute, latinean ez bezala (ik. Dubarat 1914-1917: 13). Euskara “langue mère” dela ere agertzen da (cf. hemengo 57. oinoharra). Ondorioz, Estatuek 600 liberako diru-laguntza ematea onartu zuten, baina Bidegarayk ez zuen sosik jaso, ezta 1679an hil ondoren haren oinordekoek ere. Dubaratek dioenez (1914-1917: 9), hiztegia eta gramatika argitaragabe geratu ziren

eta baliteke Iraultzaren garaian Paueko Sokadunen Artxiboekin batera sakabanatu eta galdu izatea.

Joanes Etxeberri Sarako medikuak latina ikasteko *Escuarazco hatsapenac* (Etxeberri 1712) idatzi zituen, euskaraz eta latinez, bere hiztegi laueledunaren “cimenduac, çainac eta erroac” izan zitezten. Etxeberrik Lapurdiko Biltzarrari aurkeztu zion bere lana eta 3.000 liberako mailegua eskatu zuen, inprima zedin. Ez zuen lortu eta eskuizkribua inprimatu gabe geratu zen, Julio Urquijok Zarauzko Frantziskotarren komentuan aurkitu zuen arte (Urquijo 1907). Etxeberriren lanak bi parte ditu, bigarrena *Hatsapenak* izanik. Eskuizkribuaren zati handiena bi zutabetan antolatzen da: ezkerrekoan euskarazko testua eta eskuinekoan, latinezkoa. Baina Urquijok ez zuen argitaratu Zarauzko eskuizkribuaren latinezko testu gehiena. Geroztik, Xabier Kintanak *Hatsapenak*-en bertsio askoz laburragoa eman zuen argitara, “latinezko deklinazioak eta aditzen parte luze eta aspergarria alde batera utzirik” (Kintana 1972: 15).

Arestian, Gidor Bilbaok bere doktorego tesia burutu du, Etxeberriren lanen edizioa eta azterketa eskaintzen dituena. Bertan Etxeberriren lanen helburu, eduki, iturri eta abarrez berri zehatzak ditugunez, oraingoan *Escuarazco hatsapenac*en egituraz hitz bi baino ez dut esango. Etxeberriren gramatika, izenburuan ageri denez, euskaldunei latina ikasten laguntzeko da eta, hortaz, latinaren gramatika eta formak ditu abiapuntu.²⁸ Gramatikak hiru atal ditu: lehenbizikoan latinezko deklinabide

²⁸ Irudi luke, ordea, zenbaitetan euskaratik abiatzen dela, hala nola “Sum vocatiboarequin, eta

paradigmak ematen ditu (Urquijo 1907: 205-229); bigarrenean, aditz-jokoen paradigmak (230-359. or.) eta, hirugarrenean, gramatikaren zatiei, perpaus-atalei eta komunztadurari buruzko galde-erantzunen bidez azaldutako xehetasunak (360-375. or.); amaieran Urquijoren ustez zirriborroak diren hiru orrialde daude. Etxeberrik latinaren ohiko zortzi perpaus-atalak bereizi zituen; hauexek dira eman zizkien deiturak: *icena*, *icenaren ordaina*, *verboa*, *participioa*, *adverbioa*, *preposicinoa*, *juntaguina* edo *juntagaillua* eta *interjecinoa*. Azkenik, lehen atalaren bukaeran “Declinacinoen akhabantça” erantsi zuen, non funtsean euskarazko bi nominatiboan (egungo absolutibo eta ergatiboaren) erabileraz eta genitibo singular eta pluralaren erabileraz jardun zuen.

Etxeberrik bere gramatika-lana ondu zuen urte berean, beste lapurtar batek, Pierre Urtek, euskal gramatika luze bat (Urte 1712) idatzi zuen bere sorterritik kanpo, protestantea izanik Ingalaterran erbesteratua baitzen. Urterena dugu, hain zuzen, neurri handiko lehen euskal gramatika ezaguna; gehienbat frantsesez idatzi zuen Urtek, inoiz latina eta oso bakanka ingelesa ere baliatu bazituen ere. Wentworth Webster euskalari ingelesak argitara eman zuen XIX. mende amaieran, originalaren kopia bat oinarri hartuz (Webster 1900). Hala ere, gramatika honek ez du euskalarien arreta gehiegi erakarri, alde batera uzten baditugu Allières-ek Urteren aditzaz burutu zituen bi artikuluak (1985, 1991), Urkizuk Urteren hiztegiaren edizioan idatzitako oharrak (1989: 69-79) eta, jakina, Oyharçabalek Larramendiren aurreko gramatika-

generoarequin gonjagatua (*sic*)” atalean, non *izan*-en indikatiboaren orainaldiko eta iraganaldiko adizki alokutiboak agertzen diren, latinaren gramatika batean behar ez badira ere (Urquijo 1907: 249).

lanen aurkezpenean eskaini zizkion orrialdeak (1989: 68-72). Bestalde, Clark eta Vinsonek (1893-1894) Urteren gramatikako hiztegiak eta beste zati batzuk argitaratu zituzten; Lakarrak ere Urteren gramatikako hiztegiak argitaratu zituen (1994c) eta haiei buruzko xehetasun zenbait eman (1994b).

Urteren gramatikaren egiturak guztiz eredu greko-latindarreko gramatikei jarraitzen die. Hasieran ortografiari buruzko orri batzuk daude, Aita Gurearen testuarekin eta zenbait azalpen etimologikorekin amaitzen direnak. Ondoren, testuaren zati nagusia betetzen duen perpausaren atalen aurkezpena dator. Lehenengo atalak kategoriaka antolatutako hiztegi moduan ekartzen ditu Urtek: hurrenez hurren, izenak (gaika antolatuak), adjektiboak eta “akzidente” izendatzen dituenak, hots galdetzaileak, erakusleak, zenbakiak eta zenbait atzizkiz osatutako hitzak. Deklinabidearen aurkezpenak hartzen ditu hurrengo orriak, latin gramatikaren ereduari hertsiki lotuak. Aditzaren azalpenak 330 orrialdetik gora betetzen ditu Webster-en edizioan (1900: 77-410), gramatikaren atal luzeena, alde handiz; bereziki atal honek islatzen du gramatika honen ezaugarri nagusietako bat: hainbat eta hainbat datu eskaintzen ditu, askotan ordena oso argirik gabe, baina analisi eta azalpen oso gutxi kausi daitezke. Adizki jokatuabeak ere bi zerrendatan antolatuta daude (cf. Webster 1900: 302-410): zerrenda batean *naiz* laguntzailea hartzen duten aditzak sartzen dira eta bestean, *du* laguntzailea hartzen dutenak. Zerrenda hauen ondoren perpausaren gainerako atalak datoz: partizipioa, adberbioa, preposizioa, juntagailua eta interjekzioa. Gramatikari buruzko informazioa sintaxiak ixten du, arreta guztia komuntaduran eta joskeran jarritz. Hurrengo orrietan figurak aurkezten ditu, tradiziozko gramatikagintzan oso ohikoa zen atala, alegia; hemen eta syntaxian

frantsesaren eta euskararen adibideetan hitz ordena desberdinak markatzen ditu hitzen gaineko letrak eta bestelako ikurrak erabiliz.

Oyharçabalek (1989) iradoki du Urteren gramatikaren helburua didaktikoa izan zitekeela, egileak inon halakorik aitortu ez bazuen ere. Halaxe dirudi; izan ere, hizkuntz irakaskuntzarako eskuliburuetan agertu ohi diren atal batzuk aurkitzen ditugu Urterenean, hala nola 471. orrialdetik aurrera agertzen diren “Arduraco’ hizguntçac” [*sic*] edo ohiko esaldiak eta “Escarazco’ solassac edo diälogoäc” (hauetan guztietan ere hitzen gaineko letrak eta ikurrak erabiltzen ditu, hitz ordenaren berri emateko). Gainera, gorago aipatu datuen ugaritasuna eta analisi eta azalpenen urritasuna ere gramatika praktikoko eta didaktikoen ezaugarri izan ohi dira.

Adostasun nahiko handia dago (ik., esaterako, Vinson 1901, Mitxelena 1960 eta Oyharçabal 1989) Urte gramatikariaren merezimenduak ez direla handiegiak, datu biltzaile gisa ez bada;²⁹ alabaina, horretan ere —haren hiztegiak lana ezagututa (cf. Lakarra 1994b)— susmo sendoa izan dezakegu ez ote zituen aditz paradigma asko ereduari jarraituz sortu edo osatu, bere herriko hizkerako “altxorretik” idoki beharrean. Datuen bildumatik landa, Oyharçabalek (1989: 72) dioenez, Urte “[est] loin de la sagacité d’un Oihenart ou de la richesse et la fécondité des analyses méthodiques d’un Larramendi”.

²⁹ Webster (1883: 68) eta Urkizu (1989: 79) ez dira iritzi berekoak eta Urte gramatikari handitzat jotzen dute.

Manuel Larramendiren *El imposible vencido* (1729), jakina denez, lehenbiziko euskal gramatika-liburu argitaratua da. 1853an berrargitaratu zen eta hurrengo urtean frantsesezko sasi-itzulpen bat izan zuen (Blanc 1854). Hordagoren faksimileen artean ere kaleratu zen 1979an. Damurik, gramatika garrantzitsu honek ez du oraindik edizio modernorik izan. *Artearen* lehen zatiak, luzeenak, egun flexio-morfologia deitzen duguna aurkezten du: funtsean, deklinabidea eta aditz-jokoa (1729: 1-256); bigarren zatia sintaxiari buruzkoa da, perpaus-atal bakoitzaren egitura aztertzen duena (257-335. or.), eta hirugarrenak azentuaz dihardu (336-372. or.); liburua amaitzen da euskal poemagintzari buruzko eranskin batekin (373-395. or.).

Larramendiren gramatikagintzaren ezaugarri orokorrei kontu egiten badiegu, bi joeraren arteko tentsioa nabari daiteke: alde batetik, orduko gramatikagintza tradizioarekiko —zehazki, eredu greko-latindarrarekiko— atxikimendu hertsia nagusi da; baina, bestetik, zenbaitetan Larramendi eredu horretatik aldendu egiten da, euskararen deskribapen egokiagoa lortzeko asmoz (ik. Gómez 1991). Adibidez, Larramendik, oro har, tradiziozko eredu onetsi zuen arren, honekiko, garaiko gramatikarien terminologia hedatuenarekiko, iritzi zabalenekiko, etab. aski kritiko ere —eszeptiko batzuetan— azaltzen da; ik., adibide gisa, Larramendi (1729: 43, 59, 72, 232, 249 eta 318). Eredu greko-latindarra egitura desberdina duen hizkuntza batean ezartzean, arazoak eta desegokitasunak sortu zitzaizkion, Europako hizkuntzekin apalkiago eta Asia eta Ameriketako hizkuntzekin nabarmenkiago gertatzen zen legez. Larramendik badaki, jakin, ereduak mugak dituela (1729: 85) eta badu, orobat, bere aitzindaritasunaren kontzientzia argia. Ildo honetan, hitzaurrean euskararen apartekotasunaren eta honek zekarzkion zailtasunen berri ematen du, euskararen izaera postpositiboa azpimarratuz.

Zernahi gisaz —eta garaiko jarrera arruntena izanik—, gehienetan oharkabean bada ere, itsu-itsuan jarraitzen dio greko-latindar gramatiken ereduari. Hala, latin gramatikaren ohiko zortzi perpaus-atalak aipatzen ditu, preposizioaren ordezt postposizioa emanez eta artikulua izenaren eta izenordainaren barruan sartuz (1729: 258-259; ik. orobat 297. oin-oharra). Halaber, numeroari dagokionez, ez da mugagabeaz ohartzen eta honek, inoiz edo behin, *ad hoc* egindako deskribapen batzuk agerrarazten dizkio (1729: 18-19, 40-41 eta 286).

Izen morfologiaren arloan, Oihenarten irizpide formalaren ordezt, Larramendi irizpide funtzionalaz baliatzen da deklinabide paradigmak eratzeko. Hau dela eta, latinaren sei kasuak gordetzen saiatzen da, baina kasu bakoitzean ahalik eta euskarazko marka gehienak sartzen ditu. Adibide zuzena dugu kasu datibo eta ablatiboekin gertatzen dena: Lehenik, ‘a’ eta ‘para’ itzulpenek behartuta, berezko datiboari (*ari*) destinatiboa ere (*aréntzat*) eransten dio, Mikoletaren lanean ikusi dugun bezala. Bigarrenik, ablatiboak latinez dituen funtzioak buruan izanik, kasu hau saski-naski bihurtzen da Larramendiren deklinabide-paradigmatan, era askotako atzizkiak metatzen baititu bertan: gure soziatiboa (*aréquin*), motibatiboa (*agátic*), inesiboa (*án, eán, agán*) eta, harrigarriki, *gabe* postposizioa.

Deklinabide-paradigmak aurkeztu ondoren, Larramendik euskal izen arruntek beste “artikulu” batzuk badituztela adierazten du (1729: 8-11).³⁰ Partitiboaren markak (*íc, ríc*) nominatibo eta akusatibo singularrari atxikiko dizkie, egoera zehatz

³⁰ Larramendiren “artikulu” terminoaren esanahiaz, ik. Gómez (2001a) eta hemengo §6.3.2.

batzuetan soilik erabiltzen direla ohartuz. Genitiboaren barnean sartzen ditu instrumentalaren markak; *áz*, *záz* eta *z*, *ez* artikulua bereizten ditu eta bigarrenetik ablatiboaren antz handiagoa dutela eranstean du. Ablatiboan sartuko du, bestalde, *az* postposizioa, “que corresponde á la preposicion de ablativo *con*, v.g. *espatáz*, *maquilláz jo-deu*, *il-zuen*” (1729: 11). Azkenik, leku-denborazko kasu gehienak adberbioen sailean (1729: 323-331) sartzen ditu Larramendik. Adberbiotzat ditu Larramendik inesiboko atzizkiak (berriz ere), ablatiboa, *-ko* atzizkia, *-(t)ar* atzizkia, adlatiboa eta adlatibo norabidezkoa (*-ronz*). Jokabide honen arrazoa, aldeak alde, Oihenartenaren antzekoa izan liteke: alegia, atzizkietan Larramendik artikulurik antzematen ez duenez, ez dagozkio deklinabideari. Gogoratu Larramendiren iritziz, euskaraz artikulua deklinatzen direla. Dena dela, adberbio hauetako batzuetan singulararen eta pluralaren arteko bereizketaz hitz egiten du, baina ez adberbioei dagokienez, baizik eta adberbioak atxikitzen zaizkien izenei buruz. Azkenik, Larramendik aurreko hiru atalak —deklinabideko atzizkiak, beste artikulua eta adberbioak— euskararen postposizioen barnean sartzen ditu (1729: 331-334). Hauetaz gain, “genitiboa eskatzen” duten beste postposizio batzuk sartzen ditu: *aurreán*, *atzeán*, *contra*, *ondoán*, *aldeán*, *gañeán*, *azpián*, *arabera* eta *barrenén*.

Perpaus-atal bakoitzaren azpisailkapenean nabarmenkiago antzeman dakiok Larramendiri ereduarekiko atxikimendu hertsia. Adibide gisa, eta Larramendiren gramatikan duen pisua ere kontuan harturik, aditzaren azpisailak aipatuko ditut. Aditzak hiru azpisailetan banatzen ditu: aktiboak, pasiboak eta neutroak (1729: 43-44); honetan Priszianok eta beste hainbatek bezalaxe jokatzen du, aditz moten definizio nozionalak ematen baititu (1729: 163-164). Aditz bakunen eta konposatuen —nahiago bada, trinko eta perifrastikoen— antzintasun eta jatortasunaren arazoan,

gauza jakina da, geroztik eta XIX. mendea arte jarrera nagusia izango dena ezartzen du Larramendik; hots, adizki konposatuak dira erregularrak eta, beraz, jatorrak, eta bakunak irregularrak, kutsatuak. Beraz, euskaraz aditz guztiak, *benetako* aditz guztiak, konposatuak lirateke (ik. §7.2).

Larramendik hiru denbora *filosofikoak* bereizten ditu: oraina, iragana eta geroa. Gainerako aditz-denborak oinarritzko hiru hauen aldaerak lirateke. Bereizkuntza hau —dagoeneko Donatoren *Arteetan* kausi daitekeena— Sanctius-ek eta gramatika filosofikoak zabaldu zuten, besteak beste, eta XVIII. mendetik aurrera arrakasta erdietsi zuen. Halarik ere, Larramendik gramatikarien ohiko banaketa anizkunari amore ematen dio (1729: 57-58). Horrela honako denbora-zerrenda hauxe eskaintzen du hurrengo lerroetan: orainaldia, iraganaldi burutugabea, iraganaldi burutua, iraganaldi pluskuanperfektua, geroaldi burutugabea eta geroaldi burutua. Sailkapen hau gramatikagintzan oso arruntzat jo dezakegu. Donatok, Priszianok eta, esaterako, Nebrixaren gaztelaniazko gramatikak (1492) proposatzen zuten zerrenda berbera da, azkeneko bi denboren bereizketan izan ezik. Alabaina geroaldi burutugabea eta burutua Nebrixaren latinezko gramatikaren 1523ko edizioak behintzat bereizi zituen —bertan *amabo* / *amauro* bikotea sail desberdinetan sartzen baita— eta, gaztelaniari dagokionez, lehen aldiz Lovainako 1555eko *Gramatika* anonimoak (cf. Rojo 1978: 293-297). Bestalde, Larramendik iraganaldi burutua bi motatakoa izan daitekeela dio; bata hurbila (*yo he comido*) eta bestea urruna (*yo comi*).³¹ Europako

³¹ Latinean falta den bereizkuntza honen jatorria euskaran jartzen du eta, jakina, euskaratik ikasiko zuketzen gaztelaniak eta gainerako erromantzeek (Larramendi 1729: 60).

tradizioan bereizkuntza honen abiapuntua Port-Royaleko Gramatikan (1660) kokatu behar dugu. Lan honetan, denboren sailkapenenean berrikuntza nabari eta arrakastatsu bat ezarri zen, iraganaldi hurbila eta urruna bereiztea erraztuko zuena: aditz-denbora bakunak eta konposatuak (xehetasunetarako, ik. *infra* 37. or.).

Adizki jokatugabeak (“modos del infinitivo”) sailkatzerakoan ere, Larramendik latina izango du bide-erakusle (1729: 50). Mendekotasun honetatik arazo batzuk sortzen dira: formalki “infinitibo” soilak ez diren forma batzuk sartu beharrean dago (“Fut. de infin. *jan beár* aver de comer”, *ibid.*); itzulpen bitxiak ematera bultzatzen du (“Partic. fut. *jangó, jánen* quien ha de comer”, *ibid.*); ablatibo absolutuaren marka bezala *-(r)íc* ematen du, nahiz eta deklinabidearen aurkezpenean nominatiboaren aldaeratzat hartua zuen;³² orobat gerundioekin, bata (“Gerund. Genit. y Dat.”) ez baitu datiboaren markarik (*játeco*) ez eta besteak (“Gerund. Acusat.”) akusatiboarenik ere (*játera*). Bestalde, latinaren eta euskararen erabateko paralelotasuna bilatu nahian,³³ *jaten* eta *jango, janen* adizkien kide latindarrak ere (*manducans* eta *manducaturus*, hurrenez hurren) forma aldaezinak direla baieztatzen du; hots, latinezko orainaldiko eta geroaldiko partizipioen deklinagarritasuna ukatzen du zeharo.

³² Oihenartek bi *-ic* atzizkiak, izenkietakoa eta adizkietakoa, bat egin zituen (ik. Oihenart 1656: 58).

³³ Oroit bedi gramatikagintza tradizionalan latina eredu formala ez ezik, hizkuntza aberats eta noblearen erudia ere badela, eta hizkuntza batek zenbat eta latinaren antzekotasun hertsia goa izan, aberastasun, nobletasun eta prestigio handiagoa erdiesten zuela.

Azken batean, Larramendi bere garaiko semea da. Gramatika greko-latindarraren ereduan oinarritu behar izan zuen, halaxe jokatzeko baitzen eskuarki XIX. mende hasiera arte, gramatika orokorraren joeran sartu ziren lanetan izan ezik. Oraino ez dakigu Larramendik zein gramatika izan zuen eskuartean bere *Arteari* ekiterakoan, ezta ereduazko gramatika-lan bakarretik abiatu zen ere. Dena dela, *El imposible vencidok*, orduko jakite-maila aintzat harturik, euskararen aski deskribapen ona eskaintzen du eta, euskararen egituraz den bezainbatean, erdiespen zoragarri eta intuizio zorrotz batzuk ere baditu.

Melchor Oyanguren frantziskotarrak euskarari buruzko zenbait lan utzi zizkigun, bere japonieraren (Oyanguren 1738) eta tagaloaren (Oyanguren 1742) gramatiketan dioenari kasu egiten badiogu behinik behin. Azken urteotan Oyangureni buruzko ohar bakarrak Oyharçabalek eskaini dizkigu (1989: 67-68); baina bada euskalari honek aipatzen ez duen artikulu zahar bat (Pérez 1909), Oyangurenen lan ezagunen aski deskripzio zehatza ematen duena, baita haren lan galduez dakiguna laburtzen duena ere. Oyangurenen bi gramatika ezagunak misiolarien hizkuntzalaritzaren joeraren barruan sartzen dira (cf. Hovdhaugen 1996, Zwartjes 2000 eta Zwartjes & Hovdhaugen 2004) eta, halako lan asko bezala, Nebrixaren latin gramatika (1481) oinarritzen dira.³⁴ Nolanahi ere den, hizkuntzak ikasteko eta erkatzeko zaletasuna baitzuen,³⁵ japonieraren eta, bereziki, tagaloaren

³⁴ Oyangurenek ez bide zion beti orpoz orpo jarraitu, japonieraren gramatika bederen (ik. Bae 2005).

³⁵ Pérezek dioskunez (1909: 19), “[e]ra este religioso muy versado en las lenguas Hebrea y Griega, y en Filipinas se dedicó con especialidad al estudio de los idiomas Tagalog, Chino, Japonés, Anamítico [hots, vietnamera — R.G.] y Malayo, que llegó á poseer con asombrosa perfección”.

gramatika-liburuetan euskarari buruzko zenbait ohar tartekatu zituen, beste hizkuntza batzuei buruzkoekin batera. Haietako batzuk nahiko harrigarriak suerta daitezke, hala nola dioelarik “imita en no tener personas el verbo á los Dialectos Chino, y á nuestros Dialectos Cantábricos ó Vascongados” (Oyanguren 1742: 81, *apud* Pérez 1909: 22). Ziurrenik, Oyangurenek “aditz” deitzen dituenak egungo adizki jokatugabeak edo *aditz nagusiak* dira. Oyangurenen hiru lan galduak hauexek lirateke: lehena tagalo-gaztelania-euskara hiztegi hirueledun bat; bigarrena *Arte de la lengua Vascongada*, Oyangurenek berak dioenez, 1715ean idatzi zuena; eta hirugarrena *Cantabrisimo Elucidado* izenekoa. Irudi luke lan hauetan ere Nebrixaren ereduaz baliatu zela, baina galdurik diren bitartean ezin izango dugu egiaztatu.

Martin Harriet notarioak euskaldunei frantsesa ikasten laguntzeko liburu bat argitaratu zuen (Harriet 1741). Harrieten gramatika osoa ez da berriz argitaratu; bai, ordea, liburuaren barruan dauden hiztegiak (Lakarra 1994a). Era berean, Harrieten gramatikak ez bide du euskalaritzaren historialarien arreta erakarri, ohar solteren bat edo beste kenduta; ik., esaterako, Oyharçabal (1989: 63) edo Lakarra (1994a: 20).

Harrieten lanak hiru zati nagusi ditu: “Iracurçailleari” sarrera laburraren ondoren, obra osoaren izenburu bera duen “Gramatica escuaraz eta francesez” dator (5-267. or.); bigarrenik, “Dictionarioa. Escuaraz eta francesez” (268-323. or.) eta “Dictionnaire François & Basque” (324-440. or.) ditugu; hirugarrenik, “Remarques sur la langue Basque” (441-506. or.); liburuia amaitzen da zenbait atal laburrekin: “Escualdunei gomendioa eta Abisua” (506-507. or.), “Liburu huntaco eraunsien, edo materien aurquiteguia edo taula” (507-511. or.), “Fautes à coriger dans les

Dictionnaires” (511-512. or.) eta orriak zenbatu gabe dituzten hiru “*approbacione*” —bi euskaraz eta bat frantsesez— eta “*Abisua autorac*”.

Harrieti buruzko oharretan, bereziki nominatiboaren sei mailen teoria (1741: 446-449) aipatu ohi da, baita haren hizkuntzalari-sen apala azpimarratu ere. Bere abilezia gorabehera, Harrietek euskarazko gramatika-terminologia bat sortzeko egin zuen ahalegintxo³⁶ nabarmendu nahi nuke: *ordocha* ‘maskulinoa’, *urricha* ‘femeninoa’; *bakharra* ‘singularra’, *haiñitça* ‘plurala’; *oraicoa* ‘(indicatif) present’, *osoqui eguin ez denecoa* ‘preterit imparfait’, *osoqui eguiñecoa* ‘preterit parfait’, *eguiñagocoa* ‘plus que parfait’, *ethorcecoa* ‘futur’, *manatcecoa* ‘imperatif’, *nahizcoa* ‘optatif’, *juntatcecoa* ‘conjonctif’; *construccionea edo erreniamendua*, etab.³⁷

Euskal gramatikari buruzko ohar eta analisi gehienak euskararen gaineko ezagupideetan ematen ditu Harrietek. Ez dut hona aldatu nahi bertan azaldutako guztia, baina Harrieten gramatika ideia eta analisi nagusien lehen hurbilketa bat eskaini nahi nuke. Euskal izen gehienek —erakusleak, adberbioak, pertsona-izen bereziak eta leku-izen gehienak dira aipatzen dituen salbuespenak— singularrean *-a* eta *-ac* eta pluralean *-ac* eta *-ec* amaierak dituztela markatzen du (1741: 442), baina gehienek amaiera galtzen dute adjektibo baten aurretik (444-445. or.). Orobat, lehen

³⁶ “Ahalegintxo” diot, zeren *avoir* aditzaren jokoan agertu ondoren, hurrengo aditzen paradigmetan denbora eta moduen frantsesezko deiturak soilik ematen baititu.

³⁷ 263. orrialdeko *artienlu* errakuntza dateke (*articulu*), B. Oyarçabalek jakinarazi didanez (k.e.); *OEhk* ez dakar ezer. Bestalde, ez da guztiz erraza asmatzea termino hauetarik zein diren Harrietek sortuak edo egokituak eta zein garaian gutxi-asko erabiliak. Esaterako, Oihenartek neurtitzetan (1657) *orotsa* eta *urrixa* erabili zituen eta, Mitxelenak (1953) iradoki zuen bezala, zuberotarrak gramatika-

amaierak aditz substantibo eta pasiboekin eta bigarrenak aditz aktiboekin erabiltzen direla ohartarazten du (443-444. or.). Jarraian, nominatiboen sei mailak aurkezten ditu; horretarako *-ko* eta *-en* atzizkien errekurtsibitateaz baliatzen da, *Aita*, *aitac* lehen mailatik seigarren mailako *Aitarenarenarenganicacoarenarenarena* forma ezinezkora iritsi arte (446-449. or.). Nolanahi ere den, Harriet bera konturatzen da bere aurkezpenaren mugez, dioelarik hirugarren maila (*Aitarenarena*) ez dela ia erabiltzen eta hurrengoak batere ez, “par curiosité” baizik ez dituela aipatu —eta, seguruenik, euskararen aberastasuna iradokitzearren ere bai—.

Harrietek hamaika kasu bereizi zituen,³⁸ baina ez zien izenik eman (1741: 457). Ildo horretan, ia mende bat geroago Darrigolek (1827) abiaraziko zuen euskal deklinabidearen analisi morfologikoaren aitzindaritzat har dezakegu; ik. §3.4.3. Azpimarratzen du euskal hitz guztiak deklinatzen direla, hala nola adberbioak (1741: 458-460), “proposizioak” —hots, postposizioak— (460-461. or.), juntagailuak (461. or.)³⁹ eta are letrak ere (462. or.). Orobatsu, adierazten du euskal hitz guztiak gradu konparatiboa onartzen dutela (469-470. or.).

termino gisa ere ezagut zitzakeen.

³⁸ Badirudi, halere, ikuspegi formala barik, ikuspegi funtzionala hartu zuela aintzat, fratsesezko kideek berek gidatu ez bazuten: esaterako, *onaren* eta *oneco* elkarrekin sailkatzen ditu, eta orobat *onarençat* eta *onçat*. Gainera, zerrenda aurkeztu eta berehala, elkarrekin sailkatu dituen kasuen erabileraren berri zein orrialdetan aurki daitekeen zehazten du.

³⁹ *Etaren*, *etatic*, *etari*, *etan*; *edoren*, *edoric*, *edora*... bezalako formak ematen ditu; baina adibideetan, jakina, juntagailuen erabilera metalinguistikoa agertzen da: “*Ez deçaçula etçar*, da, *etarençat*, ne metez pas *est pour et*, &c” (Harriet 1741: 461).

Harrieten ustez, euskal aditza berez perifrastikoa da eta guztiz erregularra. Bi aditz-joko bereizten ditu: aditz substantiboak eta pasiboak (“& ceux qui prennent leur place”) eratzeko, *Naiz* paradigmako laguntzaileak baliatzen da; aditz aktiboak eratzeko, *Dut* paradigmakoak (480. or.). Nolanahi ere den, geroxeago beste hiru joko daudela baieztatzen du eta komunztadura anizkunaren berri emateko balio diote: egun NOR-NORI-NORK, NOR-NORK eta NOR-NORI izendatu ohi diren paradigmegi dagozkienak, alegia (491-497. or.). Honetaz guztiaz gainera, liburuan zehar Harriet aski arduratzen da euskal hitzen eratoritzeaz, dagoeneko Lakarrak nabarmendu zuenez (1994a: 40-42).

Euskararen gaineko ezagupideak amaitzen dira Harrieten ohar batekin, non iragartzen duen bere lanak jarraipena izango duela beste hiru liburukitan (1741: 504-505): bigarrenean euskal aditzen bost jokoak osoki aurkeztuko ditu; hirugarrenak hiztegia osatuko du, eta laugarrenak sintaxia (“construction”) aztertuko du eta euskal esaldi hautatuak sartuko ditu. Harrietek diosku bigarren liburukia ondua zuela, eta hirugarren eta laugarrena ia amaituak. Segidako “Escualdunei gomendioa eta Abisua” eginak dituen beste bi liburu iragartzen ditu: lehena, “nausirik gabe” frantsesa irakurtzen ikasteko eta bigarrena, bi partetan, lehenengoa aditz trinkoak (“verbo gaitz eta erreguelan ez diren batçuen”; ik. §7.2) euskaratik kentzeko eta bigarrena maileguak garbitzeko (1741: 507). Gainera, liburua ixten duen “Abisua autorac” atalean, laster argitaratuko uste dituen bi lanen berri ematen du. Hauek guztiak, inoiz idatzi bazituen, galdu egin dira.

Humboldten paperen artean, Nicolas Fréret historialari eta hizkuntzalari frantsesaren euskal gramatika laburra dago, *Essay d'une Grammaire de la Langue*

Basque (Fréret [1749 b.l.]). Humboldten aipamenagatik ([1810-1815]c) ezagutu zenetik galdurik izan zen; baina Fréreten lana 1992an agertu zen Krakovian (ik. Mueller-Vollmer 1993) eta egun eskuizkribua Krakoviako Biblioteka Jagiellonskan dago. Berriki Hurch-ek argitaratu du (2002a, 2002b) eta honi esker jakin dezakegu Fréreten testua, funtsean, Oihenarten XIV. kapituluaren laburpena besterik ez dela, diferentzia txikiak eta Fréreten hutsak gorabehera. Irudi luke askotan Fréretek ez zituela Oihenarten analisiak ondo ulertu, euskaraz ez zekielako segurki; esate baterako, hiru nominatiboz mintzatzen da, Oihenartek kasu berezizat hartu zituen nominatiboa, aktiboa eta negatiboa bateratuz.

Eusqueraren berri onac (1761) liburuan, Agustin Kardaberaz jesuitak gramatikari buruzko ohar batzuk utzi zizkigun, gehienbat Larramendiren *Arteari* jarraituz eta maisuaren “marabillazko gramatika” goraiatuz.⁴⁰ Helburu didaktiko eta apologetikoa nagusi izanik, kapitulu batzuetan (VI. eta VII.lean bereziki) euskal gramatikari buruzko zenbait adierazpen ematen ditu, behin baino gehiagotan euskara eta latina erkatuz. Hala, latinak bezala euskal gramatikak ere zortzi atal ditu; eta, latinaren preposizioen orde, euskarak postposizioak ditu. Batzuetan, Kardaberazek euskararen erregulartasuna eta erraztasuna nabarmentzen ditu: esaterako, latinaren edo grekoaren deklinabide zailen orde, euskarak kasu bakoitzean beti atzizki berdinak dituela diosku; ildo beretik, euskal aditzaren batasuna eta erregulartasuna azpimarratzen du, aditz-joko bakarra baitu; eta ez du beste hizkuntzen “Jenero eta preteritoen naspilla edo iskanbillarik”.

0.7 Egitura

Ikerketa honek bi atal nagusi ditu: egileak eta gaiak. Lehenbizikoan kapitulu bakoitza euskalari bati edo lan bati eskaini zaio; bigarren atalean, kapitulu bakoitzak gramatika-gai bati edo interesgune bati buruz egindako analisiak aztertu ditu. Nolabait, esan liteke bi atalek euskal gramatikagintzaren historiaren bi ardatz irudikatzen dituztela, ardatz horizontala eta ardatz bertikala bailiran, hurrenez hurren. Bestela esanda, bi ikuspegi desberdin aurkezten dituzte, autore edota lan batek zein gramatika-gai aztertu dituen, batetik, eta gramatika-gai bat denboran zehar eta zenbait autoreren lanetan nola aztertu den, bestetik.

Kapitulu bakoitzaren oinarri diren lanak zein bere aldetik sortu zirenez gero, sarri errepikatzen dira datu eta ideia batzuk, lan bakoitzean zeregin eta leku desberdina betetzen baitzuten. Tesiaren batasunaren kariaz, datu eta ideien sakabanatze hori ahal den neurrian gainditzeko, kapituluaren barneko eta kapituluaren arteko aipamen gurutzatu ugari ematen saiatu naiz.

Lehenengo kapituluaren gaia Pablo Pedro Astarloaren hizkuntz ideien aurkezpena da. Bereziki *Diskurtso filosofikoetan* (Astarloa 1883) durangarrak hizkuntzaren jatorriari buruz proposatu zituen teoriak eta berauen azalpenak aztertu ditut. Lehenik, Astarloaren lanei gainbegiratu bat eman diet, besteak beste *Diskurtso filosofikoen* helburuak, egitura eta datazioa argitzeko eta Astarloaren iturriez hitz bi esateko. Ondoren, Astarloaren ideiak behar bezala kokatzeko, Europan XVIII. mendeko

⁴⁰ Kardaberazengramatika ideiei buruz, ik. Lakadena (2005), Túrrez (2004) eta Zubiaur (2004).

hizkuntzalaritzan erabili ziren gai nagusi batzuk aurkeztu ditut: gramatika orokorra, hizkuntzaren jatorriari buruzko eztabaidak eta munduko hizkuntzen datu-bildumak. Kapituluaren atal nagusiak Astarloak hizkuntzaren jatorriaz zituen iritzi eta teoriak burutzeko erabili zituen abiapuntuak aurkeztu eta euren testuingurua zehaztu nahi ditu: lehen hizkuntza gizakiengan naturala izan zen, lehen hizkuntza hastapenetik artikulatua izan zen, eta lehen hizkuntza perfektua izan zen; halaber, Astarloak lehen hizkuntzaren perfektioa erakusteko erabili zituen irizpideetan —egokitasuna, ekonomia eta eufonia— arreta berezia jarri dut eta, berorietan oinarriturik, euskara lehen hizkuntzatzat hartzeko eman zituen zenbait adibide eskaini eta iruzkindu ditut.

Bigarren kapituluaren Wilhelm von Humboldtek euskal gramatikari egindako ekarpenak aurki daitezke. Humboldten euskal iturriak eta euskarari buruzko lanak berrikusi ondoren, autore prusiarrak euskal gramatikari egindako ekarpen nagusiak zehaztu ditut eta euskarari buruzko gramatika ideien historian kokatzen ahalegindu naiz, aurreko, garaiko eta ondoko euskalariekin erkatuz. Humboldten euskarari buruzko ideiek Astarloari zor diotenaz ohartarazi dut, baita geroagokotzat hartu ziren analisi batzuk Humboldtenak zirela erakutsi ere.

Hirugarren kapituluaren ardatza Darrigolen gramatika da (1827). Darrigolek Volney Saria irabazi zuen 1829an; hortaz, sariketaren xehetasunak eta bertan parte hartu zuten gainerako lau gramatikak aurkeztu ditut lehenik. Ondoren, Darrigolen gramatikaren egitura eta ezaugarri orokorrak azaldu ditut. Kapituluaren muina Darrigolen lanaren edukia aztertzea da, oraingoan ere aurreko eta ondoko euskalarien lanekin erkatuz eta iturriak miatuz. Agerian utzi dut Darrigolen lanean gramatika orokor eta filosofikoak (Beauzée, Girard...) duen eragina; Darrigolen helburua,

funtsean, gramatika orokorraren analisi logikoak euskararen gauzatzen direla erakustea da.

Laugarren kapituluak Bonaparte printzearen inguruan gertatutako hizkuntz eztabaidak aztertu ditu. Eztabaidetan erabili ziren gai nagusiak, berauen iturri eta edukiak eta parte hartu zuten autoreak (bereziki Vinson eta van Eys) hartu ditut kontuan. Kapituluaren zehar nabarmen agertzen da XIX. mendearen bigarren erdian hizkuntzalaritza historiko-konparatzaileak euskalaritzan zuen leku apala eta, aldi berean, sortzen zuen interes berria. Honen lekuko ditugu hizkuntzalaritzaren metodoari buruzko eztabaidak edota euskara munduko hizkuntzen artean sailkatzeko egin ziren ahalegin franko. Tradizio zaharragoa zuten zenbait eztabaidagai ere agertu ziren, hala nola euskararen eta iberieraren arteko erlazioa edo euskalkien sailkapena, azken honek Bonaparteren lanetan berebiziko lekua baitu, jakina denez. Eztabaidakideen ideia eta iturriei dagokienez, Bonaparte printzea euskal gramatikari eta apologistengandik hurbil agertzen zaigu; Vinson, ordea, Schleicher-en eskutik sortu zen hizkuntzalaritza naturalistari atxikia; azkenik, van Eys, Campión eta Luchaire bezalako autoreek jantzi teoriko urriagoa bide zuten.

Bosgarren kapituluaren Willem van Eys holandarraren lehen euskal gramatika deskribatzen da, izan zituen bi argitalpenetan (van Eys 1865, 1867) azalduetako hizkuntz ideiak aurkeztu eta erkatzen direla. Bi argitalpenen arteko diferentzia nagusiak agerrarazi ondoren, gramatika-lanaren helburuak, iturriak eta edukia xeheki aztertu ditut, aurreko kapituluaren bezala euskalaritzaren historian kokatzen ahaleginduz. Horren guztiaren ondorioz, gramatikaren lehen edizioan van Eysen

Larramendiren eragin nabaria jaso zuela erakutsi dut, bigarrenean askoz apalagoa izanik eta, beraz, holandarraren beraren analisisiei leku emanik.

Seigarren kapituluak “artikulu” terminoaren zenbait erabilera aurkezten ditu, XVII-XIX. mendeetako euskal gramatika-lan batzuetan agertzen diren bezala; halaber, erabilerok gramatika-lan bakoitzean proposatutako euskararen analisisetan izan zituzten ondorioak ere azaldu dira. Aztergai interesgarria da, Berpizkundeko gramatikagintzan artikulua genero eta kasu bereizketekin lotu ohi zelako; bestalde, euskal mugatzaileak zailtasun tipologiko franko aurkezten ditu, eredu greko-latindarrean eta Europako hizkuntza nagusietan oinarritzen den gramatikagintza batek identifikatu dezan. Aztertu ditudan autoreen artean, Oihenartek aski ongi identifikatu zuen mugatzailea; Larramendik egun *hondarki* deitzen dugunarekin parekatu zuen; Astarloak “artikulu” deitu zien gaurko kasu-markei eta, aldiz, mugatzailea izen arrunten ezaugarritzat jo zuen; Zabalak, harrigarriki, “artikulu” terminoa adizki jokatueterako baliatu zuen eta, azkenik, Lardizabalek bere bi maisu Larramendi eta Zabalaren erabilerak nahastu zituen.

Zazpigarren kapituluan XIX. mendeko euskal gramatikari batzuek “aditz bakarraren” teoria nola adierazi eta erabili zuten azaltzen da. Atari gisa, XIX. mendea arteko gramatikagintzak euskal aditza aztertzeke erabili zituen irizpide nagusiak laburtu ditut. Jarraian, gramatika orokorraren eta, haren barruan, aditz bakarraren teoriaren azalpen laburra eman dut. Geroago, zenbait adibide eskaini ditut, aditz bakarraren teoriak XIX.eko euskalaritzan izan zuen lekuaren agerpen aski zabala erakusteko asmoz: Humboldtten lehen urrats dudatsuak aurkeztu ondoren, Darrigolen formulazio oraindik anbigua xeheki agerrarazi dut; segidan, Abbadiek, Chahok eta

Inchauspek euskarak aditz bakarra zuela nola aldeztu zuten; Bonaparteren aditz-teoria bihurrian aditz bakarraren teoriak izan zuen leku nabaria azaleratu dut eta, amaitzeko, Azkueren eta Arana-Goiriren lekukotasun berantiarrak aipatu. Aditz bakarraren teoria ez ezik, euskarak aditz bakarra duela aldeztera eraman zuten arrazoiaren artean, aztertutako autore gehienek helburu apologetikoa eta euskal aditz-joko perifrastikoari aitorturiko nagusitasuna aipa daitezke. Hortaz, euskal gramatikari askok berehala ikusi zuten euskal aditzean formalki gauzaturik gramatika orokorrak proposatzen zuten analisi logikoa, euskararen perfektutasunaren frogagarria.

Zortzigarren kapituluak XIX. eta XX. mendeetako euskal gramatikagintzan objektu-komunztadura nola ulertu den eta zein azterbide proposatu diren azaldu nahi du. Bi abiaburu aintzat hartu ditut: Batetik, Astarloaren ideiak, durangarrak euskal aditzaren lehen analisi morfemikoa burutu baitzuen; gainera, Astarloak pertsona-komunztadura hizkien tradiziozko analisiaren oinarriak ezarri zituen. Bestetik, gramatika orokorraren ideiak eta, batik bat, “aditz bakarraren” teoria ditugu. Halaber, hiru analisi mota bereizi ditut, analisi bakoitzak hirugarren pertsonako objektuarekiko komunztadurari eskaini dion ikuspegiaren arabera: Lehena gramatika orokor eta filosofikoaren eta, zeharka bederen, teoria pasibistaren aldekoena da; aditz “iragankorretan” hirugarren pertsonako objektua beti markatzen dela aldarrikatzen dute, are objekturik ez dagoen kasuetan ere —nahiz eta pasibisten formulazioa apur bat konplexuagoa den—. Bigarren analisi motari tradiziozko teoria dagokio; haren arabera, *d-*, *z-* (*ø-*), *l-* eta *b-* aurrizkiak hirugarren pertsonaren markak dira eta, batzuetan, ustezko izenordainekin erlazionatzen dira. Hirugarrena aspektu-denborazko teoria deiturikoa da; hemen *d-*, *z-* (*ø-*), *l-* eta *b-* aurrizkiak (antzinako) modu-aspektu-denborazko markak dira.

Tesi-lana amaitzeko, ondorio orokorrak, bibliografia, izenen aurkibidea eta taulen aurkibidea agertzen dira.

Jakina, ez dut hautatutako ikergaiak azaleratu litzaketen galdera guztiei erantzuteko asmorik izan, ezta agian erantzun guztiak zuzen eman ere. Aski nuke doktorego tesi honek euskal gramatikagintzaren historian aurrerapauso apal bat emateko balio balu. Guztiarekin ere edozein ikerlanek, haren luze-laburra gorabehera, bere akatsak eta hutsak behar ditu, osoa eta betea izango bada. Irakurleak muzin egingo lioke autoreari haren orrialde trinkoetan murgildu ondoren halako ezer leporatu ezin izango balio. Hortaz, dudarik ez dut tesi-lan honen irakurleak bere nahia aseko duela, eta ez dakit, bada, horregatik barkamena eskatu behar diodan. Bihoakio, badaezpada, eta harekin batera hurrengo idatzaldi batean, hala gerta baledi, ahal dudan neurrian dibertsiorik gabe uzten saiatuko naizelako mehatxua.

I. EGILEAK



(June Brigman & Mary Schmich, *Brenda Starr*)

1 Pablo Pedro Astarloa (1752-1806)

1.1 Sarrera*

Berriki arte Astarloari buruz izan den iritzia ez da gehienetan oso baikorra izan.⁴¹ Euskararen apologia egin nahian, burugabekeria asko idatzi zituela leporatu zaio maiz apaiz durangarrari. Bereziki kritikatu izan dira haren bi teoria ezagunenak, alegia, euskara gizakion lehen hizkuntza izan zela eta lehen hizkuntza hartan —hots, euskaran— letra bakoitzak esanahi bat zuela.

Nolanahi ere, azken urteotan Astarloari buruzko ikuspegia zerbait aldatu da. Itziar Laka (1989), Xabier Alberdi (1989a), Xabier Altzibar (1997) eta beste zenbaiten

* Kapitulu honen oinarrian aurreko zenbait lan daude: batetik, *I Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística* (A Coruña, 18-21 de febrero de 1997) biltzarrean aurkezturiko komunikazioa, geroago Gómez (1999) lanean argitaratu zena; bigarrenik, Hurch, Gómez eta Kerejeta (2002) lanerako prestatu nuen testua; hirugarrenik, Durangon emandako hitzaldi bana jasotzen duten Gómez (2002c) eta (2004); eta, azkenik, *XVIII. mendea Euskal Herrian letretan eta historian* jardunaldien barruan Baionan emandako hitzaldia (Gómez 2004).

⁴¹ Astarloaren bizitzari buruzko azterketarik osoena Uriarteren (2002) lan mardul eta bikain dokumentatua dugu. Garaterenak (1936) oraingoz balio du, bere barnean desordena eta nahasmendu handia izanik ere. Lan biografiko aipagarriak dira, orobat, Manterolarena (1921) eta Villabasoren

lanei esker, Astarloaren obraren alderdi onak azaleratzen hasi dira euskalaritzan. Eta kapitulu honetan nik ere Astarloaren merezimenduez jardun nahi nuke, teoria horiek ez zirela hutsetik sortu erakusteko asmoz. Arreta berezia ipiniko dut Astarloak hizkuntzaren jatorriari buruz zituen iritzietan. Izan ere, Astarloaren teoria XVIII. mendean, Frantzia batik bat, arrakasta izan zuen gramatika orokor eta filosofikoaren korrontean koka daiteke, zehazkiago Frantziako gramatikari-filosofo sentsualisten ildoan.

Horretarako, lehenik Astarloaren lanei begiratu nahi nieke, gaingiroki bederen, eta *Diskurtso filosofikoei* (Astarloa 1883) xehekiago, durangarraren lan azken eta osoena delako (§1.2). Bigarrenik, Astarloak *Apologian* (Astarloa 1803) aitortu zituen iturri batzuk aurkeztuko ditut (§1.3). Ondoren, Europan XVIII. mendeko hizkuntz hausnarketetan erabili ziren gai nagusi batzuk azaltzen jarraituko dut (§1.4). Eta, azkenik, Astarloak hizkuntzaren jatorriaz zituen iritzi eta teoriak burutzeko erabili zituen abiapuntuak aurkezten eta euren testuingurua zehazten ahaleginduko naiz (§1.5), lehen hizkuntzaren perfekzioa erakusteko erabili zituen irizpideetan arreta berezia jarriz. Ondorioek ixten dute kapitulua (§1.6).

1.2 Astarloaren lanez eta *Diskurtso filosofikoen garrantziaz*

Astarloaren lan guztiak (euskarazko bertso batzuk izan ezik) euskararen perfekzioei buruzkoak dira eta, beste alde batetik, gaztelaniaz idatziak, apologia lan batean

(1887) ia hagiografiko hura.

espero denez, bidenabar.⁴² Argitaratu zuen lehena *Apología de la lengua bascongada* (Astarloa 1803) izan zen. Haren izenburu osoak aitortzen duenez, *Apologiaren* helbururik behinena Joaquín Traggia aragoiarrak *Diccionario Geográfico-Histórico* lanean Nafarroari buruz idatzi zuen artikuluari (Traggia 1802) erantzutea izan zen. Alabaina *Apologian* azaltzen diren teoriak eta ideiak Traggiaren artikuluaurrekoak ziren, izan, eta beraz ez ziren erantzuna argudiatzeko sortu (ik. Villasante 1979: 227). Traggiak adierazi zuen euskara ez zela Antzin Aroan Iberiar Penintsulako hizkuntza lehen eta bakarra izan, euskararen apologia tradizio luze bati aurre eginez (tradizio horren laburbiltze baterako, ik. Tovar 1980); aitzitik, Astarloak euskara gizakien aurreneko hizkuntza izan zela aldeztu zuen, horretarako orrialde orrialde hainbat etimologia kratilozale aurkezten zituela. *Apologiaren* agerpenak eztabaida sutsua sorrarazi zuen —Garatek (1936: 122-123) biltzen duena—, non Astarloaren lanaren kontrako iritziak⁴³ haren aldekoak baino askoz ugariagoak izan baitziren.

Kritika horietako bat *Censura crítica de la pretendida excelencia y antigüedad del vascuence* izeneko liburuxkan heldu zen. Haren egilea, “J.A.C., cura de Montuenga”

⁴² Uriartek (2002: 526-530) Astarloaren lan guztien —hala inprimatuen nola eskuz idatzien— zerrenda dakar, iruzkinez horniturik; ik., halaber, Garate (1936) eta Alzibar (1992: 219-226). Astarloaren euskarazko lanari buruz, ik. Uriarte (2002: 458 eta hh.).

⁴³ *Apologiaren* kontrako iritziok, agian, Godoyren gobernuak bultzatu zituen, euskal foruak desagertzea nahi baitzuen (Cánovas del Castillo 1873: xlvi; cf. Castaños 1978: 5-8 eta Tovar 1980: 133). Kritika “instituzional” honen irudi nagusia Juan Antonio Llorente, Kalagorriko kalonjea, izan zen; bere lanetan euskal apologistek ekarritako mito asko faltsuak zirela salatu zuen, Euskal Herrian jende asko suminduz (cf. Fernández Pardo 1989).

izengoitiaren azpian ezkutatua, Juan Antonio Conde arabista ezaguna izan zen (Conde 1804). Condek baieztatzen du euskara ez zela gizakien aurreneko hizkuntza eta ez zela Iberiar Penintsula osoan hedatu; halaber, Astarloari leporatzen dio aipatzen dituen hizkuntza horiek guztiak ez ezagutzea eta aldarrikatzen du hizkuntza baten bikaintasuna haren literatura landuz lortzen dela, ez hizkuntza hartaz egindako burutazioei esker.

Astarloaren erantzuna laster heldu zen eta, hala, urte berean *Reflexiones filosóficas en defensa de la Apología de la lengua bascongada, ó Respuesta á la censura crítica del cura de Montuenga* kaleratu zuen (Astarloa 1804), izengabe argitaratu bazen ere. Lan honetan, *Apologian* baliatutako metodo eta irizpideak aldeztu zituen Astarloak —hirugarren pertsona erabilia ere—, latina, grekoa eta hebreera ongi ezagutzen zituela frogatu nahi izan zuen eta berriro euskararen perfekzioa justifikatzen ahalegindu zen.

Astarloak *Plan de lenguas* eskuz idatzirik utzi zuen; egun galdua da eta, aldez bederen, Humboldték 1801eko bidaiari egindako laburpenari esker eta zati baten kopia bati esker (ik. Hurch, Kerejeta & Gómez 2002) ezagutzen dugu. Justo Garatek Humboldtén eskuizkribua, artean Waldenburgon zegoena, kopiatu zuen eta zati batzuk argitara eman zituen (Garate 1935), baita euren gaztelaniazko itzulpena eta ohar batzuk ere (Garate 1961a, 1961b). Gaur egun laburpena Krakoviako Biblioteka Jagiellonskan gordetzen den Humboldtén ondarean dago (*Collectanea linguistica in folio 73*), baita berriki argitaratu den zati baten kopia ere, antza Humboldtén

enkarguz egina eta prusiarrak 1811n jaso zuena (Hurch, Kerejeta & Gómez 2002: 24).⁴⁴ Humboldték berak aitortu zuenez, Astarloaren *Plan de lenguas* euskal gramatikari buruzko azterketetarako iturri nagusia izan zuen (ik., esaterako, Humboldt 1817 [1933-34: 97]).

Astarloaren obrarik garrantzitsuen eta oparoena *Discursos filosóficos* izan zen. Bertan Astarloak bere ideia guztiak aurkezten ditu sistematikoki zortziehun bat orrialdetan zehar. *Diskurtso filosofikoak* ez ziren 1883 arte argitaratu,⁴⁵ baina badakigu euskalari batzuek —Humboldték, esaterako— lehenago ezagutu zituztela. Dena den, Garatek (1936) zioenez, oso jende gutxik irakurri bide ditu *Diskurtso filosofikoak* osorik; eta “gutxi” esateari gehiegitxo esatea dela deritzot.

Lanaren izenburu osoari begiratzen badiogu, diskurtsoen egituraren eta helburuen berri izan dezakegu. Hauxe da: *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*. Astarloak berak dioskunez, bere lana bi zatitan banatu du. Lehenengoan (“Sobre si hubo ó no lengua primitiva” izenekoa, 5-112. or.) gizakien jatorrizko hizkuntza bakarra izan zela aldeztzen du eta hizkuntza haren ezaugarriak finkatzen saiatzen da: lehen hizkuntza bakarra, perfektua, artikulatua eta naturala izan zela dio. Aldiz, bigarren zatian (“Gramática de la lengua primitiva” izenekoa, 113-773. or.), lehen hizkuntza hura

⁴⁴ *Plan de lenguas*-en zatiaren kopia Humboldtén ondarean aurkitutako euskal testuen bilduman argitaratu da (Hurch 2002: 45-79). Astarloaren lan honi buruzko xehetasun gehiagotarako, ik. bereziki zatiaren kopiari egindako sarrera-testua (Hurch, Kerejeta & Gómez 2002: 22-25, 31-34 eta 44-45).

⁴⁵ Astarloa hil ondoren *Diskurtso filosofikoek* igarotako gorabeheraz eta argitalpena berandutzearen arrazoiez, ik. Uriarte (2002: 318-334).

oraindik existitzen dela aditzera eman nahi du; hain zuzen, lehen hizkuntzaren ezaugarri guztiak zehaztu ondoren, 530. orrialdetik aurrera ezaugarriok betetzen dituen hizkuntza bakarra euskara dela erakusten saiatzen da.

Beste autore batzuek —Garate (1936: 143), Castaños (1978: 31) edo Altzibarrek (1992), adibidez— egitura desberdina ikusi dute, bi zatien arteko banaketa beste era batez eginez edota hiru zati proposatuz; baina diskurtsoen testua oso garbia da gai honi dagokionez. Aski luzea bada ere, uste dut Astarloaren pasarte hau oso interesgarria dela bere metodoaren zehaztasunaz ere ohartzeko:

He determinado por lo mismo dividir mis tareas en dos partes y varios discursos en los cuales procuraremos averiguar con el mayor empeño: En el primero, si hubo ó nó un idioma primitivo, quiero decir, si los primeros hombres hablaron ó nó el lenguaje perfecto, desde el mismo instante en que fueron criados. Discurremos tambien sobre si este idioma fue de accion ó de voces articuladas. Si fue natural al hombre. Si éste lo adquirió á costa de tiempo y trabajo. Si el Sér Supremo quiso infundirle á nuestros primeros padres. Ultimamente investigaremos si fue uno ó fueron muchos.

En la segunda parte nos esforzaremos en averiguar, si existe ó nó en alguna de las naciones este deseado idioma. Filosofaremos para este efecto con la mayor atencion y escrupulosidad, sobre el mecanismo que hubo de haber tenido un lenguaje de que hicieron uso los primeros hombres. Empezando desde su alfabeto, recorreremos hasta la Sintaxis. No dejaremos, por mínima que sea, cosa alguna sin escudriñarla con el mayor cuidado. Estableceremos cuantas reglas y preceptos sean necesarios, para levantar el gran edificio de un perfecto lenguaje (Astarloa 1883: 1-2)

Laburbilduz, *Diskurtso filosofikoen* helburua lehen hizkuntza bakarra izan zela eta hizkuntza hura euskara dela frogatzea da.

Aurrera baino lehen, arazo bat azaldu nahi nuke orain, laburki bada ere: *Diskurtso filosofikoen* datazioari dagokiona, alegia. Astarloaz jardun duten autore gehienek (Garate 1936: 139, Tovar 1980: 111, eta azken honi jarraituz Laka 1989, Alberdi

1989a eta Altzibar 1992) uste izan dute *Diskurtso filosofikoak Apologiaren* aurretik idatzi zituela Astarloak; hau da, 1803 baino lehen. Arrazoia da, Garaterentzat, *Apologiaren* hitzurrean Astarloak esaten duela *Diskurtso filosofikoen* zirriborroa bukatua zuela, Hervásek Erromatik bere katalogoaren liburukiak bidali zizkionerako, hamar-hamabost bat urte lehenago ziurrenik (Astarloa 1803: xix). Gainera, *Apologiaren* orrialdeetan Astarloak sarri aipatzen ditu *Diskurtso filosofikoak*.

Hala eta guztiz ere, *Diskurtso filosofikoak* arretaz irakurriz gero, berehala kontura gaitzke euren azken idatzaldia *Apologiaren* ondoren burutu zuela. Alde batetik, esan berri dudanez, *Apologiaren* hitzurrean *Diskurtso filosofikoen* “zirriborroa” aipatzen da, eta hau esanguratsua iruditzen zait. Bestetik, *Diskurtso filosofikoetan Apologia* aipatzen da, eta ez gutxitan. Areago dena, *Apologian Diskurtso filosofikoen* aipamen guztiak geroaldian egiten ditu Astarloak eta *Diskurtso filosofikoetan*, berriz, *Apologia* lehenaldian aipatzen du (ik., adibidez, Astarloa 1883: 44, 78, 160, 185, etab.). Baina, nire iritziz, guztiz erabakigarria gertatzen dena hau da: *Diskurtso filosofikoetan*, noiz edo behin, Astarloak *Apologiaren* orrialdea ere zehazten du (ik., adibidez, Astarloa 1883: 187); edo *Apologian* erabilitako terminologia beste era batera ematea proposatzen du:

En nuestra Apología en lugar de *impulsiva* llamamos *causal* á la última posposicion [-*gatti*]; pero habiéndonos hecho ver varios literatos que esta voz *causal* era confusa para indicar la idea que con ella se queria dar á entender, no hemos tenido embarazo en sustituirla por la voz *impulsiva*... (Astarloa 1883: 348)

Halaber, *Apologiari* erantzunez Montuengako Apaizak —hots, Juan Antonio Condek— 1804an idatzitako *Censura crítica* eta urte berean Astarloak ateratako *Reflexiones filosóficas* erantzun anonimoa ere aipatzen ditu (Astarloa 1883: 322).

Beraz, esan genezake Humboldték 1801ean egindako bidaian *Diskurtso filosofikoen* zirriborro bat ikusi ahal izan zuela, bai. Baina Astarloak obra honen azken idatzaldia 1804tik —*Reflexiones filosóficas* argitaratu ondotik— 1806an hil bitartean bukatuko zuen edo, beharbada, hil zenean *Diskurtso filosofikoak* guztiz bukatu gabe utzi zituen. Halako zerbait ematen digute aditzera Juan Bautista Errok Humboldti bidalitako eskutitz batean agertzen diren hurrengo hitzek:

En efecto, tengo en mi poder el *Plan de lenguas* de nuestro Astarloa, que me lo legó a su muerte con la obra de los ‘Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua’ para que los concluyera y publicara. (*apud* Garate 1934: 637)

Alabaina Uriartek Astarloaren artikulua bat azaleratu du berriki, 1805eko martxoaren 15ean *Mercurio de España* aldizkarian agertu zena; bertan Astarloak hauxe adierazten du: “me hallo preparando para la prensa mis discursos filosóficos, que ya están concluidos”. Era berean, Uriartek *Diskurtso filosofikoak* Astarloaren bizialdian ez argitaratzeko arrazoi posibleak ematen eta lekukotzen ditu (Uriarte 2002: 280-286).

1.3 *Apologian aitortutako iturriak*

Astarloak *Apologiaren* hitzaurrean (Astarloa 1803: v-xxiv) dioskunez, euskarari buruzko interesa 1783 urte inguruan piztu zitzaion; orduz geroztik bere burua euskara aztertzeari eta goraiatzeari eskaini zion. Horretarako hizkuntza askoren hainbat gramatika bildu zituen; honen isla dira bere lanetan aipatzen dituen Europa, Amerika eta Asiako hizkuntzen datu ugariak, inoiz edo behin euskararekin

konparatzeko ere erabili zituenak. Euskara aztertzeko erabili zituen iturri idatziak *Apologiaren* lehenengo orrialdean bertan jakinarazten dizkigu (1803: v). Hauexek dira: Oihenart, Harriet (“Arriet” deitzen badio ere), Moret, Etxabe eta Larramendi.⁴⁶ Jakina, Astarloak ez zituen ezagutu Mikoleta eta Urteren eskuizkribuak, Ingalaterran baitzeuden —eta daude—, ezta Larramendik hiztegiaren hitzaurrean (1745: xxxiv-xxxviii) edo Humboldttek (Humboldt [1810-1815]c) aipaturiko beste zenbait lan ere —edo ezagutu bazituen, ez zituen aintzat hartu bederen—. Voltaire-ren irakasliburua ere (*ca.* 1620) ez du aipatzen.

Ondoren, Astarloak euskararen perfekzioa frogatzeko hizkuntzaz hizkuntza egindako bidea zehazten digu: latina, hizkuntza erromantzeak, grekoa, hebreera eta beste hizkuntza semitiko batzuk, txinera,⁴⁷ hizkuntza germaniarrak, zeltak,⁴⁸

⁴⁶ Arnaud Oihenarten gramatika-lanari buruz (Oihenart 1638/1656), ik. Oyharçabal (1989, 1993, 1994). Martin Harrietek euskaldunei frantsesa irakasteko idatzi zuen gramatikak (Harriet 1741) ez du edizio moderno ez azterketarik izan; bertako hiztegiei, ordea, Lakarrak (1994a) ikerketa xehea eskaini die. Joseph Moret jesuita Nafarroako Erresumaren kronikagilea izan zen, nahiz eta bere historia-lana bukatzeke utzi zuen (Moret 1665, 1684-1709). Baltasar Etxabek lehen pertsonan idatzitako euskararen apologia bat argitaratu zuen Mexikon (Etxabe 1607; ik. Echenique 1993 eta Etxebarria 1988). Azkenik, Manuel Larramendik zenbait lan idatzi zituen euskarari buruz, haien artean lehenengo euskal gramatika argitaratua (Larramendi 1729) eta gaztelania-euskara-latina hiztegi hirukoitza (1745); gramatikari buruz, ik. Gómez (1991) eta hiztegiari buruz, besteak beste, Lakarra (1985a) eta, bereziki, Urgell (2000); Larramendiren lanek XIX. mende hondarra arteko euskal literaturan izan zuten berebiziko eraginaz, ik. Pagola (1984), Sarasola (1986) eta Urkizu (1992b) ere.

⁴⁷ Hizkuntza honetaz Du Halde eta Kircher-en lanak baliatu bide zituen (Astarloa 1803: xiv). Garatek (1936: 110) lehenaren berri eman zigun: Jean Baptiste Dualde edo Du Halde (1674-1743) frantses jesuita izan zen; Astarloak ezagutu zuen lana *Description géographique, historique, chronologique, politique et physique de l'Empire de la Chine et de la Tartarie chinoise* (Du Halde 1735) izan zitekeen. Bestalde, Du Halde hizkuntzalaritzaren historian ezaguna da *Lettres édifiantes et curieuses* (Du Halde 1702-1776) argitaratu zituelako; izan ere, lan honetako XXVI. liburukian Jean François

eslaviarrak eta amerindiarrak.⁴⁹ Halaber, asko baliatu zen Lorenzo Hervásek emandako datuez; izan ere, *Idea dell'Universo*-ren hogeita bat liburukietatik bost igorri zizkion espainiar jesuitak Erromatik (ziur asko XVIIItik XXIera bitartekoak; hau da, Hervás 1784, 1785, 1786, 1787a, 1787b).⁵⁰

Pons-ek idatzitako gutun eraginkorra dago, Europako Mendebaldean literatura sanskritoia ezagutzera eman zuena (cf. Rocher 1995). Halaber, Du Halde eskuz idatzitako euskal hiztegi baten egile izan zitekeen, egun galdua dena, baina bai Humboldt (‘‘El famoso Jesuita Du Halde... † en 1743... dejó, pero en un manuscrito casi ilegible, un Diccionario Vasco en 3 volúmenes en folio...’’; Humboldt 1817 [1933-34: 111]), bai Delattre-k (1949: 1478) aipatu zutena; azken honek, aldiz, adierazten du Du Halde gaixorik zegoela Bordelen 1762an. Bidenabar, behin baino gehiagotan nahastu da jesuita hau Martin Duhalde euskal idazlearekin (1733-1804); Martin Duhalde apaiza izan zen, baina ez jesuita (cf. Urgell 1997: 646 eta, zuzendurik, Urgell 2003: 110).

Garatek ez digu gauza handirik esaten Kircher-i buruz (Astarloak ‘‘Kirker’’ deitzen dio), beharbada ezagunegizat jo zuelako. Jakina, Aita Athanasius Kircher (1602-1680) da, *China illustrata* izeneko lanaren egilea (Kircher 1667); eta hauxe izan zen, ziur asko, Astarloak kontsultatu zuen liburua, agian lehenbizikoz 1670. urtean argitaratu zen haren frantses bertsioa, txinera-frantsesa hiztegi bat gehitzen ziona (cf. Harbsmeier 1992: 298). Kircher-ek, orobat, txineran oinarritutako hizkuntza artifizial baten egitasmoa burutu zuen (*Polygraphia nova*, 1663), baita egiptoerari buruzko zenbait lan ere (David 1992: 522).

⁴⁸ Hizkuntza hauetaz den bezainbatean, Astarloak ‘‘los esfuerzos de Valencey’’ aipatzen ditu (1803: xix). Ezbairik gabe, Charles Vallancey jeneral ingelesaz ari da (1721-1812). Irlandara bidalita, 1772an bertako hizkuntza zeltari buruzko saiakera bat argitaratu zuen eta hurrengo urtean irlandararen gramatika bat, non defendatzen baitu hizkuntza hau, punikoa, kalmouck eta hizkuntza amerindiar batzuk ahaideak direla (Tourneur 1905: 74). Halaber, historia-lanen *Collectanea* bat idatzi zuen (Dublin 1770-1804).

⁴⁹ Astarloaren kritiko garaikideek aipatzen zituen hizkuntzak aski ez ezagutzea leporatu zioten, besteak beste (cf., esaterako, Conde 1803). Astarloak sutsuki defendatu zuen bere burua halako kritiken kontra (Astarloa 1804). Egun, hala ere, aipatu hizkuntzak noraino ezagutu zituen ez da xeheki aztertu.

⁵⁰ Cf. orobat Astarloa (1803: xxi): ‘‘No pude adquirir mas gramáticas por entónces, y procuré suplir esta falta con la lectura de los otros quatro tomos del erudito Hervás. Su origen de las lenguas me sirvió muchísimo en mis tareas. El diccionario poligloto, la aritmética de las naciones, y sobre todo la

1.4 XVIII. mendeko hizkuntz ideiak Europan

Astarloaren proposamenak behar bezala ulertuko badira, guztiz komeni da bere garaiko hizkuntz ideien azalpenean apur bat luzatzea. Astarloak garaiko iturrietan edan zuen eta euren aztarnak erraz antzeman daitezke bere lanetan. Europako XVIII. mendeko hizkuntzalaritzaren ardatzak hiru gai nagusitan bildu ditut: gramatika orokorraren zabalkundea (§1.4.1), hizkuntzaren jatorriari buruzko eztabaidak (§1.4.2) eta munduko hizkuntzen datu-bildumak (§1.4.3).

1.4.1 Gramatika orokorraren zabalkundea

Oro har, gramatika orokorrari hizkuntzaren arazo orokorren gaineko hausnarketak dagozkio. Hizkuntzalaritzaren joera honek oso tradizio luzea du Europako Mendebaldean: Erdi Aroaren amaieran, latinean oinarrituz, *modistae* izeneko filosofo eskolastikoek hizkuntza guztiek funtsean gramatika bera zutela baieztatu zuten. Orobatsu Humanismoaren garaiko zenbait gramatikarik eta filosofok, hala nola Scaliger, Sanctius, Vossius, Campanella, etab. Baina gramatika orokorrari erabateko ospe eta arrakasta eman zizkionak Paris ondoko Port-Royal komentuko eskolan egindako lanak izan ziren: *Grammaire générale et raisonnée* (Arnauld & Lancelot 1660) eta *La logique* (Arnauld & Nicole 1662), hain zuzen.

Port-Royaleko lanek helburu bikoitza bete nahi zuten. Alde batetik, hizkuntzaren arau orokorrak aurkeztea eta, bestetik baina loturik, edozein hizkuntza ikasteko gida

excelente recoleccion de la oracion dominical, traducida literalmente al Italiano de un sin número de

erraz bat lortzea. Neurri handi batean Descartesen arrazionalismoan oinarritu zirelarik, lan hauen ideia nagusiak hauexek dira: Hizkuntza giza gogoaren eragiketen isla da eta, hortaz, gramatika ere bai. Arrazoa gizaki guztiengan bat bakarra bada, norberaren pentsamenduak adierazteko arauak ere unibertsalak izan behar dute (azaleko diferentziak gorabehera); beraz, gramatika ere unibertsala da.

Port-Royaleko autoreek Gramatikan eta Logikan garatu zituzten analisisetan xeheki jarduteko tokia ez delarik,⁵¹ aipa dezadan lan hauek arrakasta handia lortu zutela eta euren eragina XVIII. eta XIX. mendeetan luzatu zela. Baina, hizkuntzalaritza historiko-konparatzaile berria Alemaniatik gainerako herrietara zabaltzen zen heinean, gramatika orokorraren pisua eta omena apalduz joan ziren.

Nolanahi ere, gramatika orokorraren helburuak eta formulazioak nahiko aldatu ziren XVIII. mendean zehar, lehenbizi entziklopedisten eraginez (Beauzée, du Marsais),⁵² geroago filosofo sentsualisten eskutik (Condillac nagusi)⁵³ eta, Frantziako Iraultzaren ondoren, ideologoen bitartez (Destutt de Tracy, Maine de Biran eta Thurot, besteak beste).⁵⁴ Gramatika orokorraren tradizio luzean beste deitura batzuk erabili —eta sarritan nahastu— dira: “gramatika filosofikoa”, “gramatika arrazoitua” eta, Ingalaterran batez ere, “gramatika unibertsala”. Euren

idiomas, me hicieron ver el mecanismo de ellos”.

⁵¹ Port-Royaleko lanez, ik., besteak beste, Harnois (1929), Donzé (1967), Auroux & Clérico (1992), Dominicy (1992) eta Wheeler (1995).

⁵² Entziklopedisten hizkuntz ideiez, ik., besteak beste, Auroux (1973) eta Swiggers (1984b).

⁵³ Condillaci buruz, ik., besteak beste, Aarslef (1974), Sgard (1982) eta Formigari (2000).

⁵⁴ Ideologoi buruz, ik., besteak beste, Picavet (1971 [1891]); Auroux, Désirat & Hordé (1982); Busse

berezitasunak gorabehera, autore guztiok bilduko dituen haxe da: gramatikaren hatsarreak ideien jatorriari buruzko dotrina batetik eratortzeko ahalegina.

1.4.2 Hizkuntzaren jatorriari buruzko eztabaidak

XVIII. mendea hizkuntzaren jatorriari buruzko hausnarketan mendea da.⁵⁵ Interes hori giza erakunde eta kulturaren jatorriari buruzko ardura orokorrago baten testuinguruan kokatu behar dugu. Bestalde, hizkuntzaren alderdi teologikoarekin —*lingua adamica*, lehenengo hizkuntzaren perfekzioa, etab.— hertsiki lotuta dago. Gauzak horrela, hizkuntzaren jatorriaren berreraiketa-saioretan datu enpirikoak eta asmaketa fantastikoak nahasian aurkitzen ditugu maiz.⁵⁶ Aspaldixko Kuehner-ek (1944) hiru teoriatan bildu zituen honelako gogoetak: teoria tradizionala, teoria konbentzionala eta teoria sentsualista izendatu zituenak.

a. Teoria tradizionala Biblian oinarritzen da, nahiz eta Bibliak hizkuntzaren jatorriaz ez duen ezer zehatzegirik esaten. Teologiatik abiatzen den teoria honek, hortaz, hizkuntzak jainkozko etorkia duela baieztatzen du: Jainkoak Adami eman zion hizkuntza (*lingua adamica*) eta hizkuntza horretatik sortu dira gainerakoak.⁵⁷

& Trabant (1986), Schlieben-Lange *et al.* (1989-1994), Schlieben-Lange (1996) eta Désirat (2002).

⁵⁵ Garai hartako eta lehenagoko teoriez eta eztabaidez, ik., besteak beste, Harnois (1929), Kuehner (1944), Juliard (1970), Aarsleff (1976), Droixhe (1978) eta Salmon (1995).

⁵⁶ Eztabaida hauek une gorena bizi izan zuten XVIII. mende bukaeran, 1770ean Berlingo Zientzia Akademiak hizkuntzaren jatorria erabakitzeke lehiaketa bat deitu zuenean (ik., adibidez, Salmon 1995).

⁵⁷ Eskuarki, uste zen lehen urratsa Babelen gertatutako hizkuntz nahasketa (*Gen.* 11:1-9) izan zela eta orduan —ikuspegi hedatuenaren arabera— 72 ama-hizkuntzak edo *matrices linguae* sortu zirela.

Eskuarki Adamen hizkuntza hebreera izan zela uste zen, Elizaren iritzi “ofizialari” eta Elizaren barruko tradizio luze bati jarraituz. Nolanahi ere, XVI. mendetik aurrera behinik behin, hebreeraren aldeko aho batezko iritzia ahulduz doa eta beste hautagai batzuk azalduko dira eztabaidagarri. Ordea, hizkuntza guztiak hizkuntza bakar batetik datozelako ideiak —hizkuntzen monogenesiak— sendo jarraituko du.

Hautagai berriok, batzuetan arrazoi nazionalistengatik, eta beste batzuetan europarrek aurkitutako hizkuntza “exotikoekiko” lilura dela-eta proposatuko dira gehienbat. Horrela, Flandesko zenbait autorek —Goropius Becanusek XVI.aren hondarrean edo Myliusek XVII.ean— lehen hizkuntza nederlandera izan zela aldeztu zuten (Droixhe 1978: 57). Edo, 1692an John Webbek bezala, beste autore batzuek txinera nahi izango dute maila horretan ezarri (Simone 1990: 329).⁵⁸

Gaurko ikuspegitik erabat fantasiatsu eta zentzugabekoak iruditu ahal zaizkigu horrelako iritziak. Baina kontuan hartu behar da euren azken helburua ez zela linguistikoa bakarrik; erlijioso eta mistikoa ere baten: Jainkoaren hizkuntzaren eta hizkuntza historikoen arteko loturak zehaztu eta, honekin batera, hizkuntzaren eta munduaren arteko loturak ere zehaztu nahi zituzten (helburu hauei loturik kokatu behar dugu, esaterako, juduen Kabalaren tradizioa).

Europako autoreen artean ez zen falta euskara 72 ama-hizkuntzen artean sartu zuenik. Bestalde, ezaguna da —eta, beraz, ez naiz gaiaz luzatuko— Europako hainbat herritan, baita Euskal Herrian ere, hizkuntzaren apologia egiteko baliatu zutela ideia hori, nor bere hizkuntza Babelen sortuetarik bat zela frogatzen ahalegindu baitzen.

⁵⁸ Kontuan har bedi XVII eta XVIII. mendeetan zehar txinerak izugarrizko ospea lortu zuela eta hizkuntza filosofikotzat hartu zela, idazkera logografikoaren bitartez berehalakoan gauzen benetako

Jakina, teoria tradizionalari eustea fede kontua zen, ez zegoen frogatzerik. Horregatik, XVIII. mendean —arrazoiaren mendea, ez ahaztu— bestelako azalpenak bilatu ziren, arrazoiaren menpe, ez fedearen menpe izan zitezkeenak. Horretarako abiapuntua gizakien natura bakarra eta aldaezina zela pentsatzea izan zen.

b. Hortaz, XVII. eta XVIII. mendeetako arrazionalismo frantsesaren babespean, *lingua adamicaren* ideia bera ere gainbehera abiatu zen. Honen kariaz, teoria konbentzionala deiturikoan gizakiek berezko ideiak dituztela (arrazionalismoaren hatsarrea berau) eta hotsak ahoskatzeko ahalmena ere badutela proposatzen da. Ondorioz, teoria honek planteatzen du lehen gizakiek hizkuntza asmatu egin zutela, euren ideiak ahoz islatzeko eta, horrela, komunikatzeko gogoia bete eta berez duten gizartekotzeko izaera adierazteko. Teoria honen aldekoentzat arrazoiaren eta hizkuntzaren arteko lotura logikoa frogatzea aski zen gizakiek hizkuntza asmatu zutela ziurtatzeko eta, beraz, logikaren argudioez baliatu ziren gehienbat.

c. Sentsualistak filosofia enpiristaren jarraitzaileak ziren. Teoria sentsualistaren iritziz, gizakiok ideiak —eta, oro har, ezagutza guztiak— zentzumenen bitartez jasotzen ditugu, pixkanaka jaso ere; hau da, ez dago berezko ideiarik. Hortaz, hasiera batean gizakiek ez zuten ideiarik eta, beraz, ez zuten hizkuntzarik, sentsualista gehienek lehen gizakia basatia zela uste baitzuten. Aurreneko sentsazioekin gizakiak hotsak ahoskatu zituen, edo gorputz-atalen bat mugitu zuen. Pixkanaka hots eta mugimendu horiek analizatu zituen eta horrela ideiak aurkitu. Une horretara iritsita,

natura adierazteko gauza zela pentsatzen zelako.

gizakia gauza zen keinu eta hots horien esanahiak finkatzeko eta, ideia berriak jaso ahala, keinu eta hots berriak sortzeko ere.

Sentsualistek tradizionalisten eta konbentzionalisten ideiak baztertu nahi izan zituzten; alabaina ezin izan zioten euren eraginari erabat ihes egin. Izan ere, Bibliako kronologia onartu ohi zuten, bai eta hebreerari lehentasuna eman ere. Bestalde, arrazoiaren eta hizkuntzaren arteko lotura logikoan sinesten zuten. Haatik, konbentzionalisten arazoa hizkuntzaren jatorria bazen, sentsualisten arazoa bikoitza da: hizkuntzaren jatorria eta hizkuntzaren garapena azaldu behar dituzte. Azken gai honetaz bi joera daude sentsualisten artean: ekintza eta keinuen aldekoa (Condillac buru) eta aho-hizkuntzaren aldekoa (De Brosses eta Court de Gébelinek aldeztu zutena).

Étienne Bonnot Condillac (1714-1780) XVIII. mendeko filosofo frantses ezagunenetakoa dugu. Bere ekarpenik handiena —eta eztabaida piztu zuena— ezagutzaren garapenaren eta hizkuntzaren garapenaren arteko harreman estua erakustea izan zen. Gizakien komunikatzeko lehen bideak instintuak agindutako keinuak eta mugimenduak izan zirela uste zuen (*langage d'action* edo *ekintza-hizkuntza* deitu zion). Hasierako keinu basati haien ondoren, keinu apalagoak eta oihuak etorriko ziren. Pixkanaka, keinu eta oihuen errepikapenari esker, oroimena eta beste ahalmen batzuk sendotuko ziren eta gizakiek elkarren ekintzak eta berauen zergatiak lotuko zituzten, esanahiak finkatuz eta ikasiz. Harrezkero, aho-hizkuntzaren erabilgarritasunaz oharturik, ideia edo objektu berriak izendatzeko gizakiak gero eta hitz gehiago sartzen hasi ziren, eta hitz horien esanahiaz ados jarri

ziren. Baina zenbait belaunaldi igaro arte, aho-hizkuntza ez zen ekintza-hizkuntza bezain erabilia izango.⁵⁹

Charles de Brosses (1709-1777) filosofoak, berriz, uste zuen lehen gizakiak hasiera-hasieratik berezko hizkuntza bat hitz egin zuela (De Brosses 1765). Ondorengo lan bakarra hizkuntza hori garatzea izan zen. De Brossesek ez zuen, beraz, ekintza-hizkuntzaren lehentasunean sinesten. Aitzitik, uste zuen lehen hizkuntzaren itxura hizkuntza ezagunak aztertzetik abiatuz igar zitekeela, baina ez zegoen oso seguru metodoaren fidagarritasunaz. Ondorioz, alderantzizko metodo bat proposatu zuen, alegia aldeztetik lehen hizkuntzaren hotsak zein ziren finkatzen, euren esanahiak zein ziren aurkitzen eta, ondoren, hizkuntza ezagunekiko loturak bilatzen ahalegintzea. Lehen hotsak aurkitzeko, mintzoaren organoetako atalak hartu zituen kontuan. Horrela, zazpi bokal eta hamazazpi kontsonante proposatu zituen. De Brossesek uste zuen kontsonante bakoitzak bere esanahia zuela; aldiz, bokalek funtsean kontsonanteak lotzeko balio zutela. Hitzak osatzeko, lehen gizakiak hotsak konbinatu behar zituen, halako moduz non gizakiak deskribatu nahi zuen objektua hitzak era egokienean azaltzen zuen. Hortaz, hitzen formaren eta esanahiaren artean lotura naturala dagoela aldeztu du. De Brossesek ez du uste hebreera lehen hizkuntza izan zenik; izan ere, ez du uste lehen hizkuntza hizkuntza ezagunen artean aurki daitekeenik.⁶⁰

⁵⁹ Condillaci buruz ik. *supra* 53. oin-oharrea aipatutako bibliografia.

⁶⁰ De Brosses eta haren hizkuntz ideiez, ik., besteak beste, Auroux (1996a), Porset (1980) eta Sautebin-en lan klasikoa (1899).

Azkenik, Antoine Court de Gébelin (1725-1784) aipatu nahi nuke. Sentsualisten eta tradizionalisten bitartekotza egin nahi izan zuen autore honek, arrazoia eta fedea adiskidetuz. Ildo honetatik, *Monde Primitif* bere lan erraldoian (Court de Gébelin 1773-1782), besteak beste, Jainkoak gizakiarengan hizkuntz ahalmena eta jakintza sorrarazi zituela defendatu zuen, baita hizkuntz ahalmenarekin batera mintzoaren organoak ere eman zizkiola. Gizakiak, gero, arrazoia eta hizkuntza garatuko zituen, naturaren aginduei jarraituz.⁶¹

Funtsean, De Brosses eta Court de Gébelin, hizkuntzaren jatorriari buruzko teoriari dagokienez, Condillacekin lot daitezke. Bada, hala ere, diferentziarik: Condillacek hizkuntzaren eraketan gizakiari eman zion indarririk handiena; De Brossesek, aldiz, naturari; Court de Gébelin, azkenik, natura eta gizakia elkartzen saiatu zen, Jainkoaren goiargia ere baztertu gabe.

Condillacen teoriak eragin izugarri handia izan zuten⁶² eta eztabaida garrantzitsua piztu zuten hizkuntzaren jatorri, eraketa eta funtzioei buruz. Eztabaidak XVIII. mendeko bigarren erdia hartuko zuen. Eztabaidan Europa osoko intelektual eta filosofoek parte hartu zuten (besteak beste, Rousseau edo Adam Smith bezalako egileek) eta bertan argudio linguistikoak, antropologikoak, poetikoak, historikoak eta zientifikoak nahastu ziren.

⁶¹ Court de Gébelin eta haren hizkuntz ideiez, ik., besteak beste, Auroux (1996b), Auroux & Boës (1981), Dardier (1890) eta Reish (1972); ik. orobat, tesi honetako 130. oin-oharra.

⁶² Fikziozko literaturarekin konparatzen badugu, azpimarratzekoa da XVIII. mendearen bigarren erdiko nobeletan asmatzen diren hizkuntzak keinu-hizkuntzak izan ohi direla. Ikusten denez, garaian garaiko

1.4.3 Munduko hizkuntzen datu-bildumak

XVIII. mendearen azkeneko eta XIX.aren aurreneko laurdenetan hizkuntzen datu-bilduma handiak agertu ziren (ik. Morpurgo Davies 1998, Simone 1998). Hizkuntza askoren testu eta datu bildumak Berpizkundean hasiak ziren, aurkikuntza geografikoekin batera eta berauek sortutako erlijiozko eta merkataritzazko premiek eraginda. Garai hartako bilduma ezagunena, ziurrenik, Konrad Gesner-en *Mithridates* (1555) dugu, Aita Gurearen hogeita bi bertsio bildu zituen. Berpizkundetik aurrera, datu-bilketan sekulako lana egin zuten misiolariak, bai Ameriketara eta bai Ekialdeko herrietara ere. Orobat, garrantzitsua deritzot nabarmentzeari misiolariak —batik bat, jesuitek— munduko bazter guztietatik bidalitako lanak Europan, eta bereziki Italian, jaso zirela, bilduma orokorragoak burutu ahal izan zirelarik. Inoiz “Vatikanoko hizkuntzalaritza” deitu zaio honi eta hortxe kokatu behar dugu Lorenzo Hervás espainiarraren lan mardula, esaterako.

Izan ere, XVIII. mendeko lan ezagunenak, Hervásen katalogoa (1784an italieraz eta, aski aldaturik, 1800-1804an gaztelaniaz argitaratua) eta Adelung eta Vater-en *Mithridates* (1806-1817) ditugu. Hervásék Europa, Amerika eta Asiako hirurehun bat hizkuntzaren berri eman zuen. Bestalde, hizkuntza horietako zenbaiten gramatikak ere idatzi zituen, Humboldték erabiliko zituenak. Adelungek, bere aldetik, bostehun bat hizkuntzaren datuak sartu zituen. Oroit bedi Humboldték euskarari buruzko datuen iruzkinak egin zizkiola (Humboldt 1817).

teoriei jarraitzen die literatura fantastikoak (Yaguello 1984).

Baina, hain ezaguna ez bada ere, garai hartako lan handiena Pallasena izan zen, 1786an argitaratua. Europa eta Asiako berrehun hizkuntza harturik, bakoitzaren 285 hitzetako zerrenda ematen du. Bigarren argitalpenean (1790-1791koan) lana 272 hizkuntzatarira iritsi zen, Amerika eta Afrikako zenbait ere sartu baitziren (cf. Arens 1969 [1972: 186-187]).

Bilduma hauek guztiak Berpizkundetik aurrera munduko hizkuntzak gramatiken bidez deskribatzeko prozesuari lotuta ulertu behar dira. Izan ere, gramatizazio prozesu honek munduko hizkuntzen arteko ezberdintasunak agerrarazi zituen. Hots, edozein hizkuntzaren gramatika egiteko ordu arte erabili ohi zen latin gramatikaren ereduak hizkuntzen nolabaiteko aurkezpen bateratua eskaintzen zuen. Baina, lur berrietan hizkuntza berriak aurkitu eta euren berezitasunak nabaritu baitziren, ustezko bateratasuna nahikoa ilun eta nahasia agertzen hasi zen. Hortaz, etengabe ugaltzen ari ziren datu bitxi horiek biltzeko eta sailkatzeko beharra sumatu zen.

Halarik ere, lan hauek ez dira bilduma hutsak. Gauza jakina da edozein datu-bilketa aurreiritzi teoriko batzuei lotzen zaiela. Horrela, bilduma hauen egileek hizkuntzen bitartez herrien historia ere ezagutu nahi zuten. Eta, ildo honetatik, hizkuntzen arteko lotura genetikoak proposatu zituzten, batzuetan asmatuz, bestetan ez. Honekin batera, hizkuntzaren jatorriari buruzko teoriak ere azaldu zituzten lan hauetan, egile gehienek hizkuntzen monogenesian eta hebreeraren lehentasunean sinesten zutelarik.⁶³ Halaber, hizkuntz bilduma hauek XIX. mendeko gramatika

⁶³ Honelakoak ditugu, besteak beste, Hieronimus Megiser-en *Thesaurus polyglottus* (1603), Etienne

konparatzaileari material baliagarriak eskaini zizkioten, nahiz eta maizegi euren antolamenduak konparaketa-lana oso nekeza bihurtuko zuen.

Aldi berean, eta paradoxikoa badirudi ere, datu-bilduma handi hauek, esan bezala, munduko hizkuntzen arteko desberdintasunez ohartzeko balio izan zuten eta, ondorioz, hizkuntzen monogenesiari buruzko zalantzak sorrarazteko abiapuntu ere suertatu ziren. Hots, munduko hizkuntzak hain desberdinak izanez gero, nekez sorzitezkeen denak aurreneko hizkuntza bakar batetik. Halako gogoetak egin zituzten garai hartako autore batzuek, ez askok baina.

1.5 Hizkuntzaren jatorriari buruzko teoriak. Astarloaren abiapuntuak

Aurreko gaiak nabarmendu nahi izan ditut, ahal den neurrian, hain kritika gogorrek jaso dituzten Astarloaren ideiak beren testuinguru linguistiko eta filosofikoan kokatzeko; alegia, hein handi batean garaiko giroaren fruitu direla aditzera emateko, eta ez herri galdu bateko elizgizon baten burutazio hutsak.

Astarloaren hizkuntz ideiez hitz egiteko, Koldo Mitxelenak durangarrari buruz azaldu zuen iritziarekin hasiko naiz, euskal literaturari buruz idatzi zuen liburuan hauxe adierazi baitzuen:

[Astarloa] es además un excelente exponente —más bien tardío— del racionalismo del Siglo de las Luces aplicado a la lingüística [...]. El partir de

Guichard-en *Harmonie étimologique* (1606) eta Ingalaterran 1657-1669 bitartean argitaratu zen *Biblia sacra polyglotta* (cf. Simone 1998).

supuestos falsos, por lo demás no originales, hizo que malograra sus dotes de pensador riguroso y sistemático. (Mitxelena 1988 [1960]: 113)

Mitxelenaren diagnostikoarekin guztiz ados nago. Alabaina puntu bat nabarmendu nahi nuke: Astarloaren ideiak ez daude bere garaikideen ideietatik erabat urrun, ez dago bere sasotik at. Astarloaren oinarri linguistiko eta filosofiko gehienak, ikusiko dugunez, De Broses eta Court de Gébelinek lotzen dira.⁶⁴

Astarloaren obra guztian zehar hizkuntzaren jatorriari buruzko lau axioma edo oinarritzko sinesmen aurkitzen ditugu: lehen hizkuntza bakarra izan zen (hizkuntzen monogenesia); lehen hizkuntza gizakiengan naturala izan zen, lehen hizkuntza hastapenetik artikulatua izan zen, eta lehen hizkuntza perfektua izan zen. Honela laburtzen ditu Astarloak bere proposamenak:

...estableceremos cuatro proposiciones: 1ª Que los primeros hombres hicieron uso de la facultad del habla, desde el primer instante de su creacion. 2ª Que el lenguaje que hablaron no fué el de la accion, sino un lenguaje de voces articuladas y significativas. 3ª Que este lenguaje no fué infuso por Dios, ni adquirido por el hombre, sino natural. 4ª Que el primitivo idioma fué uno y no muchos. (Astarloa 1883: 7)

1.5.1 Lehen hizkuntza bakarra izan zen

Lehenik, Astarloak, elizgizona zenez gero, hizkuntzen monogenesian sinesten zuen; ezinbestekoa gertatzen zitzaion ia. Ez zuen sinesten, haatik, lehen hizkuntza hebreera

⁶⁴ Alberdik (1989a), ordea, deklinabideari buruzko Astarloaren analisisaz den bezainbatean, Beauzée eta du Marsais entziklopedistek atxikitzea hobetsi du.

izan zela (oroit bedi, garai hartako ideia hedatuena zela kristauen artean) eta euskarari ezarri nahi izan zion ohore hori.

Ordurako —gorago ikusi dugu (§1.4.2)— hebreeraren lehentasuna kolokan zegoen, aspalditik beste hautagai batzuk proposatzen baitziren. Gogoan izan bedi artean onesten zen munduaren kronologia Biblian oinarritzen zela, Ussher artzapezpikuak ezarritako kronologia alegia (ik., esaterako, Bandrés 1998: 285). Hortaz, denbora-bitarte laburra zen —6-7.000 urte ingurukotzat zeukaten Lurra—⁶⁵ eta honek gizakien jatorrizko hizkuntza eskurakoia zela pentsarazi zien ikerlariei, baita ezagutzen zituzten hizkuntzetan munduko lehen hizkuntzaren aztarnak erraz antzeman zitezkeela ere.

Bestalde, Frantziako filosofo gehienak, jatorrizko hizkuntzari buruzko ikuspegi desberdinak izan arren, hizkuntzen monogenesiaren aldekoak ziren (salbuespen bakan batzuk baziren; Voltaire, esaterako). Eta Frantziako autore batzuek, jarrera nazionalista batek hartaraturik, frantsesa zuzenean zelteratik edo galieratik zetorrela

⁶⁵ Jakina, bestelako iritzia zuenik bazen, baina ortodoxiaren kontra egotea arriskutsua izan zitekeen. Astarloaren garaiko bi adibide besterik ez: 1778an Buffon Kondeak Lurrak 75.000 bat urteko adina zuela proposatu zuen, baina ez zuen ia arrakastarik izan; Frantziako Elizaren gaitzespena jaso zuen eta bere liburua erre zuten (<http://fr.wikipedia.org/wiki/Buffon>). 1788an James Hutton ingelesak Lurraren jatorria ezin zitekeela antzeman baieztatu zuen; Dublineko Errege Akademiaren buru zen Richard Kirwan-ek, baieztapen hartan Lurrak abiapunturik ez zuela ulertu baitzuen, Huttoni ateo eta fedegabe deitu zion, garaiko Britainia Handian egin zitekeen irainik handiena (ik. Gould 1991 [2005: 514 eta hh.]).

XIX. mendearen bigarren erditik aurrera, Lurraren adinari buruzko saioak ugaltu ziren eta eztabaidak hedatu; harrezkero Lurraren urteak milioitan neurtzen hasiko ziren eta laster Gizadiaren adina ehun milatan ere.

—eta ez latinetik— adierazi zuten eta, aldi berean, zeltera lehen gizakien hizkuntza izan zela frogatzen ahalegindu ziren (Juliard 1970: 95-96).⁶⁶ Honelako ideiak nabarmendu nahi ditut Astarloaren “txorakeriak” beren neurrian eta beren testuinguruan ulertu behar ditugula erakusteko. Urte batzuk falta ziren European hizkuntzalaritza historiko-konparatzailea indar handiz sor zedin, eta askoz urte gehiago hizkuntzalaritza berriak Frantziako eta Espainiako tradizioetan sustraiak egin zitzaizkan (ik., aipatu tradizioei buruz, Bergounioux 1997 eta Ridruejo 2002, hurrenez hurren).

1.5.2 Lehen hizkuntza naturala izan zen

Lehenago (§1.4.2) azaldu ditut XVIII. mendeko hizkuntzaren jatorriari buruzko hausnarketa nagusiak, hiru teoriatan bil daitezkeenak. Astarloak *Diskurtso filosofikoetan* teoria hauek guztiak birpasatu ondoren, argi eta garbi teoria sentsualistari lotzen zaio; hau da, gizakiengan hizkuntza naturala dela aldeztzen du, ikustea edo entzutea naturalak diren zentzu berean. Horrela, Court de Gébelinekin guztiz ados agertzen da, esaten duelarik Jainkoak gizakiari hizkuntz ahalmena eta mintzoaren organoak eman zizkiola, eta harrezkero gizakia, naturaren asmoei

⁶⁶ Esate baterako, Poinciset de Sivryk (1769) hizkuntza guztiak zelateratik eratorritako hitzak zituztela aldeztu zuen (Juliard 1970: 37); de Crandval-ek (1757; ala Grandval?) frantsesak galiarrengandik datozela aldarrikatu zuen eta horretarako hizkuntz argudioez baliatu zen (Juliard 1970: 96); Jacques le Brigantek (1787) zeltera —garbienik non eta Pontrieux bere herrian gorde dena!— munduko lehen hizkuntza izan zela; zeltera, besteak beste, txinera, sanskrito, karibe (“Galibi”) eta tahitierarekin erkatu zuen (Kuehner 1944: 7-8); azkenik, La Tour d’Auvergne armagizonak (1792) ere bretoiera hartu zuen lehen hizkuntzat, Le Briganti jarraituz (Tourneur 1905: 179).

jarraituz, ahalmen hori garatuz joan dela.⁶⁷ Natura indar sortzailatzat hartzea guztiz bat dator orduko ideia arrazionalistekin. Izan ere, arrazoiari men eginez, hainbat autorek Jainkoaren obraren lekuan natura hartuko dute aintzat.

1.5.3 Lehen hizkuntza artikulatua izan zen

Bestalde, De Brosses eta Court de Gébelinek antzera —eta Condillacek ez bezala— Astarloak adierazten du lehen hizkuntza ez zela ekintza-hizkuntza izan, aho-hizkuntza baizik. Azkenik, Astarloa Rousseaugandik urruntzen da, durangarrak giza hizkuntza hasieratik artikulatua, eta ez oihuen bidezkoa, izan zela uste baitu.

1.5.4 Lehen hizkuntza perfektua izan zen

Astarloak obra guztian zehar defendatzen duen beste axioma bat lehen hizkuntzaren perfektioa da. Sinesmen hau beste ideia batekin dago lotuta: alegia lehen gizakia,

⁶⁷ Astarloak jarrera desberdina hartu zuen *Apologian*, bertan teoria tradizionalaren alde egin baitzuen. Hala ere, Jainkoak lehen gizakiari eman zion hizkuntza euskara izan zela zuzenean adierazten ez badu ere, zeharka baieztatzen du, euskara Babelgo hizkuntz barreiaketaren aurrekoa dela dioelarik (Astarloa 1803: 276). *Diskurtso filosofikoetan* jarrera-aldaketaren arrazoiak azalduko ditu: “No habrá quizá en la filosofía un argumento más robusto contra el idioma natural del primer hombre que el que se forma en la armoniosa estructura del mismo idioma. Cuanto más contemplaba esta admirable estructura desde mis primeros ensayos en los idiomas, tanto más me veía persuadido de que el primitivo no podía ménos de ser infuso al hombre por Dios. Confieso con ingenuidad que esta fué mi más querida opinion hasta que ahora, hará como seis meses ciertas reflexiones que me presentó en esta época la contemplacion del mecanismo que hubo de tener el primitivo idioma, y el cotejo que por entónces renové de este mecanismo, y la facultad del habla, con que dotó al hombre el Supremo Hacedor, me hizo variar de dictámen.” (Astarloa 1883: 91).

sortu zenetik, heldua, gizartekoia eta gorputz eta arimaz gaurkoak bezalakoa zela.⁶⁸ Nolanahi ere, De Brosses eta Court de Gébelinek uste zuten bezala, hizkuntzaren perfektzioa betiere muga batzuen barruan egongo litzateke, hizkuntz ahalmenak eta mintzoaren organoek markatutako mugen barruan, hain zuzen ere.⁶⁹

Astarloak hizkuntza perfektu batek hiru hatsarre bete behar dituela proposatzen du: “egokitasuna” (*propiedad*), “ekonomia” eta “eufonia”. *Diskurtso filosofikoen* hari nagusietako bat hiru hatsarreok lehen hizkuntzaren atal bakoitzean nola betetzen ziren zehazki erakustea da. Azken finean, Astarloak hauxe frogatu nahi du: euskara dela hiru hatsarreok erabat betetzen dituen hizkuntza bakarra eta, ondorioz, lehen hizkuntzatzat hartzeko egoki den bakarra.

“Egokitasuna”, “ekonomia” eta “eufonia” terminoak, zein bere aldetik, Astarloaren aurreko lanetan erraz eta erruz aurki badaitezke ere, ez ditut beste inon hirurak batera aurkitu, ezta inola ere Astarloak ematen dizkien definizioak eta erabilerak dituztela. Bestalde, hurrengo lerroetan erakutsiko dudana bezala, Astarloak

⁶⁸ Cf. “El hombre desde el mismo instante en que recibió su sér, era adulto, era sociable; la organización de su cuerpo era perfectísima; los ojos, el oído, el olfato, el tacto, el gusto, jugaban de sus funciones con el mayor primor, y trasmitían multiplicadas las ideas al alma y esta hacia un uso completo de sus potencias. Él mismo se proporcionaba su comida; él mismo se movía por donde quería, en una palabra, el primer hombre se hallaba inmediatamente después de su creación en la disposición que hoy se hallan los hombres más robustos, más perfectos” (Astarloa 1883: 23).

⁶⁹ Cf., esaterako, “Fuese natural, ó fuese infuso, hubo de ser perfectísimo el lenguaje de los primeros hombres. Sin embargo, su perfección no podía exceder los límites que el Sér Supremo prescribió á la facultad del habla” (Astarloa 1883: 116-117).

erakutsitako sakontasuna eta zehaztasuna ere nekez azaltzen dira Europako aurreko tradizioan.

1.5.4.1 Egokitasuna

Hizkuntza baten egokitasuna formaren eta esanahiaren arteko analogian datza; hau da, formaren eta esanahiaren arteko erlazio naturalean (bestela esanda, ez arbitrarioan). Hizkuntzari buruzko ikuspegi kratilozale honen barruan sartzen da, hain zuzen ere, Astarloaren ideia ezagunena: hotsek ere⁷⁰ badute esanahi naturala. Ideia hau Astarloaren argudiatzearen ardatz nagusietariko bat da. Horrelaxe aurkezten du gure autoreak bere egitasmoa:

Si justificamos que no solo las voces, sino tambien las silabas y aun las letras, tienen una natural significacion, caerá necesariamente este soberbio edificio: se arruinará el sistema del language de acción, y todo filósofo quedará convencido de que el language de la voz fue el primero que usó el hombre. El empeño es árduo; pero no imposible. (Astarloa 1883: 24)

Hots baten esanahi naturala, Astarloaren teoria honetan, mugimendu artikulatarioen eta mugimenduok adierazi nahi duten kontzeptuaren arteko analogiak ematen du:

No podemos dudar, por lo mismo, que estas consonantes, así como todas las vocales en las diferentes acciones orales con que se profieren, han de tener una aptitud de poder analoguizar los signados de la voz y dar á entender por medio de ella en la mútua comunicacion aquello que se quiera indicar; porque siendo destinadas conocidamente para el uso del habla, la diferencia establecida por naturaleza habia de ser con respecto á la locucion, y para mí la principal mira de esta sábia maestra fué el darlas una aptitud competente para que con estas diversidades

⁷⁰ Astarloak *letras* dio, garaian ohikoa zen bezala.

pudiesen distinguir los objetos comunicados al mismo paso que los analoguizaban por medio de aquellas cualidades representadas en las expresadas musculaciones orales con que se forman todas y cada una de ellas. (Astarloa 1883: 176)

Nabarmentzekoa da Astarloak ez duela arreta ipintzen hotsaren ezaugarri akustikoetan, ezta letren itxura grafikoan ere. Artikulazioari buruzko interes honetan Frantziako entziklopedistekin, bereziki Beauzéréekin, lot genezake Astarloa.⁷¹ Esan dezadan, bidenabar, horrela jotatzeak euskarazko hotsen deskribapen artikulatorio nahiko zehatza egiteko aukera ematen diola, ordu arte —eta askoz beranduago arte ere— euskalaritzan aurkituko ez duguna. Silaba baten, hizki baten⁷² edo hitz baten esanahia, beraz, osagai konplexu hauetako bakoitzean agertzen diren hots guztien esanahiak elkartzetik aterako litzateke.

Beste alde batetik, hotsen esanahi naturalaren teoria ere ez da berria. Montuengako Apaizari idatzitako erantzunean, Astarloak berak aitortzen du, hirugarren pertsonan bada ere, hautatu duen sistemaren bitartez Court de Gébelinek proposamenak euskarari aplikatzen ahalegindu dela:

...pues si hubiesen visto aun superficialmente lo que sobre esto escribe Court de Gebelin, no se escandalizarían de que Astarloa haya verificado en el bascuence el sistema que aquel sábio quiso establecer en otros idiomas. (Astarloa 1804: 82)

⁷¹ Entziklopedisten teoria fonetikoa giza anatomiaren ezagutza sakon eta sistematiko batean oinarritu zen. Honen kariaz, Beauzéréek frantsesaren hotsen sailkapen arrazoitua eskaini ahal izan zuen, kontsonanteak ahoskune eta ahots-modu desberdinen arabera bereiziz (Swiggers 1984b: 62).

⁷² Astarloak *característica* terminoa erabiltzen du. Bide batez, silabaren eta hitzaren arteko osagai bat bereizteak —nahiz eta ezin dugun erabat gaur “morfema” deitzen dugunaren pare ipini— entziklopedistengandik urruntzen bide du Astarloa (Swiggers 1984b: 81).

Astarloak hots, silaba, hizki eta hitzen esanahi naturala frogatzeko erabiltzen duen metodo etimologikoaren adibide egokia begitantzen zait hurrengo pasarte hau:

El instinto que mueve el teclado del órgano de la voz, hará que este forme las voces con la debida analogía al signado que se quiere representar. Se presenta á los primeros hombres como primer objeto comunicable la altura de un monte: irá el instinto á formar la voz á lo más alto del órgano de la voz. Hallará en él tres letras O, G, K, y usará ó de la O sola, ó de Go ó de Ko. Se presenta por segundo objeto otra altura: quieren comunicar este objeto los primeros hombres. No pueden ménos de distinguirle de la primera altura, y es preciso hallar la diferencia. Esta consiste en que la segunda altura es puntiaguda: pues el instinto añadirá al O, Go, Ko una letra que indique esta circunstancia. Verá que es adecuada la letra I y formará las voces Oi, Goi, ó Koi. Préndese otra tercera altura. Es superior esta altura ó monte á las otros dos [*sic*]. Formará el instinto la voz para indicarla, doblando los signos análogos O, Go, Ko, y dirá Oo, Gogo, Koko, etc., etc. De estas primitivas voces formarian los primeros hombres un sinnúmero de derivados. Adoptando por terminacion verbal la sílaba tu por ejemplo, resultaria una multitud de verbos. *O-tu* significaria alturarse ó ponerse en alto ó elevar á alguno. *Oo-tu* doblaria la significacion de *O-tu*. Por este medio tendrían un dilatado campo para enriquecer el idioma. Con *Goi-tu* podian significar metafóricamente el vencer, este es, ponerse sobre alguno; con *Gogo*, por la misma metáfora, podian dar á entender todo lo sublime y formar sus derivados; (Astarloa 1883: 67)

Goiko lerroak liburuaren lehenengo zatian daude (oroit bedi, lehen hizkuntzaren ezaugarriei buruzkoan). Hala ere, bertan Astarloak ez du aukerarik galduko irakurlea euskararen datuetarantz gidatzeko, datu horiek adibide argigarri hutsak balira bezala erabiliz. Kontuan izan bedi Astarloaren irakurle gehienek, bere teoriez gogatu nahi dituenek behinik behin, ez zekitela euskaraz. Ostera, aurreko pasartearen azken lerroetara itzuliz gero, irakurle euskalduna laster ohartuko zen bertan agertzen diren adibideak ez direla inondik ere inozenteak, euskal hitzak baitira azaltzen diren *goi*, *otu*, *goitu* eta *gogo*.

1.5.4.2 *Ekonomia*

Ekonomia hatsarrearen arabera, naturak eskatzen duen guztia adierazteko ahalik eta baliabide formal gutxien erabili behar ditu hizkuntzak. Honekin lotuta, Astarloak hizkien (*características*) eta esanahien artean bana-banako erlazioa dagoela defendatzen du. Ondorioz, hizkuntzaren ekonomia aplikatuz gero, oposaketa bakoitzean hizkietarik bat hizkirik eza izango da beti; zero morfema (\emptyset), esanenez gaur. Ildo honetatik, oso interesgarria deritzot Astarloak zero marka ezartzen dion kategoria, eskuarki, gaur egun semantikoki ere ez-markatutzat edo ahulagotzat hartzen dugun kategoria dela nabarmentzeari: adibidez, numeroan singularrari dagokio hizkirik eza, edo kasuen artean absolutibo edo NOR kasuari (*paciente*).⁷³

Hizkuntzan ekonomiak parte hartzen duelakoa ez zen, segur aski, ideia berria. Ezin izan dut, alabaina, puntu honetan Astarloaren aitzindaririk aurkitu. Nolanahi ere den, Astarloaren merezimendu eta berrikuntza, nik uste, ekonomiaren hatsarrea sistematikoki erabiltzean datza, gramatikaren kategoria eta azpikategoria guzti-guztietan aplikatzean, hain zuzen ere.

⁷³ Astarloak *artículo* deitzen die eskuarki “kasu” izendatzen direnei; ik. Gómez (2001) eta hemengo §6.3.3.

Ikus dezagun, adibide gisa, nola aplikatzen dien ekonomiaren hatsarrea aditzari eta haren azpikategoriei.⁷⁴ Ezer baino lehen, Astarloak proposatu zuen aditz sailkapena laburtzea komeni da:

- a) Aurrenik, aditz bakunak (*sencillos*) eta aditz bikoitzak (*dobles*) bereizi zituen.
- b) Hamaika modu: infinitiboa, indikatiboa (*indicativo* edo *accionario*), ohiera (*habitual*), ahalera (*potencial*), nahiera (*voluntario*), beharrera (*necesario*), eraginera (*forzoso*), agintera, subjuntiboa (*intencional* edo *subjuntivo*), desirazkoa (*optativo*) eta penitudinarioa.
- c) Hiru denbora: iragana, oraina eta geroa, bakoitza erreala edo apostrofikoa izan daitekeelarik.
- d) Zortzi pertsona eta bi numero (singularrak: lehena, bigarren kortesa, bigarren maskulinoa, bigarren femeninoa eta hirugarrena; pluralak: lehena, bigarrena eta hirugarrena).
- e) Zortzi boz edo era: aktiboa, pasiboa, aktibo mistoa eta pasibo mistoa; eta bakoitza hutsa (*pura*) edo hartzaileduna (*recipiente*) izan daiteke.
- f) Hiru “adierazpen” mota: benetakoak (*ciertas*), zalantzazkoak (*dudosas*) eta egiantzekoak (*probables*).

Aditz bikoitzak egun aditz kausatibo edo faktitibo izendatu ohi direnei legozkieke.

Hala bada, aditz bikoitzek ekintza bikoitza adierazten dute, egile (eragile) batek esku hartzen baitu beste egile batek ekintza gauzatu dezan. *Diskurtso filosofikoetan* aditz bikoitzek hartzen duten marka *-ra-* da: “¿qué característica puede ser más propia para esta doble accion que la vocecita *ra* indicativa de movimiento?” (Astarloa 1883:

⁷⁴ Aditza aukeratu dut, Astarloaren ustez —eta ia euskal apologista guztien ustez— aditza kategoriarik bikain eta funtsezkoena delako (ik., esaterako, Astarloa 1883: 387). Erakusgarri gisa, esan dezadan *Diskurtso Filosofikoen* 773 orrialdeetatik 149 (97+52) aditzari buruzkoak direla.

396).⁷⁵ Aditz bakunek, bestalde, ez dute inolako hizkirik hartzen, ekonomia hatsarreak agintzen duen bezala.

Astarloaren iritziz, aditzaren hamaika moduetatik infinitiboari dagokio hizkirik eza, infinitiboak ekintza hutsa adierazten duelako: “significa la acción por sí sola [...], sin miramiento al modo, tiempo, persona, número ni conjugación” (Astarloa 1883: 399). Hala ere, gainerako moduek denbora, pertsona eta numeroaren flexioa baitute, aski da flexio hori indikatiboa infinitibotik bereizteko eta, beraz, indikatiboak ere ez du hizkirik behar. Gainerako modu guztiez den bezainbatean, laguntzaile berezi batez edota hizki batez ezaugarritzen dira, honako taula honetan azaltzen den moduan:⁷⁶

MODUAK	EZAUGARRIAK
infinitiboa	\emptyset
indikatiboa edo gaurkoa	denb., num., perts.
ohiera	<i>oi / eruan</i>
ahalera	<i>al / eguin</i>
nahiera	<i>nai, gura</i>

⁷⁵ Euskaraz aditz kausatibo zaharrak eratzeko *-ra-* artizkiak eta kasu adlatiboaren *-(r)a* artizkiak forma berdina bide dute; haatik, ez da aresti arte bien arteko lotura historikorik proposatu (Astarloarena bera alde batera uzten badugu behintzat). Berriki, hala ere, Lakarrak (2005) biak erlazionatu ditu eta biak **la* aitzin-formatik eratorri, **la-* aurrizki batekin ere lotuta izango zirelarik (cf. *la-bain, la-bur, la-gun, etab.*).

⁷⁶ Astarloak proposatutako formak bere horretan utzi ditut. *Eroan* laguntzailea aditz aktiboekin baino ez litzateke erabiliko; jakina denez, iragangaitzetan ohiera adierazteko euskarak *joan* laguntzailea zuen, Astarloak aipatzen ez badu ere. Bestalde, *Diskurtso filosofikoetan* ageri den “hizki” eta “laguntzaile” arteko bereizketa zeharo garbia da: bigarrenak aditz jokatu gisa ere erabil daitezke, lehenak ez (Santesteban 1999).

beharrera	<i>biar</i>
eraginera	<i>eraso, eraguin</i>
agintera	<i>eguin + -ø⁷⁷</i>
subjuntiboa	<i>eguin + -n⁷⁸</i>
desirazkoa	<i>-que</i>
penitudioa	<i>ba-</i>

Lehen taula: Astarloaren euskal aditz-moduen sailkapena (Astarloa 1883: 693).⁷⁹

Aditz denborak sailkatzeko, Astarloak *Port-Royalen hatsarrea* izenekoari jarraitzen dio (cf. Calero Vaquera 1986). XVII. mendean, Port-Royaleko lanek (Arnauld & Lancelot 1660, Arnauld & Nicole 1662) arlo honetara ekarri zuten berrikuntza denbora absolutuen eta denbora erlatiboen arteko bereizketa izan zen (terminoak Girard abadeari dagozkio, dena den): denbora absolutuetan, hizketa-unea erabiltzen da denborak kokatzeko erreferentzia-puntu gisa. Denbora erlatiboetan, berriz, hizketa-unea eta erreferentzia-puntua desberdinak dira. Port-Royaleko autoreen sailkapen honek arrakasta handia izan zuen Frantziako XVIII. eta XIX. mendeetako gramatika arrazionalistetan. Baina hispaniar tradizioan, Vicente Salvá (1830) eta

⁷⁷ Ohar bedi agintera eta subjuntiboa bereizteko ere ekonomiaz baliatzen dela Astarloa.

⁷⁸ Astarloak subjuntiboaren *-n* atzizkia eta kasu inesiboarena identifikatzen bide ditu: “y para el modo subjuntivo se ha de caracterizar al verbo *hacer*, y diferenciándose este modo del anterior [agintera — R.G.] en que la acción buscada es permanente, no hay duda que el instinto añadiría al verbo *hacer*, que usaba el imperativo, una letra permanente, y siendo esta, como hicimos ver en el adverbio *donde* la consonante *n*, esta sería la característica que distinguiese al modo subjuntivo del imperativo” (1883: 404).

⁷⁹ Esan gabe doa, lehen zatian Astarloak (1883: 477) jatorrizko hizkuntzak oso antzeko markak zituela proposatu du.

Belloren (1847) lanak heldu arte ez zen ia ezagutzen; hau da, XIX. mendearen erdia arte (Calero Vaquera 1986: 122).

Bada, honetan ere Astarloa erabat sartzen da joera arrazionalistaren barruan. Sei aditz denbora bereizi zituen: bi orainaldi, bi iraganaldi eta bi geroaldi, bakoitzean erreala eta apostrofikoa ere bereizi behar direlako:

...pero no puede haber en naturaleza sino seis tiempos, y estos han de ser precisamente dos presentes, uno real y otro apostrofico: dos futuros, uno real y otro apostrofico: dos pretéritos, uno real y otro apostrofico. (Astarloa 1883: 407)

Adibide gisa, hurrengo taula honek indikatiboko aditz-denborek izango lituzketen konbinaketak erakusten ditu, Astarloak erabili ohi duen *il* aditza aintzat harturik:

	ORAINALDIA (-ten)	IRAGANALDIA (-ø)	GEROALDIA (-go)
ERREALA	<i>il-ten dot</i>	<i>il dot</i>	<i>il-go dot</i>
APOSTROFIKOA	<i>il-ten neban</i>	<i>il neban</i>	<i>il-go neban</i>

Bigarren taula: Astarloaren aditz-denboren sailkapena.

Port-Royalekiko diferentzia bakarra Astarloak darabilen terminologian dago: Astarloak, “absolutua” barik, “denbora erreala” erabiltzen du eta “denbora apostrofikoa”, “erlatiboaren” orde. Hortaz, denbora apostrofikoetan hiztuna, irudimenaz baliaturik, iragan denbora batera aldatzen da eta hauxe hartzen du erreferentziatzat (Astarloa 1883: 406-407). Erreal eta apostrofikoen artean, espero denez, errealei legokieke hizkirik eza; apostrofikoen hizkia, berriz, *-n* da. Bistan da, Astarloaren denbora erreal eta apostrofikoa gure orainaldi eta iraganaldiari dagozkie, hurrenez hurren.

Aitzitik, Astarloaren orainaldia, iraganaldia eta geroaldia gaur egungo aspektu-bereizketarekin daude lotuta. Gogoan har bedi XIX. mende hasieran oraindik ez dela aspektu kategoria gramatika-analisietan azaldu (ik., kasurako, Archaimbault & Fournier 1995). *Diskurtso filosofikoen* orrialdeetan barrena Astarloak zenbait irizpide baliatu ditu jatorrizko hizkuntzaren ezaugarriak erabakitzeko: analogia, ekonomia, eufonia eta are munduko hizkuntzetan ezaugarri orokorra izatea. Hala eta guztiz ere, oraingoan apaiz durangarrak aitortu behar du hizkuntzaren perfektzioa neurtzeko erabili dituen irizpideek huts egin diotela. Izan ere, naturan ez du argudiorik aurkitzen hizkirik eza iraganaldiari atxikitzea justifikatzeko, baina, jakina, ziur dago lehen hizkuntzan hala gertatu zela:

Tenemos dicho repetidas veces y volvemos á decir, que la economía de un idioma perfecto exige que una de las características en toda clasificacion de voces, ha de ser el no tener carácter alguno, y por lo mismo nos hallamos persuadidos que en el idioma primitivo el uso del infinitivo sin otro carácter, daría á entender uno de los tres tiempos. Pero ¿cuál sería éste? Hé aquí una dificultad de las mayores quizá que se presentarán en el estudio de los idiomas. Por mí, confieso ingénuamente que no hallo fundamento alguno en la naturaleza para decidirme cual de estos tres tiempos sería el primero de que hicieron uso los hombres. Sin embargo, me hallo inclinado á favor del pretérito. (Astarloa 1883: 411-412)

Astarloak zortzi pertsona bereizi zituen munduko lehen hizkuntzan (Astarloa 1883: 424-426). Jakina, kopuru horretara iritsi zen bigarren pertsona singularra hirutan banatu zuelako: eztabadako tratamendua (*cortés*), hitano maskulinoa eta hitano femeninoa, alegia. Bereizkuntza honek zeharo agerian jartzen dizkigu Astarloaren *a priori*-zko planteamenduak. Nahiz eta, aitorturiko helburuen arabera, jatorrizko hizkuntzaren gramatika bilatzen ari den, argi dago aldez aurretik euskara duela buruan eta ez dituela beti hain irizpide logiko eta naturalak erabiltzen.

Horregatik, Astarloaren lana irakurtzean, euskaraz ez dakienari pertsoneri buruzko atal hauxe da, ziurrenik, harrigarriena irudituko zaiona. Eta, aldi berean, euskaldunari konplizitatezko irribarre maltzurra sorraraz liezaioke. Izan ere, aditzaren tratamendu arrazionalista bat espero badugu, harrigarria irudituko zaigu lehen hizkuntzan zortzi pertsona zeudela aurkitzea, eta ez sei pertsona, hiru singularrean eta hiru pluralean. Euskaldunak, aldiz, berehala ikusiko du pasarte honetan Astarloaren jokabidearen gakoa: zer duen gogoan jatorrizko hizkuntzaren gramatika bilatzen ari denean.

Ildo honetako beste adibide bat emateko, ekonomia hatsarrea pertsona-hizkiei aplikatzerakoan, Astarloak dio lehen hizkuntzan markarik eza, alde batetik, egilean singularreko hirugarren pertsonan eta, bestetik, jasailean singularreko bigarren pertsonan gertatu behar zuela, naturak hala agintzen duelako gertatu ere:⁸⁰

Por la misma economía suponemos que el no tener característica alguna de persona el auxiliar, ha de ser señal de que el agente es tercera persona de singular, y el paciente la segunda masculina del mismo número. (Astarloa 1883: 465)

Horrela, naturak agindutakoa euskaraz betetzen dela erakusten du, adizki “ekonomikoena” NOR-NORK paradigmako *au* (\emptyset -*au*- \emptyset) ‘hark hi’ dugularik (Astarloa 1883: 709). Bestalde, tratamenduen bereizketan ere ageri zaigu ekonomia:

Valiéndonos de la misma economía, fijamos por característica cortés en el auxiliar *e* el no tener carácter alguno, y por característica familiar la letra *j* antepuesta á dicho auxiliar. (Astarloa 1883: 465)

⁸⁰ Gainerako pertsona-hizkietarako, ik. Gómez (2001b) eta hemengo §8.2.

Beste arlo batera igaroz, Astarloaren usadioan “aditz-joko” (*conjugación*) terminoa anbigua da, bi esanahi ematen baitizkio.

Lehenengoa honelaxe defini daiteke: ‘aditz batek hartzen dituen adizki guztien multzoa’. Adiera honen arabera, Astarloak defendatu zuen, berriz ere ekonomia aplikatuz, munduko lehen hizkuntzan aditz guztiek joko bakarra zutela, adizki berberak erabiltzen zituztelako (Astarloa 1883: 429). Kontuan har bedi, euskal aditzaren azterketaz ari delarik, Astarloak han-hemen tartekatzen dituen adibideetan *il* aditzaz baliatzen dela beti, hala erabilera iragangaitzean nola iragankorreetan, eta honek aukera ematen dio euskaraz aditz guztiak laguntzaile berberekin jokatzeko ideia orokortzeko. Salbuespen bakarra aditz irregularrak izango lirateke, trinkoak alegia;⁸¹ eta, hain zuzen ere, Astarloaren iritziz, aditz irregularrak dira adizki analitikoetan laguntzailearena egiten dutenak (ik. Santesteban 1999).

Bigarren adieran aditz-jokoa beste haxe da, ordea: ‘pertsonek artean gerta daitekeen konbinaketa’. Eta, zentzu honetan, Astarloak 206 konbinaketa posible bereizten ditu, 206 joko beraz, argumentu absolutibo, datibo eta ergatiboaren pertsona desberdinak modu eta denbora guztietan konbinatuz gero. 206 aditz-joko

⁸¹ Adizki trinkoen ala adizki perifrastikoen lehentasunari buruzko eztabaida euskararen gaineko lanetan behin eta berriro aurkitzen dugun gaia da, XVI. mendean hasi eta XX. mendean atarian amaitu (ik., adibidez, Gómez 1989, Gómez & Sáinz 1995, Oyharçabal 1993). Adizki perifrastiko edo analitikoaren paradigma osoago eta erregularragoa da euskaraz; hau dela eta, euskal gramatikari eta apologista gehienek paradigma analitikoa zaharragoa zela aldeztu zuten. Egun badakigu, ordea, arrazoi berberengatik jakin ere, adizki analitikoak berriagoak ditugula (ik., halaber, 288. oh.).

hauek, bestalde, zenbait irizpideren arabera sailkatzen ditu eta, behean ageri denez, sailkapen bakoitzean elementu bati ezarriko dio beti hizkirik eza (= \emptyset):

- a. lehenbizi, aditz-joko kortesiazkoak (\emptyset), femeninoak eta maskulinoak;
- b. bigarrenik, aditz-joko aktiboak (\emptyset), pasiboak eta mistoak;⁸²
- c. azkenik, aditz-joko hutsak (\emptyset) eta hartzailedunak; hau da, komunztadura datiboa dutenak, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK paradigmak alegia.

CONJUGACIONES.	Cortés	Activa	{ Pura. Recipiente.
		Pasiva	{ Pura. Recipiente.
		Mixta	{ Pura. Recipiente.
	Femenina	Activa	{ Pura. Recipiente.
		Pasiva	{ Pura. Recipiente.
		Mixta	{ Pura. Recipiente.
	Masculina	Activa	{ Pura. Recipiente.
		Pasiva	{ Pura. Recipiente.
		Mixta	{ Pura. Recipiente.

Hirugarren taula: Astarloaren aditz-jokoaren sailkapena (1883: 431)

⁸² Joko mistoak bihurkari moduan definitzen ditu Astarloak: “Ahora, pues, si hemos de tener una conjugacion activa para dar á entender que el sujeto hace sin que padezca, y otra para hacer ver que el sujeto padece sin que haga, ¿porqué no hemos de tener otra tercera conjugacion para dar á entender que el sujeto hace y padece la accion comunicada simultáneamente, esto es, al mismo tiempo?” (Astarloak 1883: 435). Hau ez da, hala ere, *Diskurtso filosofikoetan* azaldutako sailkapen bakarra;

Azkenik, Astarloak hiru adierazpen mota bereizi zituen, nahiz eta inoiz denbora-kategoriaren barnean sartu (1883: 705). Hala, ekintzak benetakoak (*ciertas*), zalantzazkoak (*dudosas*) edo egiantzekoak (*probables*) izan daitezke. Ekonomiak agintzen duenez, berauen artean ere bada hizkirik gabeko bat, benetako adierazpenak alegia. Zalantzazkoak eta egiantzekoak *ete* eta *edo* partikulen bidez markatzen dira, hurrenez hurren.

1.5.4.3 Eufonia

Eufonia hizkuntzaren ahoskera zuzena da. Nola ulertzen du hau Astarloak? Haren ustez, ahoa da mintzoaren organo zilegizko bakarra, ez sudurra eta ez eztarria ere. Ondorioz, [v] hotsari “lizuna” (*indecente*) deritzo, [x] hotsari “animaliena”, eta bokal sudurkariak eta hasperena ere arbuiatzen ditu, berauen ahoskatzeko gizakiak sudurra edo eztarria, hurrenez hurren, erabiltzen duelako.

Halaber, silabaren mailako eufonia erregelak ematen ditu. Silaba batean hiru bokal edo bi kontsonante jarraian agertzea debekatzen du. Azkenik, silaben arteko konbinaketei ere zenbait murriztapen fonotaktiko ezartzen dizkie. Adibidez, silaba bat ezin da kontsonante batekin amaitu eta hurrengo silaba kontsonante berberarekin hasi; edo silaba bat ezin da kontsonante herskari batekin amaitu eta hurrengo edozein kontsonanterekin hasi (hau da, herskari bat ezin da silabaren kodan agertu,

xehetasun gehiagotarako, ik. Marín (1999).

egungo terminoetan); edo, azkenik, silaba bat ezin da kontsonante sabaikari batekin amaitu eta hurrengo silaba bokal batekin hasi.⁸³

1.5.5 Hizkuntz aldaketa eta gramatika unibertsala

Arazo bat sortzen zaio Astarloari (eta orobat filosofo arrazionalista gehienei): hizkuntz aldaketak eta hizkuntzen arteko desberdintasunek sorrarazten duten arazoa, alegia. Izan ere, gizakien lehen hizkuntza euskara izan bazen, nola jakin dezakegu orduko euskara eta oraingoa bat bera dela? Astarloak badaki hizkuntzak denbora joan ahala aldatzen direla baina, beste alde batetik, naturaren asmoak betierekoak direla pentsatzen du.

Egoera horren aurrean honako irtenbide hau aurkitzen du: hizkuntza guztiek gorde dute lehen hizkuntzaren aztarnaren bat; baina, zein gutxiago zein gehiago, naturaren asmoetatik urrunduz joan dira. Eta hizkuntz aldaketaren eragilea gizakia bera izan da.

Honela dio:

No. No fué el instinto; no fué la naturaleza, fué el hombre quién trastornó el arreglado mecanismo del idioma primitivo; quien confundió, oscureció, deshizo aquel admirable órden de la locución que honró las primeras generaciones. [...] No hay lengua, si esceptuamos una, que no haya afeado este mecanismo. Sin embargo, todos los idiomas han conservado rasgos nada equivocados de su belleza. (Astarloa 1883: 77)

⁸³ Silabaren osaketaz arduratu baziren ere, silaba-konbinaketei dagozkien auziak zeharo falta dira entziklopedisten hausnarketetan (Swiggers 1984b: 81).

Hizkuntza guztiek, beraz, gorde dute lehen hizkuntzatik zerbait. Eta gorde duten ezaugarri bat gramatika egitura da. Astarloaren iritziz, hizkuntzen arteko desberdintasunak ñimiñoak eta azalekoak dira, komunean dutenarekin konparatuz gero. Uste hau aski gertu dagoke gaur egun “Gramatika Unibertsala” deitzen den horretatik:

Corramos paso a paso por todas sus partes constitutivas y hallaremos que esta diversidad de lenguages que tanto se estraña y admira, no es una diversidad intrinseca y esencial, sino muy estrinseca y accidental. [...] Todas [las lenguas] tienen letras, todas tienen silabas: tienen voces, tienen sintaxis. A ninguno de los idiomas faltan palabras primitivas y derivativas, números en los nombres y en los verbos, modos, personas, tiempo. En una palabra, hay tal analogía entre los lenguajes que tan léjos de ser perjudicial su multitud á la unidad del primitivo, la persuade, corrobora y confirma poderosamente. (Astarloa 1883: 101-104)

1.6 Hondar oharpenak

Astarloaren obraren alderdirik ezagunena, ziur asko, letren esanahi naturalari buruzko teoria da; Mitxelenaren (1973: 131) hitzetan, fonema morfemarekin identifikatzea. Hura izan zen, esaterako, Humboldték Astarloaren ideietatik gehien arbuia zuena edo, aitzitik, Arana-Goiriri erakargarri iruditu zitzaiona. Gauza jakina da Arana-Goirik, euskal izendegia berritzean, Astarloak (1883: 44-45) dakarkigun istorio ezagun bat hartu zuela oinarritzat: umeak jaiotzean, arrak badira, ahoskatzen duten lehena *a* bokala da; emeak badira, aldiz, *e* bokala. Bistan da bokal bakoitza euskaraz genero bakoitzaren izenarekin lotuta dagoela. Baina, era berean, Adam eta Eva lehen gurasoen izenen hasiera letrak ere baditugu.

Hala ere, ahaleginu naiz erakusten Astarloaren lanetan, *Diskurtso filosofikoen* adibide ezin hobea erabiliz, pasadizo barregarri eta teoria “txoroak” baino askoz

gehiago sumatu daitekeela. Nagusiki, hizkuntzaren jatorriari buruzko bere ideia asko Europako gramatika orokor eta filosofikoaren tradizioan erabat txertatzen direla; zuzen-zuzenean filosofia sentsualistarekin lot daitezkeela.

Beste alde batetik, nahiz eta gaiari leku gutxiago eskaini diodan, oso nabarmentzekoak dira Astarloaren jokabideak erakusten dituen zehaztasun eta sakontasun ikaragarriak. Astarloaren *Diskurtso filosofikoen* xedea munduko lehen hizkuntzaren ezaugarriak ematea izan zen eta, bereziki, lehen hizkuntzaren ezaugarri guztiak betetzen dituen hizkuntza bakarra euskara izan zela frogatzea. Orobatsu dena, euskara munduko lehen hizkuntza izan zela frogatzea. Hala ere, bidea jorratu bitartean, euskal gramatikaren deskribapen aski zehatza eskaini zigun, zenbait alderditan uzta ederra lortu zuelarik. Horretarako, egokitasuna, ekonomia eta eufonia, lehen hizkuntza perfektuaren hiru hatsarreak aplikatu zituen hizkuntzaren atal guztietan, ia ezer ere albora utzi gabe.

Ekarpen nagusia, nik uste, euskal hitzen morfema-zatiketa dugu. Lehen hizkuntzaren perfekzioa frogatzeko aintzat hartu zituen egokitasuna eta ekonomia hatsarreak aplikatuz, euskal izen eta aditz morfologiaren hainbat flexio-hizki identifikatu zituen eta —zenbaitetan agerian, bestetan ezkutuago— paradigma batzuk bikain egituratu zituen.

Nolanahi ere den, nahiz eta Astarloak erabiltzen duen metodoa arras sakon eta zehatza izan, noiz edo behin bere jarrera *a priori*-zkoa begien bistan dago. Hala, denbora errealean artean hizkirik eza iraganaldiari ezartzen dionean, aitortu behar baitu horretarako argudiorik gabe dagoela. Edo lehen hizkuntzan zortzi pertsona

bereizten dituelarik, argi eta garbi irakurlea euskararen datuetara gidatu nahi baitu. Eta hauek ez dira, inola ere, adibide bakarrak, jakina.

Helburuak helburu, Astarloak euskal gramatikagintzari egindako ekarpena munta handikoa dela esango nuke. Azaldu gabe geratu diren zenbait aipatzearen, fonetika eta fonologian, euskal hotsen deskribapen artikulatorioa burutu zuen eta zenbait urrats egin zituen euskararen fonologi arau batzuen bidean (Oñederra 1989). Sintaxiari bagagozkio, berriz, euskararen hitz ordenan mintzagai egiturak duen garrantziaz ohartarazi zigun (Gómez 2006b).

2 W. von Humboldtek euskal gramatikari egindako ekarpena

2.1 Sarrera*

Kapitulu honetan Wilhelm von Humboldtek euskal gramatikaren ikerketei egindako ekarpen nagusiak aztertuko ditut, aldi berean euskarari buruzko gramatika ideien historian kokatzen ahaleginduko naizelarik. Atariko zehaztapen gisa, aitortu behar dut Humboldten euskarari buruzko lan gehienak Justo Garatek egindako itzulpenen bitartez irakurri ditudala.⁸⁴ Eta, damurik, Garateren itzulpenetan huts eta hutsune franko daude, Bernhard Hurchek eta M. J. Kerejetak (a.a.) ohartarazi zidatenez eta geroztik, jatorrizko zenbait pasarterekin erkatuz, konturatu ahal izan nintzenez;⁸⁵ ik., orobat, Humboldten ondareko euskal testu batzuen sarrera-testuetan azaldutakoak (Hurch 2002: *passim*).

* Kapitulu honen oinarria Gómez (1996) da.

⁸⁴ Kapitulu honetan bereziki Garatek (1933) bilduak eta Humboldt (1817) erabili ditut.

⁸⁵ Garatek itzultako bi gramatika-zirriborroen alemanezko testuak (Humboldt [1810-1815]a, b), oraingoz zuzendu gabe, Interneten argitaratu dira (Humboldt 2001), orrialdeak zenbatu gabe; jatorrizko aipamenak bertatik jaso ditut.

Ezbairik gabe, Humboldték euskalaritzari egindako ekarpen nagusiak bi dira, orokorrenak izan ere (cf. Mitxelena 1973, Tovar 1980): lehenik, Humboldték euskarari buruzko interesa piztu zuen Europako hizkuntzalari giroetan. Humboldtén xedea izan zen Iberiar Penintsularen —eta are Europaren— hizkuntz jatorriak miatzeko euskara ikertzeak zuen garrantzia ezagutaraztea. Ikerlerro honen adibide gertu bat Theo Vennemann hizkuntzalari alemanaren lanetan aurki dezakegu, uste baitu euskara —edo, hobeto esanda, haren arbasoa— izan zela indoeuroparrak heldu aurretik Europako Mendebaldean mintzatu zen hizkuntza.⁸⁶ Hala bada, Humboldtén lanetatik abiatu, Europako ospe handiko zein txikiko hizkuntzalari batzuk, bai eta Vinsonek (1867) “hizkuntzaren alkimistak” izendatu zituen beste haiek ere, nola edo hala euskarari buruz ikertzeari —zenbait kasutan funsgabeko gogoetak egiteari baino ez— ekin zioten.

Mitxelenak (1973 [1985b: 142]) adierazi zuen euskal hizkuntzalaritza tradizioak Europako Mendebaldekoarekin izan zuen bigarren kontaktu handia Hugo Schuchardti zor zaiola, atzerriko hizkuntzalarien zerrendatik lehenagokoa den

⁸⁶ Cf. “I think there is a straightforward explanation for all the observations described above. All I need to do is assume that the language of the Old European toponymy and the old South European languages are related, and everything else follows. I do not think that the language of the toponymy is itself either Basque, Iberian, or Ligurian. But I do believe that all four languages belong to the same linguistic stock. I call this language family Old European, also, in honor of the only surviving member, Vasconic, its *Ursprache* Proto-Vasconic (=Palaeo-Basque)” (Vennemann 1994: 261-262). Vennemannen lanak (berezi 1994, 1998 eta 2003) arras eztabaidagarriak dira, hala abiapuntuei nola metodoari eta ondorioei dagokienez, eta haien iruzkin luzea egitea tesi-lan honen helburuetatik kanpo geratuko litzateke; ik. horretarako Lakarra 1996b (Vennemannen aipatu lehen lanaz) eta 2001, 2005 (gerokoak ere aintzat hartzen dituztenak).

Bonaparte printzea kendu baitzuen. Agian, baten batek gehiegizkotzat jo lezake Bonaparteren alboratzea, baina, egia esan, Printzearen lana —egun ere baliagarria eta oraingoz gutxiegi erabilia— funtsean datuen bilketa sistematikoa eta berauen sailkapena besterik ez zen izan. Bonaparteren idatzietan aurki daitezkeen gogoeta teoriko urrietatik asko dira Humboldten zenbait ideia aldarrikatzeko eta ideia horiek prusiarraren kontrakoan —bereziki Vinson eta van Eysen— aurrean aldezteko (ik. hemengo 4. kapitulua).

Haatik, egia ere da Humboldten eta Schuchardten artean doan garaian euskal gramatikari egindako ekarpenengatik aintzat hartzekoa den Europako autore bat edo beste kausi daitekeela. Beharbada adibide nabarmenena aipatu berri dudan van Eys holandarra litzateke (ik. Sarasola 1989, Gómez 2002b eta hemengo 5. kapitulua).

Humboldten bigarren ekarpen orokorra Europako hizkuntzalaritzan artean sortzen edo garatzen ari ziren metodoak euskararen azterketari aplikatzea izan zen. Egia esan, berrikuntza metodologikoez ez zuten isla handirik izan Euskal Herriko aditu gehienek artean, ezta —egia osoa esateko— atzerriko frankotan ere (Vinsonen “alkimistengan” alegia). Humboldten euskarako hurbiltzea zientifikoa eta, beraz, hotza zela esan izan da (Mitxelena 1973 [1985b: 131]). Haatik, Humboldtek ez du inoiz Euskal Herriarekiko eta euskaldunekiko estimua ezkututzen. Bertoko adituek, ordea, euskarari eta haren jatorriari buruzko aurreiritzi ugari izan zuten, norbere gogo eta interesei erantzuten zieten arrazoiez eta fantasiako etimologiez apainduak. Humboldtek, haren ahalegin guztiak gorabehera, arbuiatzen zituen huts hauek

berauek egin zituen inoiz edo behin, Astarloaren ideiek prusiarrarengan izan zuten eragin bortitza dela eta.⁸⁷

2.2 Iturriak

Pablo Pedro Astarloa izan zen, izan ere, Humboldték euskal gramatikari buruzko ikerketetan erabili zuen iturri nagusia eta, batik bat, durangarraren *Plan de lenguas*. Humboldtén idatzietan honelaxe aipatzen da Astarloaren eskuizkribua, besteak beste: “obra manuscrita” (ik. Garate 1933: 92), “seinen Heften” / “sus cuadernos” (Humboldt 2001 / [1810-1815]b: 169) edo “meine Astarloaschen Papiere” / “mis papeles de Astarloa” (Humboldt 2001 / [1810-1815]a: 181). Behin baino gehiagotan aitortu zuen Humboldték Astarloaren eskuizkribuarekiko zuen zorra, hala nola hurrengo pasarteotan:

Como yo he seguido principalmente el manuscrito de Astarloa en la parte gramatical de esta sección, sería por eso superfluo el citar aquí detalladamente su contenido. Sólo hay que lamentarse de que el manuscrito todavía no haya sido impreso, y yo sólo poseo una copia literal de algunos capítulos, tablas y un extracto muy detallado, en forma que aún quedan algunos huecos. (Humboldt [1810-1815]c: 147)

Como yo todavía en la parte gramatical debo tomar como fundamento principalmente a Astarloa, así como en lo léxico a Larramendi... (Humboldt [1810-1815]c: 150)

Besterik da *Plan de lenguas* eta *Discursos filosóficos* lanen artean nolako erlazioa izan zen —estua, edonola ere— behar bezala finkatzea, Garatek (1933: xv) eskatu

⁸⁷ Guztiarekin ere, Humboldték Astarloaren hots esanahidunen teoria ezaguna kritikatu zuen, atea

zuen bezala. Hala ere, erkaketa lan hori ezin izan da egun arte zehaztasun handiz burutu.⁸⁸ Izan ere, *Plan de lenguas*-en eskuizkribua Errok galdu zuen, antza denez, Astarloak Erro eta Zamakola bere testamentuan esanak betearazteko izendatu ondoren eta, hortaz, bere paperak argitararazteko agindu ondoren (Garate 1933: 211; 1934: 633-637). Gaur egun Humboldt看 berak Astarloaren etxean egindako laburpena, Garatek argitaratua eta itzulia (Garate 1935 eta 1961a, hurrenez hurren), eta Humboldten enkarguz egindako zati baten kopia besterik ez dugu ezagutzen (Hurch 2002; ik. orobat hemengo §1.2).

Humboldt看 euskara aztertzeo beste iturri garrantzitsu batzuk baliatu zituen: Larramendiren gramatika (1729), Harrietena (1741) eta Oihenarten atsotitzak eta neurtitzak (1657). Humboldt看 Parisen zegoela ezagutu zituen lanok, 1801ean Euskal Herrira egindako bidaiara baino lehentxeago. Aitzitik, Oihenarten *Notitiako* kapituluak —askoz ere garrantzitsuagoak, aurkezten dituen gramatika-analisi modernoagoengatik (Oyharçabal 1993, 1994)— euskal hiztegi eta gramatika-lanen zerrendan bakarrik aipatzen ditu. Halaber, Fréreten gramatikaren aipamena nabarmendu nahi nuke; gramatika hau 1749 baino lehen idatzi zen eta oraintsu arte Humboldten oharrei esker baino ez genuen ezagutzen. Krakovian, Humboldten

erabat itxi ez bazion ere (ik., adibidez, Humboldt 1817 [1933-34: 93]).

⁸⁸ Nahiz eta zenbait zehaztasun handiagoa eska zekioken. Hala, Humboldt看 adierazi zuen euskal aditz-jokoari buruzko bere azalpenak Astarloaren eskuizkribuetan, ez lan inprimatuetan, oinarritzen zirela (Humboldt 1817 [1933-34: 97]); baieztapen horretatik Tovarrek ondorioztatu zuen Humboldt *Diskurtso filosofikoen* eskuizkribuaz ari zela (Tovar 1980: 153). Ik., hala ere, §1.2.

ondarean agertu ondoren, berriki argitaratu da funtsean Oihenarten kapituluetan oinarritzen den Fréreten gramatika-lan laburra (Hurch 2002: 96-110).

Oro har, esan genezake Humboldték ederki ezagutzen zituela ordu arte idatzitako euskal gramatika eta lexikografi lanak, eskura izan zitezakeenak behinik behin; jakina, ezin baitira kontuan hartu Mikoletaren edo Urteren lanak, esaterako. Hala ere, prusiarrak lapsus bat edo beste eduki zuen, hala nola Etxeberri biak, Ziburukoa eta Sarakoa, bat egiten dituelarik (Humboldt [1810-1815]c: 143). Bada Humboldték azaltzen du Sarako Etxeberriek Larramendiri utzi ziola bere hiztegiaren eskuizkribua, eta jarraian eransten du Oihenartek ere zenbaitetan aipatu zituela hiztegi hura eta haren egilea Pouvreuren lanei egindako oharretan... noiz eta mende bat lehenago!

2.3 Humboldtén euskarari buruzko lanak

Euskal gramatikari buruzko Humboldtén lan batzuk burutu gabeko egitasmo bati dagozkio.⁸⁹ Izan ere, Humboldték Euskal Herriari buruzko monografia handi bat idazteko asmoa zuen, haren plana behin baino gehiagotan iragarri zuelarik (ik., esaterako, Humboldt 1907 [1801-1802] eta 1933 [1812]). Monografiak, gutxienez, honako atal hauek izan behar izan zituen (ik. orobat El Zarka 2002):

a. Lehenik, Euskal Herriaren eta haren biztanleen deskribapena. Atal honetan Humboldték “Die Vasken” lanaren laburpena eskaini nahi izan zuen; kontakizun

⁸⁹ Euskarari eta Euskal Herriari buruzko Humboldtén lan guztien zerrenda ikus daiteke orain El Zarka eta Vollmannek bildutako bibliografian (1999-2004).

horretan 1801ean Euskal Herrira egindako bidaia azaldu zuen, baina ez zen 1920 arte argitaratu (Humboldt 1920).

b. Bigarrenik, euskararen analisisa, kronologikoki antolatutako euskal literaturaren pasarte batzuk eranskin gisa izanik (“Analyse der Vaskischen Sprache, begleitet von einem Anhang chronologisch geordneter Vaskischer Sprachproben” *apud* Vollmann 2000). Atal honen muina euskararen gramatika bat izango litzateke; haren bi zirriborro besterik ez dugu ezagutzen: *Krakoviako gramatika* eta *Bilboko gramatika* izenez ezagutzen direnak⁹⁰ eta Garatek 1933an gaztelaniaz argitaratu zituenak, “Gramática vasca” (153-178. or.) eta “Análisis de la lengua vasca” (179-197. or.) deiturak erabiliz, hurrenez hurren. Zirriborro hauek ez dira oraino alemanez argitaratu, nahiz eta Interneten behin-behineko testuak kontsultatu daitezkeen (ik. Humboldt 2001). Atal berean testu hautatu batzuk sartuko lirateke, beharbada Adelung eta Vater-en *Mithridates-i* (1806-1817) egindako “Zuzenketak eta eransketak” delakoan argitaratu zituen berberak (Humboldt 1817); halaber, euskararen eta beste hizkuntza batzuen arteko erkaketa eta hiztegi bat. Azken bi zati hauek ez zituen idatzi, noiz edo noiz Larramendiren eta Pouvreauren hiztegietan oinarritutako lan bat prestatzen ari dela aipatzen badu ere (Humboldt [1810-1815]c: 138, 140; Humboldt 1907 [1836]: 210); Humboldten ondarean dauden lexikografi lanei buruz, ik. Kerejeta (1997).

⁹⁰ Bi eskuizkribuen historia eta deskribapenerako, ik. El Zarka (2000) eta Vollmann (2002).

c. Hirugarren atala Euskal Herriari eta euskarari buruzko historiaurre eta filosofi ikerketek (“historische und philosophische Untersuchungen über die Vaskische Nation und Sprache”) osatuko lukete. Atal honetan Humboldten xedea bere ideiak azaltzea zen, aurreko bi ataletan bildutako datu guztiak aintzat harturik. Humboldtek espresuki adierazten du datuen zehaztasunaren helburua irakurleari bere iritziak ateratzeko aukera eskaintzea dela eta, hala, bere kabuz hirugarren atal hori idazteko edo aldatzeko aukera izan dezan. Bistan da, jarrera honek autore prusiarraren zentzu zientifiko eta kritikoa agerrarazten du.

Humboldtek lan gutxi utzi zituen guztiz amaituta eta egoera hori euskal gramatikari buruzko lanetan ere nabari da. Bada, Humboldti deitu izan zaio, arrazoi osoz deitu ere, “sarrerren gizona” (Jankowsky 1972: 42), bere beste hainbat interesetan murgilduegi egoten baitzen, obra oso bat ezin biribilduz.

2.4 Humboldten zenbait ekarpen

Hurrengo lerroetan, Humboldten lanak aintzat harturik, jakintsu prusiarrak euskal gramatikari buruz utzi zizkigun analisi interesgarrienak aurkeztuko ditut. Haietako batzuk Mitxelenak azaldu zituen Humboldten eta euskararen gainean idatzi zuen artikulu ezagunean (Mitxelena 1973). Bestalde, gorago ohartarazi dudanez, euskarari buruzko Humboldten ideia asko Astarloari zor zaizkio.

2.4.1 Hitzaren definizioa

Lehenik, Humboldtek irizpide fonotaktikoak erabili zituen, beste zenbaitekin batera, euskal hitzaren mugak definitzeko. Hau dela eta, destinatiboaren *tzat* hizkia hitza dela ukatu zuen, euskaraz ez baitago *tz-z* hasitako hitzik:

Ni en general ni en especial se ha determinado hasta ahora bien lo que debe formar una palabra y lo que no puede formar una palabra [...] Pero si se conoce mejor la lengua, salta claramente a la vista que es la sílaba de flexión y la palabra propia. Se utilizan también las letras iniciales de estas palabras (que, por ejemplo, en *tzat* son tales que en ninguna palabra vasca se puede comprender así) y también la inclusión de letras eufónicas para colocar el acento. (Humboldt [1810-1815]b: 166)⁹¹

2.4.2 Kategorien zehazgabetasuna

Humboldten iritziz, euskal hitzak ez litzaizkioke gramatika kategoría bati edo besteri zorrozki atxikiko, kategoriari dagokionez zehaztugabeak lirarteke:

En la sencilla gramática vasca las fronteras entre las partes de la oración (*Redeteile*) no son tan claramente distintas como en griego y latín, pasando de unas a otras; (Humboldt [1810-1815]b: 160)

Ildo beretik, adierazten du euskaraz kategoría batzuek ez dutela inolako bereizgarririk agertzen, gainerako kategorien aldean. Hala, esate baterako, euskal izena eta adjektiboa ezin dira bereizi, ez bada izen sintagman batak eta besteak hartzen duten egongune erlatiboagatik (I + Adj):

Entre *sustantivos* y *adjetivos* no hay absolutamente diferencia gramatical alguna [...]. La única diferencia gramatical lógica concreta que existe es la posición inmediata a la del sustantivo, porque el sustantivo va siempre y sin excepción

⁹¹ Cf., halaber, “Weder im Allgemeinen noch Besonderen ist bis jetzt gehörig bestimmt, was Ein Wort bilden muß, und was auch Eins bilden kann. [...] Kennt man aber die Sprache genauer, so fällt sehr bestimmt ins Auge, was Anhängsilben u. was eignes Wort ist. Man braucht nur auf die Anfangsbuchstaben dieser Wörter (die wie z.B. in *tzat*, für, so sind, daß kein Vaskisches Wort je so anfangen kann) auf die Einschubung der Wohllautsbuchstaben, und vorzüglich auf den Accent zu sehen” (Humboldt 2001).

delante [del adjetivo — R.G.]: *ur garbia*, el agua limpia, y no al revés: *garbi ura*. ([1810-1815]b: 161)

Orobat, Humboldték dioenez, bai izenak bai adjektiboak har dezakete kasu-marka, bai batak bai besteak gradu konparatibo eta superlatiboa ere:

Nada especial hay que advertir acerca del adjetivo, porque se comporta exactamente igual que el sustantivo. Ni la misma gradación le es peculiarmente propia ([1810-1815]b: 172)

Hurrengo hauek Humboldték emandako adibideak dira: *bizia* hitzak izen adiera (‘das Leben’) zein adjektibo adiera (‘der Lebendige’) izan ditzake; orobat, *ederrago* konparatiboa (‘mehr schön’) dugun bezala, *gizonago* hitza (‘mehr Mann’) ere bada (Humboldt [1810-1815]b: 161, [1810-1815]a: 193).⁹² Onartzen du, aitzitik, euskarak

⁹² Cf., halaber, jatorrizko testua:

In der einfachen Vaskischen Grammatik sind die Grenzen zwischen ihnen nicht so bestimmt, als im Grie/376/chischen u. Lateinischen geschieden; einige fließen in einander über; andre kommen {strike: nur} selten {eingefügt: oder nie} in eignen Wörtern vor; andre endlich enthalten nur wenige Wörter, die zu allem Gebrauch aushelfen müssen.

1. Zwischen dem Substantivum und Adjectivum giebt es schlechterdings keinen grammatikalischen Unterschied. Zu dem unbestimmten, gewissermaßen noch formlosen Begriff sind die Artikel hinzugefügt, u. dadurch entsteht das Nomen, das nur entweder eine selbstständige Sache oder eine Eigenschaft ausdrückt. Bici z.B. heißt: leben, hängt man daran das a des Artikels, und zwar wie immer hinten an, so heißt nunmehr Bicia sowohl das Leben, {strike: u. des Lebens} als der Lebendige. Beide haben {strike: dazu dieselbe immer einförmige# Endigung} dieselbe Declination; das Adjectivum kennt nie mehr als Eine Endung, und sogar die Steigerung ist ihm nicht ausschließend eigen, da auch das Substantivum sie und zwar auf dieselbe Weise annimmt. Denn man sagt eben so wohl er ist (mehr Mann) in einem Wort, *guizonago*, als (mehr schön) *ederrago*. - Den einzigen bestimmten grammatikalischen Unterschied giebt [es] da, wo es unmittelbar bei dem Substantivum steht, die Stellung. Denn das letztere geht immer u. ohne Ausnahme voraus, ur *garbia*, das reine Wasser, nie umgekehrt *garbi ura*. (Humboldt 2001).

gramatika kategoria bakoitza eratzeko zenbait atzizki dituela; baina adierazten du hitz eraketa hori, ezbairik gabe, askoz berriagoa dela. Ohartarazi nahi nuke, bidenabar bederen, Humboldték bere obra guztian zehar hitz eraketari—eta, bereziki, eratorpenari— jartzen dion arreta handia.

Askoz geroago, André Martinetek ere euskaraz benetako adjektiborik ez dagoela iradoki zuen. Eta Mitxelena azpimarratu zuen euskal jatorriko hainbat hitz zahar zehaztugabeak direla kategoriari dagokionez, hala nola “*argi* ‘luz’ y ‘claro’, *bero* ‘calor’ y ‘caliente’, *hotz* ‘frigus’ y ‘frigidus’, etc.” (Mitxelena 1964 [1988: 56]). Azken urteotan, J. A. Lakarrak (ik. esaterako 2005) aztergai honetan sakondu du, euskaraz benetako adjektiborik ez egotea Dixonek (1977) adjektibo motei buruz proposatu zituen orokortasunekin lotu duelarik.⁹³ Lakarrak ondorioztatu du euskaraz adjektiboa aski kategoria berria dela. Dixonek hizkuntza batean adjektibo kategorian sar daitezkeen osagaiak zazpi sail semantiko unibertsaletan sartzen ditu, eta lau mailatan biltzen:

- a. “adina” (*gazte, berri, zahar...*), “dimentsioa” (*altu, labur, handi...*), “balioa” (*on, txar...*), “kolorea” (*zuri, beltz, gorri...*);
- b. “giza joerak” (*alai, tentel, krudel...*);
- c. “ezaugarri fisikoak” (*gogor, lau, bero...*);
- d. “abiadura” (*arin, geldo, azkar...*).

⁹³ Alabaina Dixonek iritzia aldatu du eta azken lanetan aldeztu du hizkuntza guztietan, nola edo hala, adjektibo kategoria aurki daitekeela (ik. Dixon 2004).

Hizkuntza batzuetan sail guztietako osagaiak dira adjektiboak; beste batzuetan sail batzuk baino ez dira adjektiboen bitartez adierazten, eta beste zenbait hizkuntzak, aldiz, ez dute adjektiborik. Dixonek hamazortzi hizkuntza aztertzen ditu eta ohartzen da bere sailkapeneko lehen lau sailek (“adina”, “dimentsioa”, “balioa” eta “kolorea”) adjektiboak izateko joera handia dutela, are oso adjektibo gutxi duten hizkuntzetan. Oso adjektibo gutxi edo bat ere ez duten hizkuntzek gainerako hiru mailak adierazteko —“giza joerak”, “ezaugarri fisikoak” eta “abiadura”— bestelako bideak baliatzeko joera dute, hala nola mailegatzea, eratorpena eta elkarketa (zero-eratorpena barne), perpaus erlatiboak, partizipioak, partikulak, etab.

Dixonen auresana hauxe da: hizkuntza batek lehen mailan benetako adjektiborik ez badu, ez du beheko mailetan ere izango. Ildo honetatik, Lakarrak lehen mailako euskal adjektibo asko eratorriak direla proposatu du (*gorr-i*, *zur-i*, *bel-tz*; *han-di*, *berr-i*, *luz-e*, *la-bur...*), aitzineuskarako zenbait aurrizki eta atzizki identifikatu ondoren. Hortaz, are Dixonen hierarkiako maila gorenean ere ez genuke “benetako” adjektiborik. Dixonen orokortasunez baliaturik, Lakarrak proposatu du euskaraz adjektibotzat hartu ohi diren hitz guztiak bi multzo hauetako batean sartu behar ditugula: (a) hitz zaharrak, kategoria bereizkuntzarik gabekoak edo (b) eratorriak, elkartuak, maileguak...

2.4.3 Mugagabea

Humboldték euskarari bi deklinabide mota daudela adierazi zuen, mugatua eta mugagabea:

Hablemos de una vez de declinaciones, y hay dos claras en vasco, una con artículo y otra sin él. Larramendi llama a la última sólo una declinación de los

nombres propios, pero se emplea indefinidamente con todos los apelativos, y Astarloa lo dice expresamente en sus cuadernos. ([1810-1815]b: 169)⁹⁴

Bistan da gai honetan ere, beste hainbatetan bezala, Humboldten iturri zuzena Astarloaren *Plan de lenguas* izan zela (hemen “sus cuadernos” / “seinen Heften” deitzen dituenak, alegia). Hala eta guztiz ere, Astarloa baino lehen Oihenart (1638/1656) ohartu zen deklinabide paradigma mugatuaren eta mugagabearen arteko bereizketaz. Gainera, Oihenartek “artikuludun” (*articulata*) eta “artikulugabe” (*inarticulata*) terminoak erabili zituen, eta lehenengoan singularra eta plurala bereizi zituen.⁹⁵ Astarloa, aldiz, ez zen sekula termino horietaz baliatu, haren ikuspegiaren arabera *-a* ez baitzen artikulua, “marca de nombre apelativo [común]” izendatu zuelarik; aitzitik, “artikulu” terminoa egun kasu-markak deitu ohi diren zenbaitetarako gorde zuen (ik. Gómez 2001a eta hemengo §6.3.3).

Beste alde batetik, inoiz baieztatu da (Villasante 1972: 13) euskaraz numero mugagabea dagoela aurrenekoz ohartu zena Darrigol (1827: 44) izan zela, antza denez Astarloa eta Humboldtekin inolako loturarik egin gabe (Mitzelena 1973 [1987:

⁹⁴ Cf., halaber, “Spricht man einmal von Declinationen, so giebt es im Vaskischen offenbar zwei, nemlich eine mit, u. eine ohne Artikel. Larramendi nennt die letztere bloß eine Declination der nominum propriorum, aber sie ist ebensowohl auf alle Appellativa indefinita anwendbar u. Astarloa sagt dies in seinen Heften ausdrücklich” (Humboldt 2001).

⁹⁵ Cf. “Declinandorum nominum ratio duplex est, alia sine articulo, alia cum articulo: Vocemus hanc *articulatam*, alteram verò *inarticulatam*. Inarticulata vnico vtitur numero, qui promiscuè seu adiectiuo seu verbo, singulari vel plurali annectitur; Exemplum: *guiçon hura etorri da*, homo ille venit, *guiçon haec etorri dira*, homines illi venerunt: Articulata verò duplici gaudet numero, singulari & plurali, Exemplum: *guiçona etorri da*, homo venit, *l’homme est venu* Gallicè: *el hombre à venido* Hispanicè: In plurali verò *guiçon-ac etorri dira*, homines venerunt, *les hommes sont venus*, *los ombres an venido*”

134]). Hala ere, ez Oihenartek ez Darrigolek ez zuten zuzenki ulertu deklinabide mugagabearen eta deklinabide-markarik gabeko izenaren —hots, oinarri hutsaren— artean dagoen aldea (Oyharçabal 1993: 272). Izan ere, *bost gizon-ø / gizon ederra* adibide bikotea hartuz gero, lehenengoan absolutibo kasuaren -ø marka ageri da izenaren amaieran, izen sintagma osoa absolutibo kasuarekin markatzen duela; bigarren adibideko izenean, berriz, ez dago kasu-markarik eta bai, ordea, determinatzailearen ostean.⁹⁶ Astarloak erabili zuen aurreneko aldiz -ø morfemaren antzeko kontzeptu bat, “hizkirik eza” (*el no tener característica alguna*) deitu ziona (ik. Gómez 1999 eta hemengo §1.5.4.2). Oihenarten gramatika-lanean (1638/1656), bestalde, -ø morfema inplizituki agertzen da; besteak beste, “nominatibo” edo “zuzen” (*rectus*) izendatu zuen kasuaren ezaugarri gisa alegia.

2.4.4 Kasuak eta preposizioak (edo postposizioak)

Humboldték, Adelung-en *Mithridates*-i egindako iruzkinetan, deklinabide paradigmek aurreko euskalarien lanetan sorrarazi zuten nahasketa salatu zuen:

Los casos de la declinación bascongada, como se hace comunmente la enumeración, por ejemplo en la obra de Larramendi, están compuestos en muy gran parte de la palabra primitiva sin alteración y de una posposición.

(Oihenart 1656: 57). Pasarte honen iruzkinerako, ik. Oyharçabal (1993: 271-272) eta hemengo §6.3.1.

⁹⁶ Jakina, Oihenartek ez Darrigolek ez zuten “izen sintagma” kontzeptua ezagutzen. Izan ere, sintagmaren inguruko gogoetak XX. mende hasierako estrukturalismoarekin abiatu ziren (cf. Lauwers 2004). Puntu honetan Larramendiren deskribapena egokixeago suertatu zen, andoaindarrak artikuluz zuten ikuspegia lagun; cf. Gómez (2001a) eta hemengo §6.3.2.

[...] Así es necesario enumerar todas las posposiciones imaginables (lo que no tendría finalidad alguna) colocándolas completamente entre los casos, ó separar las posposiciones evidentes de los casos. (Humboldt 1817 [1933-34: 94])

Humboldten iritziz, euskarak hiru kasu ditu:⁹⁷ nominatiboa, genitiboa eta datiboa. Hala ere, euskarak, gainerako hizkuntza gehienek ez bezala, bi nominatibo mota bereizten ditu: bata egileari dagokiona eta bestea pasibo edo neutroari dagokiona. Hurrengo taulak Humboldt看 proposatutako deklinabide paradigma azaltzen du:

DECLINACION			
CON ARTICULO		SIN	
SINGULAR		SINGULAR	
		Cuando el sustantivo termina en consonante	Cuando termina en vocal
Nominativo del agente	a-c	e	ec
Nominativo del pasivo o neutro		El nombre o la misma palabra. Si por duda, pregunta o negación se quiere expresar alguna se añadirá	
Acusativo o vocativo	La palabra con artículo	ic	r-ic
Genitivo	a-r-en	en	r-en
Dativo	a-r-i	i	r-i
PLURAL			
Nominativo del agente	a-c	Esta declinación no tiene ningún plural porque como el sustantivo es muy indeterminado, sobra la determinación del número.	
Nominativo del pasivo o neutro			
Acusativo y vocativo	a-c		
Genitivo	en		
Dativo	a-i		

Laugarren taula: Humboldt看 deklinabide paradigma (1817 [1933-34: 95]).

⁹⁷ Euskal deklinabidearen azterketetan azaldutako joerez eta bertan Humboldt看 analisisiek duten lekuez, ik. Alberdi (1989a) eta bereziki Oyharçabal (1998: 442-443, 451); ik., orobat, Gómez (2002b) eta hemengo §5.4.3.

Beste alde batetik, Humboldték baieztatzen du kasuen kopurua unibertsala dela; esan nahi baitu, hizkuntza guztiek dute kasu-kopuru berbera:

Reflexionando sobre la diferencia de los casos y de las preposiciones (visto que los dos designan siempre las relaciones de las palabras entre sí) siguiendo los principios generales, me parece se puede afirmar que existe un caso, siempre que la relación proviene de la idea de la conexión misma, una clase suya necesaria e inteligible por ello sin el uso de alguna otra idea intermedia. Por el contrario allá en donde una idea intermedia tiene lugar es necesario hacer uso de una preposición ó posposición de donde resulta por sí mismo que *el número de casos está fijado inmediatamente por la tabla de las categorías; pero el número de las preposiciones es completamente arbitrario*, tanto más cuanto que las preposiciones son en su mayor parte sustantivos reconocibles que expresan esa idea intermedia y rigen como tales lo más naturalmente el genitivo. Pero el genitivo resulta de la relación de la sustancia y de la cualidad; el acusativo de la causa y de la operación, y de la causa la del nominativo activo. La mayor parte de las otras lenguas, excepto la Vasca, omiten éste. El nominativo de los verbos neutros no es propiamente caso, en atención á que no indica relación alguna á otro objeto, y el nominativo del paciente (o pasivo de los verbos) lo será sólo cuando añade la causa de esa acción pasiva. Un cuarto caso podría aun resultar de la idea de la acción mutua; con todo, esta relación aparece (tomándolo con rigor) muy raramente para merecer un signo propio. Un cuarto caso puede nacer por el contrario: el dativo, en que una segunda relación se junta aun a la primera, de suerte que resulta una verdadera doble relación como en la frase: doy el libro al hombre. (Humboldt 1817 [1933-34: 95-96]; azpimarratua nirea da)

Ideia hau, aldeak alde, gaurko gramatika sortzailearen kasu teoriarekin lot liteke. Hala ere, Humboldtén baiezta-pen unibertsalista hori gramatika orokorraren korrontean kokatu behar dugu bete-betean. Gai honi dagokionez, J. B. Bertrandek 1797an Frantziako Akademian kasuen unibertsaltasuna proposatu zuen hitzaldi luze batean eta bere tesiak Akademiaren onespina lortu zuten (cf. Agud 1980: 150hh). Aintzat hartu behar dugu garai hartan Humboldt Parisen zegoela eta, beraz, erraz ezagutu ahal izan zituen Bertrandén ideiak.

Humboldten iritziz, kasuek lehen mailako erlazioak adierazten dituzte eta preposizio edo postposizioek, bigarren mailako erlazioak.⁹⁸ Bestalde, preposizioak eta postposizioak jatorriz izenak izan daitezkeela ere esaten du. Halaber, gramatikalizazioari buruzko ideietan beste urrats bat eginda, Humboldtek garbi ikusi zuen preposizioak eta postposizioak kasu-atzizki bihur daitezkeela. Hjelmlev-en arabera (1978: 45-46), kasuen eta preposizioen arteko loturak August Ferdinand Bernhardik (1805) proposatu zituen aurreneko aldiz, eta gauza jakina da Humboldtek Bernhardiren lana ezagutu zuela (cf. Haym 1856, *apud* Aarslef 1977: 233; Bernhardiren hizkuntz ideiei buruz, ik. Schlieben-Lange & Weydt 1988).

Beste lan batean, Humboldtek kasuak eta preposizioak batera aztertzeko hiru arrazoiak laburtu zituen:

Las preposiciones suelen ser tratadas en otras gramáticas tras las partes variables de la oración y junto con las restantes partículas, y yo las llevo a la declinación, *en parte* por la relación general entre casos y preposición fundada por sí misma en la esencia de la unión del discurso, *en parte* por el parentesco etimológico que existe por lo menos en los idiomas modernos entre las preposiciones y las designaciones de casos, y, finalmente, *en parte* por la especial naturaleza de la lengua vasca, razón esta última que se hará clara con sólo la descripción de la materia. (Humboldt [1810-1815]a: 196-197)⁹⁹

⁹⁸ Honen antzeko analisisia aurkitzen dugu, lehenago, Astarloaren *Diskurtso filosofikoetan* eta, ondoren, van Eysen gramatika-lanetan (ik. §§5.4.3 eta 6.3.3).

⁹⁹ Cf., halaber, “Ich ziehe die Praepositionen, die in anderen Grammatiken nach allen veränderlichen Redetheilen mit den übrigen Partikeln abgehandelt zu werden pflegen, zur *Deklination*. Theils wegen der allgemeinen in dem Wesen der Rederverbindung selbst gegründeter casus Verbindung zwischen Casus u. Praeposition, theils wegen der etymologischen Verwandtschaft die wenigstens in modernen Sprachen zwischen den Praepositionen u. den Casen. [*sic*] Bezeichnungen vorhanden ist, *teils endlich*

Lehen arrazoia honen aurreko pasarte luzean azalduta ikusi dugu; bigarren arrazoia denaz bezainbatean, lehentxeago aipatutako gramatikalizazioari buruzko iritziaz arida. Honelaxe amaitzen du Garatek “Análisis” testu bukatugabearen itzulpena. Berriki aurkitu eta argitaratutako originalean (Humboldt 2001) testuak jarraitzen du; alabaina, damurik, Humboldték ez du argitzen zer esan nahi duen “euskararen izaera berezia” aipatzen duelarik.

2.4.5 Superlatiboa = genitibo plurala

Izenaren flexioaren esparrutik atera gabe, Humboldték euskararen superlatiboaren atzizkia eta genitibo pluralaren atzizkia bat bakartzat jo zituen, biak *-en* izanik:

Eu [sic] es el signo del genitivo; *gogorrena* significa, pues, el del fuerte, y es el mismo giro —aunque elidido— que el de rey de reyes y dios de dioses. ([1810-1815]a: 195)¹⁰⁰

Esta forma del superlativo es, si no me equivoco, un genitivo del plural. *Andi-ena* significa propiamente lo del grande, el grande entre los grandes, es decir, el máximo, como el dios de los dioses designa al Dios máximo. ([1810-1815]b: 172)¹⁰¹

XIX. mendearen bigarren erdian gauza bera aurkituko dugu van Eysen lanetan (ik. Gómez 2002b eta hemengo §5.4.4), baita, ondoren, Schuchardtenetan ere. Hala eta

wegen der besonderen Natur der Vaskischen Sprache. Das letztere wird durch die Abhandlung des Gegenstandes von selbst klar werden” (Humboldt 2001).

¹⁰⁰ Cf., halaber, “*En* ist das Zeichen des Genitivs, *gogorrena*, heißt also der der harten, u. ist (obgleich elliptisch) dieselbe Redensart, als der König der Könige, der Gott der Götter” (Humboldt 2001).

¹⁰¹ Cf., halaber, “Diese Form des Superlativs ist, wenn ich sie richtig erfasse nichts als ein Genitiv im Plural. *Andi-ena* heißt eigentlich der der Großen, der Große unter den Großen d.i. der größere so wie der Gott der Götter den obersten Gott anzeigt” (Humboldt 2001).

guztiz, Mitxelenak (1973) ohartarazi zuen zenbait autorek Schuchardti esleitu ziotela identifikazioaren egiletza.

2.4.6 Erlatiboko konplementatzailea = lokatiboko atzizkia

Beste alde batetik, Mitxelenak dioskunez (1973 [1987: 137]), Humboldték *-(e)n* konplementatzailea —perpau erlatiboetan erabilia, besteak beste— inesiboaren *-n* atzizkiarekin lotu zuen.¹⁰²

Hala dirudi; baina ez da gauza segurua Humboldték euskararen genitiboko eta inesiboko atzizkiak ongi bereizten zituenik, honako pasarte hauek aditzera ematen dutenez:

Si se investigan las dos preposiciones ordinariamente consideradas como terminaciones de genitivo, se ve que corresponden a las alemanas *in* [‘en’ — R.G.] y *aus* [‘de’ — R.G.], *-n*, *-en*, *-an*, *-ean*, se encuentran como postposiciones locativas: *eche-an*, en casa; como sedicente terminación de genitivo, *echera-r-en athea* [*sic*], la puerta de la casa; como terminación de muchas palabras que proceden de la constitución de su situación. ([1810-1815]b: 170)¹⁰³

Si se recuerda que ya más arriba, en el capítulo XVII, se comparó el sufijo genitivo *-en*, *-n* con la preposición *-in* que existe en diversos idiomas, nos parecerá

¹⁰² Ohartarazi behar da Humboldtén iritziz atzizkiok ez dituztela perpau erlatiboak eratzen, “partizipioak” baizik; cf. Erdozia (1999) eta hemengo §5.4.5.

¹⁰³ Cf., halaber, “Untersucht man die beiden gewöhnlich als Genitivendung angesehenen Praepositionen, so entsprechen sie unsern: In u. a[us.] N, en, an, ean findet sich als örtliche Postposition, eche-an im Hause; als sogenannte Genitivendung eche-a-r-en athea, des H[au]ses Thür; als Endigung vieler von der Beschaffenheit ihrer Lage hergenommenen Orten#” (Humboldt 2001).

muy claro el origen de este participio. *Jan dezu-n* sería *en lo que tú comes*. ([1810-1815]b: 176)¹⁰⁴

am-a-r-en, á la madre [sic] (*an, en* significa en alemán *in* como posposición). (Humboldt 1817 [1933-34: 94])

Guradozun es aquí participio que se refiere a *egunen baten*, por decirlo así, a un día en que tu quieras dormir. Como la letra *n* no es probablemente sino una abreviación de *an, en*, (nuestra *in* alemana) toda la forma verbal está fijada por esta posposición, como si se dijese, en cuando *tu quieras* [...]. Larramendi explica este modo de expresarse en la pág. 274 de su gramática, como si la letra *n* puesta al final fuera un pronombre relativo. Solo que esto es manifiestamente inexacto y no conforme á la analogía de la lengua. (Humboldt 1817 [1933-34: 104])

Eztabaida luzea —eta oraingoz itxi gabekoa— da erlatiboetako konplementatzaile-atzizkiaren jatorria genitiboari ala inesiboari lotu behar zaion. Euskalarien artean genitiboaren aldekoak (hala nola Gavel, Omaechevarría, Mitxelena, Eguzkitza 1994) eta inesiboaren aldekoak (esaterako, Lafon, de Rijk) kausi ditzakegu. Nire iritziz, zenbait irizpide morfonologiko eta morfologiko ekar litezke inesiboaren aldeko hipotesiaren alde egiteko: lehenik, erlatiboaren konplementatzaile-atzizkiaren forma *-n* bide da, ez *-en* (cf. Trask 1990: 124-126); bigarrenik, genitiboaren atzizki zaharra *-(r)e* bide zen (Mitxelena 1977: 504), egungo pertsona-izenordainetan (*ene, hire, etab.*) eta arkaismoren batean (*are*) gordetzen dena eta Erdi Aroko zenbait testutan lekukotzen dena (*Lope Jaun Ortire semea, Orcire çorita*, adibidez).

¹⁰⁴ Cf., halaber, “Wenn man sich erinnert, daß schon oben (nr. 17.) die Genitivendung en, n, mit der in mehreren Sprachen vorhandenen Praeposition: *in* verglichen worden ist, so ist die Entstehung dieser participien sehr klar. *Jan-dozu-n* heißt dann *im*: du issest, indem, daß du issest” (Humboldt 2001).

2.4.7 Partitiboa = ablatiboa

Humboldtek partitiboaren atzizkia *(-r)ik* eta ablatiboaren atzizkia *(-tik)* lotzen ditu, bigarrenari “lokatibo” deitzen badio ere:

Hay también otra llamada terminación de caso cuando se sirve del artículo indeterminado para indicar que no existe nada, ni lo más mínimo de una cosa. Esta preposición es *-ic* o con una *r* intercalada *-ric* [...]. Pero aquí hay un error probablemente; porque esta preposición parece igual al locativo *-dic* o *-tic*, que indica la procedencia o lejanía de algo [...]; esta concreta significación existe en el próximo verbo y el sustantivo omitido: *él tiene (nada) de pan*. Porque aun cuando no me acuerde ahora de haber encontrado en esta forma de hablar *-dic* o *-tic*, existe, viceversa, *-ric* como preposición locativa. *Erroma-tic* o *Erroma-ric*, de Roma (Harriet, página 11), o en plurales: *-eta-ric* por *-eta-tic*. ([1810-1815]b: 170)¹⁰⁵

2.4.8 Beste zenbait etimologia

Humboldtek eskaintako zenbait etimologia aurkeztuko ditut:

a. Lehenik, Humboldtek *-a* artikulua eta hirugarren pertsonako izenordaina erlazionatzen ditu. “Izenordaina” dioelarik, Humboldt erakusleaz ari dela ulertu

¹⁰⁵ Cf., halaber, “Eine andere giebt man ihm, und nennt sie auch Casusendung in dem Fall, wo man sich des unbestimmten Artikels bedient, um anzuzeigen, daß gar nichts, auch nicht das Mindeste von einer Sache vorhanden ist. Diese ist *ic* oder mit zwischengeschobenem *r*, *ric*. So *guizon-ic* *agueii ezta*, es erscheint kein einziger Mensch. *Ogui-|r-ic| eztu*, er hat gar kein Brod. Hierbei ist aber wohl ein Mißverständnis, denn diese Praeposition scheint mir völlig dieselbe mit der |ähn|lichen *dic* u. *tic*; welche das Herkommen, die Entfernung von etwas andeuten, wie *eche-tic*, von Hause, *Burgos-etic*, von Burgos, nur jene bestimmte Bedeutung liegt wohl nur in dem daneben stehenden Verbum, u. einem ausgelassenen Substantivum: Er hat (nichts) |an| Brod. Denn, wenn ich mich gleich nie erinnere, in diesen Redensarten *dic* od. *tic* gefunden zu haben, so steht doch umgekehrt *ric* als ör|tli|che Praeposition. *Erromatic* vor *Erromaric*, von Rom (Harriet, |S. 11|) {eingefügt: u. bei Pluralen

behar dugu, oraindik ere bizkaieran erabiltzen den *(h)a* formaz hain zuzen ere. Erakusle honen etimologiari dagokionez, Humboldték *Mithridates*-i egindako zuzenketetan (Humboldt 1817) behin *ar* forma ematen du, alemanezko hirugarren pertsona singularreko *er* izenordainarekin lotuz; alabaina, paragrafo batzuk beherago *a* ere agertzen da, bai artikulua eta bai hirugarren pertsonako izenordain bezala, bestelako azalpenik gabe agertu ere:

Ar nunca significa la tierra: es el pronombre de la tercera persona, y corresponde claramente á la palabra alemana *er* (ei). (Humboldt 1817 [1933-34: 465])

A: artículo determinado y tercera persona del pronombre. El, la, lo: él, ella, ello. (Humboldt 1817 [1933-34: 467])

Ene iritziz, ez dago garbi zein den Humboldtén xede nagusia: euskal izenordainaren etimologia bat proposatzea¹⁰⁶ ala euskara eta hizkuntza germaniarren arteko lotura nabarmentzea.

b. Beste alde batetik, Humboldték kasu lokatiboen pluraletan agertzen den *-eta*-hizkia eta toponimian erabiltzen den *-eta* atzizkia erlazionatzen ditu, baita *eta* emendiozko juntagailuarekin ere. Hirurak batzen dituen ‘kantitatea’ adieraztea litzateke, Humboldték dioskunez ([1810-1815]b: 171). Mende bat geroago, Schuchardtek *-eta* pluralgilearen etimologia azaldu zuelarik, latinez ‘taldea’ adierazten duen *-etum* atzizkia proposatu zuen (1923 [1947: 46]).

eta-ric für eta-tic.}” (Humboldt 2001).

¹⁰⁶ Oroit bedi, hirugarren graduko euskal erakuslearen etimologia **(h)ar* dela esplizituki proposatu zuen lehena van Eys izan zen; haren hiztegiaren hitzaurrean eta gaiari eskainitako artikulua batean aritu zen etimologia honetaz (1873a, 1873b); ik., halaber, Gómez (2002b) eta hemengo §5.4.3.

c. Azkenik, Humboldték ‘ugari(tasun)’ esan nahi duen *-za* atzizkia eta adizkietan agertzen den *-z* pluralgilea lotu zituen eta, hain egiantzekoa ez den arren, instrumentalaren *-z* atzizkiarekin ere bai ([1810-1815]b: 171).

2.4.9 Aditz bakarra, laguntzaile batzuk

Euskal aditzaren esparruari bagazokio, Humboldtén honako pasarte hau kausitzen dugu:

Verbos en el sentido de nuestra lengua [alemana — R.G.] no posee propiamente el vasco. Sólo posee un verbo auxiliar, merced al cual forma todos los restantes, justamente como si nosotros dijéramos en lugar de *yo como, duermo, estoy*, siempre *yo hago el comer, el dormir, el estar*, usándolo en forma análoga al inglés *to do*. Sólo este verbo auxiliar en el sentido gramatical de la palabra es un verbo, el restante suplemento es a veces un adjetivo, un sustantivo unido a una preposición (gerundio), a veces el concepto indeterminado de la acción en general (infinitivo), a veces todavía algo distinto. ([1810-1815]b: 161)¹⁰⁷

Pasarte honetan azaltzen diren bi ideia xehekiago aztertzea merezi du (ik. halaber §7.4):

¹⁰⁷ Cf., halaber, “2. (14.) Verba in dem Verstande, als unsere Sprachen, hat die Vaskische eigentlich gar nicht. Sie besitzt bloß eine Art# Hülfswerba, vermöge welcher sie alle übrige bildet; geradezu als sagten wir, statt ich esse, schlafe, stehe, immer ich thue essen, schlafen, stehen, und auf ähnliche Weise, als das Englische *to do* gebraucht wird. Nur dies Hülfswerbum ist in/378/der grammatikalischen Bedeutung des Worts ein Verbum, der übrige Zusatz ist bald ein wahres Adjectivum, bald ein mit /379/ einerPraeposition verbundenes Substantivum (Gerundium), bald der unbestimmte Begriff der Handlung überhaupt (In/380/finitiv) bald noch etwas andres. Dies einzige Verbum der ganzen Sprache verrichtet allen Dienst, dessen der Redende bedarf, u. erhält durch den Zusatz jedesmal seine bestimmte Bedeutung. Det, allgemein, ich thue, handle, bin beschäftigt, jaten det, ich bin beschäftigt im Essen, ich esse, ilten det, im Tödten, ich tödte, u.s.f.” (Humboldt 2001).

a. Lehenik, gramatikaren ikuspuntutik euskaraz aditz bakarra dagoela dio. Aditz bakarraren teoriak bide luzea du hizkuntzalaritzaren historian eta haren aldekoak gehienbat gramatika orokorraren joerari atxiki zitzaizkion (ik. §7.3 eta bertan aipatutako bibliografia).

Euskal gramatikari buruzko ikerlarien artean, XIX. mende osoan eta are XX. mende hasieran, aditz bakarraren aldeko autoreak aurki ditzakegu. Hala, Darrigol (1827), Abbadie-Chaho (1836), Inchauspe (1858), Bonaparte (1869b), Azkue (1891) eta Arana-Goiri (1912, 1991) bezalako egileek euskaraz aditz bakarra dagoela aldeztu zuten, zeinek bere modura aldeztu ere (xehetasunetarako, ik. Gómez 2002a eta tesi honetako 7. kapitulua).

Aitzitik, beste gramatikari batzuek, hala nola Astarloak (1803, 1883) eta haren jarraitzaile Zabalak (1848), edo van Eys eta Vinsonek, euskararen hainbat aditz daudela baieztatu zuten; autore hauetariko batzuek euskaraz edozein hitz aditz bihur daitekeela ere adierazi zuten (Astarloa 1883, Lécuse 1826, Zabala 1848, van Eys 1867).

Hortaz, irudi luke puntu honi dagokionez Humboldt Astarloaren eraginetik urrundu zela. Hala eta guztiz ere, *Mithridates*-i egindako zuzenketetan Humboldték aditzaren gaineko ikuspegia nabarmenki eraberritu zuen eta aditz desberdinez mintzo da:

La lengua vasca no tiene, estrictamente hablando, más que una sola conjugación; porque cada verbo, cualquiera sea su terminación, ó suene como quiera, no se conjuga sino de una sola y misma manera [...]. Se sirve de varios auxiliares tanto en diversos dialectos como en uno mismo: *euqui*, *ucan*, *adi*, *eguin*, *eruan*, *izan* y otros; el primero es, con todo, el más usado en el activo, el último en el pasivo. Los

auxiliares mismos son naturalmente verbos conjugados solo irregularmente [hau da, trinkoak — R.G.]. (Humboldt 1817 [1933-34: 97-98])

Areago dena, Astarloari jarraitzen dio, dioelarik “la simple adición de[l sufijo] *tu* es suficiente para crear un verbo y de este modo un caso oblicuo, un sustantivo unido á su posposición, etc., pueden servir para formar un verbo” (Humboldt 1817 [1933-34: 92]).

b. Bigarren ideia aditzen forma jokaturagabeei dagokie (infinitiboa, partizipioa, gerundioa, etab.). Humboldten iritziz, ez dira benetako adizkiak; beste kategoria batzuetan sartu behar dira. Bestalde, adizki jokaturagabeen sailkapena denaz bezainbatean, prusiarrak Larramendiren eragina jaso bide zuen; eta honek, oroit bedi, gramatika greko-latindarra zuen eredu (cf. Gómez 1991). Hala bada, Humboldt *jan bear*, Larramendiren antzera, geroaldiko infinitibo izendatzen du eta ‘essen werden, to shall eat’ itzultzen:

Del infinitivo se forma el pretérito y el futuro añadiendo palabras propias, como *izan*, sido para el pretérito: *jan izan*, haber comido, y el futuro con *bear*, necesario, precisar como *jan bear*, tener que comer, *to shall eat*. (Humboldt [1810-1815]b: 174)¹⁰⁸

Halarik ere, beste pasarte batzuetan Humboldt *adierazten du halako adizki jokaturagabeak ez direla benetako aditzak, postposizioz hornitutako izenak edo adjektiboak baizik. Honetan ere Astarloari jarraitu zion, nahiz eta azterbide hau urte*

¹⁰⁸ Cf. halaber: “Der Infinitivus der vergangenen {strike: Zeit} und zukünftigen Zeit wird durch Hinzufügung eigner Worte gebildet, der e erste mit *izan*, *seyn*, *gewesen*, *jan izan*, *gegessen haben*, der letztere mit *bear*, *nothwendig*, *müssen*, *jan bear*, *essen werden*, *to shall eat*” (Humboldt 2001).

batzuk geroago Darrigolek askoz sakonago aztertuko zuen (ik. Gómez 2002a eta hemengo §7.5).

2.5 Ondorioak

Kapitulu honetan Wilhelm von Humboldtek euskal gramatikaren ikerketei egindako ekarpen nagusiak gogorarazi nahi izan ditut. Lehenik, Humboldten euskarari buruzko lanen ildo nagusiak aurkeztu ditut, erabili zituen euskal iturriak ere —nagusiki Astarloaren ideien pisua— agerraraziz; halaber, euskarari buruz idatzi nahi izan zuen monografia aurkeztu dut. Ondoren, Humboldten analisi eta proposamen batzuk aztertu ditut; arreta berezia jarri dut zenbait euskalarik Humboldten ondokotzat hartu dituzten azterketetan, jakintsu prusiarraren lanetan aurkitzen zirela erakutsiz eta aurreko eta geroko proposamen hurbilak azalduz, kasuan kasu.

3 Darrigolen gramatika

3.1 Sarrera*

Euskalari guztiek ezagutzen dute, izenez bederen, Darrigol apaizak XIX. mende hasieran idatzi zuen euskal gramatika (Darrigol 1827). Gutxiagok dakite, ziurrenik, gramatika hori —edo, hobeki esanda, haren beste bertsio bat— 1829an Parisen euskal gramatikaren analisiari buruzko sari baten irabazle suertatu zela. Jean-Pierre Darrigol Lehuntzen jaio zen 1790eko maiatzaren 17an.¹⁰⁹ Haurtzaroa Logroñon igaro ondoren, Akizen ikasi zuen eta 1815ean apaiztu zen. Donibane Garazin eta Baionan bikario gisa jardun zuen; Jatsun eta Haltsun, erretore gisa. 1818tik Teologia irakatsi zuen Bétharram-en, baina berehala aldatu zen Baionara, bertako Apaiztegi Handian Moraleko katedra eman baitzioten eta, 1825etik, Apaiztegiko *supérieur* izendatu. Baionan hil zen 1829ko uztailaren 17an.

* Kapitulu honen oinarrian Gómez & Plank (1995) eta Gómez (2003) lanak dira, alabaina tesi-lan honetako idatzaldia aski zabaldua da.

¹⁰⁹ Darrigolen bizitzaz, ik. L. Dassance (1922), P. Dassance (1842) eta Vinson (1891-98: 282).

Darrigolen *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque* Baionan argitaratu zen, baina urterik azaldu gabe. Nolanahi ere den, eskuarki 1827ko data ezarri zaio¹¹⁰ eta badirudi lehen aldiz Vinsonek (1891-98: 281) proposatu zuela urte hori; izan ere, Darrigolek hitzaurrean Lécuse-ren gramatika aurreko urtean argitaratu zela aipatzen du eta Lécuse-ren *Manuel* 1826an atera zen:

On sait que M. Lécuse s’occupe du basque depuis environ deux ans et qu’il publia l’année dernière un manuel de cette langue, fruit précoce d’un esprit méthodique et pénétrant (Darrigol 1827: v)

Baina Vinsonek beste bi datu ematen ditu: lehena, lanaren iragarki bat argitaratu zela Parisko *Moniteur Universel* egunkarian 1828ko abuztuaren 9an eta, bigarrena, Darrigolek Parisko sariketara aurkeztu zuen txostena liburuaren garapena zela: “Le mémoire de l’abbé Darrigol était le développement de son livre” (Vinson 1891-98: 282). Lehenago oraindik, beste artikulua batean, ber gauza idatzi zuen: “Cet ouvrage fut la base d’un mémoire auquel l’Institut décerna en 1830 le prix Volney” (Vinson 1867: 386). Eta badago, azkenik, beste datu lagungarri bat: 1984ko edizioan Vinsonen bibliografia laguntzen duten Urquijoren oharretan ez da kontrakorik azaltzen.¹¹¹

Kapitulua honelaxe egituratzen da: hasteko, 1828ko Volney Sariari buruzko xehetasunak emango ditut (§3.2), bertan parte hartu zuten txostenak banan-banan

¹¹⁰ Nik dakidala bederen, beste datazio bat eman duen bakarra —1829 hain zuzen ere, baina inolako azalpenik gabe— Anderson (1973) izan da.

¹¹¹ Hala ere, Gómez & Plank (1995) lanean Andersoni jarraitu nion, azaldu berri ditudan datuei erreparatu gabe, eta artean oker uste bainuen liburuak, besterik ezean, eskuizkribuaren ondokoa izan

aurkeztuko ditudalarik (§§3.2.1-3.2.5) eta epaiaren gorabeherak iruzkinduko (§3.2.6); bigarrenik, Darrigolen gramatika-lanaren egitura (§3.3.1) eta zenbait ezaugarri orokor (§3.3.2) azalduko ditut; ondoren, gramatikaren edukiaren zenbait gai aztertuko ditut (§3.4): euskal erro eta kategorien zehaztugabetasuna (§3.4.1), deklinabide-paradigma mugagabea (§3.4.2), kasu eta preposizioak (§3.4.3), aditza (§3.4.4) eta sintaxia (§3.4.5). Amaitzeko, kapituluaren ondorioak azalduko ditut (§3.5).

3.2 Volney Sariaren irabazle

Michel d'Abbadieren —Antoine-ren aitaren— aholkuari jarraituz (L. Dassance 1922: 559), 1828 urtearen bukaeran Darrigolek gramatikaren bertsio laburtu eta zuzendu bat burutu zuen (Darrigol 1828) eta 1829ko Volney Sariketara aurkeztu, irabazle suertatu zelarik.¹¹² Urte hartako lehiaketaren gaia hauxe izan zen: “*l'analyse raisonnée du système grammatical de la langue basque*” (de Sacy 1828: 11). Sariketaren deialdiak, 1828ko apirilaren 4koak, beste zenbait datu interesgarri eskaintzen dizkigu (*ibid.*):

- a. Saria 1.200 liberakoa izan zen.
- b. Institut-eko kideak (“membres résidents”) ezin ziren sariketara aurkeztu.

behar zuela.

¹¹² Volney Sariari buruzko xehetasun gehiagotarako, ik. Gómez (2003), Leopold (1999) eta bertan aipatzen den bibliografia. Bestalde, Urkizuk dioskunez (2002: 30), badirudi Michel d'Abbadieren ahaleginak Darrigoli aurkez zedin proposatzera baino haratago joan zirela: Darrigolek saria lor zezan esku hartzen saiatu bide zen eta Darrigoli berari zenbait aholku eman zizkion bere lanaren gainean.

- c. Txostenak frantsesez edo latinez idatzi ahal ziren.
- d. Txostenak jasotzeko epea 1829ko urtarrilaren 1 arte luzatzen zen eta Institutuko idazkariari bidali behar zitzaizkion, bidalketa-gastuak ordainduta (“francs de port”) jakina.
- e. Txostena identifikatzeko epigrafe edo ezaugarri moduko esaldi bat jarri behar zen. Aldiz, egilearen izena, epigrafearekin batera, gutunazal lakratu baten barruan txostenari erantsi behar zitzaion.
- f. Txostenak ez zitzaizkien egileei itzuliko, baina hauek alde zurretik behar zituzten kopiak har zitzaketen.

Guztira bost txosten aurkeztu ziren eta, hasieran esan bezala, euren artean Darrigolena suertatu zen irabazle. Haatik, harrigarria dirudi Volney Sariketara aurkeztu ziren gainerako lanek berriki arte Frantziako Institutuko artxiboan gordeta eta inoren interesik piztu gabe iraun izanak.¹¹³ Darrigolen garaikideek, jakina, Parisko saria aipatu ohi zuten, baita XIX. mende osoan eta XX. mende hasieran zehar ere.¹¹⁴ Adibidez, Vinsonek (1891-98: 281-282) beste lau lehiakide izan zituela esaten digu;¹¹⁵ areago, bibliografiako 1.038 zenbakiaren pean Volney Sariaren historia baten berri ere ematen du, Brière-rena hain zuzen ere (Brière [ca. 1832]).¹¹⁶ Baina

¹¹³ 1995eko urriaren 27an Frantziako Institutuko artxiboan kausitu nituen, Volney Sariketari zegokion 4H10 karpeta baten barruan, espero zitekeen bezala.

¹¹⁴ XX. mende bukaerako aipameneren hotsak askoz apalagoak dira; baina ik., esaterako, Urkizu (1991b: 56).

¹¹⁵ Bide batez, Vinsonen bibliografiak ere Institut-en sari bat jaso zuen 1894an (Urquijo 1907: 11).

¹¹⁶ Vinsonek ematen dion datak —1829, galdera ikurrak lagundurik— agian liburua ez zuela zuzenean ezagutu edo gainbegiratu bat baino ez ziola egin pentsarazten digu; izan ere, Brière-ren

auzi honi buruzko lanik osoena ziurrenik Louis Dassanceren artikulua da (Dassance 1922), bertan biltzen baitira XIX. mendeko lanetan zehar sakabanaturiko oharrak, baina baita errepikatzen orduko argibideen itzalguneak ere.

Esate baterako, txostenak izengabe aurkeztu zirenez, luze iraun du euren egiletasunari buruzko zalantzak, bereziki ohorezko aipamena lortu zuten 3. eta 5. txostenei dagokienez; beheraxeago azalduko dut kasu bakoitza, baina aurrera dezadan orain Darrigolen balizko lehiakideen artean Humboldt, Lécuse, Ader¹¹⁷ eta Monlezún¹¹⁸ bezalako autoreak aipatu direla.

Hauexek dira 1829ko Volney Sariketan Darrigolen lehiakide izan ziren lau txostenak, Batzordeak eman zizkien zenbakien arabera aurkeztuak (Archives de l'Institut 40H10):

2. Segure, Abbé, “Dissertation sur la langue basque, envoyée au concours propose par l'Académie française, et adressée à Monsieur le Secrétaire de l'Académie française par l'individu dont le nom se trouve dans la partie cachetée de papier”.
3. Izengabea, “Analyse raisonnée du système grammatical de la langue basque...”.

liburuak 1832 arteko sariketen berri damaigu. Bidenabar, aski nabari da Brière-ren liburuari darion amorru tonua. Brière 1827 eta 1831ko sariketetara aurkeztu zen; irabazi ez zuelarik, eta epaimahaiak egotzitako kritikek minduta, liburua idaztera deliberatu bide zuen, Volney Sariketako epaimahaiak sortzailearen gogoia betetzen ez zutela —eta betetzeko asmorik ere ez zutela— frogatzeko asmoz: “Je suis forcé à dire et de prouver à la Commission qu'elle n'a jamais compris la pensée de Volney, et qu'elle ne s'est jamais mise en devoir de la réaliser” (Brière [ca. 1832]: iv).

¹¹⁷ Jean Joseph Ader baionesa (1796-1859) *Résumé de l'histoire du Béarn, de la Gascogne supérieure et des Basques* (Paris, 1826) liburuaren egilea izan zen (Bilbao 1970 eta hh.: s.u.).

¹¹⁸ Jean Justin Monlezún (1800-1859) *Histoire de la Gascogne* baten egilea izan zen (Auch, 1846-1850, 6 lib.); ik. Bilbao (1970 eta hh.: s.u.). 1847tik Auch-eko kalonjea izan zen.

4. Lagarde, “Analyse du Systême grammatical de la langue Basque...”.
5. Görres, Ernest Maurice Guido, “Structura grammatica Linguae Hispanorum veterum indigenae id est: Vasconicae philosophice esplicata nec non comparata variis tum Orientis tum Occidentis linguis”.

3.2.1 Darrigol

Falta den lehen zenbakia, jakina, Darrigolen txostenari zegokion, baina eskuizkribua ez dago gaur egun Institut-eko paperen artean. Ezagutu ahal dugu, halere, Darrigolen txostena, Antoine d’Abbadiek 1833an egin zuen kopia bati esker, egun Frantziako Biblioteka Nazionalean gordetzen dena (Darrigol 1828). Pentsatzekoa da Abbadiek Institut-en kopiatu zuela eskuizkribua, Brière-k esaten baitigu berak bertan kontsultatu zuela.¹¹⁹ Hurrengo lerroetan, gainerako lau gramatikei buruzko zenbait xehetasun azalduko ditut.

3.2.2 Segure

Abbé Segureren gramatika, 1828ko abenduaren 30ean jaso zuten Institut-en, Paristik bertatik bidalia. Bi koadernotan biltzen da: lehen koadernoak zenbatutako 57 orri ditu eta bigarrenak, zenbatutako 91 orrialde.

¹¹⁹ Cf. “j’ai dû recourir, en conséquence, au manuscrit que se trouve dans les cartons de l’Institut” (Brière [ca. 1832]: 91); oroit bedi Brière-ren lana 1832 ondorengoa dela. Halarik ere, Brière-k “Darrigot” idazten du beti, Institut-en 1829ko epai-agirian agertzen zen moduan. Louis Dassanceri (1922: 560) esker badakigu originala XX. mende hasierarako behintzat galdua zela. Bestalde, berak bigarren kopia bat zuela diosku, Pierre Dassance apaizarena izan zena. Nolanahi ere den, ez dirudi Institut-eko paperak zuzenean begiratu zituenik, gainerako txostenen egileen izenez ez baita ziur agertzen.

Leopoldek (1999: 249) “Ségur” dakar eta beharbada Jean Ségur, Gregorio Arruek (1883) euskaratu zuen *Sur la communion fréquente* lanaren egilea, izan zitekeela dio.

3.2.3 Izengabea

Izengabeko hirugarren txostenaren epigrafeak honako hau dio: “*Cantabrum indoctum juga ferre nostra*”; hau da, Horazioren *Oda ad Septimium* II, 6-2. Hau ere abenduaren 30ean jaso zuten eta Urkhuray-n,¹²⁰ abenduaren 11ko data dauka. Zenbatutako 153 orrialde ditu. Funtsean Larramendiren gramatikan oinarritzen da, eta Harrieten gramatikatik hartzen du “birdeklinabideari” buruzkoa (*Aitarenarenarenganicacoaren-arena*; Harriet 1741: 449).

Txosten honek Batzordearen ohorezko aipamen bat lortu zuen. Epaimahaiak deskribapen gramatikaren egokitasuna goraiatzan badu ere, hasierako atalek dakartzaten etimologia ausartetan ez da fidatzen, onartezinak direla deritzo:

On remarque dans le N° 3 un grand nombre d’observations et de détails grammaticaux propres à faire juger les procédés en usage dans l’idiôme basque. On peut considérer cette partie du travail de l’auteur comme offrant les matériaux d’une bonne grammaire. Il en faudrait élaguer une foule de rapprochements étymologiques, tous plus ou moins hasardés, qui remplissent les premiers chapitres, et auxquels la Commission ne saurait accorder son approbation. (Izengabea 1829: 2)

Txostenaren bukaeran bibliografia labur bat dator eta bertan, inprimatutako bertsozko lanen artean, ondoko hauek aipatzen ditu, besteak beste:

- a. Etxeberri Sarakoaren *Méditations* (Salamanca 1708).

- b. Egile berberaren *Les Noëls* (1706).
- c. Aranbururen himnoak.
- d. Larramendiren “poésies nationales” (Burgos 1729), euren artean “l’Epitre au roi Philippe V” agertzen delarik.

Dubaratek (1913) argitaratutako gutun bati esker dakigu hirugarren txosten honen egilea Eugène Garay de Monglave (1796-1873) faltsifikatzaile ospetsua izan zela, *Altabizkarreko kantua* apokrifoaren egilea, hain zuzen.¹²¹ Datu honek lagundu ahal digu, menturaz, aurreko bibliografia-oharren balioa tentuz neurtzen. Bada, Garay de Monglavek bere buruaz ere badio berrehun liburu baino gehiago idatzi dituela, gehienak historiari buruzkoak, nahiz eta ezagutzen zaion lan bakarra aipaturiko kantu apokrifoa izan (ik. Goyhenetche 1993: 284), euskaldunei buruzko ohar laburren bat kenduz gero (Garay de Monglave 1833). Eta ohar honexek ematen digu, hain zuzen, Garay de Monglaveren egiletasunaren gakoa. Bertan errepikatzen baitira, eta hurrenkera berean, beste inon aurkitzen ez diren bibliografia-oharrok:

Entre las obras en verso impresas, se citan: 1º, las Meditaciones religiosas del doctor Juan de Echeverri, Salamanca, 1708; [les *Nöels* — R.G.] del mismo autor, 1706; los himnos del hermano Juan de Aramburu, Bilbao, 1730; los poemas nacionales del padre Larramendi, Burgos, 1729. (Garay de Monglave 1833 [1932: 293-294])

¹²⁰ Kanbo eta Hazparne arteko Urkhoi auzoa da segurki (B. Oyharçabalen a.e.).

¹²¹ Garay de Monglaveren bizitzaz, ik. Etchecoin (1935). *Altabizkarreko kantuaren* inguruko gorabeherez, ik., besteak beste, Garay de Monglave (1835), Francisque-Michel (1857: 235), Bladé (1863, 1869), Vinson (1878b) eta, batez ere, Webster (1883).

Pasarte honek, beraz, balio bikoitza du: batetik, testu-paralelotasunak Garay de Monglaveren egiletasuna bermatzen du; bestetik, bibliografia-aipamen hauek faltsuak dira. Nolanahi ere den, ohar hauen iturria ezaguna da, gramatika osoaren iturri berbera alegia: Larramendiren *El imposible vencido*. Larramendik “Apendiz de la Poesía Bascongada”-n, gramatikako azken kapituluan,¹²² han-hemenka aipatzen dituen poesia-lanak jaso zituen Garay de Monglavek eta datu bibliografikoak bere kasa osatu, falta ziren tokian urtea eta lekua ipiniz eta Larramendiren beraren kasuan haren poesietarako izenburu biltzailea asmatuz. Halaber, Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioezcoa Meditazio* bilakatu zuen eta, *Noe*lekin batera, Etxeberri Sarakoarena zela esan zuen.¹²³

3.2.4 Lagarde

Lagardek Mauletik igorri zuen bere txostena, 45 orrialdeko koaderno bat hain zuzen ere, eta abenduaren 31n jaso zuten Institut-en. Ezin izan dut autore honi buruzko xehetasun ziurrik aurkitu, baina baliteke Jon Bilbaoren Bibliografian aipatzen diren bi lanetariko baten —edo bien— egile bera izatea (Lagarde 1835; Lagarde 1859). Edo, agian, Mauleko diputatu eta alkate izan zen Lagarde abokatua (ik. Hourmat 1995). Aitzitik, Leopoldek (1999: 249) “La Garde” dakar eta Biarnoko De La Garde familia nobleko kide bat izan zitekeela uste du.

¹²² Blanca Urgelli zor diot Larramendiren gramatikako azken kapituluarekiko lotura zuzenez ohartaraztea.

¹²³ Bide batez esanda, azken errakuntza honetan ez da euskalaritzaren historian bakarra suertatzen; oroit bedi Humboldték ere Etxeberri biak nahastu zituela behin bederen; ik. Gómez (1996: 610) eta

3.2.5 Görres

Abenduaren 31n bertan jaso zen Ernst Moritz Guido Görres-ek Munich-etik bidali zuen txostena, latinez idatzita dagoen bakarria alegia. Gramatika hau oso letra txukunez idatzita dago; orrialdeen kanpoaldeko ertzak nahiko handiak ditu, batzuetan glosak sartzen dituelarik; koadernoak azal gogor urdinak ditu eta orrialdeak (180 inguru) zenbatu gabe daude.

Görres-en txostenaren antolamendua aski bitxia da, garai hartako gramatiken ohiko egiturarekin alderatzen badugu behinik behin. Azkenurreko orrialdean ondoko aurkibide hau dakar:

Proemium.

Cap. I. De indole phoneticā linguae Vasconicae.

Cap. II. De radicibus verborum, primum in universum, deinde Vasconicis.

Cap. III. De derivatione et compositione.

Cap. IV. De Verbo et ejus conjugatione.

Cap. V. De declinatione et postpositionibus.

Cap. VI. De constructiones.

Batzordeak txosten honentzako ohorezko aipamena gomendatu zuen. Merezimendu gisa honako hau azaltzen du:

Le n° 5, écrit en latin, contient beaucoup de recherches profondes et des considérations d'un ordre élevé sur la philosophie grammaticale. Le point de vue d'où l'auteur a considéré son sujet l'a conduit à des comparaisons qui attestent un esprit exercé aux méditations et aux recherches sur la métaphysique des langues. (Izengabea 1829: 2-3)

Guido Görres-en bizitzari buruzko zerbaitxo ere badakigu. Alemaniarra, 1805eko maiatzaren 28an Koblentzan sortu zen eta 1852ko uztailaren 14an Munichen hil. Lehenengo ikasketak jaioterrian burutu ondoren, Aaraun eta Estrasburgon jarraitu zuen bere heziketa klasikoa. 1824az geroztik Bonngo Unibertsitatean historia eta filologiako ikasketak burutu zituen eta Munichen hizkuntz ikasketak egin zituen. Aita Munichen Historiako irakaslea izaki, Guidoren urratsak arlo bererantz bideratu ziren. Bere lanik ezagunena Joana Arc-ekoaren biografia da (*Die Jungfrau von Orleans*; Ratisbona, 1834). 1838an, Georg Philipsekin batera, *Historisch-Politischen Blätter* aldizkari katolikoa sortu zuen, egun bizirik dirauena. Bestalde, kantu izpiritualetarako hitzak idatzi zituen (esaterako, *Marienlieder* bilduma; Munich, 1843). Askoz ezagunagoa da, ordea, Guidoren aita, Johann Joseph Görres (Koblentza 1776 - Munich 1848), Alemaniako erromantizismo katolikoaren ordezkari nagusietakoa izan baitzen. Bere jarduera politikoa eta katolizismoaren propagandista lana alde batera utzita, aipa daiteke Historia Naturaleko eta Fisikako irakaslea izan zela Koblentzako eskola batean (1804) eta Heidelberg-en (1806-1807); bertan ezagutu zituen mugimendu erromantikoen autore nagusiak. Erromantizismoan arrunta den Ekialdearekiko lilurak jota, persiera aztertu zuen (*Mythengeschichte der asiatischen Welt*, 1810) eta, Eliza Katolikoaren defentsaren ordainez, Historiako katedra lortu zuen Municheko Unibertsitatean (1826).

Baina bosgarren txosten honen egiletasuna izan da, dudarik gabe, gehien aipatu dena eta, aldi berean, ilunen gorde dena. Izan ere, Michel d'Abbadiek, Batzordearen erabakia jakin baino lehen, Darrigoli bidali zion gutun batean honakoa adierazten dio: beste lau lehiakideen artean Humboldt, Lécuse eta Ader izan zitezkeela. Areago dena, L. Dassancek berak ziurtzat ematen du Humboldten egiletasuna: "L'auteur du

Mémoire n° 5 était, comme le faisait prévoir M. d’Abbadie, le célèbre philologue prussien Guillaume de Humboldt” (Dassance 1922: 563). Humboldten aipamena sarri agertzen zaigu, latinez idatzitako txosten bakar honen egiletzat ematen delarik. Susmo dut ideia horren sorburua Michel d’Abbadieren aipatu gutuna bera izan zela, hain zuzen, baina kontua da, zuzenean nahiz zeharka —Pierre Dassancek idatzitako Darrigolen biografiaren bitartez (Dassance 1842)—, gure egunetara iritsi dela (ik., besteak beste, L. Dassance 1922: 561, 563; Urkizu 2002: 31).¹²⁴

3.2.6 Epaiaz

1829ko apirilaren 24an Frantziako Institutuaren jendaurreko bilera izan zen, urte hartako Volney Sariketaren epaia eta hurrengo urteko gaia ezagutarazteko. Saria eman behar zuen Batzordea, bere aldetik, egun batzuk lehenago bildu zen, apirilaren 15ean. Bilera hartan agertu ziren epaimahaikideak honako hauek dira: Destutt de Tracy, Sylvestre de Sacy, Pierre-Antoine Bruno Daru, Andrieux (Frantziako Akademiako idazkaria), Etienne Marc Quatremère eta Abel Rémusat.¹²⁵ Volney Sariaren aurreneko urteetan Batzordea osatzen zutenak gehienbat orientalistak izan ziren, baita ideologoen taldekoak ere.

¹²⁴ Areago dena, Urkizuk Pierre Dassancek emandako balizko autoreen zerrenda oker bertsua errepikatzen du: “Akademiak deitutako Volney sarira bost lan aurkeztu ziren, egileak, besteak beste, Humboldt, Lécuse, Ader eta Garay de Monglave izan zirelarik” (Urkizu 2002: 31). Badirudi Abbadieren bizitza aztertzeke Frantziako Institutura jo bazuen ere, ez zituela bidenabar bertan dauden Volney Sariaren karpetak miatu.

¹²⁵ Berauei buruzko zertzeladak biltzen dira Gómez (2003) lanean eta bertan aipatzen den bibliografian. Ik. orobat Leopold (1999: 202-237).

Ikus ditzagun Batzordeak epaia justifikatzeko erabili zituen arrazoiak. Esan dudan bezala, 1829ko Volney Sariaren irabazlea Darrigol izan zen. Garay de Monglaveren eta Görres-en txostenek, bestalde, Batzordearen ohorezko aipamen bana lortu zuten. Darrigolen txostenaren merezimenduen artean, Batzordeak euskal aditz-jokoaren azalpena du bereziki gustuko:

La Commission a trouvé, dans le Mémoire N° I, une méthode judicieuse, des vues saines, une connaissance approfondie du sujet. L'auteur paraît posséder la langue dont il expose le système grammatical: il en parle avec précision et lucidité. On a particulièrement lieu d'être satisfait de la manière dont il explique la conjugaison des verbes basques; et ce point était tout-à-la-fois un des plus importants et des plus difficiles de ceux qu'il avait à traiter. La Commission a adjugé le prix à ce Mémoire. L'auteur est M. DARRIGOT [*sic*], prêtre, supérieur du grand séminaire de Bayonne, département des Basses-Pyrénées. (Izengabea 1829: 2)

Ez da batere arraroa, aditzaren azterketa izanik gramatika orokorraren zutabeetariko bat. Joera desberdinak gorabehera, gramatika orokorrean Port-Royaleko lanetatik aurrera jarraitzen den analisi bat aditz bakarraren teoria da; ik., adibidez, Auroux (1984), Donzé (1967), Joly (1972), Swiggers (1981b), Wheeler (1995) eta laburpen xume bat hemengo §7.1 azpiatalean. Baina ziur aski pentsa daiteke batzordekideek teoria horren erakusgarri enpirikoa ikusi ahal izan zutela Darrigolen proposamenetan, euskarazko datuek eskaintzen zieten eskema garbi, erregular eta “filosofikoan”; ik. §§3.4 eta, batik bat, 7.5 (1829ko epaiari buruzko beste ikuspegi baterako, ik. Leopold 1999: 69).

3.3 *Dissertationen egitura eta ezaugarri orokorrak*

Hurrengo lerroetan Darrigolek euskal gramatikaren azterketari egindako ekarri nagusiak laburtuko ditut. Aldi berean, ekarpenok euskal gramatikagintzaren historian

kokatzen ahaleginduko naiz. Horretarako, dena dela, 1827ko *Dissertation* bakarrik izango dut aztergai, 1828ko txostena (Abbadieren kopiari esker ezagutzen duguna) hurrengo baterako utziz.¹²⁶ Lanaren egitura eta ezaugarri orokor batzuk aurkezten hasiko naiz.

3.3.1 Egitura

Darrigolen gramatika, segurki solasaldi moduan (*dissertation*) aurkezten delako, ez dago atal edo kapitulutan banaturik. Hala eta guztiz ere, irakurketa arretatsu batek aise bereiz ditzake zenbait zati, hurrengo eskema honetan erakusten den legez:

- ♦ Hitzaurrea: gramatika – numeroa: 43-58.
unibertsala eta gramatika – deklinabidea: 58-86.
orokorra; lanaren laburpena.
- ♦ Fonologia:
 - letrak eta ahoskera: 1-16.
- ♦ Morfologia:
 - erroak: 16-18.
 - erator morfemak: 18-21.
 - perpaus-atalak: 22.
- ♦ Izen morfologia:
 - zenbait etimologia: 22-39.
 - generoa: 39-43.
- ♦ Adberbioak: 86-88.
- ♦ Juntagailuak: 88-89.
- ♦ Aditz morfologia: 89-142.
 - aditz bakarraren teoria: 89-93.
 - adizki jokatu gabeen egitura: 93-107.
 - egiazko bi aditz: 107-111.
 - moduak: 111-114.
 - denbora-sistema: 115-118.

¹²⁶ Funtsean, oso antzeko edukia duten arren, badira diferentzia batzuk eta interesgarria litzateke, edonola ere, Darrigolek liburutik txostenera burutu zuen laburpen zuzenduan zer kendu eta zer aldatu zuen xeheki miatzea. Horretarako, aurki bi testuen edizio konparatu bat prestatzeko asmoa dut, Volney Sariketara aurkeztu ziren gainerako gramatikekin batera.

- aditz perifrastikoen
paradigmak: 118-137.
- adizki trinkoak: 137-142.
- ♦ Sintaxia: 142-158:
 - komunztadura: 143-145.
- gobernua: 145-150.
- hitz ordena: 150-158.
- ♦ Euskararen antzinako ezaugarriak: 158-162.
- ♦ Hitzatzea: 162-163.

3.3.2 Ezaugarri orokorrak

Darrigolen gramatikak zenbait ezaugarri orokor ditu; aipagarrienak, nire ustez, hiru puntutan bil daitezke. Lehenengo eta behin, Darrigolen lanaren azpian den helburua ikuspegi logiko eta filosofiko batetik euskararen perfektzioa eta antzinasuna frogatzea da. Jakina, halako xede bat ez zen berria, XVII. mendez geroztik euskal apologista askok defendatu baitzuten, bereziki toponimoen etimologietan oinarritu zirelarik (ik., esaterako, Tovar 1980). Geroago, XVIII. mendean Larramendik eta XIX. mende hasieran Astarloak, besteak beste, izen arrunten hainbat etimologia ere erabili zituzten. Astarloak eta Darrigolek berak, bestalde, gramatika orokorrari jarraitu zioten. Eta, haren eraginez, bi autoreok euskara hizkuntza filosofikoena, logikoena eta naturalena dela aldarrikatu zuten.¹²⁷

Bigarrenik, Darrigolek hitzez hitzeko aipamen franko biltzen ditu bere gramatikan. Gehienetan erabiltzen dituen egileak du Marsais,¹²⁸ Beauzée¹²⁹ eta

¹²⁷ “Natural” terminoak Astarloaren idatzietan duen adierari buruz, ik. Gómez (1999, 2004) eta hemengo §1.5.2.

¹²⁸ César Chesneu du Marsais, edo Dumarsais, (1676-1756) tutore eta irakasle gisa aritu zen Parisen, inoiz egoera ekonomiko lasaia erdietsi ez bazuen ere. *Nouvelle Méthode pour apprendre la langue latine* (1722) eta, batik bat, *Traité des tropes* (1730) kaleratu ondoren, d’Alembertek *Entziklopedian*

Court de Gébelin¹³⁰ dira. Hala ere, Darrigolen iturri nagusietariko bat Girard¹³¹ izan zen. Ez dirudi lekuz kanpokoia ohartarazten badut euskal gramatika-tradizio zaharrean honako hitzez hitzeko aipamenak oso gutxitan aurki ditzakegula.

Azkenik, Darrigolen liburuan morfologiari ematen zaion leku nabaria azpimarratu nahi nuke. 162 orrialdeetatik 127 eskaintzen zaizkio morfologiari. Ene irudiko, bi arrazoi desberdin proposa daitezke gramatikaren atal honi emandako maila gorena ulertzeko. Batetik, “tradiziozko” gramatikak deitu izan direnek¹³² perpaus-atalen sailkapena eta banaketa izan dute xede nagusia. Bestetik, egia esan, euskal

parte har zezan eskatu zion eta, hala, gramatikari buruzko artikulua guztiak idatzi zituen, hil arte. Bestalde, logikaz eta politikaz ere arduratu zen, ideia arrazionalistak eta erlijioaren kontrakoak aldarrikatu zituelarik.

¹²⁹ Nicolas Beauzée (1717-1789) gramatikari eta itzultzailea izan zen. 1756tik aurrera, du Marsais hildakoan, *Entziklopedian* hizkuntzaren inguruko artikulua idaztea hartu zuen bere gain. Hala ere, bere lan nagusia *Grammaire générale* (1767) izan zen, garai hartan arrakasta handia lortu zuena (ik. Bartlett 1975). *École Royale militaire* sortu berrian irakasle izan zen.

¹³⁰ Antoine Court de Gébelin (1725-1784) artzain protestantea izan zen, baina laster bertan behera utzi zuen bizibide hori idazteari ekiteko. *Monde primitif* lan mardularen lehen liburukia 1773an argitaratu zuen eta bederatzigarrena, 1782an, bukatu gabe geratu zelarik. Bertan gizakien jatorrizko zibilizazioa berreraikitzen ahalegindu zen, bereziki hizkuntza eta mitologia aztertuz, baina aldi berean kutsu esoterikoa erabiliz; esaterako, Tarotari buruzko lehen azterketa burutu zuen. 1771tik framazona izaki, artean Amerikako Estatu Batuen enbaxadorea zen Benjamin Franklin ezagutu zuen eta herri haren independentziaren alde jardun zuen.

¹³¹ Gabriel Girard (1677-1748) abadea poliglota, filologo eta gramatikari ospetsua izan zen. Gainera, Frantziako erregearentzat hizkuntza eslaviarren interpretari gisa lan egin zuen. *La Justesse de la langue françoise* (1718) eta *Les vrais principes de la langue françoise* (1747) izan ziren bere lanik ezagunenak. Lehenengoan sinonimiaren teoria bat sortu zuen eta bigarrenari esker hizkuntz tipologiaren aitzindaritzat hartu da.

¹³² Deitura honen inguruko zalantzez eta gorabeherez, ik., besteak beste, Sarmiento (1996) eta Lliteras (1998).

gramatikaren osagai bereziena eta deigarriena morfologia da, aditz morfologia batik bat.

3.4 Darrigolen gramatikaren zenbait gai

Hurrengo lerroetan, Darrigolek darabiltzan zenbait puntu interesgarriri buruz jardungo dut laburki eta aurreko zein ondoko euskal gramatikarien proposamenekin lotuko ditut, ahal den neurrian behintzat.

3.4.1 Erroak eta kategoriak

Beheko pasartean ikus daitekeenez, Darrigolek azpimarratzen du euskararen jatorrizko erroak, gramatikaz den bezainbatean, zehaztugabeak direla eta euskarak gramatika-kategoriak atzizkien bitartez bereizten dituela, hizkuntza filosofiko eta logiko bati dagokion legez:

Le mot primitif est à tous les mots qui en dérivent ce que le genre est à ses espèces; il entre donc dans l'idée de ce mot de présenter un sens qui conserve l'indétermination propre du genre: de là tout mot primitif doit être un mot infinitif dans toute la force du terme, c'est-à-dire un mot d'un sens étendu et indéfini quant à l'espèce. [...] La marche de notre langue en ce point dénote plus de philosophie [hebreerarenak baino — R.G.]. En effet, comment procède la rigoureuse logique pour donner une définition, pour transmettre les notions les plus exactes possibles sur l'espèce qu'elle se propose de faire connaître? D'abord elle signale le genre, c'est-à-dire qu'elle commence par appeler l'attention sur une classe étendue, contenant l'espèce dont il s'agit. Elle propose ensuite la différence qui fixe l'esprit à l'espèce subalterne qu'elle avait pour but de faire connaître. Or voilà justement la marche constante de notre langue: elle pose d'abord le mot primitif, qui est un genre; et l'accompagne immédiatement d'une désinence ou d'une inflexion, qui est une véritable différence logique, et qui détermine l'espèce grammaticale du mot, en particularisant sa signification. (Darrigol 1827: 18-19)

Zenbait urte lehenago, Humboldték euskal erro zaharren gramatika-kategoriarik eza aipatu zuen eta orobatsu egingo zuen Mitxelenak hurrengo mendean (ik. Gómez 1996 eta hemengo §2.4.2).

3.4.2 Mugagabea

Darrigolen iritziz, mugagabea (*indéfini*) numerorik ezari edo numeroaren abstrakzioari legokioke (1827: 44). Izan ere, Darrigolek uste du artikulua numero-markak direla¹³³ eta, beraz, mugagabeari dagokiona artikulurik ez agertzea da:

L'article étant ce qui détermine le nombre, son indétermination résulte évidemment de l'absence de ce même article, de l'absence des sons *a*, *e*, qui, en effet, n'entrent jamais dans la place de l'indéfini consacrée à l'article, immédiatement après les radicales *handi* et autres de même nature. (Darrigol 1827: 71-72)

Ohar bedi Darrigolen ustez singularraren ezaugarria *a* dela eta pluralarena *e*, deklinabidearen paradigmek halaxe erakusten baitiote: “Comme le singulier est

¹³³ Beste pasarte batean argiago azaltzen du, Court de Gébelinen hitzak ere ekarriz, artikulua determinatzailetzat hartzen duen ikuspegia: “Comme les noms communs ne désignent les êtres, selon la doctrine des grammairiens, que par l'idée générale d'une nature commune à plusieurs, toutes les fois que nous avons occasion d'employer ces noms d'espèces, nous sommes obligés, sous peine de n'être point entendus, de les accompagner de quelque mot qui les tire de leur généralité, et les détermine à être l'indice de l'objet précis que nous voulons peindre; *en sorte qu'on les reconnaisse à l'instant aussi sûrement que si nous les montrions de la main. Tel est l'usage de l'article; il détermine, comme par le geste, entre plusieurs objets auxquels convient le même nom, celui que nous avons en vue* (1). [(1) Gébelin, Gramm. univ. liv. 2., part. 2., chap. 2.]” (Darrigol 1827: 77-78).

caractérisé par un *a*, le pluriel l'est par un *e* pris dans le nominatif actif, lequel par cela même doit être envisagé comme formatif de tous les cas pluriels” (1827: 71).¹³⁴

Beste alde batetik, Darrigolek absolutibo mugagabea (adib. *zenbait asto*) eta erro soila (adib. *asto handia*) nahasten ditu. Baina egiazki lehenbizikoan *asto* izenari *-ø* morfemak jarraitzen dio; bigarreanean, aldiz, izenak ez du inolako flexio-markarik, absolutiboaren eta numeroaren markak, ohi bezala, izen sintagmaren amaieran agertzen baitira (ik. *supra* 96. oh.). Darrigol (1827: 44, 70) harritzen da aurreko gramatikariak ez zirelako mugagabeaz ohartu, edo ohartu baziren ez zutelako aintzat hartu. Baina, aitzitik, paradigma mugagabearen berri eman zuen lehen euskalaria Oihenart (1638/1656) izan zen, aurreko paragrafoan aipatutako bi formak nahastu zituen arren (ik. Oyharçabal 1993: 272 eta hemengo §6.3.1). Bestalde, XIX. mende hasieran Astarloak (1803, 1883) eta Humboldtak (1817; cf. §2.4.3) mugagabea bereizi zuten eta, era berean, aurreko bi formen arteko diferentziaz ere ohartu ziren, azkenekoz.¹³⁵

¹³⁴ Cf. esaterako, ondoko pasarte hau: “Le pluriel se forme du nom indéfini, en y ajoutant la terminaison *ac*, s’il s’agit d’en faire un simple nominatif pluriel; et la terminaison *ec*, pour un nom pluriel qui soit le sujet du verbe actif” (Darrigol 1827: 55). Cf. orobat Darrigol (1827: 144).

¹³⁵ Bien bitartean geratuko litzateke Larramendi. Gramatikari hau ez zen mugagabeaz ohartu, latin ereduak eskaintzen zizkion singularra eta plurala bakarrik aintzat hartu baitzituen; alabaina, bidenabar bederen, euskal IS konplexuen flexioa aski ongi azaldu zuen, artikuluari buruz zuen ikuspegiari esker; ik. Gómez (2001a) eta hemengo §6.3.2.

3.4.3 Kasuak eta preposizioak

Darrigol ederki konturatu zen hizkuntza baten sisteman kasuek eta preposizioek zeregin berbera betetzen dutela, Beauzéréngandik (1767) jaso zuen ideia alegia; izan ere, hala kasuek nola preposizioek balio baitute izakien arteko erlazioak adierazteko. Darrigolek hizkuntzek izakien arteko erlazioak adierazteko erabiltzen dituzten bide desberdinak aztertzen ditu. Bere ondorioen arabera, euskara erlazio guzti-guztiak adierazteko kasuez baliatzen den hizkuntza da, Estarac-en hitzak aldatuz adierazten duen bezala:¹³⁶

“...la langue basque est absolument sans prépositions, et exprime par des terminaisons différentes, qui sont de vrais cas, tous les rapports qu’on désigne ailleurs par des prépositions (i).” [(i) Estarac, *Gramm. gén.*, tom. 1., pag. 442 et suiv.]. (Darrigol 1827: 58)

Aurreko euskal gramatikari gehienak —Oihenart (1638/1656), Mikoleta (1653), Urte (1712), Larramendi (1729)— latinaren ereduari atxiki zitzaizkion, mende haietako Europako gramatikagintza tradizioan ohi bezala. Hau dela-eta, nola edo hala, latinaren sei kasuko paradigma agertzen zaigu behin eta berriz lehen euskal gramatiketan. Hala, euskararen zenbait atzizki kasu-sistema batean antolatu zituzten, eskuarki latin deklinabidearekin bat zetozenak, eta gainerako atzizkiak preposiziotzat edo postposiziotzat hartu zituzten, edota adberbioekin lotu.

¹³⁶ Auguste François Estarac-ek *Grammaire générale* argitaratu zuen bi liburukitan (Paris: Nicolle, 1811).

Baina XIX. mendean, batetik gramatika orokorraren eraginez (Humboldt) eta, aldi berean, helburu apologetiko batek gidaturik (Astarloa), latinarekiko morrontza salatu zen eta bestelako bideak bilatu ziren. Irtenbide bat kasuak —edo Astarloarentzat “artikuluak”; ik. §6.3.3— eta postposizioak hertsiki bereiztea izan zen,¹³⁷ Astarloak (1803, 1883), Humboldt (1817), Lécuse-k (1826) eta geroago van Eysek (1867) hartu zuten bidea.¹³⁸ Baina beste bide bat kasuen zerrenda luzatzea izan zen, atzizki bakoitzari nolabait kasu berezi bat egokituz, hau da, irizpide morfologiko bati jarraituz.¹³⁹ Horixe izan zen Darrigolen ikuspegia.¹⁴⁰

¹³⁷ Oihenartek ere kasuak eta postposizioak nolabait bereizi zituen, azken hauek adberbio eta juntagailuekin batera “deklinaezinen” barruan sailkatuz (Oihenart 1656: 71-72); alabaina, latin ereduari atxikirik aritu zenez, zerrendatik kanpo utzi dut. Nolanahi ere den, Oyharçabalek (1993: 276-278) ongi ohartarazten duenez, Oihenartek postposizioak (*ra, tic, co, tara, taric, taco*) deklinabide paradigmatan ez sartzeko arrazoï nagusia ez bide da, besterik gabe, latinaren sei kasuko eskemari eustea. Aitzitik, postposiziotzat hartzen dituenak halakotzat dauzka beraietan ez duelako aurkitzen deklinabide-kasuek duten artikuludun/artikulugabe bereizketarik. Hau da, Oihenart gogor atxikitzen zaio bere irizpide morfologikoari: bi deklinabide paradigma bereizi ditu, artikuluduna eta artikulugabea; postposiziotzat hartu dituen atzizkietan halakorik ez dagoenez, ez dira kasuak.

¹³⁸ Astarloaz, ik. Alberdi (1989a) eta Gómez (2002c); Humboldt, ik. Alberdi (1989a), Gómez (1996) eta hemengo §2.4.4; van Eysi buruz, ik. Sarasola (1989), Gómez (2002b) eta hemengo §5.4.3.

¹³⁹ Bide beretik joko zuten Chahok (1836a), Bonapartek (1869) eta geroko euskalari gehienek. Badago, halere, jarrera honen aitzindari bat: Harriet (1741). Inolako hausnarketa teorikorik gabe, Harrietek hamaika kasu bereizi zituen, baina ez zien izenik eman. Hala ere, liburuaren bukaera aldera (1741: 505-506), Harrietek bere jokabidea justifikatzen du, euskara latinarekin eta frantsesarekin parekatuz gero bere berezitasunak aurkezten dituelako.

¹⁴⁰ Aurreko lerroetan datzan sailkapena Antoine Abbadieri zor zaio (1836) eta Oyharçabalek jaso du (1998: 442). Abbadiek Darrigolen azterketa onartzen du, bereziki mugagabearen berri ematen duelako (Abbadie 1836: 37).

Deklinabideari buruzko ideiei dagokienez behinik behin, Darrigolen iturria Beauzée izan zen (Darrigol 1827: 66). Beauzéeek latinaren ereduaren mugak agerian utzi zituen, hizkuntza baten kasu-sistema gainerakoen sistemetan bortxaz islatzeko ohitura kritikatu. Horretarako, kasu-kopuru handia duten hizkuntza batzuen kasu-paradigmak aurkeztu zituen, hala nola euskara, kitxua eta laponiera. Darrigolek Beauzéeeren hitzak gogorarazten ditu eta euskarari aplikatzen dizkio, euskal deklinabidea azaltzeko ordu arte egindako latin sistemaren hedapenak arbuiatzen dituelarik (Darrigol 1827: 66-68).

Abiapuntu gisa, hamabost kasu —eta zalantzazko hiru— aurkezten ditu, oraingoz izenik gabe. Hiru paradigma aurkezten ditu: mugagabea, singularra eta plurala. Gorago adierazi dudanez, singularraren ezaugarria *-a-* dela esaten du, artikulua alegia;¹⁴¹ pluralarena *-e-*, eta mugagabearena, artikulurik eza. Horregatik, kasua bat bera da, numeroa edozein delarik ere. Beheko taulan paradigma mugagabea dugu, adibide gisa:

INDÉFINI.

1.	<i>Handi</i>	grand, grande.
2.	<i>Handic</i>	grand, grande.
3.	<i>Handiz</i>	de grand, de grande.

¹⁴¹ Lekuzko kasuek agertutako salbuespenak aintzat hartzen ditu, nahiz eta erabilerak eragindako galera bati egotzi: “excepte les quatre dernières terminaisons, où l’on trouve *handico* et non *handiaco*, *handitic* et non *handiatic*, &c.; l’usage ayant ainsi prévalu contre l’analogie, mais toujours sans danger de confusion, parce que l’indéfini prend en cet endroit le caractéristique *ta*, qui le distingue du singulier” (Darrigol 1827: 71). Bidenabar, urte batzuk geroago Belsunce (1858) “bere onera” itzuli nahi izan zituen salbuespenok, bere paradigmagan Darrigolek aipatutako *handiaco*, *handiatic*, etab. sartu zituelarik (ik. Mounole 2004).

4.	<i>Handitan</i>	dans, en.
5.	<i>Handiri</i>	à.
6.	<i>Handiren</i>	de.
7.	<i>Handirentçat</i>	pour.
8.	<i>Handiren-gatic</i>	malgré, pour.
9.	<i>Handiren-ganic</i>	du côté, de la part de.
10.	<i>Handiren-ganat</i>	vers.
11.	<i>Handirekin</i>	avec.
12.	<i>Handitaco</i>	pour.
13.	<i>Handitaric</i>	de.
14.	<i>Handitara.</i>	à.
15.	<i>Handitara-dino</i>	jusques à
	<i>Handica</i>	par.
	<i>Handiric</i>	de.
	<i>Handitçat</i>	pour.

Bosgarren taula: Darrigolen deklinabide paradigma mugabea (1827: 68-69)

Aipagarria da *-gan* atzizkiari legokiokeen kasua ez agertzea, ezta singularreko eta pluraleko paradigmetan ere; seguruenik, Darrigolen euskalkian *-gan* atzizkia ez zen (*baithan* edo *-tan* erabiltzen baitzuen; ik. 1827: 76-83), baina bai *-ganik* eta *-ganat*.¹⁴² Bestalde, arrazoi desberdinak direla kausa, Darrigolek goiko “kasu” batzuk zerrendatik kentzea erabakitzen du:

- a. *-ka*, *-rik* eta *-tzat*: hasiera-hasieratik zalantzak ditu ea paradigmaman sartu behar ote diren, eta horrexegatik erabakitzen du lehen zerrendan zenbakirik gabe aurkeztea (Darrigol 1827: 71), hurrengoetan agertuko ez direlarik.
- b. Bizidunen kasuetarako etimologia bat proposatzen du: *-ganik*, *-gatic* < *gainetic*, *gaintik* edo *gaitik*, *-ganat* < *gainerat*.¹⁴³ Hortaz, ez lirateke kasu bereziak izango, baizik eta hitz bat gehi *-ik* edo *-at* hondarkiak (1827: 73-74).

¹⁴² B. Oyharçabali (a.a.) zor diot falta horren arrazoiak ohartu izana.

¹⁴³ Nabarmentzekoa da Traskek (1997) ere *gain*-etik eratortzen dituela bizidunen lekuzko kasuak.

- c. 15. zenbakian agertzen den *-(d)ino* atzizkia ere zerrendatik kanpo uztea erabakitzen du, goikoaren (hots, egungo adlatiboaren) aldaera delakoan. Honentzako etimologia ere badu: *den-oro* (1827: 74).
- d. Azkenik, frantsesez ‘pour’ esanahia duten bi atzizkiak, *-ko* eta *-entzat*, gaur banaketa osagarria esango genukeen egoeran ikusten ditu, alegia, lehena bizigabeekin eta bigarrena bizidunekin erabiltzen da. Hau dela-eta, biak kutxatila berean sartuko ditu (1827: 72, 74).

Honen guztiaren ondorioz, jarraian hamar kasuko paradigmak proposatzen ditu, oraingoan deiturak eta guzti. Hona haietariko lehena:

INDÉFINI.

Nominatif	<i>mendi</i>	montagne.
Actif	<i>mendic</i>	montagne.
Médiatif	<i>mendiz</i>	de, par montagne.
Positif	<i>menditan</i>	dans.
Datif	<i>mendiri</i>	à.
Génitif	<i>mendiren</i>	de.
Unitif	<i>mendirekin</i>	avec.
Destinatif	<i>menditaco</i>	pour.
Ablatif	<i>menditaric</i>	de.
Approximatif	<i>menditarat</i>	à, vers.

(Darrigol 1827: 75)

Darrigolek zenbait paradigma eskaintzen ditu numero guztietan: izen bizigabeak (*mendi*), bizidunak (*seme*)¹⁴⁴ eta bereziak (*Joanes, Maria*, hauek mugagabeen soilik agertzen direlarik, jakina: “avec abstraction de tout nombre” [1827: 78]). Kasuen deituri buruzko hausnarketa egiten du:

¹⁴⁴ Nahiz eta paradigmaman *semean* bezalako formak onartu (Darrigol 1827: 77).

- a. Latinaren sei kasuetarik lau agertzen dira euskaran (*nominatiboa*, *datiboa*, *ablatiboa* eta *genitiboa*). “Genitiboa” dela-eta, hala ere, Darrigolek zalantzan jartzen du ea deitura egokia den, dituen funtzio desberdinak besarkatzeko.
- b. Euskaraz ez dago akusatiborik, subjektu aktiboak flexio berezia duelako.
- c. Orobat ez dago bokatiborik. Izan ere, bokatiboa erretorikari dagokio, ez gramatikari: ozenki edo harriduraz ahoskatutako nominatiboa baino ez da.

Azken bi oharrek Oihenarten adierazpena dakarte gogora: “Carent etiam nomina accusatiuo & vocatiuo, eorumque vicem fungitur¹⁴⁵ rectus” (Oihenart 1656: 57).

Amaitzeko, proposatu dituen kasu-izen berriak justifikatzen saiatzen da:

L’*actif* est ainsi appelé, parce qu’il désigne le sujet agissant. Le *mediatif*, pris du latin *medium*, sert à exprimer le rapport *par* du milieu que l’on traverse, ou du moyen que l’on emploie. Les quatre noms restans expriment sans équivoque les rapports de position *dans*, d’union *avec*, de destination *pour*, et de mouvement *vers* [*positif*, *unitif*, *destinatif* eta *approximatif*, hurrenez hurren]. (Darrigol 1827: 80)

3.4.4 Aditza

Darrigolen aditz teoriaren helburu nagusia euskarak bi aditz besterik ez duela frogatzea da: *n(a)iz*¹⁴⁶ eta *dut*, azken buruan aditz bakar batean bil litezkeenak. Horretarako, zenbait analisi proposatu behar ditu, hala nola adizki jokatu-gabeak ez direla egiazko aditzak, izenkiak baizik; edo adizki trinkoak funtsean benetako aditz baten eta aditzoin baten biltzetik sortzen direla. Tesi-lan honen beste atal batean

¹⁴⁵ Testuan *fungirur*.

¹⁴⁶ *Dissertation*-en zehar bi forma, *naiz* eta *niz*, txandakatzen ditu. Aurrerantzean, laburtzearren, *niz* bakarrik aipatuko dut.

(§7.5) Darrigolek gramatika orokorreko aditz bakarren teoriarekin duen lotura azalduko dut eta, horren barruan, aipatu berri ditudan arazoak eta beste zenbait xeheki aztertuko ditut. Oraingoan, beraz, euskal aditzari dagokion beste gai bat hartu nahi nuke hizpide: denbora-sistema.

Aditz denborak banatzeko, Darrigolek aintzat hartzen du ea aditzak adierazten duen gertaera edo ekintza hizketa-unea baino lehenago, aldi berean edo ondoren paratzen den: “Une événement, confronté avec l’instant où je parle, peut se trouver, ou simultané, ou antérieur, ou postérieur à cet instant” (Darrigol 1827: 115).

Bestalde, gertaeraren denbora hizketa-unearekin erkatuz gero, aditzak —benetako aditzak alegia— orainaldiko forma hartzen du: *niz*. Eta, aditz hau adizki jokatu-gabeekin —hots, izenkiekin— konbinatuz gero, hiru denbora lortzen dira: iraganaldia (*erori niz*), orainaldia (*erorten niz*) eta geroaldia (*erorico niz*): “Jusqu’ici nous n’avons conjugué que le présent du verbe *être*; mais sa combinaison avec un nom nous a donné trois temps qui répondent au prétérit, au présent et au futur” (Darrigol 1827: 115-116).

Alabaina gertaeraren denbora iragan denbora batekin ere erka daiteke eta, orduan, euskarak beste aditz-forma bat erabiltzen du, ez-burutua (*imparfait*) izendatu ohi dena: *nintzen*. Darrigolek adizki hau ere hiru izenkiekin konbinatu ahal dela diosku, ikusi berri dugun bezalaxe, aurrekotasuna, aldiberekotasuna eta ondokotasuna adierazteko. Nolanahi ere den, oraingoan Darrigolek zuhurrago jokatzen du eta, emaitzak izendatzeko, ez ditu ohiko hiru denboren deiturak errepikatzen: *ethortcen nintzen*, *ethorri nintzen*, *ethorrico nintzen* (1827: 117-118). Ikus dezagun hurrengo taula honetan Darrigolek proposatzen duen denbora-sistemaren laburpena:

	aurrekoa	aldiberekoa	ondokoa
orainaldia	<i>erori niz</i>	<i>erorten niz</i>	<i>erorico niz</i>
“imparfait”	<i>erori nintzen</i>	<i>erorten nintzen</i>	<i>erorico nintzen</i>

Seigarren taula: Darrigolen denbora-sistema

Goiko taulari erreparatzen badiogu, aise ohar gaitezke Darrigolek hizketa-unearekin erlazionatzen dituen aldaketak egungo aspektu sistemari dagozkiola: *aurrekoa* = burutua, *aldiberekoa* = ez-burutua, *ondokoa* = etorkizuna. Azkenik, honelako sistema bat “Port-Royalen Hatsarrea” deitu izan denarekin bete-betea lotzen da (cf. Calero Vaquera 1986). Frantziako arrazionalismoan sortu zen sistema honek hizketa-unearekiko erlazioa aintzat hartzen du aditz denborak sailkatzeko.¹⁴⁷ Nolanahi ere den, Darrigolen aurretik honelako sistema bat baliatu zuen lehenbiziko euskalaria Astarloa izan zen (ik. Gómez 1999 eta hemengo §1.5.4.2).

3.4.5 Sintaxia

Entziklopedistei jarraituz (Beauzée 1767, du Marsais 1987), Darrigolek adierazten du sintaxiaren erregela guztiak bi sailetan bil daitezkeela, komunztadura (*concordance*) eta gobernua (*dépendance*): “Toutes les règles de la syntaxe se rapportent à deux

¹⁴⁷ Fournier-ek (1991) Port-Royalen hatsarretik abiatuz Frantziako gramatika orokorrean aspektu bereizketak nola azalera ziren aztertu du. Aspektu kategoria, dena dela, gramatikari estoikoek erabili bide zuten aurrenekoz, nahiz eta luze egon zen gero ahantzia. Bereziki XIX. mendearen bigarren erditik aurrera —eta hein handi batean pentsamolde eslavozeleari atxikia— hizkuntza eslaviarren ikerketan berragertu zen aspektu kategoria, mendebaldeko gramatikagintzaren moldetik alden du nahian (Gasparov 1995). Ondoren, pixkanaka hainbat hizkuntzaren gramatiketan sartuko zen. Esate baterako, Espainiako gramatikagintzan ez zen XX. mende hasiera arte erabili, estrukturalismoaren eragina jaso ondoren hain zuzen ere (Rojo 1990).

classes générales, *concordance* et *dépendance*” (Darrigol 1827: 143).¹⁴⁸ Honelaxe definitzen du lehenengoa: “La *concordance* est cette portion de la syntaxe qui indique les moyens propres à faire accorder entre eux les mots qui peignent les diverses parties d’une idée” (*ibid.*).

Aurrenik, izenaren eta adjektiboaren arteko komunztaduraz dihardu. Generoari dagokionez, euskarak ez du generorik eta, hortaz, ezta genero komunztadurarik ere. Numero eta kasu komunztadura, aldiz, “il s’entend plutôt qu’il s’exprime” (Darrigol 1827: 144). Puntu honetan, berriz ere nahasten ditu mugagabea eta erro soila. Bada, Oihenartek bezalatsu, Darrigolek maila berean jartzen ditu kasu-markarik eta numero-markarik gabeko hurrengo hitz azpimarratuak: *Emazteac icicor dire* eta *Badire giçon prestuak* (*ibid.*).

Harrigarria badirudi ere, Darrigolek ez du hemen euskararen komunztadura anizkuna aipatzen. Aldiz, aditzaren eta subjektuaren arteko komunztadura “ezaguna” besterik ez du azaltzen (Darrigol 1827: 144). Nolanahi ere den, euskarari bi berezitasun aitortzen dizkio: batetik, aditz batzuek subjektu nominatiboa hartzen dute eta beste batzuek, kasu aktiboan dagoen subjektua;¹⁴⁹ bestetik, aditzak eta objektuak

¹⁴⁸ Cf. esaterako: “C’est uniquement de ces principes que je tire toutes les règles de la syntaxe nécessaire, c’est-à-dire, de cette syntaxe qui est établie dans une langue pour marquer les différents rapports de concordance ou de régime que les mots entre eux, selon la liaison des idées qu’ils expriment” (du Marsais 1987 [1729]: 28).

¹⁴⁹ Cf. Oihenarten ondoko pasarte hau: “Causus *agendi* est qui verbo actiuo praemittitur vice nominatiui” (1656: 58); honen antzeko adierazpenak aurki litezke Humboldtten eta Astarloaren idatzietan ere. Aitzitik, beste zenbait gramatikariren lanetan halako bereizketa bat agertzen zaigu jada, Larramendirenean (1729) kasu; baina, autore hauentzat euskararen jokabidea ez zen arazo, bi

numeroan egiten dute komunztadura. Baina hementxe gelditzen da, objektuaren edo objektuen pertsona komunztaduraz hitzik ere esan gabe. Eta harrigarria dela diot, *dut* aditz aktiboaren paradigmak aurkeztean euskal aditzak erakusten dituen pertsona-konbinaketez jardun duelako, are hizkuntzaren etorki jainkotiarraren seinaleztat hartuz eta, oro har, ondoko pasartean nabari daitekeen tonu apologetikoa erabiliz:

S'il est vrai que les secrets du langage humain sont profonds; que le mécanisme du verbe en particulier présente un caractère divin dans chaque langue, nous ne craignons pas de dire que ce caractère est surtout bien marqué dans la conjugaison basque [...].

Affirmer l'influence la plus étendue qui se puisse imaginer, l'action la plus générale possible d'un sujet sur un autre, telle est la valeur première et la fonction essentielle de notre verbe actif. Renfermer en soi les pronoms tant singuliers que pluriels des trois personnes; épuiser avec un laconisme parfait toutes les combinaisons mathématiquement possibles entre les six pronoms personnels, en les présentant d'abord deux à deux, puis trois à trois; exprimer, avec une facilité qui étonne, une variété qui enchante, une rapidité d'expression que rien n'égale, toutes les attitudes ou situations respectives que peuvent prendre ces divers pronoms, *employés en sujet et en complément, en complément direct et en complément indirect*; tel est le mécanisme intéressant et la richesse singulière de ce verbe incomparable. (Darrigol 1827: 125-126; azpimarratua nirea da)

Hala ere, susma liteke arazo hau syntaxian ez agertzeko arrazoia azpimarratu ditudan hitzetan bertan kausi daitekeela, hain zuzen. Darrigolen formulazioaren arabera, adizki aktiboan agertzen diren izenordainek berek (*klitikoek* gehituko genuke egun) betetzen dute subjektuaren, osagarri zuzenaren eta zeharkako osagarriaren funtzioa eta, beraz, ez dira adizkiaz kanpoko beste deusekin komunztatzen. Hau gehienetan

atzizkiak sartzen baitzituzten nominatiboan, latinez subjektuaren kasua zen hartan alegia.

egia da euskara bezalako *pro-drop* hizkuntza batean; haatik, dirudienez, Darrigolek ez du aintzat hartzen perpaus batean izenordain *beteak* ere ager daitezkeela.

Gobernuari dagokionez, euskarak arazo gutxi aurkezten dituela diosku, grekoarekin edo latinarekin parekatuz gero bederen. Alde batetik, euskarak ez du preposiziorik eta, bestalde, adberbioek eta aditzek ez dute ezer gobernatzen. Arazoa arras laburtuz, hauxe da zioa: Darrigolek erakutsi nahi izan du bai adberbioak bai aditzak izenki deklinatuak baino ez direla eta, hortaz, izenak edo atributuak diren neurrian gobernatzen dute, ez adberbio edo aditz direlako. Azken batean, Darrigolen iritziz, gobernatzaile posible bakarrak izenak, izenordainak, adjektiboak eta partizipioak (hots, gure aditzak) dira; puntu honetan Beauzéeren proposamenetatik urruntzen da, honek aditza ere sartu baitzuen (Darrigol 1827: 148).

Badu Darrigolen sintaxiak beste gai interesgarri bat, perpausaren eraikuntzari (*construction*) dagokiona alegia. Beauzéeri hartzen dion sintaxiaren definiziotik idoki daitekeenez (“l’art de fixer les rangs et les formes accidentelles des mots dans l’ensemble d’une proposition” [Darrigol 1827: 142]), Darrigolek berebiziko garrantzia ematen die hitzak perpausaren lotzeko bideei. Hizkuntzen sintaxiak bi bide nagusi erabiltzen ditu: hitzen ordena edo *arrangement*, batetik, eta *formes accidentelles* direlakoak, bestetik (*ibid.*). Baina askoz markagarriagoa da Girard abadearen ildotik Darrigolek hitz ordenaren eta deklinabidearen artean egiten duen inplikazio tipologikoa. Funtsean, Darrigolek adierazten du deklinabiderik ez duten hizkuntzak maizago baliatzen direla ordenaz hitzen arteko erlazioak adierazteko, frantsesean gertatzen den bezala. Aitzitik, deklinabidea duten hizkuntzetan, latina eta euskara kasu, ordena ez da finkoa izaten:

Le premier moyen est la grande ressource des langues qui ne déclinent pas leurs noms. Ainsi, quand je dis, *Le père aime le fils*, le placement des mots est ce qui détermine le rapport que l'on veut établir ici entre le père et le fils; et il ne faudrait que changer cet ordre pour renverser aussi le rapport des termes, en disant, par exemple, *Le fils aime le père*. Il n'en est pas de même dans les langues qui déclinent; on ne renverserait pas le rapport de dépendance énoncé dans la proposition ci-dessus, lors même que l'on renverserait l'ordre des mots. Que l'on dise en latin, *Pater amat filium*, ou *Filium amat pater*; que l'on se dise en basque, *Aitac maite du semea*, ou *semea maite du aitac*; c'est toujours de même rapport de dépendance qui est affirmé du fils. (Darrigol 1827: 142-143)

Areago dena, Darrigolek baieztatzen du deklinabidedun hizkuntzetan hitz ordena, gramatikari barik, erretorikari dagokiola gehienbat; gustu kontua dela, eta ez sintaxi arazoa (1827: 143).¹⁵⁰ Abiapuntu hori hartuta, Girardek proposatu zuen hizkuntzen sailkapen bitarra bere egiten du:

Tel est le fondement de la division des langues en deux espèces générales. L'abbé Girard appelle *analogues* les langues qui ont adopté une marche invariable, et *transpositives* celles qui, ayant fixé leur syntaxe par la forme des mots, ne sont pas assujetties à cette marche uniforme. (Darrigol 1827: 150)

Egia esan, Girardek hiru sail bereizi zituen (1747: 22-26):

- a. Lehen saileko hizkuntza analogoek hitzen ordena naturalari jarraitzen diote, esan nahi baita, ideien hurrenkera naturalaren arabera antolatzen dituzte hitzak

¹⁵⁰ Cf. beste pasarte hau, non beharbada inplikazio tipologikoa argiago formulatzen den: "Les langues privées du premier moyen, celles dont les mots ne se plient pas généralement aux diverses formes de la déclinaison, sont nécessairement réduites à placer chaque mot dans la position qu'il exige pour exprimer le rapport qu'il a à telle ou telle autre partie du discours. Celles dont les éléments se plient aux formes accidentelles qui caractérisent les relations des mots, ne sont pas nécessitées à la marche uniforme des premières; elles abandonnent la construction à l'influence de l'harmonie, au feu de

perpausetan; bestalde, artikulua dute eta ez dute deklinabiderik: frantsesa, italiera eta espainiera dira Girardek emandako adibideak.

- b. Bigarren saileko hizkuntza transpositiboek, ordea, irudipenaren arabera antolatzen dituzte hitzak, baina, deklinabidea dutenez gero, anbiguotasuna eta nahasmena galarazten dira; ez dute artikulurik: latina, eslaviara zaharra (“l’Esclavon”) eta Moskuko errusiera.
- c. Hirugarren saileko hizkuntzek, azkenik, aurreko bien ezaugarriak biltzen dituzte eta hortik *mixte* edo *amphilogique* deiturak. Artikulua dute, baita kasuak ere: grekoa eta “Teutonique” deitzen duena, germaniera ziur asko.¹⁵¹

Analogue izenak, esan bezala, aditzera ematen du hitzen hurrenkerak ideien hurrenkera naturalari jarraitzen diola. Arazoa zen, orduan, zein ote zen ideien hurrenkera naturala. Honekin Darrigol bete-betean sartzen da Frantzian aspalditik eztabaidatzen zen hitzen ordena naturalari buruzko auzian. *Ordo naturalis* vs. *ordo artificialis* bereizketa Erdi Aroko eskolastikan sortu zen, nahiz eta haren arrastoak Halikarnasoko Dionisioenganaino ere gibeleratu daitezkeen (Ricken 1978). Alabaina Frantzian ideien inguruko hausnarketa arrazionalistek eztabaida berpiztu zuten, orduko arazo filosofikoetan erdiz erdi kokatu zelarik. Bereziki autore arrazionalistek ordena naturala frantsesaren hitz ordenari zegokiola aldeztu zuten (du Marsais, Beauzée); beste batzuek, aldiz, latinaren ordenaren alde egin zuten

l’imagination, à l’intérêt, &c.” (Darrigol 1827: 150).

¹⁵¹ Bidenabar, Girardek bazuen laugarren aukera bat gutxienez, alegia artikulurik eta kasurik ez duten ordena finkoko hizkuntzak, hala nola txinera edo vietnamera, baina badirudi Girardek ez zuela hizkuntza hauen berririk izan (Plank 2001). Girarden hizkuntz ideiez, ik. orobat Swiggers-en sarrera

(Batteux, Pluche) eta, azkenik, sentsualistek (Condillac edo Court de Gébelin, kasu), hizkuntzaren eta pentsamenduaren bilakaera paraleloak nabarmenduz, hitz ordenaren auzia ikuspuntu historiko batetik aztertzea hobetsi zuten. Eztabaidan, espero zitekeenez, argudio gramatikalak gutxienak izan ziren eta laster *a priori*-zko baieztapenei kutsu apologetiko eta nazionalistak eta frantsesen hegemonia kulturalaren inguruko tira-birak erantsi zitzaizkien (Rivarol izan daiteke honen adibide garbia).¹⁵²

Court de Gébelinen ildotik *analogue* eta *transpositive* terminoen egokitasuna zalantzan jarri ondoren, Darrigolek defendatzen du bai hurrenkera finkoa, bai askea —edozein deitura ematen zaielarik ere— naturalak direla (1827: 152). Areago dena, hitz ordena finkoa baizik ez duen hizkuntza bat, nolabait esateko, osagabea izango litzateke, ez baititu naturak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzen: “tout ce qu’elle a reçu est bon dans l’ordre naturel, mais elle n’a pas reçu tout ce qui est bon dans ce même ordre” (1827: 155). Esate baterako, ordena finkoak hizketaldiaren monotonia dakar eta ez dirudi batere egokia bihotza eta grinak hunkitu edo entzuleak konbentzitu nahi dituzten erabileretarako, hala nola abokatuen, sermolarien, irakasleen edo poesiaren solasetarako (1827: 156). Beste alde batetik, ez da egia ordena finkoa hizkera zientifiko eta metodikorako egokiagoa denik; izan ere, ordena askea duen hizkuntza batek, askatasun berorretaz baliatuz, hizkera metodikorako egokien irizten dion hitzen hurrenkera hauta dezake eta, beraz, argitasun eta

(Swiggers 1982).

¹⁵² Hitz ordena naturalaren inguruko eztabaidaren azterketa onak Delesalle (1986) eta, batez ere,

zehaztasun osoz adieraz dezake solasak eskatzen duena. Ondorioz, “[c]oncluons qu’une langue à construction libre, et notamment celle qui nous intéresse le plus, possède tous les avantages des langues serviles, sans partager leurs inconvénients” (1827: 158). Azken buruan, ikuspegi honekin Darrigolek euskararen estatusa “salbatu” nahi du, nagusiki frantsesaren hitz ordena finkoa goraiatzeko zen garai batean.¹⁵³

3.5 Ondorio gisa

Astarloa eta Humboldtekin batera, Darrigolek euskal gramatikagintza eredu latindarretik askatzeko lehenbiziko ahaleginak burutu zituen. Ildo honetan, euskara gramatika orokor eta filosofikoaren ereduari atxikita aztertu zuen. Horregatik, segurki, gertatu zen bere lana Volney Saria epaitu zuen Batzordearen gustuko. Hortaz, Darrigolen *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque* lanaren edukiari so eginez gero, aise ohartzen gara euskal gramatika-tradizioan aurki

Ricken (1978) lanetan aurki daitezke.

¹⁵³ Frantsesaren hitz ordena naturalaren kritika nagusia Condillacen filosofia sentsualistatik eta haren ikuspegi historikotik etorri zen (Ricken 1978: 100). Kasurako, Condillacen ideien barruan kokatzen da Dominique-Joseph Garatek Rivarolen diskurtsoari egindako iruzkina (Garat 1785; ik. Ricken 1978: 161-165), non ideologo lapurtarrak hitz ordena finkoaren ustezko abantailei pentsamenduen hurrenkera egokia eta hitzen hautapen zuzena kontrajartzen dizkien: “C’est que peut-être la clarté ne vient pas plus de l’ordre direct que l’obscurité des inversions. Des idées bien déterminées, bien ordonnées, rendues ou avec le mot propre ou avec le mot qui fait une image juste, seront claires dans toutes les langues; et dans toutes les langues ont sera obscur avec des idées vagues, des phrases mal construites, des mots impropres et de fausses images [...] L’ordre direct est, dit-on, très favorable à la clarté; il serait plus vrai de dire que la clarté est très nécessaire à l’ordre direct” (Garat 1785, *apud* Ricken 1978: 165). Hegoaldeari dagokionez, Astarloaren sintaxia koka genezake filosofia

daitekeen Frantziako arrazionalismoaren eta entziklopedismoaren eraginik garbienetakoa dugula. Euskal gramatikaren barneko ekarpenei bagagozkie, aipagarriak dira, besteak beste, hitzen erroari emandako garrantzia, deklinabide paradigmatan mugagabea aintzat hartzea (lehena izan ez bazen ere), aditz denboren sailkapenak aspektu-bereizketarako bidea ireki izana, edo euskal hitz ordenaren eta egoera pragmatikoen artean sumatu zuen erlazioa.

Beste alde batetik, Darrigolen gramatikaren eragina ez da oraino behar bezala aztertu, batere txikia ez izanagatik. Adibide batzuk eskaintzearen, argi dago Chaho Darrigolengan oinarritu zela bere laneko deklinabide-paradigmak eratzerakoan. Halaber, Belsunceren gramatikak Darrigol eta Chaho ditu iturri nagusiak, hain zuzen. Azkenik, ezin da ahantzi Darrigolekin abiatzen direla euskalaritzan aditz bakarraren teoriaren formulazioak (ik. 7. kapitulua).

4 Bonaparte printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak

4.1 Sarrera*

Louis-Lucien Bonaparte printzeak urte luzeen buruan Euskal Herrira egin zituen bidaiez, datu bilketez eta dialektologia-lanez aski luze eta ongi, ez agian merezi bezainbat, jardun da.¹⁵⁴ Haatik, hizkuntzari eta hizkuntzalaritzari buruzko iritziek, hala nola euskarari buruzko lan teorikoek —euskalkien edota hizkeren deskribapen hutsa direnetatik bereizteko, nonbait— aipamen txikiren bat edo beste soilik merezi izan dute noizbait Bonaparteren obraz arduratu direnen izkribuetan.¹⁵⁵ Honela bada, gauza jakina da Bonapartek eztabaida luze eta bortitzak izan zituela garaiko zenbait hizkuntzalarirekin, bereziki van Eys eta Vinsonekin. Baina eztabaida haien nondik norakoak ez dira inon ere zehaztu. Interesgarri iruditu zait, beraz, euskalaritzaren historian garrantzi ukaezina duen polemika hartan ukitu arazoak eta iritziak bildu eta

* Kapitulu honen oinarria Gómez (1989) da.

¹⁵⁴ Ik., besteak beste, Arana Martija (1984), Elordui (1994), Lacombe (1907), Mitxelena (1964: 24 eta hh., 1988: 960), Riezu (1958), Rodríguez Ferrer (1873: 65-82), Villalonga (1953-57), Villasante (1979) eta Yrizar (1960, 1981).

¹⁵⁵ Salbuespena Suárez (2000) dugu, Printzearen aditz teoria osoki aztertzen saiatu baita.

berauei buruzko xehetasun batzuk ematea. Hiru arlotan jarri dut arreta berezia: eztabaidagaien azalpenean, Europan indarrean zeuden teoriekiko harremanetan eta euskalaritzari nolabaiteko aurrerapena ekarri zioten erdiespenetan.

Polemika aski luzea izan zen; esan daiteke Bonaparte euskaraz arduratu zen denboraldi osoan iraun zuela. Gure hizkuntzari buruzko lehenbiziko lan teorikoan (Bonaparte 1862)¹⁵⁶ jadanik gerora eztabaidatuko ziren gaiak kausi ditzakegu eta, ikusiko denez, ia hil arte jarraituko zuen bere teoriak defendatzen eta kontrakoak gogorki errefusatzeko.

Lehentxeago esan bezala, Louis-Lucien Bonaparte, Willen Jan van Eys eta Julien Vinson dira eztabaida hauetako esku-hartzaile nagusiak. Guztiarekin ere, beraiekin batera Achille Luchaire sartu beharra dago, gehienetan bigarren eskuko informazioa badarabil ere, aurrekoen lanen laburpen zehatza eta kritika zorrotza burutu baitzituen. Beraz, lau autore hauen esanetara mugatuko naiz batik bat, baina ez ditut aipatzeko utzi nahi eztabaida hauetan alde edo moldez parte hartu zuten beste batzuen izenak, zerrenda halabeharrez osatugabe geratu arren: A. Burnell, Arturo Campión,

¹⁵⁶ Guztiarekin ere, euskararekin izandako lehenbiziko harremana 1847koa dugu, *Specimen lexici comparativi omnium linguarum europaeorum* izenburua duen lanean sartu euskal hitzak alegia (Arana Martija 1984: 34, 13. oh.). Esan behar dut alde batera utzi ditudala Bonaparteren bizitza eta beraren lanen zerrendatzea. Ene ustez, Printzearen biografirik onena oraindik Villalongarena da (1953-57), nahiz eta huts batzuk izan (Arana Martija 1984: 33, 17. oh.); tamalez, Arana Martijak berak (1984) agintzen digun Bonaparteren bio-bibliografia zabalagoa partez baino ez da bete (Arana Martija 1991). Orobat, Bonaparteren euskarari buruzko lanen zerrendak —ez osoak— Lacomberen (1907), Yrizar-en (1960) eta aipatu berri dudan Arana Martijaren (1991) lanetan ikus daitezke.

Hyacinthe de Charencey, Jean Duvoisin, Manuel Gorostidi, Abel Hovelacque eta Inchauspe kalonjea.

Eztabaidagaiak zenbait ataletan banatu ditut: lehenbizi (§4.2) gramatika historiko-konparatzailearen eragina, batez ere Schleicher-en teoriak Vinsonengan izan zutena, aztertu dut; bigarrenik (§4.3) polemikan parte hartu zuten autoreek zientzia berriari —hizkuntzalaritzari— eta beronen metodoari buruz zituzten jarrera desberdinak bereizi; hirugarrenik (§4.4) autoreok euskararen eta munduko beste hainbat hizkuntzaren artean burututako erkaketak aipatu eta iruzkindu; bukatzeko, iberismoaren arazoaz (§4.5), euskararen bizitzari buruzko iritziez (§4.6) eta euskalkien auziaz (§4.7) esan zituztenak jaso.

4.2 Europako hizkuntzalaritzaren eragina

4.2.1 Gramatika historiko-konparatzailea

Polemika hasten den garaian Europako hizkuntzalaritzaren joera nagusia gramatika historiko-konparatzailea dugu, 1870az geroztik neogramatikarien eta beste zenbaiten lan hasiberriek finkatuko zuten metodoari buruzko ardurak hobeturik (ik., besteak beste, Morpurgo Davies 1998). Labur esanda, gramatika konparatzailearen helburua hizkuntzen arteko antzekotasunak erkatu eta euren arteko ahaidetasuna aztertzea da, hizkuntz familiak osatzen saiatuz. Gramatika konparatzailearen ekarpenik garrantzitsuena hauxe da: hizkuntzen arteko ahaidetasuna ezagutzeko, hizkuntza

horien gramatikak, ez hiztegiak soilik, erkatu behar direla berrestea.¹⁵⁷ Metodo konparatzaileak natur zientzietan erdietsi zuen arrakastarik handiena. Hortaz, gramatikariek metodo hori bereganatu baitzuten, zientzia hauen kontzeptuen eragin ukaezina nabari da (Maher 1983). Izan ere, XIX. mende osoan hizkuntzari lotuen zaion hitza *organismoa* da; hizkuntza izaki bizia bailitzan ulertzen da (Mounin 1983: 166).¹⁵⁸

Alabaina, ez da aurreko garaietako ideiekin erabateko etenik gertatzen, Alemaniako Erromantizismoarekin esaterako. Gramatika konparatzailearen aitzatza jo izan den F. Bopp-ek oraino sinesten zuen sanskritoaren bidez jatorrizko hizkuntzara (*Ursprachera*) iritsi ahal zela, giza hizkuntzaren lehen hitzak, lehen erro monosilabikoak, bila zitezkeela; orobat, jatorrizko hizkuntzan erroen eta esanahiaren arteko erlazioa ez zela arbitrarioa, hots, erroek berezko esanahia zutela (Mounin 1983: 181). Bestalde, Humboldt, gramatika konparatzaileak gehiegi kezkatu ez bazuen ere, hartaz baliatu zen hizkuntzaren jatorria bilatzeko; prusiarraren hipotesiaren arabera, hizkuntza giza gogoari hertsiki loturiko propietatea da, barnebarnekoa, gizakia eta hizkuntza batera jaio ziren eta (Mounin 1983: 197-198; Viertel 1966).

¹⁵⁷ Ideia hau lehenago ere aurkitu daitekeen arren —Ludolf, Llwyd, Gyármathi, W. Jones, etab. (Mounin 1983: 166-168)—, gramatika konparatzaileak zabaldu eta metodo jakin baten menpean bideratu zuen.

¹⁵⁸ Gure artean, adibidez, Unamuno gazteak ere onartu zuen giza hizkuntzaren ikuspegi hau: “Todo idioma es un organismo y un organismo que pasa en su desarrollo por tres momentos o fases, que los lingüistas llaman monosilabismo, aglutinación y flexión” (1884: 104-105).

4.2.2 Schleicher – Vinson konexioa

Ez da hau gramatika konparatzailearen ezaugarrien azalpenean luzatzeko lekua. Hala ere, interesgarria deritzot, gramatika konparatzailearen berezitasunak hobeki ezagutzeko eta honek euskalari hauetariko zenbaitengan izan zuen eragin nabarmena ikusteko, Vinsonen testu batzuk (1874a: 238-239; 1874c: 5-6; 1875a; 1875b: 6-12; 1877a: ix-xii; 1879: 146-147) eta Schleicher-en teoriak¹⁵⁹ xehekiago erkatzeari. A. Schleicher-en ezaugarri nagusia metodoari eta fonetikari emandako garrantzia da. Lehena, metodoaz eta lan “zientifikoak” egiteaz zuen ardura, ikusiko denez, van Eysengan eta Vinsonengan ere oso agerikoak dira; orobat Bonaparterengan, baina ikuspegi aski desberdina dauka honek. Bestalde, Vinsonen berak eman nahi izan zuen aditzera noiz edo behin Schleicher-en metodoaren garrantzia:

Celui qui est au courant de l'œuvre remarquable de Schleicher; celui qui a lu et médité les principes fondamentaux, la raison d'être de cette puissante méthode, dans la rapide esquisse que le maître en a tracée, ne saurait comprendre qu'on n'essayât pas de l'appliquer à tous les produits sonores de l'organisme humain, c'est à dire aux diverses manifestations du langage articulé. (Vinson 1874a: 239)

Schleicher-ek letrak eta soinuak ederki eta beti bereizten bide zituen, aurreko autoreek —eta ondorengo anitzek— ez bezala.¹⁶⁰ Badirudi, baina, garai hartako euskalarien artean ez zela erabateko bereizketa hori egitera iritsi. Fonetikazko gai

¹⁵⁹ Hurrengo oin-oharretako Schleicher-en aipuak frantsesezko 1852ko itzulpenetik jaso dira (Schleicher 1852). Schleicher-en teoriaren azalpena lan askotan aurki daiteke; ik., besteak beste, Maher (1983) eta Koerner (1989a).

¹⁶⁰ Cf. “les sons changent de plus en plus, les caractères alphabétiques restent immuables en montrant une époque du passé, comme l'aiguille d'un cadran arrêté” (Schleicher 1852: 29).

hauetara gehien hurbildu zena van Eys izan zen; hala ere, behin eta berriz darabil “lettre” hitza soinuez ari delarik, garaian ohi zenez. Orobat lege fonetikoaren garrantzia aztertzerakoan: “les lois phonétiques sont d’un intérêt de premier ordre pour l’étude d’une langue” (van Eys 1873a: xvii), edo “Quand nous saurons à fond les lois de la phonétique basque, nous y trouverons sans doute un auxiliaire qui nous sera très-utile” (1873a: xix.).

Vinsonen aipatu testuetariko bat (1877a) nahiko esanguratsua da Schleicher-ekiko atxikimenduari dagokionez. Izan ere, nahiz eta bere orrialdeen xedea orduko hizkuntzalaritzaren ideia nagusiak laburki azaltzea izan (“rappeler en quelques traits rapides les principes essentiels de la linguistique moderne”, ix. or.), Schleicher-en teoriak eta iritziak doi-doi laburtzera mugatzen da (cf. orobat 1875b: 6). Egia esan, atxikimendu ia oso hau aspaldidanik aipatu zen,¹⁶¹ eta are nabarmenagoa da Vinsonen izkribuen data eta atal honen hasieran adierazi dudana 1870. urte inguruko hizkuntzalaritzaren aldaketak kontuan hartzen baldin baditugu.¹⁶²

¹⁶¹ Cf., esaterako, “Por sus trabajos y aun por sus conversaciones, me consta que en lingüística [Vinson — R.G.] seguía principalmente a Hovelacque y a Schleicher, sin evolucionar con el tiempo, en el sentido en que lo ha hecho dicha ciencia. No se recataba en proclamar su oposición a los neogramáticos y a los lingüistas posteriores a esta escuela. No discutió en realidad con ellos” (Urquijo 1927: 221).

¹⁶² Izan ere, Vinson —Unamuno legez— ez zen inoiz neogramatikarien ez beste inoren haize berrien oso aldeko izan eta bizitza guztian zehar Schleicher-en ideiei atxiki zitzaien. Vinsonen hizkuntz ideien azterketa bikaina Desmet (1996) lanean aurki daiteke.

Hasteko, Vinsonek filologiaren eta hizkuntzalaritzaren arteko bereizketa azaltzen du.¹⁶³ Lehenbizikoa “étude principalement historique” da (1877a: x); bigarrena, aldiz, “est une science purement naturelle” (*ibid.*).¹⁶⁴ *Étude* eta *science* hitzak aukeratzeak, ene ustez, ez dirudi batere gauza arbitrarioa denik, Vinsonek hizkuntzalaritzaren zientifikotasuna azpimarratu nahi baitu.¹⁶⁵ Hizkuntzaren kontzepzioa ere desberdina izango da, ikuspuntu batetik edo bestetik begiratuko bada. Filologoen ustez —dio Vinsonek (1879: 146)—, hizkuntza “órgano de expresión de las sociedades humanas” da; hizkuntzalarien iritziz, ordea, gizakiaren funtsezko ezaugarria da, “phénomène essentiellement caractéristique de l’espèce humaine” (1877a: x), edo geroago adieraziko duenez:

hecho natural, producido espontáneamente, bajo influencias externas por los órganos físicos del cuerpo, sin otro objeto que dar expresión rápida y exacta del pensar humano. (1879a: 146)

Era berean, hizkuntzari buruzko ikuspuntu edo azterbide bietariko bakoitzak metodo desberdin bati jarraituko dio. Horrela bada, filologia metodo historikoaz baliatzen den bitartean, hizkuntzalaritzak, natur zientzia baita, beste natur zientzien metodoa erabiltzen du, metodo konparatzailea alegia:

¹⁶³ XIX. mendearen bigarren erdian *filologia* eta *hizkuntzalaritza* adigaiez izan zen eztabaidaz, ik. Aarsleff (1979), Arbuckle (1970), Koerner (1997) eta Williamson (1992).

¹⁶⁴ Cf. “L’une, qui s’appelle la *philologie*, étudie la langue pour arriver par là à la connaissance de l’essence intellectuelle des nationalités; la philologie appartient à l’histoire. L’autre s’appelle la *linguistique*; elle ne s’occupe point de la vie historique des nations: elle est une part de la physiologie de l’homme” (Schleicher 1852: 1-2).

¹⁶⁵ Cf., dena den, Vinsonek beste leku batean filologiaren dioena: “c’est une science essentiellement historique” (1875a: 5).

Qu'on l'appelle *linguistique*, *glottique* [Schleicher-ek gogokoen zuen izena — R.G.] *glottologie* et même, par un abus trop persistant, *philologie comparée*, la science du langage suit la méthode des sciences naturelles et ne procède que par l'observation et l'expérience. (Vinson 1877a: x)¹⁶⁶

Vinsonek hizkuntza izaki bizia balitz bezala aztertzen du; bestelako “organismes naturelles”-en parean jartzen du. Urte batzuk lehenago, xehekiago adierazten ditu hizkuntzalaritzaren metodoaren betebeharrak:

La méthode de la science du langage, ainsi entendue, devra donc être celle des sciences naturelles. Elle devra s'occuper d'étudier isolément les éléments constitutifs des langues, leur nature, leur composition matérielle, leurs modifications, leurs affinités, leurs tendances; elle devra ensuite, à l'aide des éléments étudiés de la sorte dans plusieurs organismes, établir une classification générale toujours flexible, toujours accessible à l'introduction de nouveaux membres doués de caractères élémentaires spéciaux. (Vinson 1875a: 6-7)

Ohar bedi orain arte zenbat aldiz agertu zaizkigun *nature*, *natural* edo *naturelle* hitzak hizkuntzalaritza berriaren zehazkizunak ematerakoan. Schleicher-entzat adjektibo honek oso esanahi zehatza du: naturala legeen menpean, borondateetik at dagoena da, askatasunik ez duena.¹⁶⁷ *Natura / Historia* kontrajarpena Schleicher-en pentsaeraren sustraietan dago, eta hurrengo orrialdeetan azalduko diren arazoetan behin eta berriz berragertuko zaigu. Hizkuntzalaritzak, beraz, hizkuntzaren alde

¹⁶⁶ Cf. “La méthode de la linguistique diffère donc totalement de celle des sciences historiques, elle doit être la méthode des autres sciences naturelles” (Schleicher 1852: 3)

¹⁶⁷ Cf. “Il ne faut point croire que la langue, comme appartenant au côté naturel ou non libre de l'Homme, soit exempte de cette loi, qui se montre aussi dans la série des organismes naturels” (Schleicher 1852: 15-16). Ewerbeck-ek, Schleicher-en itzultzaileak ondoko ohar hau eransten du, bereizketaren iturria azaltzearen: “L'auteur, comme hégélien, maintient la différence entre Esprit, Intelligence, Liberté d'un côté, et Nature, Non-Liberté de l'autre” (*ibid.*).

“naturalena” izango du aztergai, fonetika eta morfologia, alegia. Honelaxe jarraitzen du Vinsonek:

Ainsi, la Linguistique est une science naturelle. Les organismes phoniques, qui constituent son objet, sont des produits spontanés et inconscients des organes humains, soumis, en leur qualité d’êtres naturels, à la grande loi de l’éternelle variabilité, suivant les influences de milieu, de climat, de société, d’isolement, etc., mais aussi incapables d’être modifiés sous l’action d’une volonté extérieure ou intérieure, qu’un quelconque des êtres organisés qui nous entourent. (1875a: 6)¹⁶⁸

Nahiz eta Vinsonek soinuak (*organismes phoniques*) eta Schleicher-ek hitzaren formak (*formes*) aipatu (ik. 168. oh.), ukazina da hizkuntz erkaketan, oro har, fonetikak —eta, terminologia berriagoa erabiliz, fonologiak— eta morfologiak duten lokarri hertsia.¹⁶⁹

Hizkuntzaren xedea pentsaera adieraztea delarik, hizkuntzak pentsaera adierazteko modu desberdinen arabera sailka daitezke:

on a constaté que les divers idiomes ont employé des moyens différents pour rendre le mieux et le plus vite possible l’idée, conception ou intuition, et sa forme variable, pour traduire avec exactitude la signification et la relation. (Vinson 1877a: x)¹⁷⁰

¹⁶⁸ Beronen oso antzeko pasartea, sarri hitzez hitz, dakar Vinsonek beste lan batean (1877a: x). Cf., halaber, “Tout ce qu’il y a dans la langue de *naturel*, c’est-à-dire provenant de l’essence naturelle de l’Homme, et mis en dehors de l’influence de la volonté, c’est la science des formes, elle appartient à la linguistique. Tout ce qui, dans la langue, dépend de la pensée et de la volonté individuelles, la syntaxe, et encore plus le style, sont du domaine de la philologie” (Schleicher 1852: 4).

¹⁶⁹ Antzeko parekatzeak darabiltza Schleicher-ek ere: “sous des formes acoustiques, c’est-à-dire par des mots” (1852: 6). Ik., halaber, hurrengo oin-oharra.

¹⁷⁰ Cf. “chaque langue peut être décomposée en deux éléments: des *notions* d’un côté, et des *rapports*

Hitz hauetan, sailkapenaren irizpide bezala erabiliko diren esanahia (*signification*) eta erlazioa (*relation*) zertan dautzan gehiegi zehazten ez badu ere, askoz garbiago adierazi zuen 1875eko artikulu batean:

La plus exacte manière d’exprimer la pensée sera naturellement celle qui pourra le mieux en rendre les diverses nuances. Mais que sont les diverses nuances de la pensée? On peut s’en rendre compte par cette considération que les idées, les conceptions ou les intuitions peuvent être dirigées dans divers sens, c’est-à-dire qu’il faut distinguer, dans une idée, une conception ou une intuition, le fait qui est à sa base et la modification éprouvée par ce fait suivant le temps ou l’espace; ce que nous résumerons par ces deux mots, indiquant le but naturel du langage; “signification, relation”. Le langage le plus parfait sera donc celui qui exprimera simultanément la pensée et sa manière d’être, le fait et sa modification, la signification et la relation. (Vinson 1875a: 1)

Hortaz, esanahia eta erlazioa adierazteko bideen arabera, hiru hizkuntz multzo bereiz daitezke, Humboldték bereizitako hiru tipologia-talde ezagun eta klasikoak, hain zuzen; Vinsonek (1875a; 1877a) “groupes” dio, baina gainerako izkribuetan gehien erabiltzen duen izena Schleicher-ek ere badarabilen berbera da: “classes”. Lehen taldean hizkuntza isolatzaileak (“monosyllabiques” edo “isolantes”) sartzen dira. Hizkuntza hauetan hitz guztiek —erreak, nahiago bada— esanahia dute eta erlazioa bestelako bidez adierazten da: “le premier, celui des langues *isolantes* où les racines monosyllabiques sont toutes significatives et où les relations ne s’expriment que conventionnellement, c’est-à-dire ne s’exprimaient pas à l’origine” (Vinson 1877a:

de l’autre. Les notions, les représentations, sont en quelque sorte les *matériaux* de la langue; les rapports entre elles font sa *forme* [...]. On appelle *significations* ces notions et ces représentations. On peut dire que l’essence d’une langue se base sur la manière dont elle exprime *acoustiquement*, c’est-à-dire par un mot, les significations et les rapports (ou relations)” (Schleicher 1852: 7).

x).¹⁷¹ Bigarren taldea osatzen duten hizkuntza eransle edo aglutinatzaileek (“*agglomérants, composants* ou *agglutinants*”; 1875a: 3), aldiz, bi motatako hitzak dituzte, batak esanahia adierazten duten erroak eta besteak esanahia galdu duten eta erlazioen berri emateko lehenbizikoei eransten zaizkien erroak:

A une racine significative, on ajoute, soit devant, soit derrière, une autre racine qui devient en quelque sorte l’accessoire, le corollaire, le complément de la première dont elle ne sert qu’à modifier le sens. Ces racines de relation, ces mots secondaires s’emploient d’ailleurs aussi indépendamment comme mots significatifs. (1875a: 2)

le second, celui des langues *agglutinantes* où les relations sont rendues par des racines jadis significatives réduites à un rôle secondaire et subordonné. (1877a: x)

las [hizkuntzak — R.G.] del segundo usan también dos palabras, pero la segunda de estas queda reducida al oficio de servidora, vasalla ó esclava, y no tiene existencia independiente. (1879a: 146)¹⁷²

Azkenik, hizkuntza malgukari edo flexiboetan (“*langues à flexion*”, “*flexionales*”) esanahidun erroa bera aldatzen da erlazio desberdinak adierazteko: “enfin le

¹⁷¹ Schleicher zehatzagoa da hizkuntza isolatzaileek erlazioa nola adierazten duten azaltzerakoan: “Une langue à monosyllabes ne se compose que de racines, de mots exprimant une signification, et qui renferment implicitement la relation [...] par la place qu’on lui fait occuper dans la phrase, par l’accentuation et l’intonation, par le geste, etc., etc.” (Schleicher 1852: 9).

¹⁷² Cf. “Voilà la deuxième grande classe de langues, celle des langues d’*agglomération* ou d’*agglutination* [...]. C’est là que le mot se forme par des membres; voilà une différence fondamentale d’avec les langues monosyllabiques. Mais ces membres ne se confondent pas encore en un seul organisme entier; voilà leur différence fondamentale d’avec les langues à flexion. Le mot n’y est donc qu’un composé de plusieurs mots conservant encore chacun une sorte d’individualité” (Schleicher 1852: 11-12).

troisième, celui des langues à flexion où le changement de relation est indiqué dans la racine-même, dans la voyelle radicale” (Vinson 1877a: x-xi).¹⁷³

Zernahi gisaz, talde hauek ez dira inola ere itxiak, ezta —eta hauxe da Schleicher-en teoriaren gunea— estatikoak ere: “il faut en conclure que le langage est essentiellement progressif et variable dans le sens d’une amélioration constante de l’expression des relations” (Vinson 1877a: xi). *Corruptio linguae* delako adigai zaharra eta eboluzionismo berriaren ideiak bereganatuz eta nahasiz (cf. Mounin 1983: 203), Schleicher-ek uste du hizkuntzak talde batetik bestera igarotzen direla perfektzioaren xerka. Hizkuntza perfektua pentsaera albait hobekien eta bizkorren adierazten duena da, hots, —Vinsonen hitzetan— “le système linguistique le plus parfait sera celui qui indiquera la relation par un changement dans la forme de la racine significative qui restera une” (1875a: 2) edo, beste lan batean, “la lengua más perfecta será la que las [esanahia eta erlazioa — R.G.] haga sensibles juntamente, con un sólo esfuerzo vocal” (1879: 146).¹⁷⁴ Hizkuntzen bilakabide hau, erlazioen adierazpenaren hobekuntza prozesu hau alegia, —berriz ere hitza— “naturala” da, gizakien borondateak zerikusirik ez baitu. Honela, bada, hizkuntza isolatzaileak

¹⁷³ Cf. “Dans la troisième classe, enfin, nous trouvons la signification et la relation incorporées dans des mots particuliers, et cela sans déroger à l’unité” (Schleicher 1852: 12) eta “La fusion indissoluble, fusion intellectuelle, de la signification avec la relation, s’exprime dans les langues à flexion par l’inséparable fusion matérielle ou phonétique, c’est-à-dire que le radical lui-même peut subir une flexion. C’est le caractère essentiel de la troisième classe des langues” (1852: 147-148).

¹⁷⁴ Cf. “Une langue parfaite devait exprimer d’une manière acoustiquement complète ses éléments matériels et ses éléments formels” (Schleicher 1852: 7).

eransle izatera igaro(ko) dira eta orobat eransleak flexibo izatera.¹⁷⁵ Azken hauek baitira, goiko definizioek iradokitzen duten legez, maila gorenera iritsi diren hizkuntzak.¹⁷⁶

Alabaina Vinsonek (1875a: 3; 1877a: xi) ohartarazten du gaurko hizkuntza asko ez direla sailkapen horretan sorburu duten antzinagoko hizkuntzen mailara iritsi. Latinaren eta hizkuntza erromanikoen adibidea, hala nola hizkuntza germaniarren (ingeleza eta alemanera) eta berauen ahaidea zen gotikoarena aipatzen ditu. Itxurazko kontraesan honen konponbide gisa, Vinsonek Schleicher-en teoriara jotzen du berriz ere, oraingoan esplizituki baina. Organismoak diren heinean, teoria honen arabera hizkuntzak ere jaio, hazi, birsortu eta hil egiten dira. Honela, bada, Schleicher-ek, Darwinen lana argitara eman aurretik ere, bi aldi bereizi zituen hizkuntza baten bizian.¹⁷⁷ Batetik, aurrerabide formala (“développement formel”) lortzen den bitartekoa: garai horretan hizkuntza bat isolatzaile, eransle eta flexiboen taldeetatik

¹⁷⁵ Cf. “Nous avons ainsi le droit de nous attendre à voir dans le cours des siècles les idiomes s’élever par degrés de l’état monosyllabique à l’état d’agglutination, pour aboutir enfin à l’état de flexion” (Schleicher 1852: 17).

¹⁷⁶ Cf. “Voilà certainement la classe la plus élevée, la plus riche, la plus féconde, la plus flexible; elle seule reflète, mieux que les deux précédents, les mouvements de l’âme et de l’esprit, l’acte de la pensée, dans laquelle, on le sait, il y a fusion complète de la *signification* et de la *relation*, qui se pénètrent réciproquement” (Schleicher 1852: 12). Jakina, hizkuntza flexiboez ari da; eta hauexetaz jarraitzen du, hizkuntzaren eta izaki bizien arteko parekatzea (*hizkuntza = organismoa*) beste maila batera eramanez: “Les idiomes à flexion sont donc les êtres les plus parfaits de tout le Règne de la Parole; dans ces idiomes le mot est devenu l’*unité de la multiplicité des membres ou des organes*, c’est-à-dire l’organisme animal unitaire et multiple à la fois” (Schleicher 1852: 13). Ohartarazi behar da lehenago hizkuntza isolatzaileak mineralekin eta eransleak landareekin erkatu dituela.

¹⁷⁷ Schleicher-en eboluzionismoaren etorkiaz, ik. Maher (1983).

igarotzen da maila gorenera iritsi arte. Schleicher-en ustez, maila horixe izango zen indoeuropeerak erdietsi zuena, esaterako. Bigarren aldian, hizkuntzak gainbehera edo atzerabide formala (“*décadence formelle*”) jasaten du, flexio-sistemaren endekatzea eta suntsitzea gertatzen direlarik: “le sens primitifs des affixes s’oubliait de plus en plus, ils s’usent, s’altèrent peu à peu et finissent souvent par se perdre” (Vinson 1877a: xi). Atzerabide formalaren hasiera hizkuntza historian sartzeak markatzen du: “La *décadence formelle* commence dès qu’une langue arrive à l’histoire” (*ibid.*).¹⁷⁸ Schleicher-en teoria honetan, aurrerabidearekin gertatzen den bezalaxe hizkuntzen atzerabidea ere “naturala” da; horregatik bai bata eta bai bestea hizkuntzalaritzaren aztergai dira.¹⁷⁹

Amaitzeko, eta euskararen ezaugarriak aipatzen hasi baino lehen, Vinsonek (1877a: xi) ohar bat egiten du Schleicher-en teorian hizkuntza eransleek duten lekuari buruz: hizkuntza eransleak bestelako hizkuntza —isolatzaile edo flexibo— baten eraginez bakarrik abiatu ahal izan dira atzerabidean (cf. halaber 1875a: 3-4; 1877a: xi). Eta hauxe da euskararen egoera, hain zuzen. Hizkuntza eranslea izanik,

¹⁷⁸ Cf. “L’expérience démontre que dans les temps historiques les langues déclinent, et nous n’assistons jamais à la naissance d’une langue nouvelle. Eh bien! en voyant aux premiers rayons de l’Histoire la Langue déjà si richement développée, nous en inférons avec raison que la formation de la Langue avait lieu avant l’Histoire” (Schleicher 1852: 17-18) eta “Il y a donc deux époques totalement distinctes dans l’Histoire des idiomes: d’abord l’histoire de leur *développement*, c’est l’époque anté-historique, puis l’histoire de leur *décadence*, c’est l’époque historique” (Schleicher 1852: 19).

¹⁷⁹ Cf. “Quelle est la cause de cette *décadence*? Cette cause existe dehors de la libre volonté, elle est au-dessus de toutes les langues. L’histoire sociale d’une nation, surtout la littérature, pourra accélérer ou retarder la *décadence* de son idiome, mais n’oublions pas que le point de départ de cette *décadence* existe dans la nature humaine. C’est donc la linguistique, science de la nature humaine, qui aura à

euskaldunak historiaren bidean jarri dira herri indoeuroparreko harremanak direla eta (1877a: xv). Vinsonek euskal aditz sistemaren aldaketa aurkezten du adibide gisa:

Pendant sa vie historique, pendant sa période de décadence formelle, le verbe a éprouvé, en basque, des accidents dont on ne trouve nulle part d'exemple aussi complet. La conjugaison primitive ou, si l'on veut, simple et directe des noms verbaux est peu à peu tombée en désuétude et a été remplacée par une remarquable composition de noms verbaux, d'adjectifs et de verbes auxiliaires [...]. Les auxiliaires de la conjugaison périphrastique sont presque les seuls restes du système simple primitif. (Vinson 1877a: xiv)¹⁸⁰

Gaur egun hain simple iruditzen zaigun adizki trinkoen antzinatasunaren kontu hau, perifrastikoak noiz eta zergatik nagusituz doazen alde batera utzirik, ez zegoen garai hartan inola ere zeharo erabakirik. Iritzi horretakoak ziren —Oihenartengandik (1638/1656) zetorren tradizio bati jarraituz— Humboldt (1817), van Eys (1867), Mahn (1875) eta Ribáry hungariarra (1877), besteak beste. Baina kontrako iritzia agertu zuten euskal gramatikari gehienek eta kanpotar batek, hala nola Larramendi (1729), Darrigol (1827), Chaho (1836a), Inchauspe (1858), Duvoisin (1868) eta Bonaparte printzeak (1869b).¹⁸¹

étudier l'histoire de l'idiome" (Schleicher 1852: 28-29).

¹⁸⁰ Unamunok euskararen flexiorako pausotzat jo zuen aldaketa hau: "Pero debo añadir que el idioma vasco guarda un lugar intermedio entre la aglutinación y la flexión, es un idioma aglutinante en el cual se desarrollan hoy mismo formas flexivas, como el paso de la antigua conjugación aglutinante a la conjugación analítica con el auxiliar" (Unamuno 1884: 91).

¹⁸¹ Egile hauen ideien laburpenerako, ik. van Eys (1875: vii-xv) eta Vinson (1867). Aditz perifrastikoaren antzinatasuna aldeztu zutenen artean, Martin Harrietek jarrera berezia erakusten du, adizki trinkoak euskaratik kendu behar direla adierazten baitu (1741: 507).

Azkenik, nabarmentzekoa da aipatu Ribáryren *Essai*-ren edizioari (Vinson 1877a) Bonapartek egindako oharretan (Bonaparte 1877c) Schleicher-en teoriaren laburpenari buruz deus ere ez esatea. Onartzen ote zituen Printzeak alemaniarraren ideiak ala euskararekiko arazoez bakarrik jardun nahi zuen oharretan? Nik neuk ez dut Bonaparteren izkribuetan Schleicher-en teoriari buruzko aipamen zuzenik kausitu, ez aldeko ez kontrakorik; ikusiko dugunez, baina, beronen izena salbatuko du, beste bakan batzuekin, Vinsonek (1877a: xxii) emandako hizkuntzalaritza berriaren maisuen zerrendatik (Bonaparte 1877c: 16).

4.3 Zientziaz eta metodoaz

4.3.1 Euskalariak kritikagai

Hizkuntzalaritzaren aro berri honek ekarri zuen metodoari eta zientifikotasunari buruzko ardurak aurreko euskalarien lanen kritika eta berrirakurketa bultzatu zituen. Horrela bada, Luchaire-ren (1879), van Eysen (1867, 1873a, 1875, 1879) eta Vinsonen (1867, 1879) ustez, euskalaritzaren aurreko lanak oro har, eta bereziki euskal gramatikarien lanak, ez dira zientifikoak, metodorik eza nabari zaie eta akatsez beteta daude. Larramendiri buruz, van Eysek (1873a: iii-iv) uste du beraren hiztegia ona dela “à consulter”, baina hutsa franko duela,¹⁸² hala nola euskal hitz bakoitzari dago(z)kion euskalkia(k) ez aipatzea, ordu arte erabili gabeko hitz asko

¹⁸² Gaur egun, Larramendiren helburuak aintzat harturik, haietariko zenbait merezimendu gisa jotzen dira. Gaur egungo ikuspegirako, ik., besteak beste, Mitxelena (1984b), Lakarra (1985a, b, c), Sarasola (1986) eta Urgell (2000).

sartzea, espainierazko hiztegi baten¹⁸³ itzulpena izatea, hainbat hitz asmatzea “entièrement en désaccord avec le caractère de la langue basque” —adibide gisa *be-* (< *behe-*) eta *des-* aurrizkiez sortutakoak aipatzen ditu— eta, azkenik, etimologia okerrak asmatzea, euskara espainieraren eta latinaren iturria dela frogatzeko.

Vinsonen jarrera (1867: 384) ulerkorragoa da, Larramendiren *Artea* eta *Hiztegiari* buruzko iritzia ematean. *Artea* eredu klasikoei atxikiegia dela uste du eta, beraz, euskara ondo ezagutzeko ez duela balio, baina halaber ez dela ahantzi behar noiz idatzi zen. *Hiztegian*, van Eysek bezala, Vinsonek uste du euskaran arrotz diren hitz asko kausitzen direla.

Andoaindarra alde batera utzirik, van Eysek Astarloari buruz duen iritzia, euskalari holandarraren beste pasarte askotan bezalaxe, ironia handia dario: “les voyelles isolées n’ont plus de secrets pour lui” (1873a: iv). Vinsonek, bere aldetik, Lécuse-ren *Manuel* (1826) kritikatzeko du: “malgré son épigraphe vaniteuse, traduction grecque du triple mot de César, est loin d’être un guide complet et suffisant pour l’étude du basque” (1867: 386). Orobat, van Eysek (1875: ix) uste du Lécuse-ren gramatikak ez duela ezer berririk ekartzen; baina baduela gauza on bat, Darrigolek bezala bi aditz laguntzaile (*nai*z eta *du*t) bereiztea, alegia. Dударik gabe, Darrigol kalonjea da euskal ikerlarien artean kritikarik leunenak jasotzen dituenak. Bai van Eysek (1867: “Introduction”, vi), bai Vinsonek (1867: 386) nolabaiteko

¹⁸³ Van Eys ez bide da ohartzen Espainiako Erret Akademiaren *Diccionario de Autoridades* zela, Larramendik berak aitortu zuenez, andoaindarrak eskuartean izan zuena: “Después de tan improbo trabajo empezé mi Diccionario, siguiendo passo por passo, y voz por voz al gran Diccionario de la

seriotasun eta zientifikotasuna aitortzen dizkiote *Dissertation*-i (1827). Hala eta guztiz ere, van Eysek zenbait akats, batik bat deklinabidearen inguruan, antzematen dizkio (1867: “Intr.”, vi-viii). Era berean, Vinsonen iritziz, Darrigolen abiapuntuak —euskararen bikaintasunaz, isolamenduaz eta aditz-joko bakarra (perifrastikoa alegia) izateaz duen ideiak— liburuaren seriotasun asmo guztiak galarazten ditu. Halako iritzi erdibitua merezi dute Vinsonentzat Chahoren lanek (1836a, 1856): alde batetik, zuberotarrak hizkuntzaren jatorriaz nahiko zekien eta horrexegatik, Vinsonen hitzetan (1867: 389), “il y a lieu de regretter sa mort prématurée, car il aurait certainement contribué pour une bonne part à l’analyse définitive du basque”; beste aldetik, ostera, ez dago batere ados Chahok euskaldunen jatorriari buruz dituen ideiekin: “Ces idées gâtent les travaux de M. Chaho” (Vinson 1867: 388).

Garaiko euskalarien artean, H. de Charenceyren eta Inchausperen lanak dira kritikarik latzenak jasotzen dituztenak. Hona zer dioen Vinsonek lehenari buruz: “l’auteur est trop porté à la complication, et plusieurs de ses hypothèses semblent très hasardées” (1867: 395). Orobatsu van Eysek: “nous regrettons l’assurance avec laquelle M. de C[harencey]. nous donne des étymologies plus que douteuses” (1873a: xii). Diodan, gainera, Vinson (1874a) lanean Charenceyren aditz teoriaren kritika aurki daitekeela. Inchausperen aditz teoriaren azalpenean, van Eysek argudio kaskarrak, orakulu-tonua (1873a: xvii), nahasmendu handia eta terminologia “baroque” bat (1875: x) hautematen ditu. Vinsonek, bere aldetik, “théorie essentiellement métaphysique” (1875c: 3) deitzen dio.

Luchairek ere (1879: 110-111) bere iritzia adierazi zuen gramatikari euskaldunen lanei buruz. Horrela bada, uste du Larramendi, Lardizabal, Astarloa, Darrigol, Zabala, Inchauspe eta gainerakoei kritikarako sena eta hizkuntzalaritza orokorraren ezaguera falta zaizkiela, alabaina, bestalde, beraien lanetan agertutako datu ugariak baliagarriak direla hizkuntzalari berrien ikerketa konparatzaileetan erabil daitezten.

Iritzi hauek oro laburtzeko asmoz, van Eysek hiru arrazoi idorotzen ditu hainbat gramatikarik euskararen berezitasuna aldarrika dezaten: gramatikari klasikoen eragin nahasgarria (1875: vi), gramatikarien ezjakintasuna (1879: viii) eta “la préférence pour les explications extraordinaires, surnaturelles, quand l’explication naturelle se trouve sous la main” (*ibid.*).

Vinsonek (1867: 400-401), euskalarien lanen kritika egin ondoren, bi sailkapenetan banatzen ditu. Lehenbizikoan euskaldunak eta kanpotarrak bereizten ditu: euskaldunen artean gehienak ez dira hizkuntzalariak eta uste dute kanpotarrek ezin dezaketela euskara menperatu, ezta behar bezala aztertu ere; euskaldunen eginkizun bakarra, bestalde, ikerlari zuhurrageok erabiliko dituzten materialak prestatzea litzateke. Bigarren sailkapenean beste bi azpitalde bereizten ditu: batetik, jakitunak (“les savants”), emaitza onak lortzeko gai liratekeenak, eta, bestetik, euskalaritza jolasgarri gisa erabiltzen dutenak, inolako prestakuntzarik gabe ideia zoroak eta terminologia iluna asmatzera emanak direnak:

et des hommes qui ont fait du basque comme ils auraient fait de l’alchimie; qui se sont amusés à cette étude, parce que ceux qui s’en occupent sont bien vus dans le pays, ou parce qu’elle est peu courue; qui, après avoir découvert du fond de leurs cabinets les singularités d’une foule d’idiomes plus ou moins inconnus, ont monté un échelon et ont fait du basque l’objet de leurs lumineuses élucubrations accompagnées d’un perpétuel étalage de mots aussi longs qu’ignorés du vulgaire; qui enfin ne se doutent

pas qu'il est besoin pour être philologue d'une certaine aptitude naturelle, et qu'on ne peut faire de travail sérieux sur une langue qu'après en avoir étudié plusieurs, c'est-à-dire après s'être éclairé sur la vraie nature du langage et les principes de la grammaire générale. (1867: 401)

Beste alde batetik, beren hizkuntzaren gainean idazten duten euskaldun gehienak elizgizonak dira eta euskararekiko ikerketatik ondorio filosofiko eta historikoak atera nahi dituzte. Jakina, Vinson bereziki garai hartan oraino jatorrizko hizkuntza bakar batean eta Babelen mitoan sinesten zutenez ari da, eta hain zuzen Inchausperen pasarte bat dakar adibide gisa (1867: 401-402).¹⁸⁴

Luchaire, van Eys eta Vinsonen kritika hauen beste muturrean Bonaparteren iritziak kausitzen ditugu. Printzeak euskal gramatikarien lanak defendatzen ditu, Larramendirenak¹⁸⁵ eta Inchausperenak¹⁸⁶ batez ere, beraiek bakarrik ezagutzen baitute ederki eta “zientifikoki” beren hizkuntza. Hortaz, kanpoko hizkuntzalariei

¹⁸⁴ Vinsonen *Urspracheri* buruzko iritzirako, ik. Vinson (1875b: 38).

¹⁸⁵ Esaterako, gazt. *-ez* eta port. *-es* atzizki patronimikoei buruzko polemikan (cf. Bonaparte eta Burnell 1882). Bonapartek Larramendiren iritzia —euskarazko instrumentalaren *-ez* atzizki bera direlako alegia (Larramendi 1729: 10-11)— hobesten du eta gogorki aldeztu ere, hainbeste miresten zituen Alemaniako eta Ingalaterrako hizkuntzalariren iritzien kontra hain zuzen. Hau da, gotikozko *-is* genitibotik eratortzen dituen Diez-en teoriaren kontra: “¿Por qué en esta cuestión especial relativa á dos lenguas nativas de Larramendi, y que ha ilustrado con excelentes trabajos gramaticales y lexicológicos, no puede éste tener razon y no tenerla los sabios alemanes?” (Bonaparte & Burnell 1882: 204). Eztabaida honetaz ik. beheerago §4.5.2.3 azpiatalean esaten dena.

¹⁸⁶ Inchausperi buruz zehazki, hona Bonaparteren pasarte hau: “Inchauspe un des hommes les plus profondément versés dans la langue basque, et dont l'autorité doit être considérée, selon nous, comme incontestablement supérieure à celle d'autres linguistes étrangers qui, quelque grand que puisse être leur mérite en fait de linguistique générale, rien sont pas moins des appréciateurs plus ou moins superficiels du vrai caractère de cet intéressant idiome” (Bonaparte 1869b: 159).

dagokienez, hizkuntzalaritza orokorraz badakitela onartzen duen arren, beldur da euskaraz bereziki arduratzen ez diren hauek¹⁸⁷ huts asko egingo ez ote dituzten (Bonaparte 1876: 1). Iritzi hau Hovelacque-ri zuzendurik dago, baina Vinson eta van Eys ere aipatuko ditu beherago (1876: 17, 22).

Izan ere, ikerlari hauek, Bonaparteren ustez, ez dute euskara ongi menperatzen, batik bat “au point de vue scientifique” (1877c: 16; 1877a: 1). Honelako irizpideak behin eta berriz errepikaturik ikusiko ditugu Bonaparteren izkribuetan. Eta, larriago dena, Vinsonek euskara gorroto duela esatera iristen da, euskaldunak bere zenbait ideiarekin¹⁸⁸ bat ez datozelako eta ikerlari honek euskara erabat menperatzen ez duelako (Bonaparte 1877c: 6). Egia da, eta inork ere ez zion merezimendua ukatu,¹⁸⁹ Bonapartek euskararen ezagutza bikaina zuela; baina aitortu ere behar da Printzearen kritika hau hein handi batean gehiegizkoa dirudiela, van Eysek esaterako aski sakon

¹⁸⁷ Ez bera bezala, hogeita hamar urtez jardun izan baitu euskara aztertzen. Jakina, euskararen berri izan zuenetik hasten da kontatzen nonbait, ez zinez euskara aztertzen hasi zenetik, 1855-56. urteen inguruan ziurrenik (Arana Martija 1984: 35). Ik., halaber, 156. oharrean esandakoa.

¹⁸⁸ Campión (1878: 237) zehatzagoa izango da ideia hauen zer-nolakoari dagokionez: “Ojalá en lo sucesivo no tengamos que deplorar, como hasta aquí, en lo mucho bueno que producen los señores á que aludo [= Hovelacque, van Eys eta Vinson — R.G.], un espíritu estrecho y exclusivo que se manifiesta en la denigración metódica y continua de los escritores vascos y no vascos que disienten de sus ideas, en la mal encubierta enemiga hácia la raza euskara, sin duda porque no milita en las filas del racionalismo evolucionista”. Cf., halaber, Vinsonen erantzuna (§4.6.2) eta Granja Pascual (1986: 225); ikus bedi artikulu hau eztabaida horren zenbait alderdiren ikuspegi osagarri baterako.

¹⁸⁹ Egia osoa esango bada, van Eysek eztabaida hauen azken aldian euskararen azaleko ezaguera izatea leporatu zion Bonaparteri: “et avec des notions si superficielles de la langue Basque le Pce. Bonaparte voudrait discuter ce qu’il croit être des questions obscures” (van Eys 1889b: 52).

ezagutzen baitzuen euskara, euskalki idatziak behinik behin (ez, agian, hain sakonki Vinsonek).¹⁹⁰

4.3.2 Metodo zientifikoaz

Metodoari buruzko ardura, esan bezala, oso handia zen garai horretan.¹⁹¹ Aztertzen ari garen autore guztiak sarri askotan mintzo dira metodo zientifikoaz,¹⁹² hala euskalari gehienek erabiltzen ez dutela salatzeke, nola —gutxienetan— egileren baten metodoa goraiatzeko. Lehenago esanaren arabera, van Eysek eta Vinsonek metodo zientifikorik eza hauteman zuten aurreko euskalari gehienen lanetan: “presque tous, enfin, me semblent conçus d’après de tout autres principes que ceux, seul féconds et logiques, de la méthode scientifique, positive et naturelle” (Vinson 1874a: 238). Bonaparteren lanei buruzko iritzia, aitzitik, aski desberdina da autore batarengan eta bestearengan. Van Eysek lan zientifikorik ez egitea, bere uste eta iritzietan soilik oinarriztea leporatzen dio: “Nous avons de nouveau ici une preuve éclatante du manque total d’une base scientifique; ce ne sont pas même des théories, c’est du guesswork, comme on dit si bien en anglais” (van Eys 1890c: 64). Era berean, iritzi hauek egia bakarra eta aldaezina balira bezala azaltzen bide ditu Bonapartek, orakulu baten gisako tonu dogmatikoa erabiltzen duelarik: “On le voit, le Pce. Bonaparte, selon son habitude, ne discute pas; il proclame un dogme [...] une

¹⁹⁰ Cf., hala ere, Mitxelena (1984b).

¹⁹¹ Cf. erakusgarri gisa Unamunoren honako hitzok: “Proceder con método vale tanto como acercarse a la verdad [...]. Hoy necesitamos método, y método riguroso” (1884: 104-105).

¹⁹² Metodo honi erantsitako beste adjektibo batzuk *moderno*, *positivista* eta *naturala* dira. Ik.

parole d’oracle, deux mauvais arguments, et la chose est prouvée!” (van Eys 1889b: 52-53).

Zer esanik ez dago, Bonapartek argudio bertsuak itzultzen dizkio bere erantzunaren azkenean: “je crois y avoir assez prouvé que les mauvais arguments, les dogmes et les paroles d’oracle qu’il [van Eys — R.G.] me reproche lui appartiennent exclusivement” (Bonaparte 1890: 63). Zernahi gisaz, Bonaparteren harrokeria beste autore anitzek ere seinatu dute (ik., esaterako, Luchaire 1877b: 379), bai eta orobat Bonapartek beste autore batzuei egotzi ere (ik. beheago Vinsonez dioena).

Vinsonen kritika bestelakoa da oso, askoz ere samurragoa. Vinsonek (1867: 400) Bonaparteren metodoa —inkestak egiteko txangoak egitea, alegia— euskara ezagutzeko onena dela dio; aitortu behar du, baina, ez dagoela edonoren esku, arazo ekonomikoak direla kausa, hain zuzen. Halaber, Vinsonek Printzearen *Le verbe basque* (1869b) osagabea goraiatzeko du, bildutako datuen aberastasuna eta fidagarritasuna nabarmenduz:

Ce magnifique ouvrage dont l’achèvement doit être ardemment réclamé est indispensable à l’étude du verbe euscarien. C’est le seul qui donne, d’une manière absolument certaine, les formes actuellement en usage dans tous les dialectes basques (Vinson 1875c: 341, 2. oh.)

Azkenik, Ribáryren *Essai*-ren edizioan, Bonaparteren bi mapa famatuei bikainak deritze (Vinson 1877a: xvii). Izan ere, Vinsonek xv-xviii. orrialdeetan euskalkiei buruz ematen dituen datuak oro, dudarik gabe, aipatutako mapetatik bertatik atera

beheraxeago.

ditu. Nolanahi ere den, bistan da hizkuntzari —eta zehazkiago euskarari— buruzko ikuspuntuak Vinsonengan eta Bonaparterengan arras desberdinak, maizenik kontrajarriak direla. Adibide gisa, Ribáryren aipatu lanaren edizioari Printzeak egindako ohar eta zuzenketa ugariak ikustea besterik ez dago (Bonaparte 1877c).

Jarrera bikoitz honen kariaz, ez da harrizkoa Vinsonen bi muturretatik kritikak jasotzea; hots, Bonaparteren aldekoenak eta kontrakorik amorratuenenak:

Je ne m'abaisserai pas à répondre au vieux grognard ou grognon de Ciboure [Duvoisinez ari da — R.G.]; il me reproche surtout de ne pas avoir adopté les théories du prince Bonaparte et d'avoir discuté ses opinions. On sait que, d'autre part, M. Van Eys me reproche le contraire, et m'accuse de traiter le prince L.-L. Bonaparte comme on traitait il y a deux cents ans "le Roi Soleil" (Vinson 1891: 71)

Bestalde, Bonaparteri eskuarki aitortu zaion ezaugarri bat Luchairek ere aintzat hartzen du, datu biltzaile on, zuhur, zehatz eta fidagarri izatea alegia:¹⁹³

Toute publication du prince Bonaparte, si courte qu'elle soit, révèle des faits nouveaux, acquis par cette observation scrupuleuse qui donne une valeur scientifique au plus minime détail. Ses recherches sur le basque, en particulier, sont des modèles d'investigation linguistique, et, sans elles, il faut le reconnaître, les travaux de MM. Vinson et van Eys relatifs à la phonétique, au lexique et à la

¹⁹³ Ik., esaterako, Schuchardten ondoko pasarte hau: "La exactitud y la importancia de las formas verbales atestadas por aquél [= Bonaparteren *Le verbe basque* — R.G.] no sufren mengua por el hecho de no haber él sido siempre feliz en su explicación. Todo lo contrario. Lo que le faltaba de esa facultad adivinadora, y hasta diría artística, de la que tampoco puede prescindir la Filología, le sobra en aptitud y afición de observar la realidad hasta en los más mínimos detalles" (*apud* Riezu 1958: 160-161). Iritzi bertsoak dira Lacombe (1908c: 780), Mitxelena (1964: 25-26) eta Urquijo (1908: 215), besteak beste. Ez dirudi, halere, uste bezain fidagarria izan zenik, bereziki jasotako eskuizkribuetatik argitaratutako bertsoetara aldatu zituenak aintzat hartuz gero; ik. adibide gisa Camino & Gómezek (1992) bildutako testuak.

composition verbale de l'*euscara*, manqueraient, en partie, de la clarté et de la solidité qui les distinguent. (Luchaire 1877b: 378)

Jakina, Bonapartek ezin zuen aurreko iritziaren azken esaldia onartu. Ezin zuen onartu, alegia, berak bildutako materialek beraren ideien aurkako teoriak defendatzen zituzten lanetarako balio zutela, eta honelaxe adierazten du Luchaireri egindako erantzunean:

nous sommes forcés d'avouer que nous ne croyons pas que les linguistes compétents en fait d'euskara puissent voir, dans nos études sur cette langue, quelque chose pouvant servir de base aux idées qui appartiennent en propre à MM. Vinson et van Eys, et qui sont loin, selon nous, de présenter cette solidité que M. Luchaire croit, dans sa compétence en fait de basque, pouvoir leur accorder d'une manière aussi gratuite. [...] nos idées sur la phonétique, sur le verbe et sur la grammaire basque en général, se trouvent confirmées par nos recherches, et [...] les idées de MM. Vinson et van Eys, lorsqu'elles leur appartiennent exclusivement, sont tout à fait insoutenables, soit parce qu'elles reposent sur des faits imaginaires, soit parce qu'elles se trouvent en contradiction avec des faits réels. (Bonaparte 1877a: 1)

Bonaparteren iritziei heldu diegunez, ikus dezagun zer uste zuen Printzeak gainerako euskalariak erabiltzen zuten metodoari buruz. Bonapartek uste du, gorago aditzera eman dudana bezala, batez ere garaiko gramatikari euskaldunek burutzen dituztela euskararen gaineko lan zientifikoak. Aitzitik, euskaraz soilik arduratzen ez diren hizkuntzalariak, kanpotarrak hain zuzen, "amateurrak" baino ez dira. Horrela bada, Vinson (1877a) lanari egindako oharren helburuak zehazten dituelarik, honelaxe ematen du bigarrena:

2°. Châtier le manque de modestie, le ton dogmatique et certaines insinuations qu'un simple amateur s'est trop souvent permises en parlant d'auteurs très-respectables par leurs connaissances linguistiques (Bonaparte 1877c: 65)

Orobatsu van Eysi buruz: “cet amateur de basque” (Bonaparte 1890: 63). Badirudi sarritan Bonaparte ahaztu egiten zela (ahaztu nahi zuela?) bera ere kanpotarra zela eta ez zuela euskara soilik aztertu. Izan ere, euskararekin bide zuen atxikimendu berezia gorabehera,¹⁹⁴ gauza jakina da beste hainbat hizkuntza eta dialektoren testuak ere bildu eta aztertu zituela: Italiakoak, Frantziakoak, Ingalaterrakoak, finougiarrak, etab.¹⁹⁵

Haatik, kanpotarrak (Hovelacque, van Eys eta Vinson batik bat) amateurtzat hartzen baditu ere, Luchaireri dagokionez ñabardura txiki bat eransten du Printzeak; Luchaire asmo oneko amateurra da: “cet amateur bien intentionné” (1877c: 15). Arrazoia begien bistan dago: Luchaire iberismoaren alde agertzen zen. Hortaz, Bonaparte Luchaireren ikuspuntuarekin bat zetorren, baina ez honek proposatzen zituen etimologia gehienekin (*ibid.*).¹⁹⁶

¹⁹⁴ Bonapartek —“el más vascófilo de los vascólogos” deitu izan zaio— euskalduntzat zuen bere burua, maila batean bederen (ik. esaterako §4.6.2). Goraxeago esan dudana bezala, Bonapartek ederki zekien euskaraz eta Euskal Herria maite zuen. Beste alde batetik, ez da ahaztu behar Clemence Richards bere bigarren emazteak, zeinarekin hainbat urtez bizi ondoren 1891. urtean *in articulo mortis* ezkondu baitzen, euskaraz zekiela; izan ere, Clemence Richards Araian, Hondarribian eta Zegaman bizi izana zen bere ahizparekin, Claudio Otaegiren emaztea izan zenarekin alegia.

¹⁹⁵ Bonapartek aztertutako beste hizkera eta dialekto haien lanen zerrendarako, ik. Arana Martija (1991).

¹⁹⁶ Nolanahi ere den, gainerakoei bezala Luchaireri ere “ton dogmatique” izatea egotzen dio (Bonaparte 1877d: 7).

4.3.3 Eztabaidaren moldeez

Honaino jaso diren aipuetan nabari daitekeenez, eztabaidari tonu gogor samarra dario. Zerrenda inolaz ere agortu nahi ez dudalarik, hona hemen erakusgarri gisa autoreon zenbait pasarte bortitz, ironiatsu eta, batzuetan, iraingarri ere. Dударik gabe, Bonaparte eta van Eys dira “maisuk” honelako adierazpideak erabiltzen. Esaterako, lehenbizikoa ondoko hiperbole topikoez baliatzen da maiz, kritikatu nahi dituen lanen huts ugariak azpimarratzeko:

Si nous voulions relever toutes les inexactitudes, toutes les fausses appréciations, et surtout toutes les erreurs dont fourmille la compilation de M. Hovelacque [1876 — R.G.], il nous faudrait écrire un livre plus volumineux que celui qu’il vient de publier. (Bonaparte 1876: 23)

Edo hurrengo pasarte honetan:

je n’ai pas voulu faire une critique des ouvrages de M. Van Eys, car la critique m’aurait pris plus de temps que de composer un nouveau dictionnaire. (Charenceyri zuzendutako gutun batean (1884/04/10); *apud* Lacombe 1908c: 779)

Orobatsu Vinsonek (1877a: xii) proposaturiko euskararen silaba zaharraren egitura (CV) gaitzesten duelarik:¹⁹⁷ “Il n’y a à tout cela qu’un petit inconvénient, le manque

¹⁹⁷ Bidenabar, diodan CV silaba-egitura hori proposatzeko, Vinson euskararen hiru ezaugarri fonologikotan oinarritzen dela:

- i. Kontsonante geminaturik eza.
- ii. Euskarak kontsonante-taldeen aurkako joera (“aversion”) izatea.
- iii. Maileguetako hitz azkeneko herskariei bokal epentetiko bat eranstea.

Bonapartek, bere aldetik, bigarren ezaugarriari murriztapenak ezartzen dizkio: batetik, silaba bakarreoetan *-ntz*, *-rtz*, *-st*, etab. ditugu, eta, bestetik, *br*, *pr*, *gr*, *kr*, eta zenbait euskalkitan *zr*, *shr*, *tzr*, *chr*, *nr* taldeak ere bai (azken hauek espainieratik, gaskoitik edo frantsesetik mailegatuak ezin izan

absolu de preuves. Et voilà la science que l'on ose appeler moderne et positive!” (Bonaparte 1877c: 7). Edo, Vinsonek berak euskarazko *bizarria* hitza gaztelaniatik mailegatu dela esaten duenean,¹⁹⁸ honelaxe erantzuten dio: “Qu'en savez-vous?” (1877c: 53). Bestalde, Abbadieri zuzendutako gutun batean Luchaireren lan baten iruzkina (Luchaire 1877b, alegia) “passablement bête” dela diotso (cf. Lacombe 1908). Baina, zalantzarik gabe, eztenkadarik zorrotzenak van Eysi sartzen dizkio. Esaterako, Campióni zuzendutako gutun batean euskalari holandarrari buruz honako hau dioelarik:

Vous avez grand tort, selon moi, de vous abaisser jusqu'à Mr. van Eys. Ce que cet intrus de la science dit de bon sur le basque ne lui appartient pas, et tout ce qui lui appartient est plus que mauvais. (cf. Lacombe 1932: 194)¹⁹⁹

Era berean, van Eysen lanetan pasarte bortitzik eta ironiaz beterik ez da falta.

Besteak beste, Inchausperi buruzko honako hau:

Si M. l'abbé n'a rien découvert de nouveau dans notre “Essai de gr. basq.” il doit plutôt s'en prendre à lui-même qu'à nous; s'il l'avait lu, il y aurait trouvé, croyons

daitezkeelarik). Nolanahi izanik, euskara zaharrak zenbait kontsonante-talde onartzen bide zituen (Mitxelena 1977: 375 eta hh.), alabaina Printzearen argudiatzean horrelakoak eta zalantzarik gabe talde berriagoak direnak (sinkoparen ondorio edota mailegatuak direnak) nahasten dira, gaur egun ikuspegi diakronikoa deritzagunaren garrantziaz batere ohartu gabe.

¹⁹⁸ Cf. “le substantif *bizarria* ‘vaillance’ emprunté à l'espagnol” (Vinson 1877a: 119). Cf., bestela, Corominasen iritzia: “Del it. *bizarro* ‘fogoso’, propiamente ‘iracundo, furioso’, S. XIII, deriv. de *bizza* ‘ira instantánea, rabieta’, de origen incierto, quizá voz de creación expresiva; el fr. *bizarre* ‘estrabótico’ procede también de Italia. DERIV.: *Bizarria*, 1569” (1983: s.u. *bizarro*). Ordea, Bonapartek bidezkoago irizten zion, erabat ziur ez bazegoen ere, euskarazko *bizar*-etik eratortzeari (1877c: 53); honela, Etxabek abiatu eta Larramendiren bitartez Diezek onartu zuen iritziari atxiki zitzaion Printzea ere.

¹⁹⁹ Cf., halaber, goraxeago “tonu dogmatikoaz” esandakoa.

nous, plusieurs choses. On ne peut malheureusement contenter tout le monde. (van Eys 1873a: xvi)

Edo Bonaparteri buruzko beste pasarte hau, nire ustez oso ironia garratza darabilena:

Pour donner un échantillon des explications grammaticales du prince Bonaparte, nous citerons un petit paragraphe, auquel nous avons fait allusion dans notre Etude sur les Auxiliaires [1875 — R.G.], & qui contient autant d’erreurs que de propositions. (van Eys 1879: x)²⁰⁰

4.3.4 Euskalarien metodoez

Eztabaida hauetan metodologiak izan zituen lekua eta garrantzia kontuan hartuko baditugu, bakoitzak metodoari buruz esaten dituenak ere ikusi beharra dago, bai norberak erabiltzen duenari buruzkoak, baita inork erabili beharko lukeenari buruzkoak ere. Hasteko, Vinsonek bi hizkuntzaren edo gehiagoren arteko ahaidetasuna (*genetikoa* erantsi beharko?) frogatzeko hizkuntzalaritza historikoak finkatu zituen irizpide berberak aipatzen ditu:

La parenté de deux ou plusieurs langues ne saurait en effet résulter uniquement d’une même physionomie extérieure; pour conclure à une communauté d’origine, il est indispensable que, comparés à un même degré de développement, leurs principaux éléments grammaticaux soient non-seulement analogues par leur fonction, mais encore qu’ils se ressemblent phonétiquement d’une manière suffisante pour rendre admissible l’hypothèse de leur identité primitive. Il sera sage de ne point affirmer que ces langues proviennent de la même source, si, de l’une à l’autre, les racines significatives, qui sont après tout le fonds propre, la haute origine

²⁰⁰ Jarraian, van Eysek Bonaparteren pasartea dakar, eta ondoren “proposition” bakoitzari buruzko iruzkinak, bakoitzaren aurretik honelako buru llabur bezain zorrotzak ezarririk: “1^{re} proposition & 1^r erreur. [...] 2^{me} proposition & 2^{me} erreur. [...] 3^{me} proposition & 3^{me} erreur. [...] 4^{me} proposition & 4^{me} erreur” (1879: x-xi).

du langage, se trouvent être totalement différentes. Jusqu'à présent, aucune langue n'a présenté avec le basque une similitude de racines analogue à celle qu'on a depuis longtemps constatée entre le sanscrit, le grec et le gotique ou entre l'arabe et l'hébreu. (Vinson 1877a: xviii-xix)

Aipu luze honetan aurreko euskalaritzaren kritika eta ikerketa berriek jarraitu behar duten bidearen proposamena kausitzen dugu. Izan ere, euskararen ahaideak bilatzeko aurreko ahaleginak —eta ondorengo hainbat ere—, kasurik onenetan, hitz banaka batzuen antz fonetikoan oinarritzen ziren. Erkatzen ziren hitzak, bestalde, edozein euskalkitakoak eta garaitakoak izan zitezkeen, beste hizkuntzako edo hizkuntzetakoak garai desberdinekoak izanagatik. Gainera, askotan, erkatutako hitzen esanahiak ere desberdinak izateak ez zuen eragozpen handirik sorrarazten. Vinsonek, berriz, honelako lan alferrekoen aurrean, zenbait hizkuntzaren artean ahaidetasuna dagoela baieztatu ahal izateko bete beharrezko baldintzak ezartzen saiatzen da:

- a. Lehenik, erkatu nahi diren hizkuntzek bilakaera maila berekoak izan behar dute (“comparés à un même degré de développement”); hots, Schleicher-en teorien arabera, hizkuntza bat nahitaez *isolatzaile* → *eransle* → *flexibo* → *garai historiko* aldietatik igarotzen baldin bada, hizkuntzak prozesu horretako maila beretik igarotzen direlarik hartu behar dira, erkakizun izango badira.²⁰¹ Ondorioz, euskara hizkuntza eranslea izanik, hizkuntza eransleen artean soilik bilatu ahal izango dira haren ahaideak.

²⁰¹ Cf. Unamunok (1884: 104-105) irizpide honi egindako iruzkina.

- b. Bigarrenik, gramatika elementu nagusiak —eta ez “hitzak” bakarrik— erkatu behar dira; gramatika konparatzailearen abiapuntua dugu hau, gorago ikusi denez (ik. §4.2.1).
- c. Hirugarrenik, ez da nahikoa elementuok funtzio bertsua betetzea; gainera, euren antzekotasun fonetikoak funtzio bereko elementuek jatorri berbera dutela frogatzeko adinekoa izan behar du.
- d. Azkenik, esanahidun erroen (“racines significatives”) artean ere, parekotasun franko bildu behar da.

Baldintza hauek guztiek garaiko ikerkuntza metodoetan aldaketa ikaragarria sartu bazuten ere, gaur egun badakigu ez direla nahikoak hizkuntzen arteko ahaidetasun genealogikoa, den abstrakzio kontua dela, erabakitzeke (cf., esaterako, Mitxelena 1964: 161 eta hh.).

Beste toki batean, Vinsonek proposatzen du euskara eta iberiera egokiro erkatu baino lehenago ezinbestekoa dela euskararen berreraiketan ahalik eta gibelenera jotzea, euskalkiak aztertuz eta hizkuntzalaritza berriaren metodoak erabiliz. Hemen berriro ere halako axola erakusten du ikuspegi historikoaz:

Si la langue des inscriptions ibériennes est parente du basque, il faudra, pour pouvoir utilement l'en rapprocher, avoir remonté aussi loin que possible dans l'histoire de la langue euscarienne; c'est là un travail préparatoire essentiel, mais qui n'est point fait encore. Par conséquent, il convient avant tout de s'appliquer à reconstituer, par une analyse rigoureuse des dialectes actuels conformément à la discipline sévère de la science contemporaine, l'état auquel le basque était parvenu avant sa séparation en dialectes. (Vinson 1874c: 9)

Bestalde, Vinsonek euskara aztertzekeo bazterretako euskalkien (zehazki bizkaieraren eta zubereraren) ikerketak duen garrantzia ere nabarmentzen du:

Le souletin, qui a développé ainsi bien des séries de changements phonétiques, en est devenu d'autant plus important pour l'étude de la langue, et je persiste à prétendre que, si l'on ne peut comprendre les huit dialectes dans une étude générale, il faut y faire entrer les dialectes extrêmes; à ce point de vue, le souletin et le biscayen, dont les verbes notamment sont très-riches et très-instructifs, doivent très-certainement venir avant les dialectes navarrais, tous mixtes ou intermédiaires. (1875c: 346)

Horrela, badirudi Johannes Schmidt-en *Wellentheorie* famatura²⁰² edo, areago, Bartoli-ren eta Italiako neolinguistikaren Bazterguneen Irizpidera²⁰³ hurbiltzen dela.

Van Eysek, bere aldetik, honako esaldi esanguratsu hau eskaintzen digu: “les mots disent assez leur propre histoire” (1873a: xxxvi). Zer esanik ez, geroago “barne berreraiketa” deitura izango zuenaz ari da.²⁰⁴ Eta esanak betez, *-a* artikularen etimologia **ar* dela erakutsi zuen (izartxoa neuk jarri dut, jakina), euskararen barneko frogak ematen dituelarik (van Eys 1873b).

²⁰² J. Schmidt-ek *Die Verwandtschaftsnerhältnisse der indogermanischen Sprachen* (Weimar, 1872) liburuan proposatu zuen lehen aldiz Uhinen Teoria (cf. Bynon 1981: 266 eta hh.), aitzindaririk izan bazuen ere (Mitzelena 1976: 78).

²⁰³ Honetan ere formulazioaren aurretik ideia sumatu zuenik ez da falta, Schuchardt esaterako (Mitzelena 1976: 75, 3. oh.).

²⁰⁴ Erka bedi van Eysen aipatu pasartea Mitxelenaren beste honekin: “desde el punto de vista diacrónico [la lengua — R.G.] constituye un sistema que retiene una cierta cantidad de información sobre su propio pasado, sobre sus fases anteriores” (Mitzelena 1963: 11).

Azkenik, Bonaparte printzeak, zenbait izkributan barreiaturik (ik., batez ere, 1876 eta 1877b), bere metodoaz dioena agertu nahi nuke. Lehenbiziko berezitasuna, jakina denez, inkestez baliatzea da; hots, hiztunengandik berengandik jasotako datuak biltzen ditu “sur les lieux mêmes” (1876: 19). Bigarrenik, ahalik eta hizkera edo euskalki nahasketa gutxien duten hiztunengandik soilik jasotzen saiatzen da (1877b: 5). Hirugarrenik, datuak behin eta berriz eta arreta handiz egiaztatzen ditu, datuon balioaz ziurtasun guztia izan artean:

Ce procédé a été répété quelquefois jusqu’à trois fois avec des personnes différentes, et tous ces terminatifs verbaux n’étaient admis que lorsque l’accord était complet entre les habitants originaires de chaque localité. (1876: 19)

Edo, Gipuzkoako hizkerez bildutako itzulpen eta datuei buruz:

travaux qui ont tous été faits ou rédigés avec le plus grand soin sous la dictée des gens du pays, et dont l’exactitude a été constatée à plusieurs reprises par des personnes autres que les traducteurs et également compétentes. (1877b: 32)

Metodo berdina darabil Lardizabal, Zabala eta Inchauspe gramatikariek bildutako adizkiak egiaztatzeko (1876: 19). Dakusagunez, datu-bilketaren xehetasunik ñimiñoenak ere zaintzen ditu.²⁰⁵ Horregatik, agian, ez zaio arrazoirik falta bere azterketek gainerako hizkuntzalarien —zehazki Vinsonen— euskal dialektologiako lanak zuzentzeko eskubidea ematen diotela esaten duenean (1877b: 32). Damurik, baina, eskubide hori ez zuen beti behar bezain zintzo bete eta, esaterako, batzuetan

²⁰⁵ Adibidez, dioelarik euskalkiak azterterakoan kontuan hartu behar dela ez bakarrik euskalki bakoitzean zein hitz erabiltzen den (“non-seulement la différence des mots en eux-mêmes”), baita hitz bakoitzaren adiera desberdinak (“acception”) eta bai hitz bakoitzak edo adiera bakoitzak euskalki batean eta bestean duen maiztasuna ere (Bonaparte 1877b: 28-29).

bere laguntzaileek bidalitako itzulpenak “sur les lieux mêmes” zuzentzen zituen, hizkera bakoitzaren bateratasuna-edo lortzeko asmoz, eta behin baino gehiagotan zenbait hizkeratako aldaera batzuei ateak itxiz.²⁰⁶

Atal hau amaitzeko, bi hitz esan nahi nituzke autoreok aitortzen zituzten maisuak zeintzuk diren aditzera emateko. Vinsonek (1877a: xxii) hizkuntzalaritza berriaren maisuen zerrenda bat ematen du. Hona izenak: Schleicher (dagoeneko ikusia), Curtius, Chavée, Hovelacque eta Pezzi. Bonaparte printzeak aurreko lanari egin oharretan (Bonaparte 1877c) Vinsonen “maisu” guztiak onartzen ditu, Chavée eta Hovelacque izan ezik, ezaguna denez, *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée* aldizkariaren sortzaileak izan zirenak. Hovelacque baztertzeko arrazoiak, atal honetan zehar garbi igarriko direla espero dut. Ilunagoa deritzot, ordea, Chavée arbuiatzeko zioari.

Baina maisuei bagaiozkie, eztabaidarik sutsuena Humboldten inguruan gertatu zen. Bonaparte printzeak (1877c: 15) hizkuntzalaritzaren erraldoi (“un des géants de la linguistique”) deitzen dio eta prusiarraren euskararen ezaguera goraiatzeko (1877c:

²⁰⁶ Honen froga gisa, erka bitez P. Hualde Mayok erronkarierara itzulitako Asteteren eskuizkribua (Nafarroako Artxibo Orokorra, B-117 signatura) eta bertatik Bonapartek argitaratutako bertsioa (Bonaparte 1869a), orain Camino & Gómez (1992) lanean elkarrekin eta Aezkoako eta Zaraitzuko eskuizkribuekin batera aurki daitezkeenak. Azkuek Printzearen zuzenketak begi onez ikusi bide zituen: “He cotejado el manuscrito de este catecismo con un ejemplar impreso y se ve que el príncipe comprobó y corrigió con acierto no pocas locuciones del traductor” (Azkue 1931: 257). Jakina, itzulpenok Bonaparteren eta Azkueren baitan zuten helburua ere kontuan hartzekoa da. Nolanahi ere, nire iritziz hau oso behin-behinekoa, inpresionista da; Bonaparteren eskuizkribu eta argitalpen guztien erkaketa sakon baten emaitzek berretsi edo gaitzetsi beharko lukete.

17). Azken laudorio honen bidez Bonapartek gainerako euskalari kanpotarrendandik (Hovelacque, van Eys, Vinson...) bereizi nahi du Humboldt. Maisutasun zientifiko honi aurka egiteko, frogak eman beharko dituzte besteak:

Lorsqu'on nous dit que les opinions de ce grand linguiste sont partiellement contestées, nous n'hésitons pas à répondre qu'il ne suffit pas, dans ce cas, de contester une théorie généralement acceptée par les savants, mais qu'il faut, en même temps, produire arguments qui, par leur valeur intrinsèque, puissent, en suppléant au manque absolu d'autorité scientifique de ceux qui contestent, détruire la validité des raisons d'un grand maître. (*ibid.*)

Orobat, zientziaren ikuspuntu “demokratiko” honekin jarraituz, eta Luchairek euskara Iparraldetik Hegoaldera igaro zela eta ez garai hartan iritzi nagusia zen alderantzizkoa (ik. beherago §4.7.2.2) esaten duelarik, honako hauxe adierazten du Printzeak: “C’est à M. Luchaire à prouver le contraire, et non pas à nous à démontrer ce qui est généralement admis” (Bonaparte 1877a: 7). Ikusiko denez, Humboldten aldeko eta kontrakoak iberismoaren aldeko eta kontrakoak berak dira, oro har.

4.4 Euskara eta mundu zabaleko beste hizkuntzak

4.4.1 Euskara eta hizkuntza eransleak

Hizkuntzalaritza berriaren ekarpenekin, hizkuntzen sailkapen tipologikoarekin batik bat, erabat aldatu zen euskararen eta beste hizkuntza batzuen arteko erkaketa-saioen ikuspegia. Lehenago, erkaketa-saioak inguruko hizkuntzetara mugatu ohi ziren, bai garai hartan bizi zirenetara (frantsesa, gaskoia eta gaztelania) bai ordurako hilik zeudenetara (iberiera eta latina, kasu). Aurrerantzean, ordea, mundu zabaleko beste hainbat hizkuntza bihurtuko ziren erkagai. Aztertzen ari garen autore guztiak bat datoz puntu batean, euskara hizkuntza eransleen artean kokatu behar delakoan

alegia.²⁰⁷ Baina hortxe bukatzen da adostasuna. Puntu horretatik at iritzi eta jokabide desberdinak azaltzen dira, honako hiru azpiatal hauetan banatu ditudanak: (a) euskara zein hizkuntza eranslerekin erkatzen duten, (b) hizkuntza eransleen multzoan non kokatu behar den eta, azken honi loturik, (c) turanismoaren arazoa.

Euskararen eta beste hizkuntza batzuen arteko erkaketa-saioretatik bi arazo saihestu nahi ditut oraingoz. Iberierarena batetik, aurrerago (§4.5) berrartuko baitut, eta erkaketaren bidez euskararen ahaideak bilatu nahi dituztenak bestetik, hala nola euskararen eta hizkuntza amerindiarren arteko ahaidetasuna aldarrikatzen duen Charenceyren lana (1867). Charenceyk adar eusko-algiko bat proposatzen du, baina Vinsonek kritikatzeko ondorio lasterregiak ateratzen dituelako (Vinson 1867: 395) eta erro komunik ez dutelako (1874: 9). Izan ere, Vinsonen iritziz euskararen ahaideak bilatu aurretik, euskara bera ongi aztertu beharra dago:

Du reste, je suis d’avis que l’on ne connaît pas encore suffisamment la nature intime du basque pour pouvoir prononcer définitivement sur une question aussi importante. Il faut avant tout s’attacher à terminer l’analyse du basque. (1867: 397)²⁰⁸

²⁰⁷ Cf., esaterako, ondoko baieztapenok: “A peu près la seule langue agglutinante en Europe [...] la langue basque” (van Eys 1867: v), “Así quedan distinguidas las lenguas en *monosilábicas, aglutinantes* y *flexionales* [...]. En cuanto al vascuence, pertenece al grupo segundo, y solo con los idiomas de la misma clase conviene compararlo” (Vinson 1879: 147), “To the Basque language [...], constituting by itself alone a whole family (the Iberian) and the whole Iberic stem, which is one of the agglutinative class” (Bonaparte 1884-85: 1).

²⁰⁸ Antzeko ideia agertzen du Unamunok ondoko esaldian: “Antes de comparar el idioma vasco a otros, es menester compararle a sí mismo” (1884: 108).

Esan nahi baitu euskararen lege fonetikoak (“nature”) ongi ezagutu beharra dagoela. Nolanahi ere den, Vinsonek ez zion uko egin euskara gainerako hizkuntza eransleekin erkatzeari, antzekotasun formal horietatik euskararen hainbat ezaugarri hobeto finka zitezkeelakoan. Horrela bada, euskarak tamilerarekin (1867: 395-396)²⁰⁹ eta hizkuntza amerindiarrekin (Vinson 1875b) komunean dituen zenbait puntu eta bereizgarri aurkezten ditu, beti ere argi utziz hori guztia ez dela nahikoa ahaidetasuna frogatzeko:

Du résumé grammatical et des considérations qui précèdent, il se dégage nettement, si je ne m’abuse, cette conclusion qu’entre le basque et les langues américaines, il n’existe aucune parenté réelle. Les analogies morphologiques constatées entre les deux groupes ne compensent en aucune façon les dissemblances relevées et ne suppléent pas à l’incompatibilité des vocabulaires. (1875b: 37-38)²¹⁰

Bonaparte, jakina denez, euskararen eta fino-ugrieraren arteko erlazioez arduratu zen hasiera-hasieratik (Bonaparte 1862). Printzearen ondoriorik garrantzitsuenak hauexek dira: batetik, euskal aditza hizkuntza fino-ugriarrenak baino osoago eta argiagoa dela (1862: 14-25) eta, bestetik, bai euskaraz bai fino-ugrieraz bokal harmonia²¹¹ gertatzen dela, bakoitzean ezaugarri desberdinak baditu ere (1862: 25-

²⁰⁹ Vinsonek ederki ezagutzen zuen tamilera; oroit bedi tamilera eta hindustanera irakatsi zituela Parisko *École des langues orientales vivantes* delakoan (Desmet 1996: 397).

²¹⁰ Gogora bitez Vinsonek ahaidetasun genealogikoa frogatzeko eskatzen zituen baldintzak (ik. §4.3.4.).

²¹¹ Cf.: “En la bibliografía vascológica no se ha hablado de armonía vocálica, o no con el sentido que al término se le da en urálico, en turco, en mongol o en muchas otras lenguas africanas, asiáticas y amerindias. Ocasionalmente se ha aludido bajo esa denominación a fenómenos de ‘acomodación de vocales’ (la ‘vowel interaction’ de de Rijk 1972 y Hualde & Gaminde 1997) entre la -V final de tema u la -a del artículo” (Lakarra 2005: 436).

46). Lehenbiziko ondorioari dagokionez, euskal aditzaren berezitasunak ondoko hauek dira: adizkietan subjektua eta objektu zuzena ez ezik, zeharkakoa ere islatzen da (“conjugaison objective pronominale à régime direct et indirect à la fois”, 1862: 21);²¹² pertsona guztien arteko konbinaketak onartzen ditu²¹³ ia nahasketarik gabe²¹⁴ (1862: 15), eta tratamendu desberdinak bereizten ditu.²¹⁵ Bigarrenik, euskarazko bokal harmonia deituaren aldakuntzen berri zehatza —euskalki bakoitzaren egoera barne— eta fino-ugrieraren jokabidea laburki aipatu ondoren, honelaxe adierazten du bien arteko desberdintasuna:

En effet la sympathie des voyelles ne se manifeste en basque qu’entre celles d’un groupe différent, tandis que dans les langues finnoises elle a lieu entre les voyelles d’un même groupe.

²¹² Vinson ere ohartu zen bereizgarri honetaz, eta honelaxe azaldu zuen: “C’est une simple extension du principe d’agglutination, commun aux langues des deux classes linguistiques supérieures, c’est à dire du développement formel” (Vinson 1874a: 240). Hau dela eta, Vinsonek terminologia bereizketa bat eranstean du: semitikoak eta fino-ugrierak —subjektua eta objektu zuzena islatzen dituztenak— “conjugaison objective pronominale” dute; euskarak, ordea, zeharkako objektua bakarrik ere isla baitezake, “conjugaison attributive pronominale” ere badu (*ibid.*).

²¹³ Beste leku batean (Bonaparte 1869b: 83) dioenez, Leizarragak erabilitako *narauanac*, *cerauzquietet*, *baicrauzquió* eta gainerakoek NOR-NORI-NORK deritzagun paradigmaren lehen eta bigarren pertsonako objektu zuzena duten adizkiak ere bazeudela erakusten dute: “Les terminatifs à régime direct et à régime indirect à la fois ne peuvent présenter le régime directe qu’à la troisième personne, tandis que le régime indirect peut se rapporter à la troisième tout aussi bien qu’à la première et à la seconde [...]. Il n’en a pas été toujours ainsi”. Diodan, bidenabar, Bonapartek Leizarragaren *Testamentu Berria* Ginebrako Elizak burututako bertsiotik itzuli zela seinatu zuela lehen aldiz (*ibid.*); cf., halaber, Bonaparte (1876: 11) eta Ruiz Arzalluz (1990).

²¹⁴ Salbuespen bakarra *zaituzte* da (‘haiek zu’ eta ‘hark zue’).

²¹⁵ Bonapartek *alokutibo* izena proposatu zuen, lehenbiziko aldiz nik dakidala (cf. Alberdi 1986: 169-170). Bost tratamenduak aipatzen ditu Printzeak dagoeneko: “indéfini”, “masculin”, “féminin”, “respectueux” eta “diminutif” (1862: 19-21).

Les dures avec les douces et les douces avec les dures, c'est là la règle du basque: l'ANTAGONISME.

Les dures avec les dures et les douces avec les douces est celle des langues finnoises: le DUALISME. (Bonaparte 1862: 45-46)²¹⁶

Halaber, Bonapartek ohartarazten du bokal harmonia ez dela euskararen hizkera guztietan gertatzen, ezta hizkuntza fino-ugriar guztietan ere (1876: 22-23). Haatik, gertatzen denetan aldaketa erregularrak dira, nahiz eta desberdinak izan euskaraz eta fino-ugriaraz (1869b: xxxi).

Deklinabidearen eta aditzaren azterketan oinarriturik, Bonapartek uste du hizkuntza fino-ugriarren artean euskararen antz handiena duena ez dela hungariera —Hovelacquek zioen bezala— baizik eta morduinera eta, bigarrenik, vogulera (1876: 3-4).

Van Eys ere ez zitzaion hizkuntz erkaketaren tentazioari itzuri, nahiz eta nire ustetan ironia apur batez kutsaturik egon. Izan ere, bere gramatikan, bai euskarak eta bai mongolierak dituzten zenbait ezaugarri ematen dituenean (van Eys 1873a: xx-xxi), nonbait erakutsi nahi du euskarak edozein hizkuntzarekin izan dezakeela antza eta, hala ere, horrek ez duela esan nahi ahaidetasunik badagoela.²¹⁷

²¹⁶ Bokal *gogorak* (“dures”) *e*, *a* eta *o* dira; *leunak* (“douces”), berriz, *i* eta *u* (1862: 41-44): “En ‘semea’ *le fils*, l’*e* se change en *i* dans les variétés qui emploient *semia*, parceque l’*i*, voyelle douce, s’harmonise avec l’*a*, voyelle dure, tandis que dans ‘mendie’, *la montagne*, l’*a* dur de la forme naturelle *mendia* s’est changé en *e* pour s’harmoniser avec l’*i*, voyelle douce” (Bonaparte 1862: 43-44).

²¹⁷ Oso antzeko jarrera aurki liteke, aldeak alde, Trasken euskara eta hungarieraren artean burutu zuen *reductio ad absurdum* ezagunean (Trask 1997: 412-414). Unamunok (1884: 100-101), hala ere, van

Azkenik, Luchairek (1879: 109, 1. oh.), aipatu ditudan zenbait erkaketa-saioren berri eman ondoren, euskarak hizkuntza indoeuropar eta semitikoekin dukeen antza zertan den argitu nahi du.²¹⁸ Izan ere, hiztegi mailan gertatzen dira eta, maileguak ez direnean, kasualitateari zor zaizkie, besterik ez. Luchairek espresuki esaten ez badu ere, badirudi oharpen hau, besteak beste, Chahoren (1836a) teoriak errefusatzera datorrela.

4.4.2 Euskararen sailkapen tipologikoa finduz

Vinsonen fino-ugriarren eta hizkuntza amerindiarren artean kokatu zuen euskara:

c'est une langue agglutinante et incorporante, avec des tendances au polysynthétisme. Elle se place par conséquent, dans la seconde grande classe morphologique des linguistes, entre les langues finnoises et celles de l'Amérique.
(1877a: x)

Izan ere, Vinsonen iritziz, hizkuntza fino-ugriarrak atxikitzaileak (“incorporante”) soilik direlarik, amerindiarrek atxikitzaileak ez ezik polisintetikoak ere badira (Vinson 1877a: xviii). Bi hitz hauen adierak nahiko nahasiak daude eta sarri askotan esanahikide bezala erabili izan dira. Dena den, oraingoan Vinsonen (1877a: xiv) ematen dizkien balioekin ulertu behar ditugu. Alegia, hizkuntza polisintetikoak dira hitz elkarketan laburketa ugari dituztenak, osagaien mugen artean nolabaiteko nahasketa gertatzen delarik. Atxikitzaileak, aldiz, aditz-jokoan objektua adierazten

Eysen turanismoaren aldeko jarrera ikusi zuen pasarte horretan.

²¹⁸ Alde batera uzten dut akitanierari buruz utzi zigun ikerketa bikaina (Luchaire 1877a), eztabaidagai hauetatik urrun samar geratzen baita, oro har.

dutenak dira.²¹⁹ Esan gabe doa euskarak bigarren hauen berezitasuna ezin hobeto betetzen duela, euskal aditza objektu zuzenarekin ez ezik zeharkakoarekin ere komunztatzen baita. Gainera, euskal hitz elkarketan *shandi* fenomenoak ere ez dira falta, eskimoaren mailara, esaterako, iristen ez bada ere. Beraz, atxikitzaileak eta polisintetikoak hizkuntza eransleak direlarik, eransteke ahalmenaren arabera sailka daiteke talde hau. Goranzko mailaketa hauxe ematen du Vinsonek hurrengo pasartean:

le groupe dravidien très-pauvre en formes, le groupe altaïque déjà incorporant, le groupe basque (je ne dis pas ibérien, le sens de ce dernier mot est encore indéterminé) pleinement incorporant et tendant au polysynthétisme, enfin le groupe américain tout à fait polysynthétique. Je n'indique que quatre anneaux de la chaîne; je ne puis ni ne voudrais donner une nomenclature complète. (Vinson 1875b: 38)

Nolanahi izanik, Vinsonek garbi utzi nahi du, esan bezala, ez dela ahaidetasun genetikoaz mintzo:

Entre chaque anneau, il n'y a aucune parenté nécessaire, pas plus qu'il n'en existe entre les dialectes qui se groupent sous chaque anneau. (*ibid.*)

Edo:

Mais il n'en faudrait pas conclure que l'*escuara* soit un proche parent du finnois ou du magyare, de l'algonquin ou de l'iroquois. (Vinson 1877a: xviii)

Egia esan, Vinsonek oso ongi bereizten ditu bi sailkapen motak bere lanetan darabilen terminologiaren bitartez: *famille*, *parent*, etab. ahaidetasunezko edo

²¹⁹ Definizio hauek, Vinsonek Sayce-rengandik hartzen ditu (cf. Vinson 1875b: 37; 1877a: 105). Nolanahi ere den, Vinsonek ez du uste hizkuntza polisintetikoek eta atxikitzaileek laugarren talde bat, eransleetatik berezia, osatu behar dutenik (1875b: 33-37).

genetikorako, eta *classe* zein *groupe* egiturazko edo tipologikorako (ik. §4.2.2). Bestalde, Vinson ohartzen da euskaraz zenbait flexio-fenomeno gertatzen direla: “Pour moi, le basque me paraît être une langue agglutinante, mais dans une période voisine de la flexion” (1867: 401). Dena den, ez du zehaztasun gehiagorik eskaintzen.

Aitzitik, Bonapartek flexio-adibideak bilatzen ditu euskal aditz-jokoan. Alde batetik, izenarena ez bezala, aditzaren erroa (“thème”) alda daiteke:

En effet, le changement que l’on observe tantôt dans la voyelle, tantôt dans la consonne du thème verbal, prouve que même une langue aussi agglutinante que le basque peut offrir des exemples de flexion. (Bonaparte 1877c: 8)

Esaterako, *dut* / *dit* bikotea $u > i$ aldaketaren bidez azaltzen du Bonapartek, antza denez azkeneko *-t* bakoitzaren balio desberdinaz ohartzeke eta latinezko *egit* / *agit* bikotearekin (aditz erroaniztunekin alegia) parekatzen duelarik. Adizki alokutiboek ere ematen diote flexio-adibiderik euskaraz: “On peut même aller jusqu’à dire que les terminatifs allocutifs basques suivent souvent la méthode des langues flexives” (*ibid.*). Adibide bat besterik ez dut ekarriko hona, nire iritziz nahiko adierazgarria dena bestalde:

Nous avons [...] dans *ziokat*, allocutif masculin de *diot* “je le lui ai”, non seulement le suffixe pronominal *t* “je” et *k* “toi” allocutif, mais aussi un vrai phénomène de flexion dans le changement de *d* en *z*. (1877c: 29)

Bestetan bezala, Bonapartek datuen azterketa zuzena ematen ez badu ere, oraingoan intuizio ona behintzat baduela aitortu behar zaio.

4.4.3 Euskara eta turanismoa

Bonaparteren aburuz, euskarak bakarrik adar bat osatzen du, beste zenbait adarrekin batera hizkuntza turanikoen saila osatzen duelarik:

Les langues ouraliques et les langues altaïques en général, appartiennent d'ailleurs à une souche toute à fait distincte de celle constituée par le basque à lui tout seul, qui forme à son tour, avec d'autres souches aussi indépendantes que lui, la grande classe des langues qui ne sont ni aryaniques ni sémitiques, et que l'on qualifie tantôt de "langues touraniennes" dans l'acception la plus ample de ce mot, tantôt de "langues agglutinatives", de "langues allophylliennes", etc. (Bonaparte 1876: 4)

Esan beharra dago "famille", "souche" eta antzeko berbak erabiltzen dituen arren, Printzeak ez duela esan nahi hizkuntza turaniko guztien artean ahaidetasun genetikoa dagoenik. Astiroago aztertuko dut turanismoaren arazo hau.

Turanikoaren asmakizuna Max Müller-i zor zitzaion (Müller 1854). Vinsonek dioskunez (1877a: xix), familia horretan ez ariarrak —hots, ez indoeuroparrak—, ez semitikoak, ez txinera diren hizkuntzak sartu nahi dira. Ribàryren *Essai*-ren hitzaurrean, Vinson biziki gogor agertzen da turanismozaleen aurka. Beraren iritziz, *turanismo* hitzak ez du ezer esan nahi eta jatorrizko hizkuntza bakarraren ameskerian sinesten dutenen asmakeria besterik ez da (1877a: ix). Hortaz, turanismoaren aldekoak aurreko mendeetan hizkuntza guztiak hebreeratik zetozela ziotenekin parekatzen ditu (1877a: xix). Azken batean, teoria metafisiko bat besterik ez da.

Bonaparteren oharrek (1877c) banan-banan erantzuten diete Vinsonen iritzioi. Lehenengo eta behin, Vinsonek *turanismo* hitzak zer esan nahi duen ez dakien bezalaxe, berak ez daki *metafisiko* hitzak zer esan nahi duen Vinsonen ahotan:

Il n’y a rien que l’on redoute autant que l’inconnu; et de même que M. Vinson ignore ce que peut signifier *touranisme*, de même il nous paraît ignorer le sens du mot métaphysicien, qu’il croit pouvoir appliquer à l’*homme qui entrevoit la liaison du sémitisme avec l’aryanisme et qui emploie le mot “touranisme”*. (Bonaparte 1877c: 4-5)²²⁰

Turaniko hitzaz baliatzen direnak zuzen edo oker egon daitezke, baina ezin uka daiteke hitzak baduela esanahia (1877c: 5). Arazoa, baina, ez da esanahirik eza, esanahi gehiegi izatea baizik:

Ce n’est pas, en effet, le manque de sens de ce mot, mais ce sont au contraire les trois sens différents dans lesquels il est employé par les grands linguistes, qui le rendent peu propre à exprimer nos idées. (*ibid.*)

Izan ere, zenbaitentzat turanikoa ez ariarra eta ez semitikoa dena da; beste batzuentzat, aldiz, ‘eransle’ esan nahi du, eta gainerakoentzat, azkenik, ‘altaitar’ adiera du (*ibid.*).²²¹

Bestalde, Printzeak ez du onartzen Vinsonek familia turanikoari atxikitzen dion “olla podrida” deitura, turanismozaleek *familia* hitzari ez baitiote hizkuntza

²²⁰ Bonaparte hizkuntzalaritzaren joera berrien alde edo kontra zegokeen, baina garbi dago azken urteetako lanak ezagutu egiten zituela bederen. Bere teoriak laguntzeko ekar ditzakeenean behinik behin —komeni zaionean— aipatzen baititu. Esaterako, turanismoa dela eta, Ascoliren “Il Nesso Ario-Semitico” lana aipatzen du, arazoa oraino erabakitzeke dagoela aitortzen badu ere (Bonaparte 1877c: 5).

²²¹ Honen antzeko oharpena egin zuen Unamunok *turaniko* hitzaren polisemiaz, zeinak berba baztertzea erabakiarazi bide baitzion: “pues mientras para los unos designa los idiomas que no son arios ni semíticos, para los otros es sinónimo de altaico en geografía, y para los más, de aglutinante en lingüística” (1884: 101).

indoeuroparrez mintzatzerakoan ematen zaion esanahi berbera ezartzen.²²² Bonapartek terminologia-arazo bat (“guerre de mots”) besterik ez du ikusten. Gauzak horrela, Printzeak eskatzen du hizkuntz terminologia hori bateratu dadin eta, autore batekin eztabaidatu aurretik, beronek darabilen terminologia ongi uler dadin (1877c: 13-14).

Laburbilduz, turanikoa dela eta, Vinsonek barnean dauden hizkuntzetan jartzen du arreta, erlazio estuegirik ez dutela hautematen duelarik. Bonaparte, berriz, kanpoan geratzen diren hizkuntzez arduratzen da, eta, ondorioz, indoeuroparraren eta semitikoaren artean dagokeen harremana hartzen du hizpide. Bonaparterena, beraz, turanismoaren definizio negatiboa dugu.

Azkenik, aipatzekoa da van Eysek hasieran behintzat turanismoa onartzen bide duela, dioelarik: “Il est bien reconnu aujourd’hui que le basque appartient à la grande famille de langues dites: Touraniennes” (1865: v).

²²² Ez da zuzena, Bonaparteri dagokionez bederen, Unamunok dioen honako hau: “La misma ilusión de tomar lo parcial por lo total, la forma por el compuesto, *de concluire parentesco de lo que sólo expresa grado análogo en el desarrollo*, ha producido hoy la opinión más autorizada y realmente la menos inverosímil del origen turánico o ugro tartárico del euskera” (1884: 100; azpimarratua nireada).

4.5 *La question ibérienne*

4.5.1 Iberismoaren hastapenak

Iberismoaren —eusko-iberismoaren, nahiago bada— teoria agian larregi laburtuz, zenbait ideia nagusi azaltzen saiatuko naiz sarrera gisa.²²³ Oro har, onarturik dago Humboldt izan zela XIX. mende hasieran aurreko apologista eta gramatikarien teoriak, metodo zehatz bati jarraituz, birplanteatu zituen lehena. Horrela bada, toponimo iberikoen interpretazioak aztertzen jardun zuen, euskararekin korrespondentzia fonetikoak izan zitzaten eskatzen zielarik, jatorri berbera zutela onartuko bazen. Azterketa konparatzailetik honako ondorio hauetara iritsi zen: euskara eta iberiera hizkuntza berak dira edo, zehatzago esan, iberiera euskararen *arbasoa* da; euskara, beraz, Iberiar Penintsula guztian hedatu izan zen, toponimian nabari denez. Bi tesi hauek orduko garaiko ikertzaile gehienek —alemaniarrek eta,

²²³ Teoria honen zer-nolakoak, historia eta kritika ikus bitez, besteak beste, Caro Baroja (1942-43), Gorrochategui (1984, 1985) eta Tovar (1980) lanetan. Azken urteotan eusko-iberismoaren “hipotesia” berriz plazaratu da Verd-en (1980) eskutik; autore honek iberismoa erabat onartzen ez badu ere, hipotesia deuseztatzeko argudioak aski ez direla frogatzen ahalegindu da. Ia aipatzerik ere merezi ez duten arren, batek nahi lukeen baino ugariago eta entzunagoak direlako bederen, zerbaitxo esan behar dut iberiera (eta ulertu gabeko beste hizkuntza batzuk) euskara giltza harturik argitu nahi izan duten saio taxugabeez. Eskuarki hizkuntzalariak ez diren autoreek burututako lan hauei dagokienez, esan daiteke, Traskekin batera (1995: 80), kasurik onenean irakurgai entretenigarriak direla. Lan hauetan kausi daitezkeen akats gardenak asko eta askotarikoak dira: hasteko, inskripzio zaharrak oker interpretatu ohi dituzte; bigarrenik, euskarari eta euskararen historiari buruzko autoreen ezjakintasun osoa agerrarazi ohi dute eta, azkenik, ezinezko irakurketak eta itzulpenak proposatzeko ikaragarritzko irudimena erakutsi ohi dute.

jakina, euskaldunek bereziki— onartu zituzten,²²⁴ eta gutxi gorabehera berrikusten ari garen polemika hasi zen garaian iritsiko zitzaizkien lehen kritikak: Hovelacque, Tubino, van Eys, Vinson, Zobel de Zangroniz eta abarren eskutik, hain zuzen ere.

4.5.2 Bonaparte: iberismoaren alde

Honaino ikusi ditugun lau autore nagusienetatik Bonaparte printzea da iberismoaren alde sutsuen eta tematien azaltzen zaiguna. Hovelacqueri (1876) egin oharretan (Bonaparte 1876) Humboldten argudioak aldeztu ditu²²⁵ eta iberismozalea zen Pott-en pasarte bat ekarri. Beronen arabera, iberismoaren eta euskararen arteko ahaidetasunaz zalantzarik ez dago, ikerlan berriek eskaini duten euskararen ezagutza sakonagoari esker Humboldten lanean aurkitu diren hutsak eta akats ñimiñoak gorabehera (1876: 22). Halaber, Vinsoni (1877a) egindako erantzunean Bonapartek (1877c) gaia berrartzen du, xehetasun gehiago ematen dituelarik. Lehenik, Humboldt, Pott eta gainontzekoen maisutasuna berraiptzen du. Gero, iberismoa zientifikoki ongi oinarriturik dagoela adierazten du. Horrexegatik, hain zuzen, “elle est généralement admise par ceux qui ont rendu les plus grands services à la science philologique” (1877c: 14). Gainera, ez da egia —dio— iberismoaren aldeko frogarik

²²⁴ Beste zenbait tesik, ordea, ez zuten hain arrakasta handirik izan, hala nola iberiarren (hots, euskaldunen) presentzia Italian, berehala ikusiko denez (ik. §4.5.2).

²²⁵ Baina ez, Printzeak berak dioen bezala, “désintéressé dans cette question qui ne nous est pas personnelle” (Bonaparte 1876: 22). Izan ere, hizkuntz edo historia arazoak baino zerbait gehiago sartzen zen eztabaidaren hondoan, Granja Pascualek (1986) ederki erakutsi duenez.

falta denik. Izan ere, Bonaparteren beraren izkribuetan sakabanaturik idoro daitezkeen hiru argumentu hauek honetara nahi ditut:²²⁶

- Korsikako zenbait toponimoren euskal jatorria.
- *Baita* eta *ga* “hitzak”.
- Gaztelaniazko *-ez* eta portugesezko *-es* patronimikoak osatzeko atzizkiak.

4.5.2.1 *Korsikako zenbait toponimoren euskal jatorria*

Bonapartek Korsikako zenbait toponimok euskal jatorria zutela uste zuen (Bonaparte 1877d). Toponimo hauek frogatuko lukete²²⁷ euskaldunak luzaro bizi izan zirela Korsikan latindarren aurretik. Izan ere, Printzearen aburuz, toponimoak egotea ez da aski korsikarrek euskal jatorria dutela pentsatzeko; horretarako euskararen aztarnak Korsikako dialektoetan ere idoro beharko baitziren, gaur egun substratuaren eragina deituko genukeena hain zuzen:

Pour pouvoir admettre que les Corses soient d’origine basque, il faudrait que leurs dialectes, évidemment néo-latins, présentassent un certain nombre de mots basques autres que des noms locaux, car ces derniers sont les seuls qui puissent persister dans la langue du peuple qui succède. (1877d: 9)

Egia da toponimoek ez dutela herri baten jatorria frogatzen, baina Printzeak eskatzen duen baldintza arras ahula da oraindik; nonbait etimologista zaharren mailan jartzen

²²⁶ Ez da ene xedea, halere, Humboldtten toponimo-zerrendari egindako kritikak, berrikusketak eta hobekuntzak aztertzea, nahiko ongi ezagutzen baitira eta lana luzeegi gertatuko bailitzateke. Ik., besteak beste, 223. oharrean aipatu lanak eta Luchaire (1879).

²²⁷ Esan gabe doa azalpen gehienetan metodo-akats nabarmenak daudela, irudipen hutsa ez badira. Esaterako, *Lincinosa* mendia Nafarroako *Linzoain* herriarekin parekatzen duelarik.

du bere burua, nahikoa baitzaio Korsikako dialektoetan zenbait euskal hitz kausitzea korsikarren euskal jatorria baieztatzeko. Bestalde, Bonapartek dio ezin pentsa daitekeela, Mattei-k uste bide zuen legez, euskaldunek irlan egonaldi laburra besterik ez zutela egin, hala izatekotan ez baitzuten toponimorik utziko.

Beraz, Bonaparte, aurkikuntza honen bidez, iberiarrak (hots, euskaldunak) Italian egon zirelako Humboldtten ideia egiaztatzen saiatu zen:

Dans nos “Remarques sur les dialectes de la Corse et sur l’origine basque de plusieurs noms locaux de cette île” [...], nous donnons une liste de mots communs au basque et au corse. Nous croyons qu’elle confirme l’opinion de Humboldt quant à la présence des Ibères ou anciens Basques en Italie. (Bonaparte 1877c: 15. oh.)²²⁸

Garbi da, alabaina, Bonaparteren argudiatzeak akats nabarmena duela. Iberiarrak Italian bizi izan zirela frogatzeko frogatu gabeko teoria batez baliatu zen: eusko-iberismoaz, iberiarren eta euskaldunen arteko identitateaz, alegia. Eta orobat eusko-iberismoa frogatu nahi zuen Korsikan toponimo euskaldunak zeudela esanez, eta hortik Italian iberiarren presentzia idokiz. Dakusagunez, gurpil zoro bat sortzea besterik ez du lortzen.

4.5.2.2 Baita *eta* ga “hitzak”

Ildo beretik doa iberismoaren aldeko bigarren froga. Bonapartek (1877c: 10, 23-24) euskarazko *bait(h)a* (*aitaren bait(h)an* erako egituretakoa) lonbardieraren zenbait

²²⁸ Egia esan, Larramendirengandik dator iritzi hau (cf. 1745: lxxxvi-lxxxvii, xcii eta hh., clxxv) eta Senekaren pasarte batean (*De consolatione ad Helviam* 7, 8 eta hh.) oinarriturik bide dago (cf., esaterako, Tovar 1980: 32 eta hh.).

dialektotan idoro daitekeen *bàita*-rekin erkatzen du. Azken honen esanahia ‘txabola’, ‘aterpe’, ‘etxe’ edo ‘ikaztegi’ litzateke (1877c: 10). Bidenabar, hitz —ez “partikula” (1877c: 23)— hau hainbat hizkuntza semitikotan ere aurkitzen dela dio, hebreerazko *baith* ‘etxea’ kasu. Bestalde, bizkaierazko eta gipuzkerazko *gan*, *gana*, *gandik* formetan *bait(h)a*-ren esanahikidea den *ga* “leku-izena” ikusten du. Bonaparteren aburuz, *ga* italierazko *ca*-tik, *casa*-ren era dialektal arruntetik, hurbil dago. Hortaz, *gan* hitzez hitz *in casa*, *in ca* edo frantsesezko *chez*-en baliokidea litzateke. Honek guztiak euskaldunen eta italiarren arteko harremanak frogatuko lituzke:

L’Italie présenterait donc, dans ses dialectes, le mot basque *baita*, et l’euskara, à son tour, aurait adopté *ga*, dérivé de l’italique *ca* ou *casa*. Nous voyons dans ce dernier fait une autre preuve de contact basco-italique. (1877c: 23)

Era berean, honelako esapideetan, erregimenari dagokionez ere euskararen eta italieraren arteko paralelotasuna bide dago. Euskaraz, euskalkien arabera, genitiboa ager daiteke edo ez: G *senarragan*, *senarrarengan*, L *senarraren baithan*, GN *senarra baitan*.²²⁹ Italiera, bere aldetik, *di* preposizioaz balia daiteke edo ez: *in casa di marito* edo *in casa il marito*.²³⁰

²²⁹ Adibide hauek eta hurrengoak Bonapartek berak ematen ditu (cf. 1877c: 24).

²³⁰ Badirudi Azkue, hasieran behintzat, Bonaparteren azalpen honekin ados egon zela, Printzearen teoria laburtu ondoren honako hau dioelarik: “Bonaparte (Remarques sur certaines notes, [1876] p. 10, 22, 23) sostiene que los Vascos prestaron á los Lombardos su BAITA, ‘casa,’ y los Italianos á los Vascos su CA, sinonimo dialectal de CASA, que nosotros hemos cambiado en GA, GAN. Esta aserción la habría corroborado el ilustre y benemérito príncipe, si hubiera tenido en cuenta: a) la existencia de BAITA en el sentido liberal de ‘casa’ en L, tal como se ha expuesto.— b) que las frases que él cita: ‘in casa del marido’ é ‘in casa il marido’, como equivalentes á la francesa *chez le mari*, se dicen aun actualmente en muchas localidades de Castilla ‘en casa el marido’ y aun (lo que dá más fuerza á su

4.5.2.3 *Gaztelaniazko -ez eta portugesezko -es atzizkiak*

Hirugarren froga, azkenik, gaztelaniazko *-ez* eta portugesezko *-es* atzizkietan oinarritzen da. Atzizki hauen inguruan eztabaida bat piztu zen Londresko *The Academy* aldizkarian 1882ko otsailaren eta maiatzaren bitartean, bertan Bonapartek eta Burnell-ek esku hartu zutelarik. Halaber, urte berean eztabaida honen itzulpen laburtuak agertu ziren *Euskal Erria* eta *Revista Euskara* aldizkarietan (Bonaparte & Burnell 1882), euskararekiko ikerketek sorrarazten zuten interesaren erakusgarri, nonbait.

Polemikaren abiaburuan Burton-ek *Os Luisiadasen* edizio batean bidenabar ezarritako baieztapen bat legoke, patronimikoak eratzeko atzizki hauek euskal

opinión) ‘en cá el marido’” (Azkue 1905-1906: s.u. *baita*). Zernahi gisaz, urte batzuk geroago kontrako iritzia agertuko du: “No hay datos para asegurar que el vocablo lombardo-provenzal *baita* ‘casa’ se haya usado entre nosotros como independiente: *baita bat*, *baita zahaía*. El oficio que desempeña en vascuence desde que lo tenemos en casa es de infijo de declinación, equivalente al *-gan-*, al parecer primitivo y seguramente indígena, a pesar de la opinión contraria de Bonaparte: *neugandik*, *nereganik*, *ene baitarik*” (Azkue 1925: 12). Hots, euskarazko *baita* lonbardierazko *baita*-tik zetorkeen, baina *gan* jatorriz euskarazkoa zatekeen. Hizki hauek euskal etorkikoak ez direlako hipotesiek luze iraun dute gure artean. Esaterako, Omaechevarriak, jatorriak emateaz gain, noiz mailegatu ziren ere seinalatzen du: “*Baita* corresponde al semítico *bait* o *baitu*, ‘casa’, representando, no sólo en el árabe, sino en el asirio-babilónico, hebreo y fenicio *beth* (de donde se deriva el nombre del ‘alfabet-o’). La forma diptongada *baita* nos lleva al árabe. *Ga* es el correspondiente vocablo romance que procede del latín ‘casa’, y que en la actualidad se emplea en la forma ‘ca’, sobre todo en los dialectos provenzales y catalanes, y algo en el castellano (‘He estado en *ca* de la señora Juana’, ‘Je suis été chez madame Jeanne’) [...]. Diríamos, pues, que *-eta-* se introdujo en el plural en la época romana, procedente del colectivo latino ‘-etum’, en plural redundante *-eta-*, bien atestiguado en los monumentos literarios, y que *-ga-* corresponde a la época romance y *-baita-*, en simultaneidad cronológica aproximada con *-ga-*, a los tiempos del primer contacto cultural con los árabes, a los siglos IX-X” (Omaechevarría 1962: 39-40).

jatorria dutela baitio. Burnellek, ordea, beste bi aukera ematen ditu: latinezko *Medices* erako formekin erkatu edo, osterantzean, Diez-ek egin zuen bezala, gotikozko *-is* genitibotik datozela pentsatu.²³¹ Bonaparte printzea ere aurreneko aldiz Larramendik (1729: 10) aurkeztu zuen ideiari atxikitzen zaio, atzizkiok euskarazko *-ez* instrumentaletik letozkeela alegia, eta gaztelanian eta portugesean euskararen aztarna gehiago bilatzen saiatzen da (Bonaparte & Burnell 1882: 201-202).

Orobat, Bonaparterentzat adierazgarria da atzizki hauek erabiltzen diren eremua, Espainia eta Portugal hain zuzen, antzina euskaraz mintzatzen zen eremu berbera izatea:

Ahora bien, el sufijo *ez (es)* con la significación española y portuguesa “de”, no pertenece ciertamente ni al latín, ni á los dialectos neo-latinos de Italia, Francia, Bélgica, Suiza y Valaquia, y si sólomente al español y portugués, dos dialectos de la península española, en donde el bascuence se habla todavía y se hablaba ántes de la existencia de estos dialectos. (Bonaparte & Burnell 1882: 202)

Hortaz, oraingoan ere substratuaren eraginaz ari da inplizituki. Polemikak Larramendiren eta Alemaniako hizkuntzalarien iritzien arteko tirabirak aipatuz eta metodo kontuak zehatzagotuz jarraituko du (ik. kapitulu honetako 185. oh.).

4.5.3 Vinson: iberismoaren kontra

Vinsonek iberismoaren kritika burutu zuen zenbait lanetan, teoria honen oinarri zientifikorik eza salatu zuelarik:

²³¹ Nik dakidala bederen, azken hau da gaur egungo hipotesirik zabalduena, Portugal eta Gaztelako erromantze modernoetan alde haietako latinak gotikotik hartuko zuen formak irauten duela, alegia.

Sepan, pues, que no he negado el origen ibérico de los vascos; sólo he dicho y digo que hasta ahora no me parece comprobado tal origen, pues sus partidarios se fundan en argumentos quebradizos y en etimologías infantiles y anticientíficas. (Vinson 1879: 147)

Izan ere, iberismoa *a priori*-zko ideia faltsu batean oinarriturik legoke:

elle repose principalement sur l'*a priori* suivant: les Ibères ont occupé jadis toute l'Espagne et le midi de la Gaule, or l'escuara vit encore au pied des Pyrénées, donc l'escuara est un reste de la langue des Ibères. Le vice de ce syllogisme est évident; la conclusion ne s'impose point et se déduit mal des prémisses. (Vinson 1877a: xi)²³²

Jarraian, Vinsonek iberismoaren alde eman diren frogak banan-banan kritikatzeko ditu (*ibid.*). Froga hauek bi motatakoak dira: Lehenak, inskripzio eta txanpon iberiko eta zeltiberikoen interpretazio-saioak. Vinsonek dio txanpon hauek idazteko erabili den alfabetoa zuzen argitu arte ezin dela interpretazio fidagarrikerik eman. Jakina denez, urte haietan Iberiar Penintsulako latinaurreko alfabetoen zenbait irakurketa-saio diferente eman ziren (Boudard, Heiss, Delgado, Zobel de Zangroniz, etab.)²³³ eta beraien arabera euskararekiko azaleko antzekotasuna hurbilago edo urrunago zegoen. Gainera, Vinsonek dioenez, euskararen bidezko itzulpenak hainbat autorek eztabaidatu dituzte (ik. §4.5.1). Bigarren froga idazle klasikoek bildutako toponimo eta antroponimoek osatzen dute. Hauetarako Humboldt-ek eta beronen jarraitzaileek eman dituzten etimologiak onartezinak dira. Gainera, etimologia horiek euskal hiztegiaren eta gramatikaren azaleko ezaguera erakusten dute (Vinson 1874c: 7).

²³² *A priori*-zko ideia honen azalpen luzeago baterako, ik. Vinson (1874c: 6-7).

²³³ Cf. Hübner (1893: "Prolegomena", iii-xxxi). Autore hauetariko zenbaiten lanak Vinsonek ere (1874c: 8-9) iruzkintzen ditu.

Aitzitik, Luchairek proposatu dituen etimologia batzuk hobesten ditu Vinsonek. Iberismoaren kontrako hirugarren argudio bat eransten du, hainbat euskaldunen ezinikusi luzea erdietsaraziko ziona.²³⁴ Vinsonek euskaldunek beren hizkuntzaz beste berezitasunik ez dutela baieztatzen du, eta hurrenik itxuraz euskaldunen berezko zenbait ohitura —ilargia gurtzea, kasu— errefusatzen ditu, oinarri dituzten Estrabonen pasarteak zein herriri buruz ari diren ez baitago batere garbi.²³⁵

4.5.4 Van Eys: frogatu gabeko hipotesia

Arazo honi dagokionez, van Eysen jokabidea, sarritan bezala, nahiko zalantzarria da, edo agian hobeto esplikatu genuke bilakaera baten ondorio dela esanez gero. Horrela bada, hasiera batean euskararen alfabeto zaharra ezagutzeko inskripzio eta txanpon iberikoak oinarri hartzen dituelarik ere,²³⁶ geroago iberismozaleen argudioak kritikatu ditu (van Eys 1874a) eta hipotesi soil bat, frogatu gabekoa, besterik ez dela esango du, ez alde ez kontra agertuz:

Jusqu'à aujourd'hui l'alphabet primitif basque est inconnu, & la seule chance de le retrouver sera peut-être sur les monnaies à inscriptions dites ibériennes; mais jusqu'ici la lecture de ces inscriptions est si incertaine, qu'il n'y a rien à préjuger soit pour, soit contre la théorie d'identité du basque & de l'ibérien. Personne, autant que

²³⁴ Cf. Urquijo (1927) eta Mitxelena (1984b), besteak beste, Vinsonen iritziek euskaldunen artean izan zuten harrerarako.

²³⁵ Ik., halaber, Vinson (1874c: 9-13), iberieraren eta euskararen arteko harremanei aurre egiteko behar den aurrelanerako (euskara zaharra berreraiki eta iberikoa ondo irakurri) eta iberismoaren aldeko hizkuntz argudioen (*ili, iri...*) kritikarako.

²³⁶ Cf. “Le suffixe *co*, entre autres, paraît toujours avoir été écrit avec *c*, ou par la ligature *co*, sur les monnaies ibériennes” (van Eys 1867: “Avant-propos de la première édition”, vii).

nous sachions, n'a nié la possibilité de la parenté du basque & de l'ibérien; mais encore de nos jours cette parenté n'est qu'une hypothèse pure & simple, sans aucun fait positif pour l'appuyer. [...] Ce qui a été nié, & à bon droit, c'est la certitude de la parenté du basque & de l'ibérien. (van Eys 1879: 7-8)

Hortaz, esan daitekeen gauza bakarra da, Vinsonek ere esan zuenez, iberismoaren teoria ez dagoela batere egiaztaturik. Honen ondoren, Vinsonen testuetan ikusi ditugun argudio batzuk errepikatzen ditu van Eysek: idazkera iberikoa gaizki ulertzen dela eta, ondorioz, ez dagoela iberierari buruz ezer ziurrik jakiterik (*ibid.*).

4.5.5 Campión: kontrakoei erantzunez

Iberismoaren kontrako iritzi hauek guztiek ohiko teoriak aldezen zituztenen berehalako erantzuna ernarazi zuten. Bonaparterena aipatu dut dagoeneko; aipa dezadan oraingoan, laburki bada ere, Campiónena. Campión bere artikuluan batean (1878)²³⁷ Humboldten alde agertzen da, eta iberismoaren aurkakoak Euskal Herriaren etsaitzat jotzen ditu adore handiz, artean nahiko zabaldua zegoen iritzia bestalde:

Ocupando el pueblo vasco una situación especial dentro del gran organismo social del que forma parte, ha sucedido que los enemigos de su modo de ser político, han procurado combatirle con armas de mejor ó peor ley, mejor ó peor templadas, no sólo en su legislación, sino en todas las manifestaciones de su existencia [...]. Es imposible, ni imaginar siquiera, mayor aplomo en las conclusiones, más aspereza en la crítica, más desprecio del contradictor que el manifestado por esos señores en sus estudios. Y no se limitarán á destruir teorías, ni á desvalorar hipótesis, ni á negar

²³⁷ Cf. Granja Pascual (1986: 223-226), Campiónen artikuluan honen iruzkin zabalago baterako.

hechos, sino que aprovechan cuantas ocasiones se les presentan para rebajar al pueblo euskaro hasta el nivel de los pueblos más salvajes. (Camióñ 1878: 231-232)

Ageri denez, eztabaida honetan arazo zientifikoak ez ezik, arrazoi politiko eta ideologikoak ere hartzen dira kontuan, dagoeneko zenbait autorek ohartarazi dutenez.²³⁸ Aurki itzuliko naiz gai honetara. Gainera, Camióñ Humboldten zenbait toponimoren etimologien —batik bat van Eysek gaitzesten zituenen— balioa frogatzen ahalegintzen da, hagitz ondorio eskasa lortzen duelarik, egia esango bada (1878: 233-237).

4.5.6 Luchaire: iberismo kritikoa

Iberismoaren aldekoa orobat, baina Bonaparte eta Camióñ baino kritikagoa da Luchaire. Humboldten teoriak onartzen ditu, oro har; ez du onartzen, baina, euskaldunen presentzia Italian. Halaber, iberismoaren aldeko froga gehiago eta zientifikoagoak bilatu behar direlakoan dago:

Tout en reconnaissant les imperfections de l'œuvre de Guillaume de Humboldt, nous sommes au nombre de ceux qui pensent que ses conclusions sur la *question ibérienne*, fondées sur des arguments plus nombreux, plus scientifiquement présentés, et restreintes à l'Espagne et à la Gaule méridionale, constituent plus qu'une simple hypothèse et touchent de près la vérité. (Luchaire 1879: vii)

Luchairek, beraz, zientifikotasun maila eman nahi dio iberismoari. Horretarako Pirinioetako toponimiaren azterketa sakonari deritzo biderik egokiena. Lehenik, euskararen lekukotasunik zaharrena delako; bigarrenik, mendikatearen mutur batetik

²³⁸ Cf., besteak beste, Granja Pascual (1986: 225) eta Mitxelena (1984b).

bestera erro eusko-iberikoen geruza komun bat (“couche”) nabari delako;²³⁹ eta, hirugarrenik, toponimiak antzinako hizkuntza eta herri iberikoen hedapenaren berri eman diezagukeelako (*ibid.*).²⁴⁰ Luchaire da, nik dakidala, euskal ikerketetarako toponimiaren azterketa sakon eta zehatzaren beharraz eta garrantziaz ohartu zen lehenbizikoa, aurrekoak —Garibai, Oihenart, Poza, Etxabe, Larramendi, Mogel, Hervás, Erro eta Humboldt, besteak beste— toponimo-zerrenda luzeen edo ez hain luzeen etimologiak asmatzera mugatu baitziren.

Luchairek zientifikotasuna betetzeko arau metodologikoak ematen ditu, toponimiaren aztertzeari aurre egin behar dionak jarraitu beharrekoak:²⁴¹

Suivant nous, pour rendre fructueuses les recherches dont il s’agit, il faudrait, de toute nécessité, s’astreindre aux cinq règles suivantes:

1° Posséder au moins les notions élémentaires de la phonétique et de la grammaire euskariennes, surtout pour ce qui concerne les mots composés et les suffixes.

2° Comparer les noms basques modernes aux formes anciennes conservées dans les chartes, terriers et cartulaires.

²³⁹ Berriz ere dakuskegu, Bonaparteren kasuan bezala, substratuaren teoriaren aipamen inplizitua. Cf. Oroz (1980): autore honek euskara eta iberieraren antzekotasunak substratuaren teoriaren bidez azaldu nahi ditu, Pirinioen inguruetatik haratago iristen delarik.

²⁴⁰ Orobat, toponimiaren azterketaren bidez bai euskarak dagoeneko galdu dituen hitz batzuk, bai euskararen atzizki-eratorbideak hobeki ezagut daitezkeelako: “De même, un examen attentif de la toponymie basque peut conclure à des résultats intéressants, non-seulement en nous faisant connaître des formes et des radicaux qui n’existent plus dans le vocabulaire usuel, mais encore au point de vue de procédés de suffixation, si curieux à étudier dans les langues agglutinantes, comme le basque” (Luchaire 1879: 135-136).

²⁴¹ Eskertzekoa litzateke gaur egun euskal toponimiaz arduratzen den orok jarraituko baliete. Cf.,

3° Contrôler constamment la nomenclature du Pays Basque français par celle du Pays Basque espagnol.

4° Ne proposer d'étymologies que celles qui sont évidentes par elles-mêmes ou suffisamment justifiées par les caractères physiques des localités.

5° Observer les règles générales et de sens commun auxquelles obéissent toutes les toponymies. (Luchaire 1879: 136-137)

Hurrengo orrialdeetan (1879: 138-187) toponimo zaharren eta garaikideen azterketa sakona burutzen du: aldaketa motak —izen aldaketa, inguruko hizkuntzen eragina, apokopea, aferesia, protesia, sinkopa, asimilazioa, etab.—, leku-izenetako atzizkien zerrenda²⁴² —bakoitza bere iruzkinarekin—, eta toponimoetan arruntenak diren hitz motak eta zerrendak, adibide ugariz horniturik, ematen ditu. Azterlan zehatz eta ongi egituratu honen xehetasunez ez dut luzatu nahi, baina bai aipatu nahi nuke Luchairek bi atzizkiri buruz dioena, *-baita* eta *-ga* hain zuzen, lehenago ere agertu baitzaizkigu. Bonaparteren *-ga*-ren etimologia kritikatzan du, batere zientifikoa ez delakoan. Bestalde, bizidunen deklinabideko *-ga*- eta leku-izenetako *-aga* ongi bereizten ditu, Bonapartek egiten ez bide zuen bezala.²⁴³ *Baita*-ri bagagozkio, ordea, Luchaireren ustetan, Printzeak ematen dion esanahia ('maison') izan dezake edo zezakeen, baina

esaterako, Mitxelena M^a L. Guazaren tesiari eginiko iruzkina (Mitxelena 1955).

²⁴² Atzizkiak honelaxe sailkatzen ditu: bokalez hasitakoak eta kontsonantez hasitakoak, eta azken hauen barnean ezpainetako batez (*b, m*), hortzetako batez (*t, d, tt, z, s, ç, x, tx, c, ch, tz*), sabaiko batez (*g, qu, c*), sudurreko batez (*n, ñ, gn*) eta mihiko batez (*l*) hasitakoak (Luchaire 1879: 147-175). Guztiarekin ere, letren sailkapena bide da, soinuena bainoago.

²⁴³ Luchairek aipatu arren, ezin izan dut Bonaparteren lanetan horrelako nahasketarik idoro, Printzea deklinabide atzizkiaz soilik mintzatzen baita.

nolanahi ere Bonapartek eskainitako arrazoiak ez du balio handirik eta inola ere ez du frogatzen euskaldunen eta italikoen arteko harremanik (Luchaire 1879: 158-159).

Azkenik, bere “arartekotasuna” berriz ere aldarrikatu ondoren, eta van Eys eta Vinsonek *uli* eta *ili*-z duten iritzia kritikatu ondoren, Humboldten lana hobetzeko premiazko diren bideak aurkezten ditu: alde batetik, froga hobek bilatzea eta Espainiako antzinako leku-izenen azterketa zehatzago eta osoago baten bitartez laguntzea; bestetik, Plinio Zaharraren, Estrabonen, Ptolomeoren eta abarren testuen interpretazio zuzenak eta aurkikuntza epigrafikoek ekarritako datu berriak kontuan hartzea (1879: 191). Bistan denez, iberismoaren arazoari aurre egiteko nahiko jokabide osoa eskaintzen du.

4.6 Euskararen desagerpenaz

4.6.1 Euskal hiztegia egokia ote?

Euskara Euskal Herrian beharrezkoa den ala ez, desagertu behar duen ala ez polemikaren alderdi batean euskal hiztegiaren egokitasunaz eztabaidatu zen. Bi arazo nagusi sartzen dira eztabaidan: euskal hiztegia *urria* ala *aberatsa* den eta euskal hitzak ideia abstraktuak adierazteko gai direnentz.

Badirudi, besterik esan arte, Hovelacquek (1876) piztu zuela eztabaidagaia, euskal hiztegia osorik ezagutzen ez zela eta urria zela adierazi zuelarik.²⁴⁴ Bonapartek

²⁴⁴ Susmoa dut, alabaina, Hovelacquek euskarari buruzko ideia gehienak, guztiak ez badira, Vinsongandik jaso zituela, eta horrelako zerbait idoki daiteke, gainera, Vinsonen pasarte honetatik:

aurreko baieztapenaren kontraesan nabarmena salatzen du. Halaber, Hovelacquek urritasunaren alde emandako argumentuetariko bat gaitzesten du, alegia *gogo* hitzaren esanahi ugariatatik ateratzen duen zehaztasunik eza:

En tout cas on se refuse à prendre au sérieux l'argument en faveur de cette pauvreté, qui consiste à lui reconnaître six expressions différentes au lieu d'une seule: car si le basque est pauvre dans un cas, il est évident qu'il est six fois riche dans un autre. (Bonaparte 1876: 21)

Vinsonek Hondarribiko hizkerara itzultitako S. Mateoren ebanjelioko pasarte bat argitara eman zuen (Vinson 1876). Lan hori iruzkintzen duelarik, Bonapartek (1877b: 43-44) euskarak erabat materiala ez dena adierazteko hitzik baduela baieztatzen du. Zehazki, 'action de pleurer' adierazteko *negar* badagoela, eta hortik *negar egin* edo 'pleurer', hots, 'faire action de pleurer'.²⁴⁵ Ipar Euskal Herrian, haatik, frantsesaren eraginez, ez dira 'action de pleurer' (abstraktua) eta 'larmes' (materiala) bereizten,²⁴⁶ baina honek ez du esan nahi Hegoaldeko euskalkietan halako bereizketa ez dagoenik, *negar / malko* hitzen bidez hain zuzen gertatzen baita. Beraz:

C'est donc "faire action de pleurer" ou "hacer lloro" qui rend beaucoup mieux que "faire larme" le *negar egin* du basque, langue qui n'est pas si dépourvue

"Quant à leur partie purement critique, ces deux brochures [Bonaparte 1876 eta 1877c — R.G.] se confondent et me concernent presque exclusivement, car M. Hovelacque, dans sa *Linguistique*, n'a pas émis beaucoup d'opinions, beaucoup d'appréciations qui ne soient miennes ou que je ne partage entièrement" (Vinson 1877b: 211).

²⁴⁵ Hona Vinsonen hitzak auzi honetaz: "Nigar egin 'faire larme'; il n'y a pas de mot simple pour 'pleurer'" (1876: 10, 18. oh.).

²⁴⁶ Bietarako *pleurs* nahiz *larmes* erabil baitaitezke frantsesez.

d'expressions pour tout ce qui n'est pas absolument matériel, comme on nous le chante depuis assez longtemps sur tous les tons. (1877b: 44)

Vinson (1877a) lanari egindako oharretan Bonapartek berriz eusten dio gai honi. Egia esan, Vinsonek Hovelacqueren argudioak eta adibideak errepikatu besterik ez bide du egiten; hau da, euskal hiztegiaren urritasuna eta euskal hitzek ideia abstraktuak adierazteko duten ezgaitasuna aldarrikatu (Vinson 1877a: xiv).²⁴⁷

Honelaxe ohartarazten du Bonapartek:

en décidant, de sa propre autorité, que son vocabulaire, qu'il avoue ne connaître qu'imparfaitement, est fort pauvre; en avançant que le basque n'a pas de mots pour exprimer des idées abstraites, etc., il ne fait que répéter exactement ce qui a été dit par M. Hovelacque son maître, qui a au moins sur lui le mérite de l'originalité. (Bonaparte 1877c: 11)²⁴⁸

Baina Vinsonek badakar ikuspegi berria eztabaida honetara. Izan ere, abstrakziorako ezgaitasuna dela kausa, euskarak mendeetan zehar hainbat hitz mailegatu ditu inguruko erdaretatik, eta herri indoeuroparrekiko harreman hauexen bitartez sartu dira euskaldunak historiaren bidera (1877a: xiv-xv). Ikusi dugunez (§4.2.2), Vinsonek onartzen dituen Schleicher-en teorien arabera, historian sartzeak hizkuntzaren atzerabidea hastea dakar berekin, eta hizkuntza eransleen kasuan historian sartze hau hizkuntza isolatzaile edo flexibo baten eraginpean soilik gerta daiteke.

²⁴⁷ Oroit bedi Unamunok ere jaso zuela ideia hori: "el euskera es pobrísimo en voces significativas de objetos espirituales o suprasensibles y hasta carece de términos que expresan ideas abstractas en general" (1884: 113 eta hh.).

²⁴⁸ Hala ere, euskarari dagokionez, Vinsonek adierazten du Hovelacque-ri irakatsi ziola; cf. *supra*

Luchairek bi lekutan gutxienez eman zuen bere iritzia gai honetaz. Batean, Vinsonekin ados agertzen da:

Quant au caractère matériel et tout *naturaliste* du vocabulaire de l'euskara, caractère que le prince B. se refuse à reconnaître ([1877a:] p. 44), nous le considérons avec M. Vinson comme difficilement contestable. (Luchaire 1877b: 380)

Ohar bedi hemen *naturaliste* hitza —Luchairek berak azpimarratua— ez dela erabiltzen zentzu “schleicherdarrean”; aitzitik, natur ingurunearen berri bakarrik eman dezakeen hizkuntza izendatzen du. Bonapartek (1877a: 7) ez zuen Luchaireren jarrera hau aintzat hartu eta haren tonu dogmatikoa —berriz ere— ohartaraztera mugatu zen.

Beste leku batean Luchairek (1879: 177) euskal toponimian oinarritzen du bere aburua, oraingo honetan zertxobait apalago agertzen bada ere. Dioenez, euskal leku-izenen azterketatik antzematen da euskaldunak artzain-herria zirela, irudimen gutxi zutela eta ideia abstraktueterako gaitasun eskasaz hornituak zirela; baina honekin ez du esan nahi —argi utzi nahi baitu— bere garaiko euskaldunen izaera halakoa denik.

Honelako iritziak berriz azalduko dira autoreon izkribuetan, baina argudio berdinak errepikatzen edo aurreko artikuluren batera dei egitera mugatuko dira (ik., esaterako, Bonaparte 1884a: 4-5).

Euskarak hitz abstrakturik ez duelako aierua Vinsonek hastapenetik nabarmendutako beste arazo batekin lotu behar da: euskaldunen kultur atzerapena,

“loakartutako adimena” (Vinson 1867: 382) hain zuzen ere. Apaizen eragin itzelak galarazi du euskaldunen aurrerapena. Eta egoera berezi honek iraun baldin badu, hizkuntza gorde delako jazo da:

Pourquoi le pays basque a-t-il gardé cette physionomie spéciale? La principale cause est certainement la conservation de sa langue. (Vinson 1867: 382)

Beste toki batean, Vinsonek euskal hizkeren arteko alde handia aipatzen du, euskaldunen kultur atzerapenaren frogagarri gisa:

il n'est peut-être pas deux villages où l'on parle absolument de la même manière. Ceci est tout naturel du reste chez un peuple illettré et qui ne peut se mettre au niveau de ses voisins qu'en oubliant son antique langage. (1877a: xiv)

4.6.2 Hizkuntzen eta gizartearen bilakaeraz

Vinsonen aburuz, zenbait arrazoi daude euskararen heriotza hurbila iragartzeko (1877a: xi-xii). Hizkuntza bat organismo bat den heinean, euskarak bizirik irauteko borrokatu behar du. Alabaina, latinaren eta erromantzeen presioak euskara nabarmenki atzera eragin du Espainia aldean: Nafarroako hainbat herrik euskal izena dute, baina bertan ez da gaztelania baizik mintzatzen; herrialde honetako bertako euskararen mugaguneetan biztanlerik gutxienek erabiltzen dute euskara. Hau dela eta, hizkuntza aldatu egiten da nonahi: umeez hainbat mailegu erromaniko sartzen dituzte euskal hitz jatorren ordeez; kanpotarrekin harreman ugarien dituzten edo bizimodu modernoak agerian den tokietan —Donostian eta Donibane Lohitzunen kasu— okerrez jositako euskara mintzatzen da.

Beraz, inguruko herrien mailara iritsiko badira, euskaldunek euskara ahaztu beste biderik ez dute. Iritzi hauek guztiak berriz bilduko ditu Vinsonek Iruñeko *Revista Euskara*-ren lehenbiziko aleei egindako iruzkinean (Vinson 1878; cf., halaber,

Granja Pascual 1986: 221-223). Bertan Vinsonek adierazten du foruak berpizteko eta euskara indartzeko ahaleginak oro alferrekoak eta are kaltegarriak direla:

Mais de pareils efforts sont incontestablement stériles; rien ne saurait arrêter le cours inexorable des choses. Il n’y a rien de national chez les Basques, absolument rien d’original, que leur antique idiome, et c’est précisément parce que cet idiome est incompatible avec leur civilisation actuelle —toute espagnole— qu’il ne peut plus vivre et qu’il doit fatalement disparaître. Le basque n’est ni une langue littéraire ni une langue convenable aux instincts démocratiques de notre siècle.

L’opinion contraire est fondée sur une erreur, sur une méprise trop générale encore, mais bien excusable du reste. On croit à des institutions nationales basques, à une espèce de société républicaine des montagnards pyrénéens, dont les fameux *fueros* auraient été la charte et le code. Et pourtant ce point de vue est absolument faux: il n’y a rien de vraiment libéral dans les *fueros*, qui tendent simplement à la réglementation d’une oligarchie cléricale autoritaire. (1878: 466-467)²⁴⁹

Iritzi hauen iturriak Schleicher-engandik haraindian bila daitezke, A. Comte-ren hiru maila edo estadioen —teologikoa, filosofikoa eta positiboa— teorian eta, ziur aski hurbilago, H. Spencer-en darwinismo sozialean. Azken autore honek hiru gizarte-mota bereizten ditu konplexutasun mailaren arabera: primitiboak, militarrek eta industrialak. Gizarte hauek ere, Schleicher-en hizkuntz taldeekin gertatzen den bezalaxe, bilakabide baten ondorio dira.

Vinsonek —eta geroago Unamunok ere— bi eskemak gainezartzen ditu. Hortaz, hizkuntza eranslea duen euskal gizartea eredu militarren barnean sartzen da, eta hizkuntza flexiboa duten espainiar eta frantses gizarteak, aldiz, eredu industrialari

²⁴⁹ Unamunok ere (1901: 238 eta hh.) eutsi zion ideia horri, *mutatis mutandis*.

dagozkio²⁵⁰. Bi gizarte-eredu hauen arteko borrokan, Vinsonen aburuz, industrialak, bilakatuenak, soilik iraun behar du, eta horretarako euskara oztopo bat besterik ez da, Euskal Herrian dagoeneko nagusi den eredia Espainiakoa —industrialak— baita (“toute espagnole”).

Bonaparteren ustez, aitzitik, alde batetik ezerk ere ez du adierazten euskara hiltzear dagoenik; bestetik, goraxeago aipatu dudana argudio bat —Vinsonek euskarari gorroto diolako— erabiltzeaz gain (Bonaparte 1877c: 6), erakutsi nahi du ez dagoela batere frogaturik euskaldunek auzokoen aldean kultur maila apalagoa dutenik. Horretarako, Frantziako 1867ko analfabetoen estatistikez baliatuko da. Urte hartan, Landetan analfabetoen portzentaia %33-83koa delarik, Behe Pirinioetako Departamenduan, non biztanleen heren bat euskaraz mintzatzen baita, %10-25ekoa

²⁵⁰ Cf. Comteren ondoko pasarte hau: “Estudiando el desarrollo de la inteligencia humana [...] desde sus primeras manifestaciones hasta hoy creo haber descubierto una gran ley básica, a la que se halla sometida la inteligencia con una necesidad imposible de variar, y que me parece que se puede establecer con solidez, gracias a las pruebas racionales que nos suministra el conocimiento de nosotros mismos y a la verificación histórica que se puede llevar a cabo mediante un atento examen del pasado. Esta ley consiste en lo siguiente: cada una de nuestras principales concepciones, *cada rama de nuestros conocimientos* pasa necesariamente por tres estados teóricos diferentes: el estado teológico, o ficticio; el estado *metafísico*, o abstracto; el estado científico, o *positivo* [...]. Desde aquí proceden tres tipos de filosofías, o de sistemas conceptuales generales, acerca del conjunto de los fenómenos, que se excluyen recíprocamente. El primero es un punto de partida necesario para la inteligencia humana; el tercero es su estado fijo y definitivo; el segundo se halla destinado únicamente a servir como etapa de transición” (*apud* Reale & Antiseri 1988: III, 274; azpimarratua nirea da). Agian, azpimarraturiko hitz hauetan ikus daitezke hiru estadioen teoria hizkuntzalaritzari egokitzearen zioa eta geroko hipotesien iturburua. Izan ere, agertu zaigunez, *metafisiko* eta *positibo* hitz hauexek dira hizkuntzalari “berriek” erabili ohi zituzten adjektiboak, lehena aurrekoen lanak kritikatzeko eta bigarrena beren metodoa izendatzeko (ik. §4.3).

baino ez da (Bonaparte 1877c: 12). Bestalde, ezin baieztatu daitezke euskaldunak bihotzaren edo gogoaren nolakotasunetan direnik makurrago. Izan ere, edonork ezagutzen ditu euskaldunen zintzotasun, adorea eta leialtasuna. Printzeak mundu orori —Vinsoni barne— opa dizkio euskaldunen ezaugarriok:

Quant à nous, qui n'avons l'honneur d'être basque que par le cœur, nous souhaitons à tout individu de n'importe quel pays, sans excepter M. Vinson, l'intelligence, l'honnêteté, la bravoure, et surtout la loyauté qui se trouvent chez l'immense majorité des membres de cette noble race, un des plus beaux ornements de notre France. (Bonaparte 1877c: 12-13)

Vinsonen “erasoen” kontra Campi3n ere azaldu zen *Revista Euskara*-n, lehenago ere agertu zaigun artikulu batekin (Campi3n 1878). Bertan iberismoaren kontrako ikerlariak ez direla inpartzialak eta Euskal Herria mesprezatzeko dutela dio (ik. Campi3nen pasarteak, §4.5.5). Orobatsu Gorostidik beste lan batean (Gorostidi 1878).

Vinsonek salaketa hauei guztiei erantzun zien *Revista Euskara*-n bertan argitaratu zuen eta Campi3nek gaztelaniara itzuli zuen artikulu batean (Vinson 1879a). Aitortzen du Bonaparterekin zenbait arazo zientifikotan ez dagoela ados, alabaina berak inola ere ez dio euskarari kalte egin nahi. Nortzuk diren Euskal Herriaren benetako lagunak galdetzen du gero: iraganari begira, euskarari eta Euskal Herriari laudorioak ematea askiesten dutenak ala, aurrera begira, gizarte guztiarekin batera joan beharra ikusi eta Euskal Herriaren gaitzak konpontzeko asmoz aholkatzen eta kritikatzeko dutenak (Vinson 1879: 148). Artikulua euskarazko hitz batzuekin amaitzen du, non euskararenganako bere maitasuna azaltzen baitu:

Badakite nahi nukela herri huntako seme lehial eta azkar guziak heldu diran demboretan bizi daiten bethico, ez, orai bezala, bere baithan beretzat choilqui lan eginik, bere chocoan hil daiteno, bainan sociedade generalean sarturic igan

dezatentzat, lehembiziko lerroetan, mereci duten bezala, heren cualidade handi guziaz.

Badakite ere Laphurdin izan ditut adisquide onec cembait eta nola maite dudan eskuara, nola ikasi dudan mintzaira eder eta zahar hura, nola nahi nuken hura ere bizi dadin. Bainan nor ausartatuko dá gauzen ibiltzeari buruz alchatzera, demborari erranez: eztuk eginen hire obra? Hobe zait munduco gorabeherei yarraikitzea oroiturik atsoitsak erráiten duenez: *oro nahiz, oro gal!* (*ibid.*)

Berandu gabe etorriko zaie Vinsonen argitasun hauei beste alderditiko erantzuna, izenburu bereko Gorostidiren artikulu baten bitartez alegia (Gorostidi 1879). Gorostidik berriz ekiten dio Vinson Euskal Herriaren etsaia delako iritziari. Halaber, Bonapartek (1877c: 11-13) Iparraldeko datuez egin zuen bezala, Gipuzkoako zenbait jakingarriz baliatzen da, kultur maila bainoago euskaldunen moral eta ohitura bikainak —Gorostidik zibilizazioaren neurgarriak baiteritze— aldarrikatzeko (Gorostidi 1879: 227-230).²⁵¹

4.7 Euskalkiez

4.7.1 Euskalkien arteko erlazioak

Bonaparte printzeari bere euskalki eta hizkera sailkapenek ekarri zioten ospe handiena. Ez dut hemen euren xehetasunez luzatu nahi, hasieran esan dudan bezala aski aztertu izan baitira —ikus bitez kapitulu honen hasieran emandako erreferentziak, batez ere Mitxelena (1964) eta Yrizar (1981)—. Ohartarazi nahi nuke,

²⁵¹ *Revista Euskara*-ko artikulu hauetaz, ik. Granja Pascual (1986: 226-230).

ordea, Bonaparteren azken sailkapen argitaratuak (1863, 1869b)²⁵² izan zuen arrakasta. Izan ere, ikusten ari garen autore gehienek —eta bestek— aipatzen dute eta jarraituko diote euskalkiei buruz mintzatu behar dutenetan. Horrela bada, Vinson (1877a: xv-xviii), Campión (1878) eta Luchaire (1879: 97-100, 126) Printzearen euskalki edota azpieuskalki bakoitzeko herrien zerrenda eta Bonaparteren beste zenbait argibide dialektologiko errepikatzera mugatuko dira ia soilik.

Aitzitik, van Eys zertxobait aldentzen da sailkapen honetatik, *Grammaire*-n (1879: 1) sei euskalki nagusi bereizten baititu: “le biscaïen, le guipuzcoan, le labourdin, le bas-navarrais, le navarrais-espagnol & le souletin”. Hala ere, garbi utzi nahi du ez direla oso desberdinak, euskalki diferenteetako hiztunek elkarri ulertzeko dituzten zailtasunak gorabehera, euskalki guztiek mailegu bertsuak hartu eta eragin berberak jasan baitituzte. Orobat, lege fonetiko berberak dituztela gaineratzen du.²⁵³

Guztiarekin ere, bizkaierak gainerako euskalkiek baino itxura arkaikoagoa dukeelako iritzia aurreratzen du, Lacombe-ren eta Uhlenbeck-en lanak agertu baino

²⁵² Bonaparteren maparen eta *Le verbe basque*-ren argitalpen daten arazoaz, ik. Yrizar (1981: 105, 26 eta 27. oh.).

²⁵³ Hauxe da, nik uste, van Eysen ondoko pasarte honen muina: “Sauf les différences caractéristiques, les dialectes basques sont souvent pareils; des emprunts se sont faits de part & d’autre, ou des influences ont agi également chez les uns & chez les autres. Une langue dont tous les dialectes ont adopté en commun la totalité des lois phonétiques ne présentera guère des variations bien grandes” (1879: 1). Maileguei buruzko baieztapenak, oso oker ez banago, beste interpretazio bat ere onartzen du; hots, euskalkiek elkarri hartutako maileguak direlako. Haatik, lehena konformeago bide dago pasartearen testuinguruarekin, bai eta, bidenabar, datuekin ere.

mende erdi bat lehenago, azkenaren gehiegikerietara iristen ez bada ere.²⁵⁴

Bizkaieraren bereizgarriak, van Eysen ustez, ondoko hauek dira (1879: 2-4):

- a. Bi erregimendun aditz-jokoan —hots, NOR-NORI-NORK erakoan— bizkaierak hiru laguntzaile erabiltzen ditu, *eutsi* indikatiborako (adib. *deustazu*, 255. or.), *egin* subjuntiborako (*dagidazun*, 272. or.) eta **edin* ahalerarako (*daikedazu*, 243. or.), gainerako euskalkiak *euki*-z eta **ezan*-ez baliatzen direlarik.
- b. Hiatoak eta, oro har, bokal bikoitzak eta hirukoitzak agertzeko joera nabarmena du: B *zaar* / orok. *zahar*, *zar*; B *leengo* / orok. *lehengo*, *lengo*; B *debekau* / orok. *debekatu*.
- c. Zenbait hitz berezi bizkaieraz bakarrik erabiltzen dira: *gura*, kasu.

Halaber, zenbait bilakabide maizago gertatzen dira bizkaieran gainerako euskalkietan baino, hala nola artikuluak eragindako bokal-aldaketak —*semia semea*-ren ordez, *arnua arnoa*-ren ordez— eta *r*-ren galtzea —*semiaen semiaren*-en ordez, *no nor*-en ordez, *ze zer*-en ordez eta, oro har, singularreko genitiboaren *r*-ren erortzea—. Ezaugarri hauetatik eta beste batzuetatik honako ondorio hau aterako du van Eysek lerro batzuk beherago:

faudra-t-il en conclure que le guipuscoan & les dialectes basques français ont formé autrefois un groupe homogène, séparé du biscaïen, mais toujours dans une relation de dialectes, ou faudra-t-il envisager le biscaïen comme un dialecte plus ancien? Il serait peut-être prématuré de se prononcer sur cette question d'une

²⁵⁴ Bi autore hauen argudioen kritikarako, ik. Mitxelena (1964: 58 eta hh.; 1981) eta Lakarra (1986); cf., halaber, Zuazo (1988: 107 eta hh.).

manière décisive, mais il nous semble que le dialecte biscaïen pourrait être considéré comme l'aîné de la famille. (1879: 4)

Euskalkien arteko erlazioak direla eta, beste auzi bat hartu behar dugu kontuan, hastapenetik eztabaidagai ageri zen euskalki nagusiaren arazoa, hain zuzen. Lehentasuna gipuzkerari ala lapurterari —bion arteko hautua baita— eman behar zaion dugu hizpide. Alabaina, alferreko kontua eta funsgabea irudi balezake ere, arazo aipagarria da ene ustez, autoreok erakusten dituzten arrazoi eta argudioengatik eta, bereziki, K. Zuazok (1987: 930) azpimarratu duenez, hizkuntz eredu baten bilaketak euskaldunok elkarrengana hurbiltzea ekarri zuelako. Zentzu honetan, Vinsonen iritziz, hizkera guztien multzoa bakarrik izan daiteke euskararen eredu, oso handiak baitira beraien arteko desberdintasunak:

Le basque a quatre principaux dialectes: labourdin, souletin, gipuscoa [*sic*] et biscayen; mais il faut dire, en outre, que d'un village à l'autre on remarque des différences souvent importantes. Il est donc superflu de rechercher quel dialecte représente le mieux la langue; c'est seulement de l'ensemble de toutes les variétés qu'elle peut se dégager. (Vinson 1867: 382)

Luchairek (1877b), aldiz, lapurteraren alde joko du, forma zaharrak gipuzkerak baino hobeki gorde dituelakoan. Halaber, Vinson ere iritzi berekoa dela gehitzen du.²⁵⁵

Ezer gutxi gainera diezaioket, bestalde, Zuazok (1987: 932-934) Bonaparteri buruz zuzen esandakoari; ohartarazi nahi nuke, dena den, Printzeak bere lanetan bi

²⁵⁵ Nik bederen ez dut Vinsonen ustezko iritzi hori inon ere kausitu; beharbada, eta Luchaireren hitzak kontuan hartuz gero, ez litzateke harritzekoa izango ahozko komunikazioa izan zela pentsatzea: “M. Vinson considère même le labourdin comme mieux conservé que le gipuzcoan” (Luchaire 1877b: 380).

motatako arrazoiak darabiltzala gipuzkeraren gailentasuna aldarrikatzerakoan: aipatuenak arrazoi praktikoak-edo dira, gipuzkeraren jatortasunarekin, “erregulartasun” gramatikalarekin, hiztunen kopuru ugariarekin, eta abarrekin zerikusia dutenak (ik., esaterako, Bonaparte 1869b: 158; 1876: 5; cf., halaber, Azkue 1927: 13-14). Baina berebiziko garrantzia dute bestelako arrazoiak ere, arrazoi historikoak dei genitzakeenak. Azken hauek aspaldiko polemika baten alde bat baino ez dira: euskara Hegoaldetik Iparraldera ala Iparraldetik Hegoaldera eraman izan zen (cf. Gorrochategui 1984: 70 eta hh.; 1985: 574 eta hh.). Eztabaida horretaz jardungo dut hurrengo atalean.

4.7.2 Euskararen nondik norakoak: Hegoaldetik Iparraldera

Arazo honen abiaburuan, gure artean, Oihenarten *Notitia* (1638/1656) dugu, Toursko Gregorioren pasarte batean oinarritzen bide delarik (Gorrochategui 1984: 71, 64. oh.; Tovar 1980: 57). Beraren arabera, Akitania osoa erromatartu zen, Ipar Euskal Herria barne. Eta euskara Iparraldean, *Vasconia Aquitanica*, baskoien erasoen ondorioz sartuko zen lehenbizikoz, VI. mendean alegia. Hauxe zen, bada, Bonaparteren garaian hedatuen zegoen tesia:

Que le basque ait été importé d’Espagne en France, est une vérité historique généralement admise et enseignée comme telle, même dans les livres les plus élémentaires [...] La plupart des hommes instruits admettent toutefois que “La Gascogne, qui formait du temps des Romains la Novempopulanie ou Aquitaine 3^e. prit son nom des Vascons ou Basques, peuple d’Espagne qui, refoulé par les Goths, franchit les Pyrénées vers l’an 542, et s’établit dans les provinces nommées Gascogne et Guyenne.” (*Voyez* Bouillet “Dictionnaire universelle [*sic*] d’Histoire et de Géographie”, au mot *Gascogne*). (Bonaparte 1877a: 6-7)

Bonapartek honelako ideiak jaso zituen hainbat lanetan eta berauek eramango dute Hegoaldeko euskalkien —bereziki gipuzkeraren— jatortasunaren eta lehentasunaren alde egitera:

En ce qui concerne le guipuscoan, indépendamment de son vocabulaire et de la régularité de son verbe, il est, au point de vue pratique, le dialecte principal, le plus connu et le plus répandu du basque espagnol, de même que le labourdin moderne est, malgré son infériorité linguistique, le plus connu du basque français; mais comme les dialectes de France ne sont eux-mêmes en origine que des dialectes d'Espagne, il s'en suit que le guipuscoan se trouve être en même temps le premier des dialectes basques vivants. (Bonaparte 1876: 5)

Teoria honek eraginda, Bonapartek Hegoaldeko euskalkietako hizkuntz egiturak, hitzak, etab. hartuko ditu beti jatorrizkotzat. Printzearen lanetan barreiaturik, joera honen ondoko adibideok aurkitu ditut, laburki bada ere hurrengo lerroetan banan-banan ukituko ditudanok:

- a. *ü* eta *û* soinuak;
- b. *da* / *dago*;
- c. *esan* / *erran*;
- d. *bai(t)-*;
- e. *-ek* ergatibo plurala.

4.7.2.1 *Ü eta û soinuak*

Bonaparte bokal hauen auziaz *Le verbe basque*-n (1869b: xiv, 2. oh.) mintzo da, bigarrena aurrenekoaren eta *u*-ren arteko soinutzat (“une prononciation intermédiaire entre celle de l’*u*’ et de l’*ü*”) jotzen duelarik. Bi bokal biribildu hauen hedadura xeheki aipatu ondoren, Printzeak ohartarazten du *ü* Iparraldeko euskalkietan soilik, baina ez guztietan, agertzen dela eta bigarrena, aldiz, Frantziatik hurbilen dauden

Hegoaldeko haranetan. Hemendik bi hots hauen jatorri frantsesa ateratzeko ez du aparteko ahaleginik egin behar:

Si maintenant on considère d'une part que le son de l'*ü* n'existe qu'en France, et seulement en Soule, en Mixe et à Bardos d'une manière obligatoire et générale, et d'autre part, que le son vraiment intermédiaire '*û*' ne s'entend que dans les vallées espagnoles les plus rapprochées de la France, on pourra regarder, au moins comme possible, non seulement l'origine française de l'*ü*', mais aussi celle de l'*û*'.
(Bonaparte 1869b: xv, 2. oh.)

Baina bigarren aukera bat ere badakar, agi denez hobesten duena: *û* tarteko soinua jatorriz euskalduna litzateke (hots, Hegoaldekoa) eta, Iparraldera iragandakoan, hango euskaldunek frantsesaren eraginez *ü* bihurtuko zuten, azken soinua hau frantsesetik zuzenean mailegatu ez bazuten bederen:

Si nous penchons pour l'opinion contraire, seulement quant à l'*ü*', qui après tout n'existe pas en France, c'est qu'il nous paraît difficile de pouvoir admettre que les Basques français, qui sont tous d'origine espagnole, aient rien donné à l'Espagne. Ils auront bien probablement emprunté au français le son '*ü*', ou bien sous l'influence de cette langue, ils auront changé l'*û*' en '*ü*', mais quant au premier de ces sons, il doit être d'origine basque. (*ibid.*)

4.7.2.2 Da / dago

Vinsonek uste zuen Hegoaldeko euskalkietan gertatzen den *da / dago* bereizketa, azken honek lekuzko esangura duelarik, gaztelaniazko *ser / estar* aditzen bereizketaren kopia hutsa zela. Bonaparteren (1877b: 34) iritziz, berriz, alderantzizkoa jazo zen; hots, Iparraldeko euskalkiek euskaraz jatorrizkoa den erabilera hau frantsesaren eraginak kutsaturik galdu zuten, *egon* aditza erabat desagerrarazteko bezainbateko eragina nozitu ez bazuten ere. Bonapartek arrazoizkoa

deritzo jatorrizko erabilera Hegoaldeko euskalkietan hobeki gordetzeari, euskara Iparraldera penintsulatik ekarri izan zelako (*ibid.*).

4.7.2.3 Esan / erran

Orobat, Vinsonek *esan erran*-en aldaera dela dioelarik, Bonapartek kontrako iritzia agertzen du berrero ere arrazoi bertsuak erabiliz:

Nous ne saurions assez protester contre cette mauvaise habitude de conclure du basque de France ou de Navarre au guipuscoan et au bisciaïen. C'est le contraire qui devrait avoir lieu, car les dialectes basques de France ne s'étant formés que de ceux de la Navarre espagnole, et le guipuscoan et le bisciaïen ayant toujours été considérés comme les plus anciens et les plus importants de tous les dialectes basques, c'est bien de ceux-ci qu'il faudrait conclure à ceux-là, à parité de circonstances. Nous dirons donc que *erran* est une variété de *esan*. (Bonaparte 1877b: 38-39)

Beraz, bestelako arrazoirik ezean, Hegoaldeko formak hartu behar dira beti jatorrizkotzat.

4.7.2.4 Bai(t)-

Kasu honetan ere Hegoaldean bilatu behar da iturria, Printzearen ustez. Izan ere, Bonaparte ohartzen da, Vinson (1876) ez bezala, *bai(t)*- aditz aurrizkia Iparraldeko euskalkietan ez ezik Nafarroakoetan ere erabiltzen dela:²⁵⁶

²⁵⁶ Oroit bedi, dena den, dagoeneko *Le verbe basque*-n egin zuela antzeko adierazpen bat (“La forme causative (*baitu*, etc.) appartient à tous les dialectes, moins le guip. et le bisc.”) eta, argitaratu gabe ere, 1864an Etxenikeri zuzendutako gutun batean gipuzkeraren eta nafarreraren arteko muga erabakitzeke irizpidetzat erabiltzen duela: “*Ceren ona baita* ou bien *ceren ona dan* pour exprimer: *porque es bueno, parce qu’il est bon*. Le *baita*, le *baitu* etc. ne sont pas guipuscoans. Il est bien vrai

La forme causative, contrairement à ce qui dit M. Vinson, existe dans les deux dialectes navarraïens espagnols, d'où elle a passé en France, et c'est probablement sous l'influence du guipuscoan que par exception elle ne se trouve plus ni à Irun ni à Fontarabie, du moins chez les personnes qui s'en tiennent au parler exact de leur localité. (Bonaparte 1877b: 39-40)

4.7.2.5 *-ek ergatibo plurala*

Vinsonek (1876) uste du ergatibo pluralaren *-ek* marka²⁵⁷ Iparraldeko euskalkietan bakarrik gertatzen dela. Bonaparte, aldiz, euskalkiez zuen ezaguera sakonaz baliaturik, aurki konturatu zen (1862: 36-39) bi *-ek* diferente zeudela euskaraz: bata, aurreko silabako bokal itxi —Printzeak “douce” dio— baten eraginez itxi den *a* batek gertarazten du; bestea, berezko *-ek* atzizkia da. Lehenbizikoa, esaterako, horrelako bilakabidea duten euskalkietan erabiltzen da, bai ergatibo pluralerako eta bai ergatibo singularerako eta absolutibo pluralerako ere —Printzeak “actifs du pluriel”, “actifs du singulier” eta “nominatifs du pluriel” deitzen die, hurrenez hurren—, aldaera eufonikoak baizik ez baitira. Baina Iparraldeko euskalkietan eta goi nafarrerazko zenbait hizkeratan (1862: 38) agertutakoak ez du aurrekoarekin zerikusirik:

Le rôle que l'*e* y joue dans les dialectes basques n'a rien d'euphonique; il est idéologique, puisqu'il sert à distinguer l'actif du pluriel du nominatif du même nombre, nominatif qui en France comme en Espagne se trouve être toujours identique avec l'actif du singulier. C'est à cause de cette distinction importante que

que je trouve *baita*, mais rarement, dans les catéchismes d'Urdiain et d'Etcharri-Aranaz, mais voilà tout ce que j'y trouve de vraiment navarraïens” (*apud* Urquijo 1910: 280).

²⁵⁷ Vinsonek, jakina, ez du *ergatibo* deitura erabiltzen, “nominatif” baizik; *ergatibo* terminoaren historiarako, ik. Seely (1977).

le basque français ne néglige jamais à son grand avantage de faire au pluriel, comme elle est toujours faite dans tous les dialectes au singulier, que les formes *mendiek*, etc. ne peuvent jamais appartenir qu'à l'actif du pluriel, tandis qu'en basque espagnol elles peuvent à son grand détriment s'appliquer, de même que les formes *mendiak*, etc., soit à l'actif singulier, soit au nominatif pluriel, soit à l'actif pluriel. (1862: 39)

Zenbait urte geroago (1877b), Bonapartek berriz eutsiko dio gaiari, oraingoan non erabiltzen den *-ek* “ideologikoa” zehatzagotuz eta haren jatorria nondik norakoa den azalduz:

Nous n'admettons pas le moins du monde que les dialectes basques espagnols n'aient pas le suffixe actif pluriel en *ek*. Le dialecte haut-navarrais méridional en fait un usage aussi fréquent qu'en France, où c'est bien d'Espagne, après tout, que ce suffixe s'est introduit. Le guipuscoan et le biscaïen l'ignorent, et il en est de même du haut-navarrais septentrional pour ceux qui préfèrent de considérer le baztanais, qui le possède, comme un sous-dialecte du labourdin. (1877b: 41-42)

4.7.3 Iparraldetik Hegoaldera

Aitzitik, Luchairek ez zuen onartu Hegoaldeko euskalkiak zaharragoak zirelako iritzizabaldua. Edo, bederen, Bonaparteren “Observations...” (1877b) lana iruzkintzen duelarik dioen bezala, auzia ez dago zeharo garbi eta erabakirik:

nous n'admettrons qu'avec réserve son opinion, plusieurs fois énoncée dans cette brochure (p. 34, 39, 42), sur l'antériorité des dialectes espagnols et leur supériorité vis-à-vis des dialectes français. Prétendre que le basque a été “importé d'Espagne en France par les habitants de la Péninsule” [...] c'est résoudre bien promptement une question d'origine très-grave et très-délicate. Comment le prince B. pourrait-il démontrer que les Basques français ne sont pas aussi anciens dans leur pays que les Basques espagnols dans le leur? Nous aimerions à voir cette thèse soutenue avec les développements qu'elle comporte. (Luchaire 1877b: 380)

Jakina denez, Luchairek gaskoia gainerako oc hizkuntzetatik bereizten duten zenbait ezaugarri azaltzeko euskararen (edo antzekoren baten) substratuaren beharra ikusi eta Akitaniako inskripzio zaharretako onomastika aztertu ondoren (Luchaire 1877a), bertako biztanleak erromatarren garaian jadanik euskaraz mintzatzen zirela frogatu izan zuen, Oihenartek-eta aldeztutako tesia bertan behera utzi zuelarik.²⁵⁸ Nolanahi ere den, ez dugu ahantzi behar Luchaireren ideia berri hauen iturburuan oraindik ere iberismoa dagoela. Hortaz, euskararen muga zaharrak iparralderantz ez ezik hegoalderantz ere luzatzen zituen.

4.8 Bukatzeko

Aurreko orrialdeetan Bonaparte printzeak garaiko zenbait euskalari eta, oro har, hizkuntzalarirekin izandako eztabaiden berri eman dut. Honen bitartez, Bonapartek eta gainerako eztabaidakideek euskara, hizkuntza eta hizkuntzalaritzari buruz zituzten ideia nagusiak azaltzea izan dut helburu. Oro har, Bonaparte printzea euskal gramatikari eta apologistengandik hurbil agertzen zaigu (Larramendi, Duvoisin, Inchauspe...), Humboldtten itzala ahantzi gabe. Horrela, euren ideiak defendatu zituen, iberismoa kasu, eta euskararen egokitasuna aldarrikatu zuen.

Vinsonnek, ostera, Alemaniatik etorrira Frantzian sustraitu zen korronte bati eutsi zion, Schleicher-en eskutik sortu zen hizkuntzalaritza naturalistari alegia. Pentsamolde horrek, besteak beste, euskara gizarte modernoan erabiltzeko gai ez zela

²⁵⁸ Gauza jakina da Mitxelenaren ustez Luchaire (Schuchardt ez bezala) bereziki historialaria eta bigarren maila batean hizkuntzalaria zelako iritsi ahal izan zela, hutsak gorabehera, halako

ondorioztatzera eraman zuen, euskaldunen gorrotoa erdietsiz. Bestalde, zientifikotasunarekiko kezka iberismoaren kontra idaztera ere bultzatu zuen.

Van Eyssek Bonaparteren kontra eztabaidatu zuen gehienetan. Vinson baino teoria linguistiko gutxiagoz jantzita bazen ere, bere lanetan tonu gogorra erabili zuen maiz eta zientziarekiko kezka handia izan zuen. Gainera, euskara Vinsonek baino hobeto ezagutu baitzuen, metodoari buruzko ardurak lagunduta, euskararen azterketan aurkikuntza interesgarri zenbait lortu zituen.

Eztabaidetan esku-hartze apalagoa izan zuten Campión edo Luchaire bezalako autoreak noiz Bonaparterekin bat, noiz Bonaparteren kontra aurkitzen ditugu; Campiónek Printzearekiko zuen miresmena eta Luchaire historialariaren oreka dira, nire ustez, autoreon ezaugarriarik aipagarrienak.

Kapitulu honen mugak finkatu behar baintuen, gai asko geratu dira agertzeke edo sakonki aztertzeke; esaterako, fonetika-fonologiaren arloan *k*- eta *h*-ren kontua (zein zaharrena); [f], [x] eta [ɲ] soinuen antzinasuna euskaraz; kontsonante-taldeen ugaritasuna, etab.; morfologian, euskararen deklinabide zaharra, *zu* izenordainaren antzinasuna eta, bereziki, aditz teoriaren inguruko eztabaida, zalantzarik gabe sutsuenetariko bat (zernahi gisaz, eztabaida honen alderdi batzuk 7. kapituluan bildu ditut); azkenik, hiztegiari dagokionez, autore batzuek emandako etimologien iruzkina.

Bestalde, Vinsonen Schleicherrekiko zorra azaldu badut ere, agian gehiago luzatu beharko nukeen Bonaparte, van Eys eta Vinsonen hizkuntz ideien iturburuen azterketan —nabarmenenak baino ez aipatzearen—. Izan ere, hemen aipamen soila izan duten zenbait “maisuren” lanek —Curtius, Chavée, Pezzi eta Ribáryrenek—, hala nola Vinsonek Hovelacqueri eta Bonapartek euskal gramatikari zaharrei zor dizkietenek miaketa sakona merezi lukete. Baina oraingoz bego horrela.

5 Van Eysen *Essai de grammaire de la langue basque* (1865, 1867)

5.1 Sarrera*

Kapitulu honetan egile holandar batek guztiz euskararen gainean burututako lehenbiziko lanak aztertuko ditut. Willem Jan van Eysen *Essai de grammaire de la langue basque* (aurrerantzean *EGLB*) liburuaz ari naiz, Amsterdamen bi ediziotan 1865 eta 1867an argitaratu zena. Gramatika-liburu hau ez da, haatik, Herbehereetan euskarari buruzko interesaren abiapuntua. Aski izan bedi Paullus Merulak bere *Cosmographia generalis* lanean (Amsterdam, 1605; cf. Urquijo 1987) Euskal Herriari eskaini zizkion orrialdeak gogora ekartzea.

Aurrenik, van Eysen bizitzari eta lan nagusiei buruzko zenbait argibide emango ditut (§5.2); hurrenik, *EGLB*ren bi edizioen arteko desberdintasunak nabarmenduko ditut (§5.3). Kapituluaren atal nagusia (§5.4) *EGLB*ren edukia xeheki aztertzeko baliatuko dut, van Eysek gramatika-liburu hartan azaldu zituen hizkuntz ideiak aurkezteko asmoz: helburuak eta iturriak (§5.4.1), ortografia eta ahoskera (§5.4.2),

* Kapitulu honen oinarria Gómez (2002b) da.

artikulu eta deklinabidea (§5.4.3), adjektiboa (§5.4.4), izenordainak (§5.4.5), zenbatzaileak (§5.4.6), atzizkiak (§5.4.7), aditza (§5.4.8), adberbioa (§5.4.9), juntagailua (§5.4.10) eta sintaxia (§5.4.11). Azkenik, *EGLBk* jaso zituen kritika batzuk eta van Eysen erantzunak laburtuko ditut (§5.5).

5.2 Ohar bio-bibliografikoak

Ez da askorik idatzi Willem Jan van Eysen bizitzari buruz.²⁵⁹ Amsterdamen sortu zen, 1825eko apirilaren 16an. Hizkuntzalaritza bere kabuz ikasi zuen eta, garai batean heraldika-lanari lotu ondoren, bere jarduera zientifikoan euskararen azterketari ekin zion gehienbat. Lacomberen (1914-1917: 386) arabera, van Eys euskaraz arduratzeko arrazoia ezusteko baten ondorio izan zen ia: adiskide batek euskal musikaz iker zezan eskatu baitzion, doinuei laguntzen zieten hitzak itzuli nahi izan zituen eta, horretarako, zenbait liburu kontsultatu behar izan zituen. Hortaz, aurrerantzean idatzitako ia lan guztiak euskarari buruzkoak izan ziren. Salbuespen bakarrak, agi denez, bi dira: nederlanderaren gramatikari buruzko lan labur bat (van Eys 1890) eta XV-XVI. mendeetako frantseseko Biblien eta Testamentu Berrien gaineko bi liburuki bibliografiko (van Eys 1900-1901). Areago dena, azken lan honek ere badu van Eysen euskal ikerketekin nolabaiteko lotura; izan ere, bibliografia prestatzeko ideia, bere hitzetan, “indagando de qué edición se sirvió Leizarraga para su traducción vasca del Nuevo Testamento” bururatu baitzitzaion (*apud* Lacombe 1908: 806).

²⁵⁹ Lacombe (1908, 1914-1917) emandako argibide laburrei jarraituko diet nagusiki.

Van Eysek bi bidaia egin zituen Euskal Herrira, lehena 1866an eta bigarrena 1868an. Bietan bere emazte Mathilderekin etorri zen eta honek kontakizun bana utzi digu; aurrenekoa bere oroitzapenak baliatuz osatu zuen eta, bigarreneko, bidaian zehar idatzi zuen egunkarian oinarritu zen (M. van Eys 1927a, 1927b).²⁶⁰

Lehenengo bidaian van Eys euskara ikasten²⁶¹ hasi zen, Zarautzen Gregorio Arrue maisu hernaniarra irakasle zuela (Villasante 1979: 280). Itzulitakoan *EGLB* berrikusteari eta osatzeari ekin zion eta hiztegian lan egiten hasi zen (van Eys 1873a). Bigarren bidaian Vinson ezagutzen du Baionan. Lehenengo egunetan van Eystarrak Lapurdiko Getarian hartu zuten ostatu eta herri hartan gramatikariak euskara ikasten jarraitu zuen. Zarautza aldaturik, Arrueren irakaspenak berrartu zituen. Bigarren bidaiaren amaieran, iraileko iraultzak (1868ko *Gloriosa* edo Ospagarria) ustekabean harrapatu zituen senar-emazteak eta haren kariatz Holandara itzuli behar izan zuten.

Bi bidaietan lortu zuen euskararen ezaguera sakontze aldera, van Eysek liburuetan ikasten jarraitu zuen. Zenbait liburu zahar izatera ere iritsi zen eta hildakoan

²⁶⁰ Kontakizun hauek irakurtzea gozamen ederra da. Hizkuntzaren inguruko kezka alde batera utzita, Mathilde van Eysek garaiko bizimoduari buruzko zertzeladez hornitzen du bidaiaren kontaera: sarritan kezu da ostatu duin bat lortzeko zailtasunez, zomorroak eta kiratsa izaten baitira nagusi; zenbait janari tipiko eta ohitura folkloriko eta erlijiosoren berri ematen du, nahiz eta batzuetan harridura handia sorrarazten dioten; itsasoko bainuak hartzeko modu bitxiak jakinarazten dizkigu; Isabel IIa erreginak Zarautza egindako bisita kontatzen du; zezenketek eragiten dioten izua aditzera emateko adjektibo ugariz baliatzen da; eskola-eraztunaren ohitura aipatzen du, etab.

²⁶¹ Beste alde batetik, van Eysek frantsesa menderatzen zuen eta hizkuntza horixe baliatu zuen bere lan gehienak idazteko; orobat, alemana, ingelesa, espainiera eta italiera ikasi zituen (Lacombe 1914-

Lovainako Unibertsitateak jarauntsi zituen.²⁶² 1896tik aurrera, osasun-arazoak zirela eta, idazteari utzi zion. Van Eys 1914ko apirilaren 17an San Remon hil zen; hiri hartan ezarri izan zen, aurreko lau urteetan Londresen bizi izan ondoren.

Lacombek (1908) van Eysen euskalari-lan guztien zerrenda bat burutu zuen eta Bilbaok (1970 eta hh.) askoz osoago bat eskaini digu. Atal honetan, hortaz, ez ditut holandarraren lan guztiak aipatuko, nire ustez garrantzia duten batzuk laburki iruzkintzera mugatuko naizelarik.

EGLB argitaratu ondoren, van Eysen hurrengo lan handia²⁶³ *Dictionnaire basque-français* izan zen (van Eys 1873a), gutxienez 1865etik lantzen ari zena. Sarreran van Eysen bere zenbait iturri aipatzen ditu: lapurterarako Pouvreau, behe nafarrerarako Salaberri eta Leizarraga eta gipuzkerarako Larramendi (aukerarik txikiena duen oro kritikatzeko duen arren). Hiztegiaren erro bereko hitzak biltzen ditu eta euskarara egokituta ez dauden maileguak berariaz bazter uzten ditu. Van Eysen hiztegiaren sarrera baliatzen du arlo lexikografikotik at dauden zenbait gairen gainean jarduteko, artean eztabaidagai baitziren. Horrela, Vinson, Bonaparte, Charencey, Francisque-Michel eta Inchausperen zenbait lan kritikatzeko ditu; lanok aditz teoriaren edo euskararen eta beste zenbait hizkuntzaren arteko konparaketaz ari ziren (eztabaida

17: 388).

²⁶² Euren zerrenda Lacombe (1918) lanean kontsulta daiteke.

²⁶³ Handia garaiari bagagozkio bederen, denborak aurrera egin ahala lan batek utzi zuen itzala maizegi apaltzen baita. Halaxe nabarmendu zuen Mitxelenak: “Gure egunotan, izan ere, ez baitzaizkigu ez van Eys ez honen Gramatika-Hiztegiak halako erraldoi itxuran agertzen” (Mitxelena 1985a: 497).

horietariko batzuk 4. kapituluan aztertu ditut). Beste alde batetik, Duvoisinek idatzitako *EGLB*ren iruzkina (Duvoisin 1868) aldatzen du van Eysek sarrera horretara, baita hari egindako erantzuna (van Eys 1868), *RLP* aldizkarian euskal artikulua etorkiaz argitaratutako artikulua bat (van Eys 1873b) eta 1867ko *EGLB*ren bigarren kapitulu osoa ere, azken honi zenbait ohar eransten dizkiolarik.

Hurrengo bi urteetan, euskal aditz laguntzaileari buruzko bi lantxo eman zituen argitara (van Eys 1874b, 1875). Haietan gaiari buruzko aurreko lanak kritikatzeko ditu, besteak beste Zabala, Inchauspe, Vinson eta Bonaparterenak —nahiz eta artean Printzearen *Le verbe basque en tableaux* liburua ez zuen zuzenean ezagutzen—, eta hurrenik bere teoria aurkezten du. Hitz gutxitan, van Eysek proposatzen du euskarari bi laguntzaile daudela, bata iragangaitza eta bestea iragankorra. Adizki laguntzaile iragangaitzak *izan*-etik eratorriko lirake eta iragankorrak, nagusiki *eroan*-etik. Gainera, badira beste erro laguntzaile batzuk, denbora, modu eta komunztaduraren arabera banatzen direnak: *adin* iragangaitzetan eta *adin* bera, *ezan*, *eutsi*, *egin* eta *-au-* iragankorretan. Nolanahi ere den, 1875eko lanaren eranskinean, van Eysek *iduki* aditza sartzen du eta adizki laguntzaile iragankor “absolutuen” —hots, datibo-komunztadurarik gabekoen— jatorritzat hartzen du; proposamen hau hurrengo lanean garatuko du, berehala azalduko dudanez.

1879an van Eysek oso asmo handiko lan bat argitaratzen du, *EGLB*rekin jorratutako bidea osatu nahi zuena, euskalkien gramatika konparatzaile bat alegia (van Eys 1879). Van Eysen funtsezko helburua euskararen gramatika gainontzeko hizkuntzena bezalaxe aztertu daitekeela erakustea da; hau da, datuen behatze eta metodo zientifikoaren ezartzearen bitartez, aparteko eta naturaz gaindiko azalpen eta

teorietara jo gabe (1879: vii-viii). Horretarako, van Eys (1879: 1) sei euskalkietatik hartutako datuez baliatzen da: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, behe nafarrera, goi nafarrera —“espainiar nafarrera” izendatzen duena— eta zuberera; alabaina, egiatan lau literatur euskalkiak erabiltzen ditu, ez besterik, nafarrak eta ahozko hizkuntzari dagozkionak bazter uzten dituelarik (1879: 9). Van Eysen gramatika konparatzaileak kapitulu honetan kausi daitekeen baino azterketa sakonagoa merezi luke, ezbairik gabe.²⁶⁴

Sarasolak (1989) lehen hurbilketa bat aurkeztu du; bere lanean gramatika konparatzailearen honako alderdi hauek nabarmendu ditu: haren modernotasuna, euskararen deskribapenean dituen ekarpen egokiak eta holandarrak euskararen azterketa gainerako hizkuntzenarekin parekatzeko egiten dituen ahaleginak, gorago aipatu dudan legez. *EGLB*ren erdiespen batzuk gramatika konparatzailean errepikatzen dira eta van Eysen berak zerrendatzen ditu bigarren lanaren sarreran.²⁶⁵

²⁶⁴ Oraingoan, gramatika konparatzailearen egitura aipatu baizik ez dut egingo: (i) euskalkiak; (ii) alfabetoa eta ahoskera; (iii) euskal sistema fonetikoa; (iv) artikulua; (v) izena; (vi) aglutinazioa —non izenen eta atzizkien “bitarteko bokalak”, berak deitu bezala, aztertzen baititu, ez beti oso egoki baina—; (vii) atzizkiak —non ukatzen baitu deklinabide-sistema bat osatzen dutenik, jakina denez—; (viii) izenordainak; (ix) zenbatzaileak; (x) aditza; (xi) jatorrizko aditz erregularra —hots, trinkoa—; (xii) aditz laguntzaileen modu eta denboren eraketa; (xiii) aditz laguntzaileak; (xiv) *eduki* aditz izena; (xv) *izan* aditz laguntzailea; (xvi) aditz-joko erlatiboak; (xvii) aditz jokatu perifrastikoaren taula; (xviii) adberbioak; (xix) juntagailuak; (xx) hitz-eraketa. Sintaxia: (xxi) artikulua; (xxii) izena; (xxiii) izenordainak; (xxiv) aditza; (xxv) juntagailuak; (xxvi) adberbioak.

²⁶⁵ Sarasolak van Eysen ekarpen bat aipatzen du, besteak beste, alegia “aditz-izenenkiko [*sic*] -n-a non kasu-atzizkikoa dela” ohartaraztea, Lafon ideia horren egile izana ezeztatzen duelarik (Sarasola 1989: 92). Ordea, egun badakigu delako analisi hori gutxienez Darrigolen gramatikara gibelatu behar dugula (1827; cf., orobat, Gómez 2002a eta hemengo §7.5), nahiz eta lehenago Humboldtnek nolabait

Nous aimerions seulement indiquer ici sommairement les innovations introduites dans notre Essai, tous autant pour pouvoir embrasser, d'un coup d'œil le chemin parcouru, que pour d'autres raisons personnelles. Chacun, en faisant son inventaire, sait ce dont il est responsable. Nous ne citerons que les faits principaux:

Le système phonétique.

L'article ou le pronom était primitivement *ar*.

La déclinaison n'existe pas.

Le pronom *zu* est un pluriel; *hi*, seul est singulier; *zuek* est le pluriel de *zu*.

Le superlatif est le génitif pluriel.

Le pronom possessif est le génitif du pronom personnel.

Il y a des suffixes composés.

Le futur périphrastique est rendu par le génitif de l'adjectif verbal.

Il y a plus d'un auxiliaire.

Plusieurs des innovations qu'on trouvera dans ce volume-ci avaient déjà été indiquées dans notre Etude sur les Verbes auxiliaires. (van Eys 1879: ix)

1883an van Eysek ingelesez idatzitako euskal gramatika bat argitaratzen du, Europako eta Asiako hizkuntzen gramatika laburren bilduma bati dagokiona (van Eys 1883a). Lan horretan gramatika konparatzailean xeheki azaldu zituen ideiak eta analisiak laburbiltzen ditu. Urte berean hitanozko adizki alokutiboei buruzko lantxo bat agertu zen (van Eys 1883b); bidenabar, van Eys lan berri honetaz baliatu zen Vinsonek gramatika konparatzailea zela-eta egindako kritikei (Vinson 1880) zehazki erantzuteko ere.

Azkenik, 1890ean van Eysek Leizarragak Testamentu Berriaren itzulpenean (1571) erabili zituen adizki laguntzaileak zenbait paradigmatan biltzen dituen

sumatu zuen (Gómez 1996 eta hemengo §2.4.9).

liburuxka bat eman zuen argitara. Ohartarazi behar da adizki bakoitzaren aldean bera dakarren pasarte adierazten duela.

Euskal gramatikari buruzko lan ugariekin batera, holandarraren lan filologikoa ere gogorarazi behar da. Hain zuzen, 1894an van Eysek *Refranes y Sentencias* (1596) liburuaren ale ezagun bakarra aurkitu zuen, Darmstadt-eko herri-liburutegian gorderik zena, eta 1896an testua argitaratu zuen. Agi denez, ale hura Bigarren Mundu Gerrako bonbardaketa baten ondorioz galdu zen. Hala eta guztiz ere, gaur ezagutu ahal dugu van Eysek berak ateratako argazkiei esker, Irigoyenek (1975) eta Lakarrak (1996a) argitaratu baitituzte. Darmstadt-eko alea desagertu aurretik, Julien Vinsonek eta Julio Urquijok gutxienez kontsultatu ahal izan zuten. Lehenak bere bibliografia ospetsuan (Vinson 1891-1898) alearen deskribapen zehatza eskaini zigun. Urquijok, bestalde, Schuchardti van Eysen edizioak zituen akats frankoren zerrenda bidali zion (Hurch & Kerejeta 1997: 68, 125). Honezaz gainera, van Eysek Leizarragak itzultitako San Mateoren Ebanjelioa argitaratu zuen (van Eys 1877), hala nola San Joanenaren zati bat (X. kapitulua arte); halaber, Etxepare eta Leizarragaren hizkeren zenbait arazo aztertu zituen.

Euskalari-lanetan hasi zenetik, van Eysek eztabaida latzak izan zituen garaiko beste zenbait autorerekin, bereziki Jean Duvoisin, Bonaparte printzea eta Julien Vinsonekin (ik. Gómez 1989 eta tesi honetako 4. kapitulua); polemika hauetan behin baino gehiagotan erabili zen oso tonu sutsua, inoiz bortitzegia ere bai.

Van Eysen lanen eraginaz den bezainbatean, gauza jakina da Sabino Arana-Goirik (1865-1903) hiztegia baliatu zuela euskara ikasten hasteko (Villasante 1979: 293). Beste alde batetik, oso litekeena da Christianus Cornelius Uhlenbeck holandarrak

(1866-1950) gaztetan van Eysen lanen eragina jaso izana; horrexek eraman zezakeen hizkuntzalari-lanaren zati bat euskararen azterketara eta euskarak gainerako hizkuntzekin dukeen erlazioetara bideratzea (Villasante 1979: 413-414).

5.3 *EGLB*ren edizioak

Essai de grammaire de la langue basque saiakeraren lehen edizioa Amsterdamen agertu zen 1865ean, egilearen izenik gabe. Zortzi orrialdeko hitzaurre batek (“Avant-propos”) eta 78 orrialde betetzen dituzten hamaika kapituluk osatzen dute liburua. Lehenengo edizio hau, Lacombe (1914-17: 387) dioenez, “hasiberri baten bekatua” da, argi eta garbi Larramendi (1729), Humboldt (1817) eta Lardizabalen (1856) lanen zordun agertzen delarik. Larramendiren itzala saiakera guztian zehar nabari daiteke, hala testuan nola, batez ere, van Eysek ematen dituen euskal adibideetan.²⁶⁶ Haatik, Euskal Herrira egindako lehen bidaiaren ondoren, van Eysek sakonki berrikusi eta zuzendu zuen bere gramatika-lana; horrela, 1867an eta berriro Amsterdamen, bigarren edizio bat argitaratu zuen, askoz zabalagoa eta oraingoan egilearen izena zuela. Bigarren edizioaren hasieran lehenaren hitzaurrea errepikatzen da; beronen segidan, aurkibidea, zuzenketa-zerrenda bat eta hamabost orrialdeko sarrera berri bat (“Introduction”) datoz. Liburuaren egitura nagusia hamahiru kapitulu gehi “Essai de traduction interlinéaire” bat²⁶⁷ izateko aldatzen da, guztira 133 orrialde dituelarik.

²⁶⁶ Ildo honetatik, arraroa dirudi van Eysek saiakeraren zati bat bederen euskal azentuaren deskribapenari ez eskaintzea, Larramendiren gramatikan gai honek hogeita hamar orrialdetik gora betetzen baitzituen.

²⁶⁷ Berez Lardizabalen *Testamentu zarreco eta berrico condairaren* aitzinsolasa da; lan honen

Ondoko taula honek edizio bakoitzak dituen kapituluak erakusten ditu, orrialdeak ere zehazten direla:

<i>EGLB1865</i>	<i>EGLB1867</i> ²⁶⁸
	I. [§1. L’alphabet], [§2. La prononciation] (1-6)
	II. Système phonique et orthographe (7-11)
I. De l’article, du substantif et de la déclinaison (1-5)	III. [§1. De l’article, du substantif et de la déclinaison], [§2. L’article], [§3. Déclinaison du substantif avec l’article] (12-16)
II. L’adjectif, le comparatif et le superlatif (6-7)	IV. L’adjectif, le comparatif et le superlatif (17-19)
III. Les pronoms (6-12)	V. Les pronoms (20-30)
IV. Les noms de nombre (13-14)	VI. Le pronom relatif (31-36)
V. Le pronom relatif (14-19)	VII. Les noms de nombre (37-39)
VI. Les suffixes (20-24)	VIII. Les suffixes (40-54)
VII. Le verbe (25-61)	IX. Le verbe (55-101)
VIII. Observations sur le verbe (62-70)	X. Le verbe auxiliaire actif (102-114) ²⁶⁹
IX. Les adverbes (71-72)	XI. Les adverbes (115-116)
X. Les conjonctions (73-74)	XII. Les conjonctions (117-118)
XI. Syntaxe (75-78)	XIII. Syntaxe (119-128)
	[XIV.] Essai de traduction interlinéaire (129-133)

ediziorako, ik. Urgell (1995b). Atal horretan van Eysek testuaren lerroen artean tartekatutako hitzez hitzeko itzulpen bat, testu osoaren beste bat eta zenbait hitzen azterketa morfologikoa burutzen ditu.

²⁶⁸ Epigraferik ez duten kapituluetarako kortxete arteko paragrafoen izenburuak erabili ditut.

²⁶⁹ Egia esan, azken bi orrialdeak bi taula zabalgarri dira, orrialde bikoitz bana betetzen dutenak.

Zazpigarren taula: *EGLB*-en bi edizioen kapituluak

Ikus daitekeenez, lanaren egitura gutxi aldatzen da edizio batetik bestera. Alabaina, zenbait kapitulutuan edukia sakonki aldatzen da; atzizkiez, aditzaz eta sintaxiaz diharduten kapituluetan batik bat.

Bestalde, bigarren edizioan van Eysek euskararen eta inguruko hizkuntzen egituren arteko kidetasunak nabarmendu nahi ditu, horretarako liburu guztian zehar hainbat adibide eskaintzen dituelarik. Halaber, van Eysek gramatikako materiala berrantolatuko du, aurreneko edizioan hitz ordenari zegozkion ohar sakabanatu guztiak bigarren edizioan sintaxiari buruzko kapituluak bilduko baititu. Honek azalduko luke, zati handiengan bederen, 1867ko edizioan sintaxiari buruzko atala ohargarriki luzatzea.

5.4 *EGLB*ren ekarpena euskal gramatikari

Atal honetan *EGLB*ren kapitulu bakoitzeko edukiak berrikusiko ditut, van Eysen hizkuntz ideiak eta iturriak hobeki ezagutarazten laguntzeko asmoz.²⁷⁰ Nolanahi ere den, ez diot beti van Eysen kapituluaren hurrenkera berari jarraituko, edizio batetik bestera aldaketa ñimiño batzuk daudelako, aurreko atalean erakutsi dudanez. Era berean, elkarrekin lotuta deritzedan kapitulu batzuk, edota gramatika-kategoria berberari dagozkionak, atal berean aztertuko ditut.

²⁷⁰ Argitaragabe dagoen lan batean, Arteatxek (2001) *EGLB*ren bi edizioen balizko iturriak miatu ditu, euskal deklinabideari eta aditzari dagozkien ideietan arreta jarritz.

Van Eysek dakartzan euskal adibideak —esan dudanez, gehienbat Larramendiri hartuak— eta euren inguruko arazoak ez ditut xeheki aztertuko, ez eta adibideotan edizio batetik bestera dauden aldaketak ere. Hortaz, bereziki saiakeraren egiturari antzematen zaizkion funtsezko aldaketak eta van Eysen analisi gramatikal aipagarrienak iruzkinduko ditut. Aitzitik, van Eysen gainerako lanetan agertzen diren hizkuntz ideien azterketa xehea ez dut honetan eskainiko, ezta beste euskalari batzuen ideiekiko erkaketa sakona ere. Hurrengo orrietan, beraz, *EGLB*ren eduki nagusiak deskribatzea eta euskal gramatikari buruzko beste zenbait lanekin hauteman daitezkeen antzekotasun eta desberdintasun batzuk azaleratzea izango ditut helburu.

5.4.1 *EGLB*ren helburuak eta iturriak

*EGLB*ren lehenengo edizioaren hitzaurrean eta, batez ere, bigarren edizioaren sarreran, van Eysek bere gramatikaren xedeak seinalatzen ditu eta, bere iritziz, euskalaritzak jorratu behar lituzkeen ildoak azaltzen ditu. Orobat, egile batzuk aipatzen ditu, zeini gogorki zeini leunki kritikatzeko baititu: Larramendi, Lardizabal, Duvoisin, Darrigol, Inchauspe, Oihenart eta Charencey. Salbuespen bakarra Humboldt prusiarra da; horrelaxe mintzo da haren lanari buruz: “il nous semble que c’est le meilleur aperçu de la langue basque” (1867: vi, 1. oh.). Iturri nagusien artean, van Eysek Diezen gramatika (Diez 1836-1844),²⁷¹ Redhouse ingelesak paratutako

²⁷¹ Friedrich Diez (1794-1876) literatura-ikerketetan eta testu-edizioan jarduten hasi zen. Ondoren, Bonngo Unibertsitatean eta 1830etik aurrera Filologia Erromanikoko lehen katedraduna izan zen (Morpurgo Davies 1998: 153).

turkieraren gramatika arrazoitua (Redhouse 1846), Friedrich Max Müller-ek²⁷² Bunsen-i²⁷³ idatzitako gutuna (Müller 1854) eta Pott-en hiztegi etimologikoa (Pott 1859-1876) aipatzen ditu.²⁷⁴

Lehenengo edizioaren hitzaurrean van Eysek Larramendiren gramatika —berak *Laramendi* deitzen badio ere—kritikatzen du. Darabilen arrazoi nagusia hauxe da: Andoaingo jesuitak euskara deskribatzeko eredu gisa latina eta espainiera hartu zituela (ik. honetaz Gómez 1991). Van Eysen ustetan, ordea, euskara hizkuntza *turanikoa* da eta, beraz, zerikusi gutxi du latinarekin eta haren ondorengoekin. *Turaniko* terminoa F. Max Müller-ek (1854, 1861) sortu zuen, haren bidez bildu nahi baitzituen “all languages spoken in Asia and Europe, and not included under the Aryan and Semitic families, with the exception of Chinese and its cognates dialects” (Müller 1861; *apud* Morpurgo Davies 1998: 225, 37. oh.); gainera, hizkuntza

²⁷² Alemanian jaio zelarik ere, Müller-en (1823-1900) lanbidea Ingalaterran bete zen, 1846an hara aldatu zenez geroztik. 1854tik aurrera Oxfordko Unibertsitateko irakaslea izan zen eta 1868an filologia konparatzaileko katedra bat sortu zuten berarentzat. 1861etik 1864ra bitartean hizkuntza-zientziari buruz eman zituen hitzaldiek entzute ikaragarria izan zuten; izan ere, hitzaldiok bildu zituen liburuak (Müller 1861) hamalau argitalpen izan zituen eta zazpi hizkuntzatar itzuli zen. Müller-ek gramatika konparatzailea ezagutarazi zuen Ingalaterran eta honexek eman zion ospea, nahiz eta haren ideiek Brugmann, Whitney eta Saussure bezalako hizkuntzalari gazteagoen kritika gogorak jaso zituzten (MacMahon 2000: 103).

²⁷³ Christian Bunsen (1791-1860): antropologo britainiarra.

²⁷⁴ August Friedrich Pott (1802-1887) Bopp-en ikaslea izan zen Berlinen eta gramatika konparatzailea irakatsi zuen Halle-n. Potten hiztegi etimologikoak indoeuoperaren lexikoa berreraikitze ahalez zeuden duda guztiak uxatu zituen, bai eta aldi berean metodologia konparatzailearen zenbait arazo korapilatsu argitu ere. Beraren jarduera konparatzailearen emaitzak berebizikoak izan ziren arloaren aurrerapenerako. Gainera, beste arlo batzuk landu zituen, hala nola semantika, ijitoen hizkera, tipologia, hizkuntza/arraza erlazioa, etab. (Morpurgo Davies 1998: 152).

turanikoen bereizgarria eransle edo aglutinatzaileak izatea litzateke.²⁷⁵ Bestalde, garaiko euskalari gehienak bat zetozen euskara hizkuntza aglutinatzailea zelako iritzian (Gómez 1989: 373 eta hemengo §4.4.3).

Bigarren edizioaren sarreran, van Eysek bere helburu nagusia garbiki adierazten du; hizkuntzalaritza modernoaren eskakizunei erantzuteko gai den euskararen deskribapen bat eskaintzea alegia (1867: ii). Larramendiren eta haren jarraitzaile Lardizabalen gramatika-lanak beren nahasmenduagatik gaitzesten ditu berriro ere (*ibid.*), baita euskal hiztegi egoki baten (1867: iv) eta testu zaharren edizio zuzenen falta (1867: v) salatu ere. Van Eysen ustez, honelako oinarrizko lanak ez izateak euskararen azterketa zehatza zaildu du eta, halaber, funts enpiriko nahikorik ez duten teoriak agertzea ahalbidetu du.

Hurrengo orrialdeetan van Eysek euskal deklinabideari buruzko ikuspegia aurkezten du: euskarak ez du deklinabiderik, atzizkibide edo atzizki-sistema bat baizik, errotik ondo bereizten diren atzizkiak direlarik, hizkuntza eransleetan ohi den moduan (1867: ix). Gai honetan ere, berriro dio, euskal autoreen nahasketa latin eredia ezartzeak eragin du. Haatik, van Eysek azalpen argiak nahiago ditu (“La clarté vaut bien ce léger sacrifice de principe”, 1867: x) eta, horrela, gaiari dagozkion

²⁷⁵ Nahiz eta, teorian, Müller-en asmoa hizkuntzak egitura-kidetasunaren arabera elkartzea zen, haren proposamenak nahasmen handia sorrarazi zuen hizkuntzen sailkapen genealogiko eta tipologikoen artean, eta gizartearen bilakabide *à la* Schleicher posible batekin nahastera ere iritsi zen inoiz (Morpurgo Davies 1998: 225, 37 eta 38. oh.). Ildo honetatik ulertu behar dira Bonapartek eta Vinsonek, hizkuntza-familia turanikoa zela eta ez zela, adierazi zituzten iritziak; ik. Gómez (1989: 373-374) eta hemengo §4.4.3.

kapituluetan “deklinabide” terminoa erabiltzen jarraituko du; alabaina, Humboldti (1817 [1933-34: 94]) jarraituz, hiru kasu baino ez ditu aintzat hartuko: nominatiboa, genitiboa eta datiboa (ik. §5.4.3). Sarrera amaitzeko, euskal deklinabideari buruzko Duvoisinen lantxoari (1866) kritika gogorra egiten dio.

5.4.2 Ortografia eta ahoskera

Gogora dezagun gai hauek *EGLB*ren bigarren edizioan bakarrik agertzen direla. Van Eysek lehen kapitulu honi hasiera ematen dio euskal ortografia espainieraren sistemaren menpe jartzetik segitzen diren bidegabekeriak salatuz, hala nola <c>, <g> / <gu> grafemen balio nahasgarriak, edo txistukari sabaikaria irudikatzeko dauden zalantzak: <ch>, <sh>, <š>, <x>. Nahasketa hauetako batzuk iruzkindu ondoren, letrak ahoskeraren arabera antolatzen dituen honako taula hau proposatzen du:

Tableau des Consonnes.

<i>Explosives.</i>		<i>Continues.</i>					<i>Semi-Voyelles</i>	
		Fricatives.			Vibrantes.			
fortes.	douces.	nasales.	sibilantes.	.	fortes.	douces.	.	
Gut. <i>k.</i>	<i>g.</i>	<i>n.</i>	—	(<i>h</i>) <i>j.</i>	—	—	—	
Pal. <i>ch.</i>	—	<i>ñ.</i>	<i>s.</i>	—	—	—	<i>y.</i>	
Dent. <i>t.</i>	<i>d.</i>	<i>n.</i>	<i>z (aspiré)</i>	—	—	<i>l.</i>	—	
Ling. —	—	—	—	—	<i>r.</i>	<i>r.</i>	—	
Lab. <i>p.</i>	<i>b.</i>	<i>m.</i>	—	(<i>v.</i>)	—	—	<i>v.</i>	

SONS MIXTES.

ll, ñ, y, ts, tz.

VOYELLES.

a. e. i. o. u.

Zortzigarren taula: EGLB-eko letren sailkapena (van Eys 1867: 4)

Taula honen ostean letren ahoskerari buruzko ohar batzuk datoz, baieztapen harrigarriak falta ez zaizkielarik. Esate baterako, van Eysek euskal <z>ren ahoskera espainieraren hortzartekoarekin identifikatzen du (1867: 5). Orobat, euskarazko <v> frantsesezkoa edo espainierazkoa bezala ahoskatzen dela baieztatzen du, baita bezala ere (1867: 6). Ildo honetatik, ohartarazi behar dut van Eysek ez bide dituela bereizten euskaraz eta espainieraz /b/, /d/ eta /g/ fonemek dituzten gauzatze herskariak eta igurzkariak;²⁷⁶ beharbada, horrexegatik egozten dio hots berezi bat euskal <v>ri eta parekatzen du frantsesezko [v] ezpain-horzkariarekin zein espainierazko [β] biezpainkariarekin.

Bigarren kapituluak erregela fonotaktiko eta morfonologiko zenbaiten berri ematen du; batzuk zuzenak dira eta beste batzuk, dudazkoak bederen. Lehenbizikoen artean honako hauek aipa daitezke: hitz hasieran *r*- ez egotea, edo bukaeran *-m* eta herskari ahostunik (“explosive douce”) ez egotea; *k* baten aurrean *t* desagertzea (adibidez, *-tzat + -ko > -tzako*), eta silaba bereko kontsonante taldeak bakuntzea, dela kontsonanteetariko bat galtzen delako (*eliza ‘église’*),²⁷⁷ dela bokal anaptiktiko bat

²⁷⁶ Bideabar esanda, aurreko taulan ikusi denez, van Eysek “fricative” terminoa baliatzen du eta oinohar batean barkamena eskatzen du “plutôt anglais que français” den termino hori erabiltzeagatik (van Eys 1867: 4).

²⁷⁷ Euskarazko adibideak eta frantsesezko itzulpenak van Eysen testuan dauden bezalaxe jaso ditut. Bi edizioetan ortografia desberdina erabiltzen badu, bigarrenean erabilitakoari jarraituko diot.

tartekatzen zaielako (*apirilla* ‘avril’). Dudazko erregelen artean, esaterako, *z* edo *n* baten aurrean *r* bat *d* bihurtzea izango genuke, hala nola *egundaño* ‘jusqu’aujourd’hui’ eta *igazdaño* ‘jusqu’à l’année dernière’ hitzetan (honelako formen beste azalpen baterako, ik. de Rijk 1992).

5.4.3 Artikulua eta deklinabidea

Adierazi dudanez, *EGLB*ren lehen edizioa Larramendiren gramatikaren (1729) zordun agertzen zaigu, datuei dagokienez bederen. Hala ere, noizean behin van Eysek jesuita gipuzkoarraren analisiak arbuiatzen ditu, edo aldatzen, eta Humboldtten proposamenen alde egiten du. Deklinabideaz den bezainbatean, Larramendirekiko diferentzia nagusiak honako hiru hauek dira: deklinabide mugagabe (artikulugabe) bat eta mugatu (artikuludun) bat bereiztea, hiru kasuko paradigma bati atxikitzea eta euskal artikulua erakusletik datorrela proposatzea. Aurreneko ideia Astarloaren (1883) eta Oihenarten (1638/1656; cf. Oyharçabal 1993) lanetan aurkitzen dugu eta autore berauei hartu zien Humboldtsek segurki: “La declinación es incontestablemente de dos especies: la una con artículo, la otra sin él” (1817 [1933-34: 94]).²⁷⁸

Bigarren ekarpena ere Astarloak dakar (1803, 1883), nahiz eta abade durangarrak lau kasu onartu zituen (*paciente*, *agente*, *recipiente* eta *poseedor*). Humboldttek lehenengo biak “nominatibo” ohiko etiketapean biltzen ditu: “La lengua Vasca no

²⁷⁸ Zenbait lanetan Humboldtsek Astarloa aipatzen duen arren, oso litekeena da prusiarrak erabilitako terminologia Oihenarti hartu izatea; izan ere, Astarloak ez du “artículo” terminoa sekula erabiltzen

tiene más que tres verdaderos casos haciendo atención á la diversidad de los signos distintivos de estos casos, el nominativo, el genitivo y el dativo” (Humboldt 1817 [1933-34: 94]); hala ere, geroxeago aurkezten duen deklinabide-taulan (1817 [1933-34: 95]) “nominativo del agente” eta “nominativo del paciente o neutro” artean bereizten ditu, bigarrenaren barnean “acusativo o vocativo” atzizkiak sartzen dituelarik. Zernahi gisaz, Astarloaren eragina garrantzitsua izan bazitekeen ere, Humboldt hiru kasuko paradigma batera irits zitekeen hitzen arteko erlazio orokorrei buruzko gogoetak erabili ondoren (ik. Vollmann 2002). Humboldten arabera, erlazio horiek kasuen bitartez edo preposizio/postposizioen bitartez adieraz daitezke (Humboldt 1817 [1933-34: 96]); aurrenekoek lehen mailako erlazioak jakinarazten dituzte eta besteek, bigarren mailakoak.²⁷⁹ Astarloak (1883: 326-328) Humboldten sailkapenaren antzeko bat egiten du.²⁸⁰ Van Eysek, bere aldetik, lehen mailako eta bigarren mailako erlazioen arteko bereizkuntza bera errepikatzen du eta bigarren mailakoak atzizkiei eskainitako kapituluan kokatzen ditu (ik. §5.4.7).

euskal mugatzailea izendatzeko; cf. Gómez (1996, 2001a) eta hemengo §§2.4.3 eta 6.3.3.

²⁷⁹ Cf. “Reflexionando sobre la diferencia de los casos y de las preposiciones (visto que los dos designan siempre las relaciones de las palabras entre sí) siguiendo los principios generales, me parece se puede afirmar que existe un caso, siempre que la relación proviene de la idea de la conexión misma, una clase suya necesaria e inteligible por ello sin el uso de alguna otra idea intermedia. Por el contrario allá en donde una idea intermedia tiene lugar es necesario hacer uso de una preposición ó posposición de donde resulta por sí mismo que el número de casos está fijado inmediatamente por la tabla de las categorías” (Humboldt 1817 [1933-34: 95-96]); cf. Gómez (1996) eta hemengo §2.4.4.

²⁸⁰ Kasu/(pre)postposizio/adberbio bereizkuntzak beste euskal gramatika batzuetan hartu dituen bideez eta analisisiez, ik. Oyharçabal (1993: 275-278).

Van Eysen hirugarren ekarria ere, nola edo hala, Larramendiren gramatikan (1729: 7) eta Humboldtten *Berichtigungen und Zusätze* direlakoetan (1817) aurkitu daiteke, alabaina oraingoan ez da arras segurua haietariko bat ere dugunik iturri zuzena; aldiz, oso litekeena da van Eysen beraren aurkikuntza izatea. Alta, bidenabar bezala aipatu zuen Humboldttek erlazio bat dagoela artikularen eta “tercera persona del pronombre” (1817 [1933-34: 467]) izendatzen duenaren artean. Areago dena, *ar* forma bat iradokitzen du, alemanezko *er* izenordainarekin erkatzen duena (1817 [1933-34: 465]), baina ez du xehetasun gehiagorik eskaintzen (cf. Gómez 1996: 616 eta hemengo §2.4.8). Van Eysek euskarazko *-a* alemanez artikulua eta erakuslea den *der* eta fr. *le* (< lat. *ille*) formekin konparatzen du (van Eys 1867: 14, 26). Beste alde batetik, bizkaieraren lekukotasuna dakar harira, euskalki honek *a* gorde baitu nominatiboko erakusle gisa (gipuzkerazko *hura*-ren aldean); orobat, gainerako kasuen formak bi euskalkietan berdin-berdinak dira. Haatik, interesgarriagoa gerta daiteke nabarmentzea van Eysek *-ak* mugatzaile plurala ere erakusletik datorrela adierazten duela (1867: 15). Proposamen hau, hurrengo mendean aldezkari gutxi lortuko bazituen ere,²⁸¹ azken urteotan berreskuratu egin da Traskek euskararen historiari eskainitako liburuari esker (1997: 200).

Beste alde batetik, lehenengo edizioan van Eysek (1865: 4) *-(r)ik* atzizkia nominatiboko bukaera dela deritzo, Larramendiri (1729: 8) jarraituz; bigarren edizioan, berriz, atzizkiei eskainitako kapitulura aldatuko du, deklinabidetik kanpo

²⁸¹ Hipotesi onartuena Gavelek eta Léonek aurkeztu zuten, eta Mitxelenak jaso eta zabaldu zuen (1977: 238). Haren arabera, pluraleko artikulua *-aga* toponimia-atzizkiarekin lotuko litzateke.

eramanez. Lehenengo edizioan atal hau “Observations sur la déclinaison” izeneko oharrekin amaitzen da (1865: 4-5); bertan van Eys hiru kasuko paradigma justifikatzen saiatzen da. 1867ko edizioan ohar horiek ezabatu egiten ditu.

5.4.4 Adjektiboa

Adjektiboari eskainitako kapituluaren diferentzia batzuk aurkitzen ditugu lehenengo edizioaren (II. kap.) eta bigarrenaren (IV. kap.) artean. Nabari den aurrenekoa gradu konparatzailea markatzen duen atzizkiari dagokio. 1865ean, van Eysek *-ago* ematen digularik (cf. Larramendi 1729: 270), bigarren edizioan *-go* hobesten du (orobat Astarloak 1803: 115) eta, gainera, balizko etimologia bat eskaintzen digu: “Peut-être de *go*, haut. *Gora*, en haut, vers le haut” (1867: 17). Konparazio-atzizki hau har dezaketen kategoriei dagokienez, 1865ean adjektiboa, izena eta “orainaldiko partizipioa”²⁸² aipatzen ditu; bigarren edizioan aditz-adjektiboa gehitzen du, *alboragotu* (1867: 18) adibidea ematen duelarik.

Berdintasun-konparazioaz den bezainbatean, bigarren edizioak *nolakotasuneko* eta *kantitateko* ohiko konparazioak bereizten ditu, nahiz ez duen horietarako terminorik erabiltzen: lehenbizikoan *bezain*, *aimbat* eta *bezambat* ‘aussi—que’ sartzen ditu; bigarreanean, *adiña*, *aimbeste* ‘autant que’ eta *zambat—go*, *aimbat—go* ‘plus-plus’ (1867: 18). Lehenengo edizioan, aldiz, forma hauek guztiak nahasian agertzen ziren: *adina*, *bezain*, *bezambat*, *ambat* eta *cambat* (1865: 7). Azkenik, 1867ko edizioan *on*

²⁸² Bigarren edizioan deitura honen ordez “substantif verbal en *en*” erabiltzen du (1867: 18) eta *edertzenago* adibidea eskaintzen.

‘bon’ adjektiboaren konparazio-forma irregularrak gaineratzen ditu: *obe*, *obeago* ‘meilleur’ (1867: 18).

Superlatibo “erlatiboa” adierazten duten adberbioak ez dira aldatzen edizio batetik bestera eta Larramendiren gramatikatik hartu dira ia hitzez hitz (1729: 271). Amaitzeko, van Eysek superlatibo “absolutuaren” atzizkia genitibo pluralarekin identifikatzen du, bien forma *-en* baita. Jakina denez, van Eysek Humboldtji jarraitu zion puntu honetan (Gómez 1996 eta hemengo §2.4.5).

5.4.5 Izenordainak

EGLBk sei izenordain mota bereizten ditu: pertsonalak, edutezkoak, erakusleak, galdetzaileak,²⁸³ zehaztugabeak eta erlatiboak. Azken hauei kapitulu berezia eskaintzen die bi edizioetan. Izenordainen deklinabide-paradigmak Larramendik aurkeztu zituenen zordun dira garbiki, baina van Eysek erabiltzen duen hiru kasuko sistemak baheturik, jakina.

Izenordain pertsonalei dagokienez, bigarren edizioaren ekarpenetako bat van Eysek *zu* ‘vous’ izenordaina *hi* ‘tu’ izenordainaren antzinako plural gisa identifikatzea da, *ni* ‘je’ eta *gu* ‘nous’ lotzen diren modu berean (1867: 21). Azterketa horren argira, *zuek* ‘vous’ plural berria dela ondorioztatzen du. Hala ere, euren forman oinarriturik, van Eysek uste du bai *zuek* eta bai *ae*k ‘ceux-là’, *oriek*

²⁸³ Larramendik izenordain erlatiboen barruan sartu zituen hauek (1729: 34).

‘ceux-ci’, etab. plural “mugagabeak” direla. Van Eysek irizpide distribuzionalak baliatuz azaltzen du bere proposamena:

K est donc le suffixe du pluriel, ou bien *ek*. Mais nous croyons plutôt que *k* est le suf. du plur. et *e* la lettre caractéristique de l’indéfini; nous retrouvons partout cette lettre où se trouve *a* pour le défini; *gizonaz*, par les hommes; *gizonez*, par hommes; *cillarez*, d’argent; *erorten*, dans (le) tomber, *erortean*, dans le tomber. (1867: 21-22)

1867ko edizioan *nerau* ‘moi-même’ eta *gerok* ‘nous-mêmes’ moduko formak izenordain erakusleetatik —hortxe kokatu baitzituen Larramendik— izenordain pertsonaletara aldatzen ditu. Halaber, forma hauen egitura, [Izenordain edutezkoa + Erakuslea], Andoaingo jesuitak baino zehazkiago azaltzen du. Aldi berean, *berau* eta *berori* ‘lui-même’ formak ere *bere* ‘son’ izenordain edutezkoetik eratortzen direla nahiago du pentsatu (1865: 10, 1867: 24), eta ez *bera* ‘le même’ formatik, Larramendik (1729: 29) proposatu zuen legez. Orobat iradokitzen du izenetan eta zenbatzaileetan ager daitekeen *-ok* bukaera *oyek* ‘ceux-ci’ erakuslearen kontrakzioa baizik ez dela.

Bigarren edizioan izenordain edutezkoei egindako soak ere nolabaiteko aurrerakuntza dakar. Izan ere, van Eysek proposatzen du —aurreneko aldiz nik dakidala— izenordain edutezkoak jatorriz antzinako izenordain pertsonalen genitiboak direla. Ohar bedi izenordain pertsonaletan genitiboak hartzen duen atzizki bereziak (hots, *-(r)e*, arrunta den *-(r)en* atzizkiaren orde) aise nahasarazi zitzakeela aurreko euskalariak, bi atzizkiak erlazionatzen asmatu ez zutelarik. Edo ezin zutelarik; ez baitugu ahaztu behar eredu klasikoaren betiereko eragina. Latinez izenordain pertsonalen genitiboek eta izenordain edutezkoek forma desberdina zuten: *mei* / *meus*, *-a*, *-um*; *tui* / *teus*, *-a*, *-um*, etab. Eta horixe da, hain zuzen ere,

Larramendiren gramatikan aurki dezakegun banaketa: *nizás* ‘de mi’ / *nere-á* ‘mio’; *hizás* ‘de ti’ / *hire-á* ‘tuyo’, etab.

Izenordain galdetzaileen eta zehaztugabeen aurkezpenak ez du, ene irudiko, ezer markagarririk. Aldiz, izenordain erlatiboeti eskainitako kapituluaren zenbait arazo interesgarri kausitzen dira. Kapitulu horretan van Eysek *-n* atzizkia eta *zein, zeñ* ‘qui’ izenordaina sartzen ditu. Bi formei buruz dakarren informazioa Larramendiren sintaxitik hartuta dago nagusiki eta gutxi aldatzen da lehenengo ediziotik bigarrenera. Esate baterako, *-n* atzizkia aditzari lotzeko erregela morfonologikoak edo atzizki honek menpeko perpausetan izan ditzakeen erabilerak ia hitzez hitz Larramendiren gramatikatik hartzen ditu van Eysek (1729: 274-276 eta 308-322, hurrenez hurren).

Van Eysek bigarren edizioan sartzen dituen berrikuntzen artean, aipagarria deritzot terminologia aldatzeren bati. Hala, erlatiboen deklinabidea (“Ces formes se déclinent”; 1865: 16) aipatu beharrean, kasu-bukaerez edo atzizkiez hitz egin nahiago du (“les terminaisons des cas ou les suffixes”; 1867: 33). Orobat, adizki aktibo guztiek omen duten berezko akusatiboaren (“l’accusatif inhérent”) aipamena “régime direct” bihurtzen da (1867: 33); aurki itzuliko gara gai honetara (§5.4.8).

Azkenik, beharrezkoa iruditzen zait “forme participiale” terminoaz zertxobait azaltzea; van Eys termino horretaz baliatzen baita *-n* atzizki erlatibizatzailea duten adizkiak izendatzeko (1865: 15, 1867: 31). Ziurrenik van Eysek Humboldti hartu zion deitura²⁸⁴ eta autore honek, bere aldetik, Oihenarti (1638: 70) edo, ziurrago,

²⁸⁴ Cf. “Cada persona de un verbo en cada tiempo, modo y conjugación y por consiguiente cada

Astarloari (1883: 745) jarraitu zien. Astarloak partizipiotzat jotzen ditu honelako formak —besteak beste; cf. Erdozia (1999)—, honelaxe definitzen baititu partizipioak: “aquellas palabras que dándonos á entender una acción, se presentan en los conceptos con caracteres del nombre” (1883: 485). Hau da, adizkiak dira, baina izenaren flexioa har dezakete; determinatzailea eta kasu-atzizkiak, zehazkiago (adibidez, ***datorrari / datorrenari*). Van Eysek analisi garatuxeagoa aurkezten du 1867ko edizioan eta euskararen egitura atzizkiduna alemanaren erlatibo batzuekin konparatzen du, partizipio burutuaren bidez alemanez “d’une manière moins barbare” eratzen diren partizipioekin alegia.

5.4.6 Zenbatzaileak

Zenbatzaileen aurkezpena gutxi aldatzen da edizio batetik bestera. Van Eysek zenbakiak deklinatzen direla adierazten du, soilik edo izen baten ondoan, artikulua erekin edo artikulurik gabe, eta adibide gisa *bat* ‘un’ eta *bi* ‘deux’ zenbakien paradigmak erakusten ditu. Era berean, euskaraz zenbaki bakoitza izenaren zein aldetan kokatzen den zehazten du: “*Bat*, suit toujours le nom; *bi*, est placé devant et dernière; *iru*, *lau*, etc. précèdent le nom” (1867: 38).

Kapituluairen amaiera desberdina da edizio bakoitzean: lehenengoan *-oc* atzizkiari buruz mintzo da, zenbatzaileekin nahiz izenekin “*nous autres, vous autres etc.*”

modificación de una acción se puede cambiar en participio, añadiendo simplemente la letra *n* al fin del auxiliar conjugado. [...] Larramendi explica este modo de expresarse en la pág. 274 de su gramática, como si la letra *n* puesta al final fuera un pronombre relativo. Solo que esto es manifiestamente inexacto y no conforme á la analogía de la lengua” (Humboldt 1817 [1933-34: 104]).

adierazteko erabiltzen dela dioskularik (van Eys 1865:14); oroit bedi bigarreneko azalpena ikusi berri dugula (§5.4.5). Bigarren edizioan ordinalak eratzeko *-garren* atzizkia erabiltzen dela adierazten du (1867: 39).

5.4.7 Atzizkiak

Lehen edizioan agertzen den euskal atzizkien sailkapena aski nahasia da; honen kariaz, bigarren edizioan van Eysek berregituratu egingo du eta hauxe da orain erakutsi nahi dudana. Beste alde batetik, kapitulu hau 1867ko edizioan gehien handitzen direnetakoa da, bost orrialde izatetik hamabost izatera pasatzen delarik.

Kapituluaren hasieran [Izena + *-n*] edo [Izena + *-ra*] egitura duten zenbait postposizio biltzen dira: *aldean* ‘dans la proximité’, *aurrean* ‘dans le devant’, *gañean* ‘au sommet’, etab. eta *arabera* ‘selon’, hurrenez hurren. Van Eysek honelako formak atzizkiei eskainitako kapituluan sartzea justifikatzen du, beste hizkuntza batzuetako preposizioei baitagozkie. Beste alde batetik, izenez eratuta egoteak genitibo bat gobernatzea azalduko luke (1867: 40).

Van Eysek bi irizpide erabiltzen ditu atzizkiak sailkatzeko. Formaren arabera, bi “klasetan” bereizten dira: aldakorrak eta aldaezinak; erabileraren arabera, hiru “espezietan”: genero biziduna, genero bizigabea eta genero komuna (1867: 41-42). Hala ere, kapituluko hurrengo orrialdeak antolatzeko lehen irizpidea baizik ez du aintzat hartuko. Euskal atzizki batzuk elkartuak dira, beste hizkuntza batzuetan preposizio elkartuak dauden gisa berean. Van Eysek ohartarazten du preposizio franko ziurrenik antzinako izenak direla —hala nola *gabe* ‘sans; pénurie, manque, défaut’—, nahiz eta euren etorkia oraingoz ezezagun izan (1867: 43). Halako

adierazpen batek aurkikuntza berriak aurreratzen ditu, gramatikalizazioa deitu izan den ikerketa-lerroaren barnean. Izan ere, gramatika konparatuan van Eysek berak atzizki sozietiboaren etorkia ildo beretik proposatuko du (1879: 75-76), Schuchardtek baino zenbait urte lehenago: *kide* izena gehi *-n* lokatiboa.

Atzizki aldaezinei dagokienez, van Eysen iritziz, guztiak kokatzen dira nominatibo singularren edo pluralaren ostean, *kin* ‘avec’ eta *tzat* ‘pour’ izan ezik, hauek genitiboari lotzen baitzaizkio. Ohar hau hainbat aldiz aurki dezakegu *EGLBn* zehar errepikatua. Atzizki aldakorrek, bestalde, singularrean eta pluralean forma desberdina hartzen dute eta eskuarki nominatibo mugagabearen atzean agertzen dira²⁸⁵ (van Eys 1867: 47). Aurreko baieztapenari so egiten badiogu, konturatu gaitzke van Eysek ez bide zituela nominatibo mugagabea eta izenaren erro soila bereizten; halako zerbait gertatu zitzaion, aldeak alde, Oihenart zuberotarrari (cf. Oyharçabal 1993: 271-272 eta tesi honetako 96. oin-oharra).

Harrigarria badirudi ere, van Eysek *-en* genitiboa eta *-n* lokatiboa nahasten ditu: “L’emploi de ce suffixe [-n] est très varié. Il indique, 1°. le génitif: *Gizon*, homme, *gizonen*, d’homme; 2°. le locatif des autres langues: *Bilbaon*, à, dans Bilbao; *echean*, dans la maison” (1867: 48). Van Eysek erabilera bikoitz hau justifikatzeko latinaren lekukotza badakar ere, erraz igarri dezakegu haren iturri zuzena berriz ere Humboldt izan zela: “*am-a-r-en*, á la madre [*sic*] (*an*, *en* significa en alemán *in* como posposición)” (Humboldt 1817 [1933-34: 94]). Humboldten eskuizkribuetan aise

²⁸⁵ Oraingoan salbuespenak, van Eysen arabera, *-z* eta *-n* atzizkiak liriteke, izen mugatuei ere lotu

aurki daitezke gai honi buruzko pasarte argiagoak (cf. Gómez 1996: 615 eta hemengo §2.4.6); haatik, dakigularik bederen, *EGLB* idatzi zuen garaian van Eysek nekez ezagut zitzakeen Humboldtten eskuizkribuak, artean Berlingo Liburutegi Inperialean gordetzen baitziren.

Horren ondoren, van Eysek *-n* lokatibo-atzizkiak hartzen dituen formak zehazten ditu, dela nominatibo mugatuari lotuta (*buruan, lurrean*), dela mugagabeari (*burun, echen*).²⁸⁶ Hementxe sartzen ditu *erorten* edo *jaten* gisako aditz izen mugagabeak (cf. *supra* 265. oh.) edo *erortean, jatean* mugatuak. Nabarmendu nahi nuke, inolako konponbiderik proposatzen ez badu ere, van Eys konturatzen dela *lurrean* bezalako formek dakarten irregulartasunaz, *-e-* bat “dont l’origine est obscure” baitute (1867: 49).

Atal honi buru emateko, van Eysek atzizki aldakorren jokabidean aurkitzen dituen bi arazo aipatu nahi nituzke. Lehenik, harritu egiten da izen mugagabeei erantsitako atzizkiek ia beti zentzu mugatua, eta oso gutxitan mugagabea, adierazten dutelako (*echera* ‘à (la) maison’). Bigarrenik, *lanetan* bezalako formek duten ambiguitasunaren berri ematen du, pluralak edo mugagabeak izan baitaitezke; azken kasuan, *-e-* letra eufonikoa litzatekeela dio (van Eys 1867: 51).

ahal baitzaizkie (1867: 47).

²⁸⁶ Forma “mugagabe” hauei dagokienez, van Eysek adierazten du Gipuzkoako Goierriko zenbait herritan erabiltzen bide direla eta, orobat, Duvoisinen arabera (1866) zubererari baliatzen direla ohartarazten du. Nolanahi ere den, euskalaritzak artean zuen maila apalaz jabeturik, van Eysek duda egiten du datu horiez guztiez eta berauei hizkuntza idatziaren erabilera kontrajartzen die, betiere forma mugatuak erabiltzen baititu.

5.4.8 Aditza

Hauxe da, ezbairik gabe, *EGLB*ren atalik konplexuena eta baita proposamen berri eta interesgarri gehien dakartzana ere. Hurrengo lerro hauekin gaia agortu nahi ez dudalarik ere, van Eysek bere aurreneko lanean azaldu zuen aditz teoriaren alderdi markagarrienak erakusten eta bi edizioen arteko desberdintasun nagusiak azaleratzen saiatuko naiz.

Lehenik, van Eys euskal aditzaren gehiegizko erregularitasunaz harritzen da; haren atzean, eta Humboldten hitzak (1817 [1933-34: 103]) bere hartuz, euskal gramatikarien eskua sumatzen du (van Eys 1867: 55). Hurrenik aditz bakarraren teoria —euskalaritzan Archuk (1848) eta Inchauspek (1858) defendatua— kritikatzeko; van Eysen iritziz, teoria hori nekez egokitu dakieke euskal laguntzaile iragangaitz eta iragankorren egitura hain desberdinei. Van Eysek (1867: 57; ik. orobat 1865: 30, 1867: 6) uste du *izan* hitza ‘être’ edo ‘avoir’ bezala itzultzea ez dela aski euskal aditzaren batasuna frogatzeko; aitzitik, itzulpen bikoitz hori euskalki batzuetara murrizten da eta irregularitasun bat besterik ez da (cf. *Zukhen*).²⁸⁷

Erregularitasun ala irregularitasun arazo honi atxikitzen zaio *EGLB*ko aditz teoriaren inguruan azpimarratu nahi nukeen lehenengo puntua. Izan ere, van Eysek adizki trinkoen eta perifrastikoen erlazioari buruz zuen jarrera aldatzen du. 1865eko edizioak oraindik ohiko hipotesiei (Larramendi 1729, Zabala 1848, etab.; cf. Gómez

²⁸⁷ Euskal gramatikagintzan aditz bakarraren teoriak izan zuen bidez eta arrakastaz, ik. Gómez (2002a) eta hemengo 7. kapitulua.

1989: 361 eta hemengo 125. or.) jarraitzen die, aditz perifrastikoak aditz erregularizat hartzen zituztenei alegia. Zernahi gisaz, aditz trinkoak “se conjuguent comme les verbes des autres langues” (1865: 25) oharpena egiten du eta iradoki ere aditz irregularrek edo trinkoek euskal aditz-joko jatorrizkoa isla zezaketela (1865: 58).²⁸⁸ Bigarren edizioa zehatzagoa da eta oraingoan erregularizat jotzen ditu aditz trinkoak: “Nous nommons, verbes réguliers, ceux qui sont appelés par Larramendi: verbes irréguliers. Ils se conjuguent comme les verbes des autres langues, et n’ont rien qui justifie la dénomination d’irréguliers” (1867: 102).

Bestalde, van Eysen baieztatzen du adizki aktiboetan —hots, ergatibokomunztadura dutenetan— objektu zuzena beti ageri dela: “Aux verbes actifs le régime direct est toujours inhérent” (1867: 58).²⁸⁹ Proposamen hau, Darrigolengandik (1827: 137) bederen datorrena, hertsiki loturik dago *d-* aurrizkia hirugarren pertsonaren komunztadura-markatzat jotzearekin (cf. Gómez 2002b eta tesi honetako 8. kapitulua). Ildo honetatik, van Eysen jarreratik ezin da erabat ondorio garbirik atera. Izan ere, aditz denborak eta moduak aurkezterakoan, *d-* aurrizkia orainaldiaren marken (“lettre caractéristique”) artean kokatzen du (1867: 68);²⁹⁰ halarik ere, aurrerago pertsona-komunztadura markak azaltzen dituelarik, *d-*

²⁸⁸ Horixe zen, hain zuzen ere, Humboldtten ikuspuntua: “Esta conjugación es regular ó irregular. La regular siempre es compuesta, y consiste en el verbo y su auxiliar. La irregular (la más antigua y originaria sin duda alguna) es simple y cambia la palabra misma, como en griego y latin” (1817 [1933-34: 98]).

²⁸⁹ Eta are argiago: “Nous rappellerons ici que le verbe basque exprime toujours le régime direct, même là où il est superflu; on dit: je le parle, pour: je parle” (1867: 102).

²⁹⁰ Harekin batera *-n* iraganaldirako (“imparfait”) eta *-ke* baldinkera (“conditionnel”) eta ahalerarako

aurrizkia akusatiboaren, —hau da, absolutiboaren— hirugarren pertsona markatzeko aipatzen du, hala singularrean nola pluralean (1867: 103).²⁹¹

EGLBn van Eysek bi laguntzaile bereizten ditu: “*Euki*, eu, pour les verbes actifs, et *Izan*, été, pour les verbes passifs et neutres” (1867: 61).²⁹² Lehenbiziko laguntzailean, bestalde, bukaera *absolutuen* eta *erlatiboen* artean bereizten du, azkenak “celles auxquelles le régime direct (accusatif) est inhérent” izaki (1867: 62). Terminologia honek, nik dakidala bederen, Larramendiren gramatikatik (1729) jaso zuen, nahiz eta jesuitak, datibo-komunztadura duten adizkiez ari delarik, *transitivo* terminoa ere baliatzen duen (cf. Gómez 2001b eta hemengo 369. oharra).

Euskalari batzuek, Darrigol (1827) edo Inchauspek (1858) kasu, adizki trinkoak perifrastikoen kontrakzioak zirela defendatu zuten: *nator* = *naiz* + *etor*, *nabil* = *naiz* + *ibil*, etab. (cf. Gómez 2002a eta hemengo §§7.5-7.8). Van Eysek, aldiz, adizki trinkoen eta laguntzaileen arteko egiturazko antzekotasuna jokabide berdina izateari zor zaiola irizten dio (1865: 59, 1867: 92). Aurreko oharpena Humboldtengandik (1817 [1933-34: 98]) dator eta geroago Vinsonek garatuko du, baita sutsuki aldeztu ere, euskal aditzari buruz idatzi zituen artikuluetan (ik., esaterako, Vinson 1874a).

(“potentiel”).

²⁹¹ Eta harekin batera *n-* lehenengo pertsonarako; *h-* eta *z-* bigarren pertsona singularrarako; *g-* eta *z-* lehen eta bigarren pluralerako, hurrenez hurren. Van Eysek aitortzen du, aipatu berri ditudan marka hauetan guztietan izenordain pertsonalak aurrizki gisa erabiliak aurki ditzakegun arren, “*d*, reste jusqu’à présent inexplicée” (1867: 89).

²⁹² Lehenengo edizioan ez zuen deitura egokirik aurkitu frantsesezko *avoir*-i dagokion laguntzailea izendatzeko, baina orduan ere bi laguntzaile bereizi zituen argi eta garbi.

Van Eysek oso ohar interesgarri bat egiten du, adierazten duelarik zenbait aditz trinkok ez dutela aginterazko formarik. Ondoko hauek aipatzen ditu: “*iritzi*, paru; *iduri*, ressemblé; *irakin*, bouilli; *jario*, coulé; *iraun*, duré; *erausi*, jasé” (van Eys 1867: 104). Aginterari dagokion beste proposamen bat *b-* aurrizkiaren etimologia da; aurrizki hau, jakina denez, aginterazko adizkian bai argumentu absolutiboa eta baita ergatiboa ere hirugarren pertsonakoak direnean agertzen da. Van Eysek izenordain batetik datorrela proposatzen du, *bera* ‘lui-même’ formatik alegia (1865: 59, 1867: 104). Ideia hau Schuchardtek jasoko du bere lanetan (1923 [1947: 56]; cf. §8.4.2).

Euskalari holandarraren metodoarekiko ardura aipagarria da oso eta euskal aditzaren azterketan arras nabarmena da; hala eta guztiz ere, zenbaitetan ardura horrek analisi okerrak egitera bultzatuko du van Eys. Esate baterako, laguntzailearen adizki “erlatiboez” ari delarik —oroit bedi, datibo-komuntadura dutenak—, van Eysek *-i-* datiboaren markatzat hartzen du. Eta, aldi berean, van Eysen ustez, *euki* ‘avoir’ laguntzaile aktiboaren erroa *u* edo *au* da. Bi analisi horiek abiaburu harturik, oker aztertuko ditu *dizut* bezalako adizkiak: *d* ‘acc.’ + *iz* ‘datif’ + *u* ‘racine’ + *t* ‘1 per. sing.’ (1865: 69; 1867: 112). Hots, ez du *-zu* morfema —bigarren pertsonaren komuntadura-marka— bakartzen, nahiz eta aurreko paradigma batzuetan identifikatua zuen (adibidez, 1867: 103, 105, 110) eta bere abiapuntuetariko bat komuntadura-markak izenordainetatik datoze-lakoa den (1867: 103).

5.4.9 Adberbioa

*EGLB*ren lehenengo edizioan van Eysek honako adberbio motak bereizten ditu: denborazkoak, lekuzkoak, kantitatezkoak eta konparaziozkoak. Berauei 1867koan

kalitatezko adberbioak gehitzen dizkie. Adibide gehienak, honainokoa behin eta berriz ikusi denez, Larramendiren gramatikakoak dira.

Hasiera batean, van Eysek *an* lekuzko adberbioari *-n* lokatibo-markaren jatorria deritzo: “L’adverbe de lieu *an*, sera l’origine du suffixe: *n*” (1865: 72). Bigarren edizioan, aldiz, atzera jotzen du: “il paraît très-probable que *an* est le démonstratif *a* (dial. Bisc.), plus le suffixe *n*” (1867: 115).

Atzizkiei eskainitako kapituluan bezala, van Eysek zenbait adberbio [Izen mugatua + *-n* atzizkia] egitura dutelarik aztertzen ditu: adibidez, *goi* ‘hauteur’, *goyan* ‘dans le auteur, dessus’ (1865: 72).

Bigarren edizioan sartu dituen kalitatezko adberbioak ondoko atzizki hauekin eratuko lirakeke: *-do* (*ondo* ‘bien’), *-ro* (*alairo* ‘fortement’), *-ki* edo *-gi* (*ongi* ‘bien’, *gaizki* ‘mal’) edo *-kiro* (*eriozkiro* ‘mortellement’). Van Eysek *-ki* atzizkia *-kin* ‘avec’ markarekin identifikatzen du, azken honek *-n* gabeko aldaera bat baitu.

5.4.10 Juntagailua

EGLBk euskal juntagailuak zenbait klase nagusitan banatzen ditu: kopulatiboak, adbertsatiboak eta disjuntiboak aurreneko edizioan, bigarreanean kausatiboak (*zeren...-n* ‘de ce que’) eransten dituelarik. Mota nagusi horiezaz gain, van Eysek beste forma batzuk hartzen ditu kontuan, frantsesezko juntagailuei legezkiekeenak: *-la* edo *-ala* ‘que’ (baita *non* edo *nun* ere bigarren edizioan), *-lako* ‘de que, de ce que’, *ba-* ‘si’ eta *ta* edo *eta* adiera kausatiboa dutela (azken hauek bigarren edizioan baino ez).

Atal honen barruan, van Eysek zenbait analisi morfologiko proposatzen ditu. Hortaz, *zeren* ‘de ce que’ forman *zer* ‘quoi’ galdetzailearen genitiboa ezagutzen du (1867: 117). Halaber, *-lako* atzizkia *-la* ‘que’ gehi *-ko* ‘de’ zatietan banatzen du (1865: 74, 1867: 118). Azkenik, *(e)ta* juntagailu kopulatiboa eta forma bereko kausatiboa hitz bera ez direla susmatzen du: “il n’est guère probable que ce soit la conj. copul. *ta*, et” (1867: 118).

5.4.11 Sintaxia

Gorago adierazi dudanez (§5.3), sintaxiari eskainitako kapitulua *EGLB*ren bigarren edizioan gehien aldatuatariko bat dugu. 1865eko edizioak Larramendiren sintaxiko pasarte batzuk laburtzen zituen; halarik ere, oroit bedi, Larramendik sintaxian aztertu zituen hainbat gai van Eysek bakoitzari dagokion perpaus-atalaren gaineko kapitulura aldatzen ditu (halaxe erakutsi dut, esaterako, izenordain erlatiboez aritzean; ik. §5.4.5).

Lehen ediziotik nabarmendu nahi nuke *icusi dut aurraren jotén* ‘je l’ai vu battre l’enfant’ moduko perpausen aipamena, menpeko perpausaren objektu zuzena kasu genitiboaren bidez markatzen duen egitura alegia. Van Eysek (1865: 76) gaztigatzen digunez, Larramendik esan zuen halako egiturak —bere garaian, egun legez, ekialdeko euskalkietan erabiltzen zirenak— oso dotoreak zirela (Larramendi 1729: 299). Bigarren edizioan, van Eys genitiboaren erabilera justifikatzen ahalegintzen da, honelako egituretan euskarak aditz izena erabiltzen duela argudiatuz; frantsesak, berriz infinitiboa (van Eys 1867: 124).

Izan ere, *EGLB*ren bigarren edizioak Larramendiren eta Lardizabalen gramatiken zenbait oharpeni zabalki eta xehekiago ekingo die. Ildo horretatik, van Eysek aipatzen du Lardizabalek (1856) *bere* eta *aren* edutezkoen artean egindako bereizketa:²⁹³ lehena perpausaren subjektuari erreferentzia egiten diolarik erabiliko litzateke; bigarrenak, aldiz, perpausaren objektuari egingo lioke erreferentzia (van Eys 1867: 121). Orobat, bi gramatikari gipuzkoarren akats baten berri ematen du, [genitiboa gehi *bat* ‘un’] egitura oker aztertu baitzuten. Jakina denez, egitura horretan izenak genitibo mugagabea hartzen du, ‘quelque’ adierazteko: *gizonen batek ikusi du* ‘quelque (un) homme a vu’, *arriren batek jo du* ‘une pierre l’a touché’ (1867: 122). Hala eta guztiz ere, Larramendi eta Lardizabalek ez zuten euskal deklinabidean paradigma mugagaberik ikusi eta, beraz, oso azalpen bitxiak aurkeztu behar izan zituzten. Bada, autore hauen arabera, genitiboa plurala izango litzateke, izena kontsonantez bukatzen denean; izenak, ostera, genitibo singularra (baina *a* gabe) hartuko luke, bokalez amaitzen bada.

Van Eysek —intuizioz eta doi-doi baino ez bada ere— euskararen morfologia ergatiboaren ikuspegi bati antzematen dio, honako hau dioelarik: “Il est encore surprenant que les mêmes lettres caractéristiques servent à désigner le pron. accusatif dans le verbe *euki*, et le pron. nominatif dans les verbes *izan*, *joan*, etc.” (1867: 127). Zernahi gisaz, urte batzuk itxaron beharko da egitura ergatiboaren izaera pasiboari buruzko eztabaida sor dadin, eta XX. mendearen hasiera arte “ergatibo” eta “absolutibo” terminoak ager daitezen (cf. Seely 1977).

²⁹³ Nahiz eta ohartarazten duen Lardizabalek berak ez diola arauari jarraitzen.

5.5 *EGLB*ren kritikak

*EGLB*ren bi edizioen argitalpenak zenbait euskalariren arreta merezi izan zuen eta, ondorioz, van Eysen lehen lan honen iruzkinak eta kritikak plazaratu ziren. Gehienek jarrera ezkorra adierazi zuten lanari buruz. Atal honetan Duvoisinek (1868) eta Vinsonek (1867) argitaratutako kritiken gainean jardungo dut laburki.

Jean Duvoisin lapurtarraren iruzkina *Le Courrier de Bayonne* egunkarian agertu zen 1868ko otsailaren 9an, baina ez zioten van Eysi bidali; argitaratu eta sei hilabete geroago ezagutu ahal izan zuen holandarrak Parisen, Euskal Herrira bigarren aldiz abiatzeko puntuan zegoela (Lacombek aipatua *apud* M. van Eys 1927: 528, 1. oh.). Gure autorearen erantzuna, bestalde, *Le Libéral Bayonnais* agerkariak argitaratu zuen abuztuaren 18an (van Eys 1868), artean van Eystarrek Lapurdiko Getarian ostatu hartu zutela (M. van Eys 1927: 532). Gorago adierazi dudanez (§5.2), bi testuok geroago van Eysen hiztegiaren sarreran berrargitaratuko ziren (1873a).

Duvoisinek tonu apologetikoa erabiliz ekiten dio iruzkinari —van Eysek bere lanetan arbuiatzen zuen tonu bera alegia— eta euskararen batasuna eta erregulartasuna goraiatzeko dituzten izen orok deklinabide bakarra, aditz orok jokabide bakarra. Beste alde batetik, Duvoisinek van Eysi euskara ez jakitea eta maiz datu okerrak erabiltzea aurpegiratzen dio. Ortografiari dagokionez, Duvoisinek zehaztasunik eza egotzen die holandarrak proposatutako zenbait arau fonologikori. Halaber, intuizio fonetiko handia erakusten du dardarkari leun eta gogorra testuinguru guztietan ederki bereizteko; honi esker, van Eysen oharpen oker bat (1867: 8) zuzendu ahal du, adierazi baitzuen hitz amaierako dardarkari bat gogor

bilakatzen dela artikulua atxikitzen zaionean.²⁹⁴ Hauxe da van Eysek Duvoisini onartzen dizkion zuzenkizun bakanetariko bat.

Bistan da, Duvoisinek gaitzesten du van Eysek euskal deklinabideaz egindako analisia. Bada, Duvoisinek aldarrikaturiko euskararen aberastasuna eta berezitasuna nekez lotzen zaizkio hiru kasu *besterik ez* duen sistema bati. Orobat, ez du onartzen *zu* izenordaina *hi*-ren antzinako plurala den proposamena. Eta, harrigarri badirudi ere, euskaraz artikulua dagoela ere ukatzen du, urte batzuk geroago —eta askoz sendoago— Gèze zuberotarrak ukatuko duen bezalatsu (1873: 6). Puntu honetan Duvoisinin jarrera aski ulergaitza da, izan, Larramendiz geroztik euskalari gehienen iritzia euskal artikulua aldekoa zen eta (cf. Gómez 2001a).

Duvoisinek *EGLB*ri buruz azaltzen duen ikuspegia oso gogorra da: gazte amateur baten lana baino ez da; funtsean, ohar laster, erdi egosi eta, zenbaitetan, oker bakan batzuk gramatika-liburu bilakatu nahi izan dituen gazte amateur bat. Eta, hala ere, beste lan batzuetan ikusi uste dituen akatsak handiustez eta gupidarik gabe kritikatzeko dituen, nahiz eta, Duvoisinin aburuz, akats horiek van Eysek bakarrik igarri dituen. Holandarraren erantzuna orobat irmoa izan zen: Zer idatzi du Duvoisinek hizkuntzalari gisa? Deklinabidearen gaineko liburuxka bat *besterik ez* (Duvoisin 1866), eta okerrez betea —van Eysek berak *EGLB*ren bigarren edizioan salatu zuen moduan—.

²⁹⁴ Van Eysen hutsaren arrazoiak, eta iturria, berriz ere Larramendiren testuan aurki daitezke; izan ere, *El imposible vencidok* emandako adibide guztiek dardarkari gogorra baitute (1729: 339); Larramendiren pasartearen interpretazio baterako, ik. Oñederra (1989: 124).

1867an, artean Baso Ikuskari gazte bat zelarik, Julien Vinsonek euskarari buruzko aurreneko lana idatzi zuen. Ordu arteko euskalaritzaren *state of the art* bat da, non, Oihenartengandik hasirik eta bere garaikide Bonaparte, Charencey, Duvoisin eta van Eysengana iritsirik, aurreko euskalarien gramatika-lanak kritikatzten dituen. Vinsonek *EGLB*ri buruz duen iritzia erabat baikor eta itxaropentsua da:

Il y a quelques mois, M. Van Eijs vient de rééditer un *Essai de grammaire basque*, publié par lui en 1865, en français, à Amsterdam. C'est le traité le plus scientifiquement fait que je connaisse sur le basque, le plus intéressant sans contredit et le plus simple. L'auteur a complété et développé les aperçus de Humboldt. Son ouvrage n'est qu'un essai, mais on sent qu'il pourra faire la vraie grammaire complète du basque. (Vinson 1867: 397)

Urrun daude oraingoz zenbait urte geroago bi euskalariok, bestek beste, izango dituzten eztabaida latz eta garratzak.

5.6 Azken oharrak

Kapitulu honetan van Eys euskalari holandarrak idatzi zuen euskarari buruzko lehenbiziko lanaren berri ematen ahalegindu naiz. *Essai de grammaire de la langue basqueren* aurreneko edizioak (1865) asko zor dio —ziurrenik van Eysek berak nahi zuen baino gehiago— Larramendiren *El impossible vencido* gramatikari; zorra hobeto ulertzeko, artean egile holandarrak euskaraz eta haren iturriez zuen ezaguera eskasa hartu behar da aintzat. Bigarren edizioa (1867) Larramendiren ideietatik askeago agertzen zaigu, nahiz eta oraindik ere andoaindarraren datuak eta paradigmak erruz erabili. Oraingoan, baina, van Eysek bere analisi eta etimologiak aurkezten ditu, behin eta berriro euskarak beste hizkuntza batzuekin dituen egiturazko antzekotasunak azpimarratzen ditu eta deskribapen moderno bat

eskaintzen saiatzen da, alegia datuetan oinarritua eta irudipenezko azalpenetatik urrun dena.

*EGLB*n azaldutako ideia asko ondorengo lanetan defendatzen jarraitu zuen van Eysek; esate baterako, euskarak deklinabiderik ez duela, edo superlatiboaren *-en* atzizkia eta genitibo plurala ber gauza direlako. Beste batzuk, aldiz, lanez lan aldatuko ditu; halaxe gertatu zitzaion aditz teoriari, XIX. mendearen erdiko euskalarien artean eztabaida bizienetakoak piztu zituen gaiari, hain zuzen ere.

Alta bada *EGLB*k, van Eysen hurrengo lanek bezala, euskalari garaikideen eraso franko izan zituen, erantzun sendoak merezi izan zituztelarik. Kapitulu honetan eztabaida haien adibide xume pare bat erakutsi dut (gehiagotarako, ik. Gómez 1989 eta tesi honetako 4. kapitulua), baina kontuan hartu behar da orduko euskalaritzaren garapena ikaragarri sustatu zutela, hala nola, bidenabar, eztabaidakideen arteko isekak ere.

II. GAIAK

Bestek diote, halere, Dorrean bederatzi gai baizik ez zela izan, alegia, buztina eta ura, artilea eta odola, zura eta karea, bikea, lihoa eta betuna, de quibus dicitur:—

*Buztina, ura, artilea eta odola,
Zura, karea eta harilkoa bete liho,
Bikea, kalitate oneko betuna,
Hona Nemrod-en Dorreko bederatzi gaiak.*

alegia, izena, izenordaina, aditza, adberbioa, partizipioa, juntagailua, preposizioa eta interjekzioa dira euren izenak:
Nomen, pronomen, uerbum, aduerbium, participium, coniunctio, prepositio, interiectio.

(Auraicept na n-Éces, ca. XII. m.)

6 Artikulua eta “artikulua” euskal gramatika-tradizioan

6.1 Sarrera*

Kapitulu honetan “artikulu” terminoaren zenbait erabilera aurkeztuko ditut, XVII-XIX. mendeetako euskal gramatika-lan batzuetan agertzen diren bezala; halaber, erabilerok gramatika-lan bakoitzean proposatutako euskararen analisisetan izan zituzten ondorioak. Hizkuntz terminologia zaharraren egokitzapenak planteatzen dituen eragozpenak aspaldidanik markatu dira hizkuntzalaritzaren historiografian (Koerner 1987, Hüllen 1990, Mugdan 1990). Beste alde batetik, oso ezagunak dira gure inguruko tradizioetan —Espainiakoan (Gómez Asencio 1981, 1985; Calero Vaquera 1986; Lliteras 1996; Martínez Alcalde 1998) eta Frantziakoan (Kukenheim 1932, Chevalier 1968, Joly 1980, Swiggers 1985, Lépinette 1997)— artikuluaaren definizioak eta sailkapenak eragin dituzten arazoak, baita urrunagoetan (baina gaiari dagokionez, hertsiki lotutakoetan) ere: esaterako, Ingalaterran (Michael 1970, Joly 1987), Alemanian (Padley 1988) edo Holandan (Boone 1990).

* Kapitulu honen oinarria Gómez (2001a) da.

6.2 Artikulua euskaran eta hizkuntza indoeuroparretan

6.2.1 Artikulua “tradiziozko”²⁹⁵ gramatikagintzan

Kapitulu honetan aztertuko ditudan euskalariak hobeki kokatzeko, Berpizkundean maiz artikulua genero eta kasu bereizketekin lotzen zuten teoriez jardun behar dut aurrenik. Jakina denez, latinak —grekoak ez bezala— ez du artikulurik. Hala ere, latinaren gramatika didaktikoek *hic / haec / hoc* erakuslea erabili izan zuten deklinabide-paradigmatan hitzen generoaren berri emateko, lagungarri pedagogiko gisa (Padley 1988: *passim*).²⁹⁶ Ohitura hori zela-eta, artikulua (baita preposizioa ere) genero eta kasu bereizketekin lotu zen berehala. Horrelako zerbait agertzen zaigu jadanik Berpizkundeko lehen gramatiketan, Albertiren edo Nebrixarenean adibidez (Kukenheim 1932: 117); eta are genero eta kasu bereizketarik ez duten hizkuntzen gramatiketan ere, ingelesaren zenbait gramatikatan esaterako (Michael 1970: 350-352). Lotura horren iturri zuzena, agi denez, Scaliger da (Joly 1980: 17). Beronekin hasten da, beraz, artikulua definizio “klasikoa” dei genezakeena: generoa edota kasua bereizteko balio duen hitza. Nolanahi ere den, artikuluari buruzko ikuspegi

²⁹⁵ “Tradiziozko” deituraren arazo eta mugei buruz, ik. Sarmiento (1996) eta Lliteras (1998), besteak beste.

²⁹⁶ Bidenabar esanda, *Notitiaren* lehen argitalpenean euskal artikulua latinez itzultzeko, Oihenart *hic / haec / hoc* erakusleaz baliatu zen: “*guiçon-a on*, id est, hic homo bonus, *emaste-a on*, haec mulier bona, *abre-a on*, hoc brutum bonum, *arri-a on*, hoc saxum bonum [...] *guiçona etorri da*, hic homo venit, *l’homme est venu* Gallicè: *el hombre à venido* Hispanicè: In plurali verò *guicon-ac [sic] etorri dira*, hi homines venerunt, *les hommes sont venus, los ombres an venido*” (1638: 57). Bigarren argitalpenean erakusle guztiok desagertzen dira.

hori, azken batean, Greziako tradizioraino gibeleratu dezakegu, K. a. III. mendean Krisipo estoikoarekin abiatu bide baitzen (Michael 1970: 67).

Askoz beranduagokoa dugu artikulu determinatzailetzat hartzen duen analisia. Ikuspegi horren formulazio argi bat Port-Royaleko gramatikan agertu zen aurreneko aldiz (Joly 1980: 22-23). Halaber, bertan aurki dezakegu lehenbizikoz artikulu mugatuaren eta mugagabearen arteko bereizketa garbia (Kukenheim 1932: 126). Euskaraz ez dago berez artikulu mugagaberik (edo \emptyset da, nahiago bada); batzuetan, halere, *bat* zenbatzaileak haren funtzioa bete dezake. Dena den, aztertuko ditudan euskal autoreetarik batek ere ez du *bat* zenbatzailea artikulutzat hartzen; eta ez dute determinazioaz hitz egiten.²⁹⁷ Beraz, arazo hauek alde batera utziko ditut. Artikuluaren sailkapenari dagokionez, tradiziozko gramatika zahar askotan artikulu kategoriaren barruan beste elementu batzuk ere sar zitezkeen, hala nola erakusleak, posesiboak, etab. (gazteleraren gramatiketarako, ik. Gómez Asencio 1981: 158-159; 1985: 36-43, 73-83; Calero Vaquera 1986: 81-83). Kapitulu honetan aztertuko ditudan euskal gramatikan ez da horrelakorik ere gertatzen.

²⁹⁷ Oso zeharka ez bada; cf. Larramendiren ondoko pasarte hau: “Siguiendo la comun opinion de los Gramaticos darémos á esta Syntaxis del Bascuenze sus ocho partes de la oracion, *nombre, pronombre, verbo, participio, posposicion, adverbio, interjecion, y conjucion*. El articulo, como determinacion que es del nombre, y pronombre, quiero se entienda ser parte dellos” (1729: 258-259). Alabaina Larramendik ez du beste inon ideia hau garatzen.

6.2.2 Euskal artikulua. Ezaugarri tipologikoak

Gauza jakinak badira ere, euskal artikuluen zenbait ezaugarri tipologiko berrikusiko ditut, euskal gramatikari zaharrek artikulua identifikatzean izan zitzaketen oztopoak argiago geratuko direlakoan.

Euskararen artikulutzat hartzen dira *-a* (singularra) eta *-ak* (plurala) atzizkiak. Mugatzaileok, kasu-markak legez, Izen Sintagmaren eskuinera agertzen dira beti, haren azken osagaiari atxikiak; aldiz, inguruko hizkuntza guztietan —errumanieran salbu, pixka bat urrunduz gero— artikulua ISren ezkerrean kokatzen da. Orobat, ez dago ISren buruaren eta gainerako osagaien arteko numero eta kasu komunztadurarik; grekozko edo latinezko kasu-sistemetan bada (numero, genero eta kasu komunztadura). Gogorarazi behar da, bestalde, hizkuntza erromantzeen artikuluekiko egokitasuna ez dela osoa, inondik ere: euskaraz artikuludun forma (singularra) izenak aipatzeko modu ohikoa da; gainera, hizkuntza erromantzeetan artikulua erabiltzen ez den testuinguru batzuetan erabili ahal da euskaraz, atribuetan esaterako. Azkenik, euskarazko ISetan ez dago genero bereizketarik.

Bereizgarri tipologiko hauek guztiek euskarazko artikulua teoria klasikoan integratzeko eta are artikulutzat identifikatzeko oztopo suertatu ziren. Izan ere, teoria klasikoa grekozko eta erromantzezko artikuluen gainean eraiki zen (Padley 1988) eta euskararen aipatu ezaugarriek, ikusi denez, hizkuntza hauekiko egokitasuna aski iluntzen zuten.

Beste alde batetik, euskarak deklinabide-paradigma mugatua eta mugagabea bereizteak puzzlea osatzen du. Izan ere, lehenak artikulua erabiltzen ditu eta

bigarrenak, ez. Singularra eta plurala baizik bereizten ez zuten hizkuntzak eredu izaki, paradigma mugagabeak leku zaila zuen euskal gramatika tradizioaletan.

6.3 Artikulua eta “artikulua”. Bost adibide

Artikuluari buruzko ikuspegi desberdinak aurkezteko, XVII. mende erditik XIX. mende erdia arte luzatzen diren bost euskalari hautatu ditut. Ikusiko denez, “artikulu” terminoak esanahi desberdinak hartu ditu autore hauen lanetan. Eta, era berean, euskal mugatzailea aztertzeke analisi diferenteak ere eskaintzen dituzte. Autore gehienek, dena den, ez dute artikulua kategoriaren definizio agerikorik ematen. Salbuespenak Lardizabal eta, noski, Astarloa dira; durangarra, dakigunez, ahalegindu baitzen bere lanetan ezer ere solte ez uzten.

Azkenik, alde batera utziko dut artikulua adizki jokatuagabeen ondoan duen erabilerez autoreok esaten dutena (erlatiboetan, kasu), Determinatzaile Sintagmaren barneko jokabidera mugatuz. Salbuespenak oraingoan Zabala eta orpoz orpo jarraitzen dion Lardizabal dira, ikusiko dugunez.

6.3.1 Oihenart (1638/1656)

Arnaud Oihenarten (1592-1667) *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae tum Aquitanicae* historiazko liburuan aurkitzen ditugu zuberotarraren gramatika ideiak, eta haien barruan artikuluari buruzkoak. Behin baino gehiagotan nabarmendu dira Oihenarten “modernotasuna” eta haren proposamenen egokitasuna, Zaldibia, Garibai edo Poza bezalako aurreko autoreen eta Etxabe garaikidearen gehiegikeria apologetikoetatik aski urrun zegoelarik (cf. Tovar 1980, Etxebarria 1988, Zubiaur 1990, Echenique 1993). Ildo honetatik, Oihenartek euskal gramatikari eskaini

zizkion lerroak intuizio harrigarriez eta analisi zorrotzez beterik daude.²⁹⁸ Halakoxea dugu euskal mugatzaileen azterketa. Kapitulu honetan aztertuko ditudan autoreen artean Oihenart aurrenekoa bada ere, guztietarik analisi modernoena ematen du. Izan ere, Oihenarten ustez *-a* eta *-ak* artikulua dira.

Oihenartek I. liburuko XI-XIV. kapituluak eskaini zizkion euskarari. Lehenengoaren izenburua honako hau da: “De lingua Vasconum & an verum sit illius nomina in A singulari numero, plurali verò in AC desinere” (Oihenart 1656: 35). Oihenarten garaian iritzirik hedatuena zen *-a* eta *-ak* euskal hitzen (edo izenen) bukaerak zirelako. Hainbat autorek artikulua eta hitz amaiera nahastera eragin zuten arrazoien artean honako hauek aipa ditzakegu: (a) lehenago (§6.2.2) esan bezala, euskaraz forma mugatu singularra izenak aipatzeko modua da —gogoan izan bedi horrelaxe agertzen direla euskal hiztegi gehienetan XIX. mendearen erdia arte (cf. Urgell 2002: 74)—, eta (b) euskaraz mugatzaileak postposizioak dira, artikuluen identifikaziorako eredutzat erabil zitezkeen grekoan eta hizkuntza indoeuoparretan ez bezala. Beraz, hainbat egilek pentsatu zuten —formulazio desberdinen bitartez— euskal izenak *-a-z* amaitzen zirela singularrean eta *-ak-ez* pluralean (Oyharçabal 1993: 267-270). Ondokoak ziren: Marineo Siculo (1530), Merula (1605), Garibai (1571), Zaldibia (1945 [1575 b.l.]), Etxabe (1607), Mikoleta (1653), Pouvreau (1660), Urte (1712), Etxeberri Sarakoa (1712) eta Harriet (1741).²⁹⁹ Bistan da,

²⁹⁸ Analision aurkezpen baterako, ik. Oyharçabal (1989, 1993) lanak, hurrengo lerroetan erruz baliatuko ditudanak.

²⁹⁹ Iritzi hau Diderot eta d’Alemberten *Entziklopediara* ere iritsi zen, itzulpenak gorabehera; halaxe dio “Langue des Cantabres” artikulua: “La plus grande partie de ses noms finit en *a* au singulier, &

batzuk Oihenarten aurrekoak dira, baina beste batzuk ondorengoak. Izan ere, Oihenarten proposamenak ez zuen bat ere arrakastarik izan eta, horrela, atzizkiok artikulutzat hartzeko ikuspegia Larramendiren lanaren ondoren baino ez zen zabaldu betiko.

Gauzak horrela, Oihenartek bere aurrekoen iritzi okerra ezeztatzeko beharra sumatu zuen. Hortaz, argi eta garbi adierazten du atzizki horiek beste hizkuntza batzuetako artikuluen pareko direla:

...litera enim A in singulari numero & syllaba AC in plurali, nominibus Vasconicis addita, in fine, articuli vicem fungitur, ita vt, Vasconica vocabula hac ratione per A aut AC finire, perinde sit ac si quis dictiones Graecas ab ó, ή το auspicari velit (Oihenart 1656: 36)


Beste alde batetik, XIV. kapituluak³⁰⁰ honako izenburua du: “Singularia quaedam linguae Vascae, deque vocabulorum Vascorum declinandi & coniugandi ratione” (1656: 57). Bertan Oihenartek bi deklinabide mota bereizten ditu, berak *articulata*

en ac au pluriel: tels sont *cerva & cervac*, les cieux; *lurra & lurrac*, la terre; *eguzquia*, le soleil; *izarquia*, la lune; *izarra*, une étoile; *odeya*, un nuage; *sua*, le feu; *ibaya*, une riviere; *urea*, un village; *echea*, une maison; *ocea*, un lit; *oguia*, du pain; *ordava*, du vin, &c.” (1751-1772: IX, 268).

³⁰⁰ Bitarteko XII. eta XIII. kapituluek Antzinaroko Iberiar Penintsulan hizkuntza bat ala batzuk izan ziren eztabaidaz dihardute. Hizkuntza bakarraren aldeko gehienen aburuz, euskara izan zen antzina Iberiar Penintsula osoan hedatu zen hizkuntza. Hizkuntz aniztasuna, besteak beste, Ambrosio Moralesek defendatu zuen (eztabaidaren xehetasunez, ik. Tovar 1980). Auzi honetan Oihenartek jarrera zuhurrago bat hartzen du. Iturri klasikoak aztertu ondoren, honako ondorio honetara iritsi zen: “Itaque, vt paucis meam sententiam aperiam, hanc vniuersis illis montanis populis, qui Septentrionale latus Hispaniae incolebant, communem fuisse existimo, Vasconibus scilicet, Vardulis, Autrigonibus, Caristis, Asturibus, Cantabris, Gallæcis ac Lusitanis, cum enim hos omnes populos iisdem vixisse moribus eamdémque vitae rationem coluisse constet ex Strabone: linguâ quoque concordés extitisse æquum est credere” (Oihenart 1656: 44).

(‘artikuluduna’) eta *inarticulata* (‘artikulugabea’) deitzen dituenak; lehena, bestalde, singularra edo plurala izan daiteke (cf. *infra* 95. oin-oharra). Hartara, deklinabide-paradigma mugagabeaz ohartu zen lehen euskalaria dugu. Ondorengo autoreek, Larramendik (1729) esaterako, Oihenarten sailkapena baztertu zuten, latin ereduari jarraituz, eta ez dugu mugagabea berriz aurkituko Astarloaren eta Humboldtten lanak agertu arte (XIX. mende hasieran, beraz) eta, geroago, bere kabuz antza, Darrigolekin (Gómez 1996: 613-614 eta hemengo §§ 2.4.3 eta 3.4.2).

Azkenik, Oyharçabalek (1993: 271-272) nabarmendu duen bezala, Oihenarten analisiak, nahiz eta euskararen numero-bereizketaren ikuspegi egokia eskaini zigun, zailtasun batekin topo egiten du, euskararen eta latinaren arteko alde tipologikoak sorrarazia. Lehenago (§6.2.2) gogorarazi dudanez, euskaraz bai determinatzaileak bai kasu-markak IS osoari eransten zaizkio, ez osagai bakoitzari. Hala ere, arazo honetan latin ereduak itsutu bide zuen Oihenart eta, ildo horretatik, proposatu zuen euskarazko IS konplexuetan osagaien arteko komunztadura-erlazioak badaudela. Horretarako deklinabide “artikulugabeaz” —hau da, mugagabeaz— baliatu zen. Alta bada, Oihenartek ISen bukaeran ez dauden osagaiak kasu nominatiboan deklinatuta daudela uste du, baina beti ere nominatibo artikulugabeen (ez du auzi honen barruan gainerako kasuei buruz hitz egiten). Analisi honi esker, ISko osagaien artean komunztadura gertatzen dela proposa dezake, artikulugabea singularrarekin zein pluralarekin komunzta daitekeelarik. Honelaxe laburtzen du Oyharçabalek Oihenarten ikuspuntua (1993: 272):



Bederatzigarren taula: Oihenarten izen sintagma barneko komunztadura

6.3.2 Larramendi (1729)

Ezaguna denez, Manuel Larramendiren (1691-1766) gramatikak latin ereduaren eta Berpizkundeko gramatikagintzaren eragin argia du (Gómez 1991). Tradizio klasiko horren barruan, Larramendiren ustez artikulua da ISn kasu-marka eta numero-bereizketa jasotzen dituen osagai bakarra.³⁰¹ Larramendik, ordea, bi diferentzia nabarmentzen ditu euskararen eta eredu bezala erabiltzen dituen hizkuntzen artean; alegia, (1) euskarazko artikulua izenen atzean kokatzen direla, eta (2) artikuluan *bakarrik* islatzen dela numero-bereizketa:

...mas en la variedad, y diferencia de los casos no se atiende à los nombres, sino à los articulos, como en Romance, Francés, y otras Lenguas. Ay dos diferencias. La 1. que los articulos en essas Lenguas son prepositivos, ò antepuestos al nombre; pero

³⁰¹ Ekar litezkeen antzeko hainbat adibideren artean, latina ikasteko ingelesezko gramatika bat aipatuko dut, John Entick-ek 1728an argitaratutako *Speculum Latinum* izenekoa; Larramendiren garaikidea izan zen, beraz. Entick-ek honelaxe dio: “declining a Noun by Case [is] repeating the Noun with its Article, and with the several Changes of the Article” (Entick 1728; *apud* Michael 1970: 351).

en el Bascuenze son pospuestos, ò subjuntivos. La 2. que en las demás Lenguas el numero singular, y plural se distinguen, no solo en los articulos diferentes, sino tambien en que añaden al plural una ò dos letras mas, v.g. *hombre hombres, oracion oraciones*; pero el Bascuenze tiene al nombre invariable, y solo el articulo haze la diferencia del singular, y plural, v.g. *guizon-á guizón-ac.* (Larramendi 1729: 1-2)

Paralelotasunekin jarraituz, Larramendik ohartarazten du artikulua, solte agertzen direnean, hirugarren pertsonako izenordainak direla:

Finalmente se ha de advertir, que este articulo comun del nombre es por si solo pronombre de la tercera persona, especialmente en singular, y corresponde propriamente al articulo Griego *ho, he, to.* (Larramendi 1729: 7)³⁰²

Larramendik aukeratutako analisiak izenki guztietan artikulua identifikatzera behartzen du. Era berean, berriz ere erduei jarraituz, bi numero baino ez du bereizten euskaraz: singularra eta plurala; ez da, beraz, paradigma mugagabeaz ohartzen, Oihenart ez bezala. Hau dela-eta, arazo batekin topo egiten du berehala: izen berezien eta pertsonen deklinabidea nola azaldu.³⁰³ Larramendik arazo bakoitzerako irtenbide desberdina proposatzen du. Izen bereziei dagokienez, guztietan artikulua bilatzen saiatzen da, eta inplizituki numero singularra ezartzen die. Emakume-izenetan nahiko erraz proposa dezake amaierako *-a-n* (erromantzezko

³⁰² Izan ere, euskal artikulua, grekoarena eta hizkuntza erromantzeena bezala besteak beste, erakusletik dator. Gogoan izan, orobat, euskaraz ez dagoela berez hirugarren pertsonako izenordainik eta, hortaz, hirugarren graduko erakusleak bete ohi duela haren funtzioa, mendebaldeko hizkeretan batez ere forma indartuak (*ber-a*).

³⁰³ Oso antzeko arazoa agertu zitzaion Europako gramatikari batzuei. Autore batzuek zenbait preposizio (*a, de, para, etab.*) artikulutzat hartzen zituzten, “kasu-markatzaileak” zirelakoan (ik., esate baterako, Padley 1988: 424). Euren arazoa hauxe zen: kasu-markatzaile bakarrak artikulua baziren, nola azaldu, adibidez, gaztelarazko *me, te, se, le, la, lo...* izenordainak?

femeninoaren markan) euskal artikulua dagoela barneraturik (“embebido”). Izen berezi maskulinoak azaltzea, ordea, askoz zailago gertatzen zaio, azkenean *ad hoc* egindako azterketa bat eman behar duelarik:

Los propios de hombres son en dos maneras, unos, que en Romance se acaban en vocal, Pedro, Pablo, Antonio, y otros en consonante, Juan, Martin, Felix. La declinacion de los primeros es deste modo; para los verbos neutros no añade nada el nominativo, sino que la *o* final sirve de articulo, como en los apelativos el *á*, v.g. *Pedro dátor*, *Pablo dirudi*: para los activos se añade por articulo una *c*, como *Pedroc dio*, *Pabloc il nau*. En los demas casos sirve el articulo comun, perdiendo solamente la *a* inicial, v.g. *Pédroren*, *Pédrori*, *Pédrorentzat*, &c. y el acento se conserva en el nombre, sin passar al articulo. La declinacion de los segundos es como se sigue. Para los verbos neutros el consonante ultimo sirve de articulo, sin añadir nada, *Martin gaisto-á da*, *Juan il omèn da*: pero siguiendose verbo activo, añade el nominativo por articulo el *ec*, *Martínec iltzen nau*, *Juánec ecarrí dit*. Los demás casos toman el articulo comun dimidiado, omitiendo la inicial *ar* en los casos, que la tienen, y en los que solo tienen la *a*, omitiendola, v.g. *Martínen*, *Martínena*, *Martíni*, *Martínentzat*, &c. y el acento tampoco passa à los articulos. Lo que hemos dicho de los nombres propios, se entiende de todos los apellidos, sean Bascongados, ò no lo sean (Larramendi 1729: 18-19)

Bigarren arazoari dagokionez, Larramendik adierazten du izenordain pertsonalek ez dutela artikulurik onartzen eta izenordainak berak ez direla berez artikulua (“no son articulos propiamente”); aitzitik, izenaren artikulua “imitatzen” dituzte (Larramendi 1729: 30). Ikus daitekeenez, bi arazoetan Larramendiren analisiak nahiko bortxatua dirudi. Arrazoiak dira, batetik, artikulua ikuspegi klasikoa (artikulua da kasua jasotzen duena) eta, bestetik, euskal deklinabidearen beraren ezaugarriak.

Guztiarekin ere, eredu klasikoak, zeharka bada ere, zenbait analisi zuzen egiteko aukera eskaintzen dio Larramendiri. Horrelaxe gertatzen da IS konplexuen

deklinabideari gagozkiola (Oyharçabal 1993: 272). Larramendiren iritziz, kasu-marka artikulua jasotzen duenez, ez du inolako arazorik ISko osagaien artean dagoen ustezko komunztadurarik eza esplikatzeke, Oihenartek izan zuen zailtasun nagusia saihestuz:

Los nombres apelativos, y lo mismo se dice de los propios, se suelen tambien declinar acompañados, y se rigen por los mismos articulos del nombre, que quedan explicados; pero demanera que aunque se multipliquen los adjetivos, no por esso se multiplican los articulos, sino que uno basta para el regimen de todos, y esse siempre pospuesto al ultimo, v.g. *guizón edér, galant-á*. Demanera, que como en Romance un mismo articulo rige muchos nombres, *la agua clara, limpia, delgada*, sin repetirse el articulo *la agua, la clara, la limpia*, assi tambien sucede en el Bascuenze. (Larramendi 1729: 15)

Amaitu aurretik, ohartarazi behar dut Larramendik “artikulu” terminoa bi adierarekin erabiltzen duela: batetik, mugatzaile hutsaz (-a, -ak) ari delarik; bestetik, mugatzaile + kasu-marka multzoaz ari delarik (“hondarkia” dei genezakeenaz).³⁰⁴ Beraz, alde batetik, Larramendik esaten du artikulua deklinatzen dela; baina, bestetik, deklinatutako forma bakoitzari ere “artikulu” deitzen dio. Adibidez, Larramendik genitiboaren “artikuluei” buruz idazten duenean, honako hau dio, nahasketaren erakusgarri: “el segundo es articulo compuesto *aréna* del articulo propio del genitivo *arén*, y del primero del nominativo *á*, como lo es en Romance el articulo *de el, de la*” (Larramendi 1729: 5).

³⁰⁴ Azken batean, dena den, bereizketa hori egitea alferrikakoa da; izan ere, mugatzaile “hutsa” omen denak beti ere kasu absolutiboaren -ø marka jasotzen bide baitu.

6.3.3 Astarloa (1883 [1805])

Astarloaren lan nagusia *Discursos filosóficos* da eta, beraz, lan horretan oinarrituko naiz artikuluari buruzko Astarloaren ikuspegia azaltzeko (durangarraren hizkuntz-idea orokorreaz, ik. Gómez 1999, 2004, 2006a eta hemengo 1. kapitulua). Astarloak “artikulu” terminoa kasu-markei deitzeko erabiltzen du; zehazkiago, bere teoriaren arabera lehen mailako erlazioak aditzera ematen dituzten markei deitzeko:

Por artículos entendemos aquellas vocecitas que aplicadas á los nombres, epitetos y pronombres nos dan á entender en el uso de las lenguas el diferente estado ó las diferentes relaciones primarias que tienen sus signados con la accion ó con otro signado que se comunica en nuestros conceptos. (Astarloa 1883: 325)

Lehen mailako erlazioak honakoak dira: “egilea” (artikulu *-k* delarik), “pazientea” (*-ø*), “hartzailea” (*-i*) eta “jabea” (*-en*).³⁰⁵ Astarloak badaki, jakin, aurreko gramatika-tradizioan “artikulu” terminoaren erabilera desberdinak daudela eta, horregatik, bere erabilera justifikatzeko beharra sumatzen du:

Es verdad que hoy los gramáticos de las lenguas europeas, entienden por artículo aquellas palabritas por medio de las cuales distinguen estos idiomas el nombre apelativo del que no lo es, como *el, la, lo*, en el castellano: *le la* en el francés, *the* en el inglés, *a* en el bascuence, etc., pero esta opinion á más de ser moderna y de origen conocido, no ha producido otros efectos en la literatura que la confusion y el decoro. (Astarloa 1883: 331)

³⁰⁵ Humboldték ere horrelako sailkapen bat proposatu zuen (Humboldt 1817 [1933-34: 95-96]): batetik, kasuak izango genituzke —lehen mailako erlazioak adierazten dituztenak— eta, bestetik, preposizioak edo postposizioak —bigarren mailako erlazioak adierazteko—. Gainera, Humboldtén ustez, kasuak egotea eta kasuen kopurua hizkuntzaren ezaugarri unibertsalak lirateke (Humboldt 1817 [1933-34: 95-96]); ik., orobat, Gómez (1996: 614) eta hemengo §2.4.4.

Halaber, Hervasek emandako datu linguistikoez baliaturik, artikuluak genero-markak direlako ikuspegia arbuiatzen du. Haren orde, “artikulu” deitu ohi diren formen funtzioa “caracterizar los nombres apelativos” (1883: 332) dela proposatzen du. Eta horrela, Astarloak “artikulu” deitzen dituenak (gure kasu-markak) izen arruntetan, berezietan, adjektiboetan (“epítetos”) eta izenordainetan agertzen dira.

Munduko hizkuntzetan, lehen mailako erlazioak edo “deklinabidearen” edo “artikuluen” bitartez adieraziko lirateke eta bigarren mailako erlazioak, aldiz, preposizioen edo postposizioen bitartez, hizkuntzaren arabera (1883: 326-328). Beste alde batetik, “deklinabidearen” eta “artikulubidearen” arteko diferentzia honako hau da: lehenbizikoa ez da perfektua, amaiera batzuek beren jatorrizko forma desitxuratu dutelako eta erredundanteak direlako; hortaz, deklinabidearen antolaketa nahasia da, lehen mailako erlazioen berri emateko desegokia oso. Jakina, Astarloak lehen hizkuntzak “artikuluak”, eta ez “deklinabidea”, izan zituela sinesten du (1883: 329-334). Honelaxe laburtzen du bere proposamena:

De todo lo dicho en este capítulo se deduce lo primero que el idioma de los primeros hombres no hizo uso de la declinacion para caracterizar los estados ó relaciones primarias de los entes ó cualidades, sino de ciertas particulitas sueltas aplicables en sus casos. Se colije en segundo lugar, que estas palabritas no deben llamarse preposiciones ó posposiciones, sino artículos, para que haya la debida claridad en las gramáticas de los idiomas. Se colije en tercer lugar que estos artículos son cuatro, es á saber:

Artículos.....	}	Paciente.
		Agente.
		Recipiente.
		Posesor.

(Astarloa 1883: 342)

Era berean, Astarloa nahita urruntzen da Larramendiren analisitik, honek sartzen baitzuten “artikuluen” artean bai mugatzailea eta baita kasu-marka ere, ikusi berri dugunez (§6.3.2):

...es necesario tener presente que este idioma [bascongado — R.G.] distingue los nombres apelativos de los propios numerales y partitivos en que los primeros llevan por característica la letra *a*. [...] De aquí es la equivocación del P. Larramendi en haber presentado como artículos bascongados las palabras *a*, *ac*, *aren*, *ari*. (Astarloa 1883: 675)

Esan behar da Astarloaren analisi morfologikoa Larramendirena baino askoz zoliagoa dela. Hala, Astarloa euskararen flexio-morfologia xeheki aztertzen duen lehen euskalaria dugu; eta nahiko egoki identifikatzen ditu euskal morfemak, bai izen morfologiakoak, bai aditz morfologiakoak ere (ik. Gómez 2002c eta tesi honetako §§1.5.4.2 eta 8.2). Ikus dezagun mugatzaileari buruzko adibide bat:

En *guizon-a-r-i* hallamos tres letras unidas á la voz *guizon*. Conocemos que la *a* es nota de apelativo: que la última *i* es característica de recipiente; y no teniendo ministerio alguno la *r* en la propiedad de la voz, venimos en conocimiento de que sus funciones son correspondientes á la eufonía. (Astarloa 1883: 676)

Mugatzailearen (berak “característica de apelativo” deitzen duenaren) eta kasu-marken (hots, Astarloaren “artikuluen”) artean egiten duen bereizketa posible da, Astarloak, Oihenartek bezala, bi paradigma bereizten dituelako: mugatua eta mugagabea (izen “partitiboena”, Astarloarentzat). Izan ere, Astarloak beste “artikulu” batzuk ere bereizten ditu, “mugagabe” deitzen dituenak; Astarloaren iritziz, izen “partitiboekin” erabiltzen dira artikuluko mugagabeak:

A más de estos artículos que son definidos, tiene el bascuence otros que podemos llamar indefinidos, y usa de ellos cuando los nombres apelativos pasan á ser partitivos, esto es, á significar una parte ó porción de individuos contenidos en la

especie representada por la voz apelativa, como cuando decimos *ciertos hombres: varios soldados: ningun literato*, etc. (Astarloa 1883: 677)

Pasarte honetatik idoki dezakegu deklinabide mugatu eta mugagabearen arteko bereizketa zuzenagoa dela Oihenarten kasuan Astarloaren kasuan baino. Oihenartek irizpidetzat mugatzailea agertzea edo ez agertzea hartzen duelarik, Astarloak “artikulu mugagabe” direlakoak izen arrunten zenbait erabileratarako baino ez ditu onartzen. Ondorioz, izen berezien eta zenbakien flexioa paradigma mugatuan kokatzen du.

6.3.4 Zabala (1848)

Juan Mateo Zabala frantziskotarra (1777-1840) euskara ikasten aritu zen, hizkuntza erabiltzeko erraztasuna ez galtzarren. Zabalaren iturri nagusiak Larramendiren eta Astarloaren lanak dira. Nolanahi ere den, Astarloari dagokionez, Zabala atxikiago agertzen zaio hizkuntzaren erabilerari, durangar maisua baino (Zabala 1848: ii).

“Artikulu” terminoari dagokionez, Zabalaren jarrera oso harrigarria gerta daiteke; termino horretaz baliatzen baita adizki jokatuak izendatzeko, berehala ikusiko denez. Adibidez, aditzean hiru boz bereizten ditu (“aktiboa”, “pasiboa” eta “mistoa”), sailkapen oso tradizionala, bestalde. Eta Zabalak, boz bakoitza nola eratzen den azaltzen duelarik, “partizipio” mota batez eta “artikulu” mota batez osatzen dela dio:

7. El verbo regular vascongado tiene las tres voces, formadas diferentemente. Para la formación de la voz activa tiene artículos activos, cuales son *dau, dozu, dot, evan, cenduan*, etc.: y estos con los correspondientes participios sirven solo para los verbos activos. [...]

8. Tiene tambien artículos mistos ó neutros, para formar con ellos, y con los convenientes participios, la voz de este nombre, que sirva de conjugacion para los

verbos mistos, y asi mismo para los activos, cuando no se quiere dar á entender el agente. Estos son *da, naz, nintzan, zaitte, doa* etc. [...]

9. Mas no tiene artículos que determinadamente sean pasivos, sino que se vale para la voz de esta denominacion de los activos y mistos [...]; y todo el artificio consiste en servirse de los participios convenientes á esta voz. (Zabala 1848: 2)

Gogoan izan bedi *doa*, adizki trinkoa ez ezik, antzina laguntzailea ere bazela, ‘ohitura’ esanahia-edo zuelarik.³⁰⁶ Eta hauxe da, hain zuzen ere, Zabalak goiko pasarte honetan jasotzen duen erabilera. Izan ere, Zabalak (1848: 22-23), Astarloari jarraituz (cf. §1.5.4.2), *yoan* eta *eroan* laguntzaileak hartzen ditu “ohiera” aditz-moduaren (“modo consuetudinario”) ezaugarri bezala.

Zabalak ez du, bestalde, “artikuluaren” definiziorik ematen; beraz, terminoaren erabilera zehazteko, haren lanean agertzen diren adibideez baliatu beharko dugu ezinbestean. Lehentxeago aipatutakoek aditzera ematen dute, itxuraz, Zabalak laguntzaileei soilik deitzen diela “artikulu”. Hau da, “partizipio” (alegia, adizki jokatu-gabe) bati lotuz gero adizki jokatu perifrastiko, analitiko edo “elkartu” bat eratzen duten adizki jokatu ez-askeak. Zentzu honetan, irudi luke adizki trinkoak Zabalaren “artikuluetatik” at geratuko lirakeela. Hala ere, Zabalak “artikulu” terminoa nola ulertzen duen argiago ikusiko da beste adibide bat aintzat hartzen badugu, subjuntibo, ahalera eta aginterazko adizkiak azaltzen dituen hurrengo pasarte hau, hain zuzen:

³⁰⁶ Aldaik (1999: 386) adizki hauek aspektu generikoa edo gnomikoa ere adieraz zezaketela iradoki du.

Conjugaciones compuestas son las que se forman de participios y artículos auxiliares. Nuestra conjugacion regular está comunmente reputada por compuesta en su totalidad: pero me parece que debe rebajarse mucho de esta idea. A la verdad, si yo no me engaño, todos los tensos que se forman con artículos de *eguin* y *ekin* que son los de imperativo, subjuntivo y potencial, son simples: y su participio de pretérito, que constantemente llevan, sea cual fuere el tiempo á que pertenecen, no es constituyente, sino un verdadero verbo determinado, regido de dichos artículos, ó hablando en mas esactitud, de dichos verbos. Y por lo mismo sus conjugaciones cuando mas podrán llamarse compuestas, en cuanto llevan participio y artículos. (Zabala 1848: 10-11)

Hortaz, Zabalak proposatzen du subjuntibo, ahalera eta agintera gainerako moduak ez bezala eratzten direla. Gainerakoak “partizipio” batez eta laguntzaile batez (“artículos auxiliares”) eratzten dira. Subjuntibo, ahalera eta aginteraz den bezainbatean, ordea, benetako aditz batek (*eguin* edo *ekin* aditzak) gobernatzen du “iraganaldiko partizipioa”. Beraz, Zabalaren ustez, modu hauen eraketa ez litzateke sartuko joko erregularrean, joko perifrastikoan alegia; gaur egungo analisisetan **edin* eta **egin* laguntzaileen adizkiak direnak, Zabalaren azterketan *eguin* eta *ekin* aditzen forma bakunak (hots, trinkoak) dira. Ene ustez, Zabalaren bereizketaren arrazoia honako hau da: hiru modu hauetan adizki jokaturgabea (Zabalak “participio de pretérito” izendatzen duena) aldaezina da, nahiz eta denbora orainaldia, iraganaldia edo geroaldia (egungo alegiazkoa) izan. Aldiz, gainerako moduetan adizki jokaturgabeek (“partizipioek”) beren forma aldatzen dute denboraren arabera.

Zabalak erabiltzen duen “artikulu” adigaia are gehiago zehazteko, beste adibide pare bat ekarri behar dut. Batetik, liburuko pasarte batean, Zabalak “artículos de los verbos *egon* y *egoki*” (1848: 64) aipatzen ditu. Eta argigarriagoa datekeena, beste pasarte batean honako hau dio:

Pongo por ejemplo el verbo *yaquin*. Su participio mutilado es *aki* [...] al que transforma en *enki*, cuando le hacen servir para la formación de artículos imperfectos (Zabala 1848: 60)

Hemen argi eta garbi geratzen da Zabala adizki trinkoei buruz ari dela, ez laguntzaileei buruz. Beraz, uste dut horixe dela Zabalaren “artikulua” ulertzeko bide zuzena: adizki pertsonalak, jokatuak, bai laguntzaileak eta baita trinkoak ere. Eta azken hauek Zabalaren liburuan oso maiz agertzen ez badira, arrazoia da liburuaren helburu nagusia euskal aditzaren joko perifrastikoa azaltzea dela (Zabalak joko “erregularra” deitzen diona, Larramendirekin hasten den tradizio bati jarraituz; ik. Gómez 1989: 361 eta Gómez & Sáinz 1995: 237-238).

Erabilera honen jatorriaz gutxi dakigu. Euskalaritzaren historian ez dago iturri zuzenik eta, nik dakidala, ezta Europako gramatikagintzan ere. Beharbada, gauzak sinpleagoak dira eta, besterik gabe, Zabalak egiten duena “artikulu” hitzaren esanahi etimologikoa erabiltzea baino ez da, hots, “hitz txikia”.

Euskal aditzari buruzko lan bat denez gero, Zabalak aukera gutxi ditu ISko mugatzaileez aritzeko. Hau dela-eta, ez dago erabat garbi zein den haren analisia, ezta zein terminologia ezagutzen duen euskarazko mugatzailea izendatzeko. Hala eta guztiz ere, han edo hemen, ohar solteren batean —ez oso argi baina— irakurtzen dugunak eraman gintzake *-a* eta *-ac* amaierak ere artikulutzat hartzen dituela pentsatzera. Ikus bedi, adibide gisa, hurrengo pasarte hau, non boz pasiboaren eraketa azaltzen jarraitzen duen:

...y en que el [participio — R.G.] de pretérito, que siempre le [= boz pasiboari — R.G.] acompaña, vaya caracterizado ó articulado con *a* final, si el paciente es de singular, y con *ac*, si es de plural, ó segun frase de otras gramáticas, en concertar dicho participio con el paciente. (Zabala 1848: 2)

6.3.5 Lardizabal (1856)

Francisco Ignacio Lardizabal (1806-1855) apaiz gipuzkoarrak euskal gramatika bat idatzi zuen, Gipuzkoako Diputazioaren enkarguz egin eta Lardizabal hil eta handik gutxira argitaratuko zena.³⁰⁷ Larramendiren eta Zabalaren eragin zuzena jaso baitzuen, Lardizabalek “artikulu” terminoa bi iturri horietan agertzen diren esanahiekin erabiltzen du, noiz bata noiz bestea:³⁰⁸ espero denez, Larramendiren erabilera batez ere deklinabidearen azalpen laburrean aurkituko dugu; Zabalaren erabilera, aldiz, aditz-jokoari eskainitako kapituluetan.

Lardizabal artikularen definizio sintaktiko eta funtzional batekin hasten da (cf. Gómez Asencio 1985: 156-157). Bertan Larramendik sumatu zituen ezaugarriak errepikatzen ditu:

El artículo es una parte de la oracion, que se junta al nombre, ó á otra parte, que hace veces de nombre. El Vasceuce usa de unos mismos artículos para el nombre masculino, y para el femenino. Son pospuestos al nombre, el cual queda invariable, así en singular, como en plural, haciendo el artículo la diferencia de uno y otro número; v. g. *guizon-a*, singular, y *guizon-ac* plural. (Lardizabal 1856: 2)

³⁰⁷ Ez dugu oraingoz Lardizabalen gramatikari buruzko azterketa xeherik. Alabaina Urgellek (1995a: xiv-xix) oso berri interesgarriak bildu ditu gramatikaren argitarapen-prozesuaz, iturriez eta ondorengo eraginaz.

³⁰⁸ Beronen antzeko zehazgabetasun terminologikoa, *mutatis mutandis*, Espainiako tradizioan, Villalónen gramatikan (1558) aurkitzen dugu. Autore honek “por lo menos utiliza ‘artículos’ con doble valor, como sinónimo de ‘partículas’ indeclinables, opuestos a ‘nombres’, ‘verbo’ y ‘pronombre’, y como equivalente de ‘vocablo’ o ‘dición’ (palabra), aplicable a las distintas formas del pronombre” (Escavy Zamora 1987: 250-251).

Era berean, ondoren ematen dituen artikuluen eta izenordainen deklinabide-paradigmak, baita oharrak ere, Larramendiren gramatikatik kopiatzen ditu, batzuetan ia hitzez hitz.

Haatik, lehenago adierazi dudanez, aditzaren azterketara igarotzen delarik, Lardizabalen iturri nagusia Zabala da (hari ere inolako lotsarik gabe kopiatzen dio). Une honetara iritsita, “artikulu” terminoak ‘adizki jokatu’ esangura hartzen du. Lardizabalek bere maisu Zabalak baino askoz sarriago baliatzen du “artikulu” terminoa adizki trinkoei buruz ari delarik, eta Larramendik zein Zabalak bezala “irregularrak” izendatzen ditu. Ikus bedi adibide bat hurrengo pasarte honetan:

5. Todos los irregulares admiten oraciones de *al* poder, añadiendo la partícula *que* á todos los artículos de indicativo: v. g. *nator* vengo, y *nator-que* puedo venir. (Lardizabal 1856: 42-43)

Nahasketa bere goien gradura heltzen da Lardizabalen gramatikaren hirugarren atalean, prosodiari eskainitakoan hain zuzen ere. Bertan berriz ere Larramendi da iturria, baina oraingoan Lardizabalek “artikulu” terminoaren bi adierak konbinatzen ditu, orrialde batetik bestera nahasian agertzen direlarik: esate baterako, “Acentuacion del articulo y nombre” (1856: 83), “Acentuacion de los articulos regulares del verbo” (1856: 84), “Acentuacion de los articulos del verbo irregular” (1856: 85).

6.4 Ondorioak

Euskal gramatikagintzan mugatzailearen identifikazioa prozesu luzea gertatu zen, behin edo behin atzeraka ere egin zuena. Zenbait arrazoik lagundu zuten nahasmenak luzaro iraun zezan, hala nola euskal mugatzailea atzizkia izatea, genero-

komunztadurarik ez erakustea eta, neurri txikiagoan apika, haren erabileran inguruko hizkuntzen testuinguru guztiekin bat ez etortzea. Halaber, euskal gramatika zaharretan latin eredua —Mendebaldeko gramatikagintzan ohikoa zena— eta, hurbil egonik, eredu erromantzea baliatzeak mugatzailearen identifikazioa oztopatu zuen, laburbildu berri ditudan diferentzia tipologikoak direla kausa.

Oihenarten aurreneko urrats argiek ez zuten hurrengo lanetan inolako oihartzunik izan. XIX. mende hasiera arte itxaron behar da euskal numeroaren bereizketa onargarri bat —alegia, paradigma mugagabea aintzat hartzen duen bereizketa bat— berriz aurkitzeko, bai eta *-a* eta *-ak* bukaerak beste hizkuntza batzuen artikuluekin garbi identifikatzeko ere: Astarloaz ari naiz, jakina, nahiz eta egile honek ez zuen orduko terminologia ohikoa erabili eta, horrela, aipaturiko bukaerak “*características de nombre apelativo*” izendatzen ditu, “artikulu” terminoa kasu-markei deitzeko baliatzen duelarik. Bien bitartean, Larramendiren analisiak, tradizio klasikoaren zordun baita, artikulua kasu eta numero bereizketekin lotzen du; ez, ordea, genero bereizketarekin, euskaran ez izaki. Orobat, ez du gardentasun terminologiko handirik eskaintzen; izan ere, “artikulu” terminoaren barnean bai mugatzaile hutsa, bai kasu-marka, baita biak batera (hondarkia) ere biltzen ditu. Gai honi dagokionez, beste hainbati bezala, Larramendiren eragina XIX. mende bukaera arte hedatuko da, batik bat euskara irakasteko gramatiketan; Lardizabalen lana dugu honelako adibiderik nabarmenena. Azkenik, Zabalaren liburuan kausitzen den “artikulu” terminoaren erabilera bakana ulertzeko ez dut litekeen iturririk ezagutzen eta, beraz, oraingoz ezin dut behar bezala azaldu.

7 “Aditz bakarraren” teoria XIX. mendeko euskal gramatikagintzan

7.1 Sarrera*

Kapitulu honetan XIX. mendeko zenbait gramatkarik euskal aditzari buruzko azterketetan nola edo hala “aditz bakarraren” teoria deitu izan dena nola adierazi eta erabili zuten azaldu nahi nuke. “Aditz bakarraren” teoria aurreneko aldiz Port-Royaleko *Grammaire générale et raisonnée* lanean (1660) azaldu zen. Port-Royaleko lanek hizkuntza guztiek batera dituzten ezaugarriak aztertu zituzten, *gramatika orokorra* deitu ohi den joerari bide egin ziotelarik. Kapitulu hau hasteko, XIX. mendea arteko gramatikagintzak euskal aditza aztertzeke erabili zituen irizpide nagusiak laburtuko ditut, atari gisa (§7.2). Hurrenik, gramatika orokorraren eta, haren barruan, aditz bakarraren teoriaren azalpen laburra emango dut (§7.3). Ondoren, zenbait adibide eskainiko ditut, aditz bakarraren teoriak XIX.eko euskalaritzan izan zuen lekuaren agerpen aski zabala erakusteko asmoz: Humboldtten lehen urratsak (§7.4); Darrigolen formulazio oraindik anbigua (§7.5); Abbadie (§7.6), Chaho

(§7.7) eta Inchausperen (§7.8) aldezte garbia; Bonaparteren aditz-teoria bihurrian izan zuen leku nabaria (§7.9), eta, azkenik, Azkueren (§7.10) eta Arana-Goiriren (§7.11) lekukotasun berantiarak. Ondorioek (§7.12) emango diote buru kapituluari.

7.2 Euskal aditzaren sailkapenak XIX. mendea arte

Jakina denez, euskarak adizki sintetikoak eta adizki analitikoak ditu (azken hauei “perifrastiko” izena ere eman ohi zaie).³⁰⁹ Aditz-forma perifrastiko bat adizki jokatugabe batek eta laguntzaile batek osatzen dute; lehen osagaiak aspektu-marka bat har dezake eta bigarrenak, aldiz, pertsona eta numero komunztadura-hizkiak eta denbora eta modua adierazteko morfemak hartzen ditu. Joko perifrastikoak modu eta aspektu bereizketa gehiago aurkezten ditu, baita aditzarekin komunztatzen diren argumentuen —absolutibo, ergatibo eta datiboaren— arteko konbinaketa posible guztiak ere. Aitzitik, joko sintetikoak ez du aspektu bereizketarik onartzen eta, pertsona-komunztadura anizkuna onartzen badu ere, halako adizkiak oso gutxi erabiltzen dira; bestalde, joko sintetikoaren erabilera atzeraka joan da euskararen historiaren hasiera-hasieratik bederen.

Paradigma perifrastikoaren aberastasun eta erregulartasun handiagoa dela eta, euskal gramatikari gehienek —Larramendirekin hasi (1729) eta, salbuespen bakanak gorabehera, XIX. mendearen bigarren erdia arte— joko perifrastikoa euskaraz berezkoa zela pentsatu zuten; joko trinkoa, berriz, Larramendiz geroztik *irregular*

* Kapitulu honen oinarria Gómez (1990) eta (2002a) dira.

³⁰⁹ Deitura hau Oihenartek dakar lehen aldiz (1638: 62).

deitu izan zena, bigarren mailakotzat eta berriagotzat hartu zuten.³¹⁰ Hala ere, gaur egun euskararen historiaz dakigunaz baliaturik, badakigu gauzak bestela gertatu zirela (cf. Gómez & Sáinz 1995, Trask 1997).

Joko perifrastikoaren gailentasuna aldarrikatu zutenen aldean, Oihenart dugu aditz trinkoen jatorria aldezten zuten autore bakan horietako bat eta lehena. Zuberotarrak ohiko zehaztasun eta zorroztasunez aztertu zituen euskal aditz-joko motak, bi joko bereizi zituelarik, bata berezkoa edo jatorra (hots, trinkoa) eta bestea jatorra ez dena (perifrastikoa, alegia):

Duae sunt coniugandi formae. Altera *Propria*, Altera *impropria*, quae fit per circumloquutionem. *Propria* est cum verbum per seipsum inflectitur, absque vlllo alterius vocis adminiculo, vt à themate ek'us, id est, vide, fit *Decussat* video, *decussac* vides *decussa* videt, *decussagu* videmus, *decussasue* videtis, *decussate* vident. *Necussan* videbam &c. *Coniugatio Impropria* est cum verbum coniugatur, non per se, sed *circumloquutione*, per participium suum & verbum substantiuum *nais* hoc est sum & eius auxiliare *adi*, si verbum sit *passiuum* vel *neutrum*, Actiuum vero per verbum possessiuum *dut*, hoc est, habeo, & eius auxiliare *esac* vt, *Eziten nais* iaceo, *Sehazen* vel *Sehatu nais* caedor, *Ecusten dut* video. Vtraque coniugatio *quinque* habet modos, *Indicatiuum*, *Imperatiuum*, *Optatiuum*, *Conditionalem*, & *Subiunctiuum*. (Oihenart 1656: 63)

Bidenabar esanda, aurreko pasartean Oihenartek lau laguntzaile bereizten ditu: haietako bi aditzak ere badira (*nais* eta *dut*) eta beste biak aurrekoen laguntzaileak (*adi* eta *esac*, hurrenez hurren). Laguntzaile bakoitzaren erabilera esparrua ere ondo zehazten du (Oihenart 1656: 69).

³¹⁰ Joko perifrastikoaren jatorriaren aldeko eta kontrako zerrenda baterako, ik. Gómez (1989: 361) eta hemengo §4.2.2.

Esan bezala, Larramendi da, bestalde, joko perifrastikoaren jatortasuna aldeztu zuen lehena eta, jesuitaren eragin handiari esker, haren ikusmoldeak luze iraun zuen euskal gramatikagintzan. Larramendik adierazten du (1729: 43) aditza aztertze eta sailkatzeko erabili ohi den terminologiarekin erabat ados ez dagoela, alabaina besterik ezean erabiliko badu ere. Funtsean, honako hau da proposatzen duen euskal aditzen sailkapena:

Supongo, que el Bascuence tiene verbos activos, passivos, y neutros; y estos son regulares, è irregulares: nombres, cuya significacion se explicará en sus lugares. (Larramendi 1729: 43-44)

Larramendik “erregular” deitzen die perifrastikoei eta “irregular”, trinkoei. Hauxe da azken deitura honen arrazoia: “Llamo irregulares à estos verbos, assi por que sus tiempos son simples, y no compuestos, como tambien por que su inflexion no corresponde à la raiz, de donde nacen” (Larramendi 1729: 233). Izan ere, Larramendik joko bakuna eta joko elkartua ere bereizten ditu hizkuntza baten aditzetan:

En una Lengua la conjugacion del verbo puede ser simple, y compuesta. La conjugacion simple se llama aquella, cuyas inflexiones son sencillas, y de una sola dccion: la compuesta de dos, ò mas dcciones. [...] Pues hablando de las Conjugaciones regulares del Bascuence, digo, que todas son compuestas, y ninguna simple, por que todas sus inflexiones constan de dos, y tres dcciones. Componense de dos generos de dcciones: unas son los varios modos de infinitivo, y otras son las terminaciones del verbo, y de la varia combinacion destas dcciones resulta la variedad de los tiempos. (Larramendi 1729: 44-45)

Larramendi haratago doa eta, tubalismoari atxikirik, proposatzen du hizkuntza erromantzeek —gaztelania, frantsesa eta italiera³¹¹ aipatzen ditu— adizki elkartuak euskaratik hartu zituztela, grekoan eta latinean halako adizkirik ez izaki:

De lo dicho infiero yo, que el Romance, y las demás Lenguas hijas del Latin, como imitaron, y aprendieron de su Madre la Conjugacion de los tiempos simples, assi imitaron, y aprendieron del Bascuenze la Conjugacion de los tiempos compuestos, y por consiguiente deben tambien recurrir al Bascuenze por su genealogia en esto, como otras prendas varias. (Larramendi 1729: 46-47)

Laguntzaileez (*terminaciones*) den bezainbatean, Larramendik aditz aktiboak eta neutroak bereizten ditu, eta aktiboen barnean, absolutuak eta iragankor edo erlatiboak:

Las terminaciones unas son del verbo activo, otras son del neutro. Destas ablaremos en su lugar. Las terminaciones auxiliares del activo unas son absolutas, otras son transitivas, ò relativas: las absolutas se llaman assi, por que no emeben, ni dicen algun respecto, ù orden à ninguna persona del singular, ni plural: las transitivas se llaman assi, por que dicen, y conotan una transicion, ò relacion à alguna de las personas. Las absolutas son de dos generos, y no mas: el primero rige, ò emebebe regimen de singular, y el segundo de plural. Las transitivas son de veinte y una especies, por veinte y una relaciones, que puede tener la accion verbal. (Larramendi 1729: 56-57)

Alegia, laguntzaile aktibo absolutuak *det* eta *ditut*-en paradigmek osatuko lituzkete eta aktibo iragankorrek, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erakoek. Beste alde batetik,

³¹¹ Oroit bedi Larramendik, euskararen beste apologista batzuek bezala, iberiarrak Italian ere izan zirela baieztatu zuela eta, beraz, iberiarrak euskaldunen arbasotzat hartzen baitzituen, Italiako biztanleek euskararekin harremanak izan zitzaizketen. Erromantzezko forma batzuk euskaratik datozelako proposamena Larramendik *Hiztegi Hirukoitzean* erabilitako etimologietan aurkituko dugu behin eta berriz (ik. Urgell 2000).

laguntzaile neutroetan joko absolutu bakarra dagoela (*naiz*) eta zazpi erlatibo edo iragankor, NOR-NORI erakoak, diosku gero (1729: 164-165).

Hasieran iragarri duen bezala, Larramendik darabiltzan sailkapena eta terminologia tradizionalak dira (halako terminoen historiarako, ik. Gómez Asencio 1985). Hau dela eta, ez da ohartzen euskararen laguntzaileek dituzten erro desberdinez —edo ez die garrantzirik ematen— eta, beraz, erdal sailkapenean oinarrituta, laguntzaileen banaketa bitarra egiten du funtsean: *naiz* (neutro eta pasiboetan) eta *det* (aktiboetan). Nolanahi ere den, sailkapen eta terminologia hau izango da, neurri handi batean, XIX. mendea arte (eta XIX.ean bertan ere) euskalari gehienek erabiliko dutena.

Aditzaren sailkapen tradizionalaren beste adibide bat Harrietena (1747) dugu. Haren gramatikaren lehenbiziko zatian, euskaraz idatzitakoan, ez du gai honetaz xehetasun askorik ematen. Alabaina bigarren zatian, frantsesez idatzian, euskarari buruzko oharrak ere ematen ditu eta bertan agertzen dira, hain zuzen, aditzari buruz espero litezkeen azalpenak eta sailkapen bitarra:

Dans la langue Basque d'ordinaire les verbes sont reguliers, sans qu'elle en ait d'irregulier ni d'impersonnel, & elle les fait en deux mots comme, *nic ematen dut*, je donne, [...] elle a deux conjugaison, les verbes dont l'une est composée desdits quatre infinitifs desdits participes passifs & d'un mot *Naiz*, &c. pour faire le substantif, le passif; & ceux qui prennent leur place. [...] & l'autre conjugaison se fait moyennant les quatre infinitifs, les participes passifs, & d'un autre mot *dut*, &c. qui sert pour faire tous les verbes actifs (Harriet 1741: 480)

Bada, halere, puntu harrigarri bat Harrieten lanean. Liburuaren amaieran dagoen “Escualdunei gomendioa eta Abisua”-n, Harrietek, bestea beste, idatzi berri dituen

bi libururen berri ematen du. Lehena maisurik gabe euskaldunek frantsesez irakurtzen ikas dezaten idatzi du, eta bigarrena, bi partetan:

lehenbicoa eskuaratik verbo gaitz eta erreguelan ez diren batçuen khenceco, hala nola *nago, noha, darasat, &c.* horlaco haiñitz, erreguela gabe dire, eta erreguelacoac dire *egoten naiz, goaten naiz, erasten dut, &c.* (Harriet 1741: 507)³¹²

Eta, egia esan, gramatika guztian zehar Harrietek ez ditu aditz trinkoak behin ere aipatzen. Honen kariaz, agian Harriet garbizaletasunaren aitzindaritzat har genezake arlo honetan. Baina, zehazkiago jotzen badugu, ohartzen gara XX. mende hasierako garbizaleen alderantzizko joera hartzen duela, perifrastikoen aldekoa alegia, eta, beraz, trinkoak desagerrarazi nahi dituela; aranatarrek, ordea, trinkoen antzinasun eta jatortasunean sinisten zuten eta, ondorioz, joko trinkoa beste aditz batzuetara hedatu eta orokortu nahi izan zuten (Plazaola 1999).

7.3 Gramatika orokorra eta aditz bakarraren teoria

Gramatika orokorra, aise eta laburki esateko, hizkuntza guztien arazo orokorreari buruzko hausnarketa da; aurreneko formulazioetatik batez ere irizpide logikoetan oinarritu zen, harrezkero korrante filosofikoaren arabera “arrazoia” edo “izadia” etiketez hornituko ziren irizpideetan (cf. Auroux & Clérico 1992, Dominicy 1992). Gramatika orokorraren tradizioan beste deitura batzuk erabili —eta sarritan nahastu— dira: *gramatika filosofikoa*, *gramatika arrazoitua* eta, Ingalaterran batez ere, *gramatika unibertsala*. Euren berezitasunak gorabehera, autore guztiok bilduko

³¹² Bigarren partea, bidenabar, euskaldunek beste hizkuntzetarik hartu dituzten hitzak kentzeko dela dio.

dituena hauxe da: gramatikaren hatsarreak ideien jatorriari buruzko dotrina batetik eratortzen saiatzea.

Europako hizkuntzalaritzaren historian honelako hausnarketek tradizio luzea zuten: Erdi Aroaren amaieran, latinean oinarrituz, *modistae* izeneko filosofo eskolastikoez hizkuntza guztiek funtsean gramatika berdina zutela baieztatu zuten. Orobatsu, Humanismoaren garaiko zenbait gramatkarik eta filosofok (Scaligerek, Sanctiusek, Vossiusek, Campanellak, etab.). Baina gramatika orokorrari erabateko ospe eta arrakasta eman zizkionak Paris ondoko Port-Royal komentu-eskolan egindako lanak izan ziren: *Grammaire générale et raisonnée* (1660) eta *La logique* (1662), hain zuzen ere.³¹³ Port-Royaleko lanek helburu bikoitza bete nahi zuten: batetik, hizkuntzaren arau orokorrak aurkeztea eta, bestetik —baina aurrekoarekin loturik—, edozein hizkuntza partikular aise eta laster ikasteko gida lortzea. Neurri handi batean Descartesen arrazionalismoan oinarritu baitziren, Port-Royaleko autoreen lanak honako premisa honetatik abiatu ziren: hizkuntza giza gogoaren eragiketen isla da eta, hortaz, gramatika ere bai. Ondorioz, gizaki guztiengan gogoaren funtzionamendua berdina bada, gramatika ere berdina izango da ororentzat. *Gramatikan* eta *Logikan* Port-Royaleko autoreek garatu zituzten analisietan xeheki jarduteko tokia ez delarik, oraingo honetan bi arazo bakarrik nabarmendu nahi nituzke, perpausaren analisisa eta aditz-teoria hain zuzen ere.

³¹³ Port-Royaleko lanez, ik. *supra* 51. oin-oharrean aipatutako bibliografia.

Perpausaren analisiari dagokionez, Port-Royaleko logikak giza gogoaren lau eragiketa bereizten ditu; eragiketa horietako batzuek paralelismo garbiak erakusten dituzte gramatikaren unitateekin (Arnauld & Nicole 1662: 27-28). Hauexek dira eragiketok:

- a. Bururatzea (*concevoir*): gogoari aurkezten zaion zerbaitetan arreta jartzea; aurkezpen bakoitzari ematen diogun moldea *ideia* bat da.
- b. Juzgatzea (*iuger*): bi ideia batzea, norbaiti bururatu zaiona halakoa dela, edo halakoa ez dela, baieztatzea. Judizioa, hortaz, proposizioa ere bada.
- c. Arrazoitzea (*raisonner*): bi judizio baliatuz, hirugarren bat eratzea.
- d. Ordenamendua (*ordonner*): zenbait ideia, judizio eta arrazoiketaren hurrenkera, gai bat ezagutzeko modurik egokienean antolatua; hautatzen den moduari *metodo* deritzo.

Hauetarik aurreneko biak dira bereziki interesatzen zaizkigunak: Lehenik, ideien bururatzeak funtsezko eginkizuna betetzen du perpaus-atalen sailkapenean. Izan ere, Port-Royaleko gramatikak hitzen sailkapen bitarra ezartzen du, hizkuntza guztientzat balio duena, jakina: alde batetik, gure pentsamenduen objektuak adierazten dituzten hitzak ditugu eta, bestetik, gure pentsamenduen itxura edo modua adierazten duten hitzak. Lehenbiziko kategorian izenak (hala substantiboak nola adjektiboak), artikuluak, izenordainak, partizipioak, preposizioak eta adberbioak sartzen dira; bigarreanean, aditzak, juntagailuak eta interjekzioak.

Bigarrenik, Port-Royaleko autoreentzat gogoaren eragiketa nagusia judizioak egitea da; hots, bi ideia batzea, euren arteko identitatea baieztatzeko edo ezeztatzeko ($A \equiv B$ edo $A \neq B$). Ildo honetan, hitz egitea proposizioen bitartez judizioak

adieraztea baino ez da. Perpausa proposizio bat da eta proposizioa bi ataletan banatzen da: subjektua eta atributua; biak dira gure gogoaren objektuak, bi ideia dira. Subjektua eta atributua kopularen bitartez batzen dira, kopularen eginkizun bakarra batasun hori baieztatzea delarik.

Aditz-teoriaz den bezainbatean, eta azaldu berri dudana proposizioaren egiturarekin zuzenean loturik, Port-Royaleko autoreen ustez aditza baieztatzeko erabiltzen den hitza da. Horregatik, dagoen aditz bakarra kopula da (*hots, da*). Ikuspuntu honen arabera, “aditz” deitu ohi diren gainerako hitzak banako konplexuak lirateke, bertan baieztapenari beste adieraren bat gehitu zaiolarik: subjektua (*naiz*), atributua (*Peru dabil = Peru ibiltari da*) edota denbora (*zen*). Horrela bada, aditzen arteko funtsezko banaketa bitar bat ezartzen da: aditz “substantiboa” (benetako aditz bakarra, baieztapen hutsa, kopula alegia) eta aditz “adjektiboak” (gainerakoak). Jakina, banaketaren oinarrian azterketa logiko bat hizkuntzen gramatikara hedatzea dago: logikaren ikuspuntutik *izan* aditza bakarrik *da beharrezkoa*; ondorioz, *izan* aditza bakarrik *dago* giza hizkuntzetan.

Port-Royaleko lanek arrakasta eta eragin handia izan zuten XVIII. mende osoan eta XIX.aren zati batean, bereziki Frantzian, non hizkuntzalaritza historiko-konparatzailearen nagusitasuna aski berandu iritsi baitzen. Baina, hizkuntzalaritza historiko-konparatzaile berria Alemaniatik gainerako herrietara zabaltzen zen heinean, gramatika orokorraren pisua eta omena apalduz joan ziren. Nolanahi ere den, XVIII. mendean zehar gramatika orokorraren helburuak eta formulazioak aski

aldu ziren, lehenbizi entziklopedisten eraginez, geroago filosofo sentsualisten eskutik eta, Frantziako Iraultzaren ondoren, ideologo bitartez.³¹⁴ Aditz-teoriari dagokionez, urte haietako autoreen berrikuntzarik nabariena honakoa da: aditz substantiboak ez du jadanik “baieztapena” adierazten, “existentzia” baizik.

Azkenik, ohartarazi behar da gramatika orokorraren metodo logiko-arrazionala eta haren argudiatze motak hizkuntza jakinen gramatikak ontzeko ere erruz erabili izan zirela. Gehienetan, haatik, ez ziren lan horietan hizkuntza guztien ezaugarri komunak bilatu nahi, baizik eta delako hizkuntza hark arrazoiaren eta logikaren legeei men egiten ziela frogatu. Gramatika-molde honetan sartu behar ditugu, hain zuzen ere, XIX. mendean gramatika orokorraren urratsei nola edo hala jarraitu zieten euskal autoreak. Agian, salbuespen bakarra Astarloa litzateke, bera baita euskarari buruzko gogoetak hizkuntzaren azterketa orokor baterantz bideratu zituen egile bakarra, era berezi batean izanda ere (Gómez 1999 eta hemengo 1. kapitulua). Bestalde, gramatika orokorraren eragina jaso zuten euskalari gehienak, espero zitekeenez, Ipar Euskal Herrikoak ziren eta, beraz, frantziar tradizioa zuzenean jaso zuten.

7.4 Humboldt

Euskalaritzan aditz bakarraren teoriaren aurreneko agerraldi gisa har genezakeena Wilhelm von Humboldtek alemanez idatzitako euskal gramatikaren zirriborroan (Humboldt 2001) aurkitu ahal dugu:

³¹⁴ Entziklopedistei, sentsualistei eta ideologei buruz, ik. *supra* 52, 53 eta 54. oin-oharretan aipatutako bibliografia, hurrenez hurren.

2. (14.) Verba in dem Verstande, als unsere Sprachen, hat die Vaskische eigentlich gar nicht. Sie besitzt bloß eine Art# Hilfsverba, vermöge welcher sie alle übrige bildet; geradezu als sagten wir, statt ich esse, schlafe, stehe, immer ich thue essen, schlafen, stehen, und auf ähnliche Weise, als das Englische to do gebraucht wird. Nur dies Hilfsverbum ist in/378/der grammatikalischen Bedeutung des Worts ein Verbum, der übrige Zusatz ist bald ein wahres Adjectivum, bald ein mit /379/ einerPraeposition verbundenes Substantivum (Gerundium), bald der unbestimmte Begriff der Handlung überhaupt (In/380/finitiv) bald noch etwas andres. Dies einzige Verbum der ganzen Sprache verrichtet allen Dienst, dessen der Redende bedarf, u. erhält durch den Zusatz jedesmal seine bestimmte Bedeutung. Det, allgemein, ich thue, handle, bin beschäftigt, jaten det, ich bin beschäftigt im Essen, ich esse, ilten det, im Tödten, ich tödte, u.s.f.

Ohar bedi, haatik, laguntzaile (*Hilfsverbum*) bakarraz mintzo dela, eta ez aditz bakarraz. Bestalde, aurreko pasartearen ondotik datozen lerroetan Humboldték aditz trinko bakan batzuk daudela adierazten du eta irregularrak (*unregelmäßige*) deitu ohi direla gehitzen du.

Halarik ere, Adelung eta Vater-en *Mithridates*-i egindako zuzenketa eta eransketetan, bestelako iritzia agertzen du. Lan honetan Humboldt nabarmenki urruntzen da Larramendik abiarazi zuen tradizioetik, joko irregularra “la más antigua y originaria sin duda alguna” dela adierazten baitu (Humboldt 1817 [1933-34: 98]). Era berean, Humboldték honako formulazio hau hobesten du: “La lengua vasca no tiene, estrictamente hablando, más que una sola conjugación” (1817 [1933-34: 97]) eta ez du aditz bakar baten alde jotzen duela inon adierazten. Areago dena, euskal aditz-jokoa aurkezten duelarik, *aditz* deitzen die forma jokatu gabeei eta, ildo honetatik, Astarloak proposatu zuen analisiari orpoz orpo jarraitzen dio, alegia

euskaran edozein hitz aditz bihur daitekeela *-tu* atzizkia gehituz gero.³¹⁵ Hortaz, Humboldték arazo honen gainean zuen jarrera ez zaigu nahi bezain argia agertzen.

Humboldtén aurreneko aipuari berriro bagagozkio, azpimarratu nahi nuke bertan autore prusiarrak *Zusatz* (‘gehigarri’) deitzen duena —hau da, adizki perifrastiko baten forma jokatu gabea— noiz adjektibo bat, noiz preposizio batekin lotutako izena (gerundioa), noiz ekintza bat oro har adierazten duen zerbait (infinitiboa), noiz besterik dela zehazten duela. Humboldték gaingiroki azaltzen duen proposamen hau aztertuko dudan hurrengo autoreak, Darrigolek, askoz xehekiago garatuko du. Zernahi gisaz, Darrigolen ideien iturria ezin izan zen, inola ere, Humboldtén baieztapena, prusiarraren eskuizkribua ez baitzuen ezagutzerik izan.

³¹⁵ Cf. “Los adverbios de cualquier naturaleza que sean, los pronombres, los numerales, en una palabra, cuantas voces tiene un idioma, cuantas son sus inflexiones, tantos son los verbos que pueden formarse, operacion que necesariamente ha de presentar en la voz la idea más perfecta de su signado” (Astarloa 1883: 692). Ik. orobat hemengo §2.4.9.

Bide batez, Astarloak espresuki idatzi zuen aditz bakarraren teoria aldeztu zutenen kontra, edo lehen hizkuntzan aditz bakarra zegoela aldeztu zutenen kontra gutxienez: “Es verdad que los filósofos, especialmente modernos, quieren que no hubiese verbos inflexionados en el mundo primitivo, fundándose en que un verbo en inflexion no es otra cosa que un participio con el *sum es fui*, esto es, un participio que es el atributo, y el *sum es fui* ó el verbo *ser* que une á dicho atributo con el sujeto. Dicen que la expresion *los hombres aman* es lo mismo que *los hombres son amantes: los hombres amaban* equivale á *los hombres eran amantes: los hombres amaron* vale lo mismo que *los hombres fueron amantes*. Acerca del modo con que hubo de inflexionar sus verbos el idioma primitivo, hablaremos en su lugar y allí rebatiremos esta opinion en la parte que nos pareciese opuesta á la filosofia” (Astarloa 1883: 433).

7.5 Darrigol (1827)

Euskal gramatikaren analisi arrazoituari ekiteko (ik. §3.2), Darrigol gramatika orokorraren hatsarreetan oinarritzen da, edo berak dioen moduan “hizkuntzaren oinarritzko hatsarreetan” (1827: “Préface”, zenbatu gabe). Hala, Darrigolek aditzaren ondoko definizio hau ematen du: “l’on convient généralement que sa fonction essentielle est de lier l’attribut au sujet, de former le noeud de la proposition: de là vient que tous les siècles l’ont appelé unanimement *propositionis copula*” (1827: 89). Alabaina, harrigarriro, honelako definizio bat harako Port-Royaleko *Grammaire*-n eman zen harekin lotuagoa dagoke, Darrigolek darabiltzan iturri nagusien definizioekin baino (ik. §3.3.2).

Euskarari zaharren artean apaiz lapurtarra dugu aditzaren izaerari buruz zuen iritzia arrazoitzeko leku gehien eskaini zuena, auziaren inguruko hurrengo lanen oinarriak finkatu zituelarik. Gainera, ikusiko denez, Darrigolen lana aztertuz gero, nabariki konturatzen gara Port-Royaleko lanetan eta gramatika filosofiko batzuetan azterketa *logiko-semantic*o bat besterik ez zen aditz bakarraren teoria, euskarari ezarri ziolarik, azterketa *formal* ere bihurtzeko aukera ezin hobea eskaini nahi izan zuela. Hau dela-eta, ez dirudi lekuz kanpoko denik Darrigolek aditz bakarraren teoriaren inguruan aurkeztu zituen ideiak ondoko lerroetan xeheki azaltzea.

Hasteko, Darrigolek adierazten du mundu zabaleko hizkuntzetan aditz guztiek, *izan* aditza salbu, atributu jakin baten ideia osagarria (*idée accessoire*) barneratzen dutela eta honek aditzaren benetako izaeratik urruntzen dituela.³¹⁶

Ainsi *lego* n'est qu'une formule abrégée de *legens sum ego*: ce n'est pas la pure nature du verbe. On doit raisonner de même sur tout verbe français, latin, grec, &c., à l'exception du verbe *être* seulement: celui-là seul, si nous en croyons M. Beauzée, présente la pure nature du verbe en général. Tout autre verbe, selon le même auteur, renferme de plus dans la signification l'idée accessoire d'un attribut déterminé. (Darrigol 1827: 90)

Honelako sistema batean adizkiak forma laburtuak direla deritzo, solasaldi laster eta etorri bati ondo dagozkionak. Haatik, oztopo handiak ere badituztela uste du: atributua eta kopula hitz bakar batean nahasten dira; bestalde, horrelako sistema batek adizki asko eta askotarikoak sortzen ditu, maiz irregularrak, eta, beraz, arrazoiaren kontrakoak dira (Darrigol 1827: 91).

Aitzitik, sistema bakun eta perfektu batek *izan* aditza besterik ez luke erabili behar eta horixe da, hain zuzen ere, Darrigolek euskarari aurkitzen duena.³¹⁷ Horretarako,

³¹⁶ Cf. orobat: “Ainsi *je lis* est la même chose que *je suis lisant*; et dès lors l'expression *lis* ne présente pas la pure nature du verbe, mais un verbe avec l'idée accessoire d'un attribut déterminé” (Darrigol 1827: 90).

³¹⁷ Helburu apologetikoa begien bistan dago Darrigolen gramatika-lan guztian zehar, izenburutik hasita. Gramatika orokorraren oinarriak hizkuntza jakin bati ezarri nahi dizkieten autoreetan ohi den bezala, euren lanen bitartez delako hizkuntzaren bikaintasuna erakutsi nahi dute, zuzenean edo zeharka. Darrigoli dagokionez —eta baita ondorengo beste zenbait autoreri ere—, gramatika-azterketekin batera euskararen antzinatasunari eta balizko perfekzioari buruzko iritziak aurkitzen ditugu: “vestiges de son antique splendeur” direlakoak, hain zuzen (Darrigol 1827: 158).

Darrigolen abiapuntua *infinitibo* deitzen direnak euskaraz bederen aditzak ez direla eta benetan izen-klasekoak direla pentsatzea da:

tous les mots qui répondent à ce qu'on appelle ailleurs infinitifs des verbes, sont de vrais noms dans notre langue; et, afin que le lecteur se familiarise avec cette assertion, il est bon de lui rappeler qu'elle se vérifie plus ou moins parfaitement dans chaque idiome. (Darrigol 1827: 93)

Izan ere, Darrigolek hizkuntza askotan³¹⁸ infinitiboek duten izentasuna frogatzeko adibideak ematen ditu, irizpide distribuzionalak, funtzionalak eta formalak erabiltzen dituelarik:

- f. Distribuzionalak: infinitiboa artikuluekin batera ager daiteke; latinez izen deklinatu baten lekua bete dezake, edozein kasutan agertzen delarik ere.
- g. Funtzionalak: infinitiboak perpaus baten subjektu edo osagarri izan daitezke.
- h. Formalak: arabieraz edo sirieraz infinitiboek izenei dagozkien hizkiak har ditzakete.

Infinitiboek eta izenek forman eta esanahian dituzten antzekotasunak aintzat hartu ondoren, infinitiboak eta aditzak zertan bereizten diren zehaztea da hurren zeregina: hala, infinitibo batek ideia orokor eta zehaztugabe bat (“vague et indéterminée”) aurkezten du; aitzitik, aditzak bakarrik eskaintzen du proposizio edo judizio bat eratzeko behar den indar elkartzailea (“la force unitive”, 1827: 97). Beste alde batetik, ordena naturalak eskatzen du lehenik ideia orokorra aurkeztea eta, ondoren, zehatzena. Horrexegatik doa infinitiboa aditza baino lehen (1827: 98).

³¹⁸ Darabiltzan hizkuntzak honako hauek dira: frantsesa, nederlandera, alemana, gaztelania, italiara,

Xehetasun hauek guztiak, dena den, Darrigolek euskal infinitiboei buruz duen teoria aurkezteko atarikoak baino ez dira. Haren abiapuntua Beauzéeek (1767) *action*, *acte* eta *passion* adigaien artean egindako bereizkuntza da. Bakoitzaren definizioa ematen du Beauzéeek eta, beraietan oinarriturik, Darrigolek uste du *acte* forma abstraktuena dela eta *radical*arekin lotzen du (hau da, *as* ‘has’ aditzoinarekin), *action* “infinitibo aktibo” deitzen duenarekin (*aste* aditz izenarekin) eta *passion*, azkenik, “infinitibo pasibo” delakoarekin (*asi* partizipioarekin, alegia):

Ainsi le mot radical *as*, qui n’exprime que l’*acte*, ou un sens de l’*abstraction la plus complète*, est susceptible de deux formes qui en déterminent l’espèce grammaticale. Si ce mot radical se revêt de la forme active *aste*, il répond exactement à ce qu’on a coutume d’appeler infinitif; et c’est un nom d’existence, d’action ou d’état, un vrai nom, qui se décline, avec ou sans article, sur le tableau de déclinaison que nous avons déjà tracé: il n’a rien de commun avec les inflexions du verbe. Se ce mot radical prend la forme passive *asi*, il répond au participe passif, et se décline, avec ou sans article, sur le même tableau que la forme précédente, sans jamais devenir verbe, quoi qu’on puisse dire. (Darrigol 1827: 100-101)

Hortaz, Darrigolen ustez, aditzoinak “erabateko abstrakzioa” adierazten du; infinitibo aktiboa, aldiz, benetako izena da eta infinitibo pasiboa, partizipio bat; hots, ez da inoiz *aditz* izatera iristen. Horrela, bada, bi infinitibo forma hauek deklinatu ahal dira, bietarako adibideak ematen dituelarik.³¹⁹ Azken buruan, “les infinitifs basques sont restés dans la classe des noms, soit appellatifs soit adjectifs” (1827: 107).

latina, grekoa, hebreera, arabiera eta siriera.

³¹⁹ Besteak beste, *baratce* (‘gelditze’) / *baratce* (‘soro’) eta *aci* (‘hazi’) / *aci* (‘ale’) adibideak darabiltza distribuzio berdina dutela erakusteko. Gainera, *erortean*, *jatetic*, *edanic*, *hastera*, *ikhusiz* bezalako formak ere infinitiboa edo partizipioa gehi deklinabide kasuak direla adierazten du (Darrigol

Azterbide honen barruan, erraz aurreikusten da euskal adizki perifrastikoen zati diren forma jokatuabeak izentzat edo partizipiotzat hartuko dituela Darrigolek, dagokion denboraren arabera deklinatzen direla edo ez esango duelarik:

- a. Orainaldiaz den bezainbatean, *erorten niz* “je tombe” adizkiari “je suis dans l’acte de tomber” analisisia ematen dio; hau da, *erorte* infinitibo aktiboa kasu “positiboan” (=inesiboan) deklinatua.³²⁰
- b. Darrigolen iritziz, lehenaldiko *erori niz* “je suis tombé” honelaxe dago osatuta: *niz* aditza (“je suis”) eta *erori* partizipio pasiboa; *niz* aditzari buruz beheraxeago mintzatuko naiz berriz.
- c. Azkenik, Darrigolek adierazten du *erorico niz* “je tomberai” geroaldikoan partizipioa *-ko* amaieraren bitartez (Darrigolek “destinatibo” deitua) edo *-en* genitiboaren bitartez deklinatzen dela (ik. §3.4.3); biek adieraziko lukete etorkizunaren ideia.³²¹

1827: 101-105).

³²⁰ Cf. “le mot *erorten*, qui exprime l’action de tomber, n’est pas un verbe, mais bien un nom au cas positif” (Darrigol 1827: 105).

³²¹ Darrigolek (1827: 106) destinatiboa gaztelaniazko *está por llegar* gisakoekin erkatzen du. Eta analisi honek nahiko egiantzekoa dirudi. Oroit bedi, Mitxelenak euskal adizki perifrastikoen eraketa auzoko hizkuntza erromantze eta germaniarren aditz sistemekin konparatu zuen eta bilakabide paralelo bat gertatu zela ondorioztatu: “El paralelo pasa por las formas analíticas, llamadas entre nosotros perifrásticas, del verbo, tanto en *perfectum* como en futuro: *etorri da, egin du, est venu, ist gekommen* (ant. *es venido*) / *ha hecho, a fait, hat gemacht; joanen, joango da*, lit ‘es de ir’, *eginen, egingo du* ‘ha de hacer’” (Mitxelena 1981 [1987: 48]). Beste alde batetik, Darrigolek euskal adizki analitikoetarako eskaini zuen azterketa John Andersonen “hipotesi lokalistaren” oinarria izan zen. Andersonek, 70etako gramatika sortzailearen ereduari atxikita, ingelesaren eraikuntza progresiboetan predikazio lokatibo bat agertzen dela proposatu zuen (Anderson 1973).

Honen guztiaren ondorioz, Darrigolek bi aditz besterik ez du onartzen euskaran, *n(a)iz* eta *dut* izendatzen dituenak;³²² orobat, iradokitzen du biak, azken buruan, aditz bakar baten bi aldaeratzat har daitezkeela, aditz bakarraren teoriara lerratuz.³²³ Formari dagokionez, lehen aditz motaren bereizgarria hasierako *n-* izatea da (subjektua markatzen duena; adibidean lehen pertsona singularrekoa, hain zuzen) eta bigarren motaren bereizgarria, hasierako *d-* izatea (hirugarren pertsonako objektua markatzen duena). Hortaz, *niz* edo *naiz* “formula” laguntzaile iragangaitzen ordezkaria litzateke eta *dut* “formula”, aldiz, laguntzaile iragankorra:

Cette division, indiquée par le matériel des syllabes, est commandée par la nature et le sens de nos verbes: les uns (en *n*) ayant un sens affirmatif de la substance même de leur sujet, et les autres (en *d*) un sens affirmatif, non plus de la substance de leur sujet, mais de son action sur un autre. (Darrigol 1827: 108)

Il ne résulte pas seulement de ces observations, que les formules *niz*, *dut*, sont les deux verbes primitifs de notre langue; l’on doit en recueillir de plus que la nature du verbe ne se rencontre absolument que là où se trouve fondue en quelque sorte l’une desdites formules: ce qui nous conduit à cette dernière conséquence, que la langue

³²² Honen antzeko sailkapen bikoitz bat proposatu zuen lehentxeago Fleury Lécusek (1826), nahiz eta autore honek aditz laguntzaileak bakarrik izan zituen hizpide eta ez zuen, beraz, aditz bakarraren teoriara hurbildu zezakeen ezer ere adierazi. Areago dena, Lécusek —lehenago Astarloak eta geroago Zabalak eta van Eysek bezala (ik. Gómez 1996 eta hemengo §2.4.9)— euskaraz edozein hitz aditz bihur daitekeela adierazi zuen, delako hitzari *-tzea* atzizkia erantsiz gero (Lécuse 1826 [1987: 902]). Halako iritzi bat, jakina, ez dugu aditz bakarraren aldekoengan sekula aurkituko.

³²³ Hain zuzen ere, Louis de Bonald-en ondoko aipamen hau baliatuz iradokitzen du: “L’*avoir* est une manière de l’*être*, et la plus générale possible... *Être* et *avoir*, idées fondamentales de l’*être*... *Être* et *avoir*, fondement de toutes les langues, qui sont l’expression de *êtres*” (*apud* Darrigol 1827: 109). Eta badirudi Darrigolen analisisan aditz bakarra ulertu zutela haren garaikideek eta gogaideek. Honelaxe adierazten du Campiónek (1884: 308), gai honi dagokionez: “se la [= Darrigolen aditz teoria — R.G.] puede considerar más como un unicismo mitigado que como un dualismo categórico”.

basque n'a, à proprement parler, que deux verbes [...]. De là nos verbes sont deux. Le premier répond avec avantage au verbe substantif *être*, connu dans toutes les langues; et s'emploie dans tous les cas où il s'agit d'affirmer en quelque manière la substance du sujet. Le second est une sorte de verbe *avoir*, affirmatif de l'action la plus générale possible d'un sujet sur un autre. (Darrigol 1827: 109)

Ondoren, Darrigolek bi aditz hauen osagaiak aztertzen ditu, aditzak berez baieztapena adierazten duela frogatu nahian. *Niz*-ekin hasita, Darrigolek adierazten du mota honetako aditzak joka daitezkeela *ba-* aurrizkia (*prépositive*) lagun dutela edo ez dutela. Aurrizki hau *bai* baieztapen-partikula besterik ez dela onartu arren, aurrizkidun adizkiari (*baniz*) “subjektuaren existentzia” esanahia egozten dio; aitzitik, aurrizki gabeko adizkiaren (*niz*) eginkizun bakarra perpaus baten atributua eta subjektua lotzea litzateke:

avec la prépositive, ce semble, quand il est employé pour exprimer l'existence du sujet; et sans la prépositive, quand il n'a d'autre fonction que de lier l'attribut et le sujet d'une proposition quelconque. (Darrigol 1827: 110)

Bestalde, aurrizki gabeko forma honen osagaiak lehen pertsonako izenordaina eta kasu “mediatiboaren” (hots, instrumentalaren) marka lirateke: *ni + z*, alegia:

Les deux premières personnes *niz*, *hiz*, paraissent d'ailleurs n'être autre chose que les pronoms *ni*, *hi*, au cas médiatif, d'où il résulterait que les formules *ba-niz* pour *bai-niz*, et *ba-hiz* pour *bai-hiz*, signiferaient, mot à mot, *oui de moi*, *oui de toi*; façon de parler qui n'aura sans doute rien que de trivial, au jugement de la plupart des lecteurs, mais qui ne laissera pas d'avoir un vrai mérite aux yeux des meilleurs juges, en ce qu'elle rappelle l'enfance du langage. (*ibid.*)

Eta epaileon artean Court de Gébelin aipatzen du eta, nola ez, Lancelot eta “des autres grammairiens qui placent la nature du verbe dans l'affirmation” (*ibid.*). Azken

batean, autore hauek bezalatsu, Darrigolek adierazten du benetako aditzaren osagaiak baieztapena eta pertsona direla eta, beraz, aditzak ez duela errorik.³²⁴

Niz-en analisia egiteko, Darrigolek ohartarazten du —bere ideiekin bat eginik— aditz honek ez duela modu infinitiborik, errorik ez baitu. *Içan*, *içana* eta *içaittea*-k ezin dute modu infinitiboa osatu, forma hauek deklina daitezkeelako eta, gainera, “n’ont pas même des syllabes communes avec notre verbe substantif” (1827: 114).³²⁵ Darrigolen iritziz, ustezko infinitiboak “nom[s] d’être ou d’existence” dira berez (*ibid.*); aditz substantiboak, berriz, baieztapena adierazten du nagusiki eta —beronen bitartez bakarrik— subjektuaren existentzia gero.

Jakina, Darrigolek uste du *dut*-ek ere ez duela infinitiborik, nahiz eta arrazoi praktikoak direla medio *avoir* itzuli ohi den. Aditzaren funtzio bakarra subjektuaren existentzia edo subjektuaren eta atributuaren lotura baieztatzea izaki, Darrigolen ikuspegitik aditza berez iragangaitza da. Baina erabilerak joko iragankor bat ere eman dio aditzari.³²⁶ Joko honek subjektuak beste zerbaitekin edo norbaitekin duen erlazioa baieztatzen du:

Affirmer l’existence du sujet ou sa liaison avec l’attribut, étant les seules fonctions propres du verbe *être*, il est clair que ce verbe est essentiellement *intransitif*. Mais ce que sa nature n’exigeait pas, l’usage le lui donné; lui a donné,

³²⁴ *Izan* aditzaren analisi hau mende erdi bat geroago errepikatuko du Charencey kondeak (Charencey 1873, 1874, 1875). Bestalde, Bonaparte printzeak ere onartuko du errorik gabeko aditz bat bere *terminatifs purs* direlakoak azaltzeko (ik. §7.9).

³²⁵ Baieztapen honen atzean, silabez eta ez erroez baliatzeaz gain (Chahok ez bezala), bistan da Darrigolek grafiarekin egindako jokia ere.

³²⁶ Darrigolek “iragankor” terminoa nola erabiltzen duen ikusteko, cf. *infra* 369. oin-oharra.

dis-je, une conjugaison *transitive*, selon laquelle il affirme son sujet avec relation à un autre. (Darrigol 1827: 118)

Erakutsi berri dudan analisi guztiaren ondorio zuzena delarik, Darrigolek proposatzen du aditz trinkoak (*verbes subalternes* izendatzen dituenak) *n(a)iz* eta *dut* aditzetariko bat eta forma jokatugabe bat konbinatzearen emaitza direla:

En effet, *nago* résulte de la combinaison de *naiz* avec *egon*: *naiz* avec *ibil* donne *nabila*; *naiz* avec *etor* fait *nator*. [...] car qui ne voit *dut erabil* dans *dabilat*, *dut eraman* dans *deramat*, *dut eraunts* dans *derauntsat*, &c.? (1827: 109)

Darrigolek ez du onartzen honelako formei “aditz irregularrak” deitzea. Larramendik (1729: 233) deitura horren alde eman zituen arrazoiak bi ziren: lehenik, bakunak dira, hitz bakar batez osatzen dira eta, aldiz, aditz “erregularrak” (hau da, perifrastikoak) elkartuak dira. Darrigol, bere jarrera filosofikoari atxikia, harritzen da bakuntasuna irregulartzat hartzeagatik eta uste du Larramendiren eta ondorengo autoreen errakuntza infinitiboak aditzaren ataltzat jotzen dutelako gertatu dela; oroit bedi Darrigolen analisisian izenak edo adjektiboak direla, azaldu berri dudanez. Ondorioz, Larramendiren aditz elkartuak bakunak dira zinez eta, alderantziz, Larramendik-eta bakuntzat harturikoak “elkartuagoak” dira, beraietan jatorrizko aditzari (*niz*, *dut*) atributu bat erantsi baitzaio (Darrigol 1827: 139). Bigarrenik, Larramendik ez zuen lotura argirik ikusten forma trinkoen eta bakoitzari dagokion aditz-erroaren artean; Darrigolek ez du Larramendiren baieztapenaren aldeko inongo frogarik aurkitzen.³²⁷

³²⁷ Andoaingo jesuitak xehetasun gehiagorik ematen ez badu ere, badirudi *iduiqui* / *daucat* bezalako bikoteak dituela gogoan; izan ere, honelakoetan zaila gerta daiteke adizki trinkoa eta partizipioa

Bestalde, Darrigolek ohartarazten du aditz irregularrez mintzatzeak esan nahi duela aditz-jokoak arau orokor batzuk dituela eta aditz batzuek ez dituztela arauak betetzen. Aitzitik, Darrigolek nahiago du pentsatu aditz trinkoek, funtsean, jatorrizko bi aditzen jokabideari jarraitzen diotela, zeinek bere familiakoari eta salbuespen batzuk gorabehera. Beraz, *défectueux* terminoa hobesten du halako aditzak izendatzeko:

On les appellerait *défectueux* avec plus de sujet; car ils ne se prêtent pas en entier à la conjugaison transitive à régime double, ni même à tous les modes et à tous les temps de la conjugaison à un seul régime. (Darrigol 1827: 142)

7.6 Abbadie (1836)

Abbadie gazte bat³²⁸ izan zen *Études grammaticales sur la langue euskarienne* (Paris, 1836) lanaren egilea —Chahorekin batera, baina beroni buruz hurrengo atalean mintzatuko naiz—. Abbadiek Chahoren gramatikaren hitzaurre luze bat idazten du (“Prolégomènes”, 1-50). Euskal aditzari dagokionez, iritzi filosofiko eta

formalki lotzea, are gehiago Larramendik baliatzen duen grafia sistema aintzat hartuz gero. Hala ere, baliteke —bigarren aukera bat eskaintzearen— egun aditz ez-ergatiboak deitzen direnez aritzea, hala nola *idurí*, *iritzí*, *iraquin*, *iraun(dú)*, etab.; Larramendik aditz neutroen artean sartzen ditu baina, jakina, euren jokoak aditz aktiboenei dagokie.

³²⁸ Antoine d’Abbadie (1810-1897) XIX. mendeko euskal kulturaren sustatzaile nagusia izan zen. Irlandan jaio zen, aita euskalduna eta ama irlandarra zituelarik. 1851etik 1896ra bitartean Euskal Jaiak antolatu eta ordaindu zituen, nahiz eta ondoren ere ospatu ziren, I Mundu Gerra arte. Etiopian bizi izan zen ia hamabi urtez eta bertako hizkuntzei buruzko zenbait lan argitaratu zituen. 1852tik aurrera, Parisko *Académie des Sciences*-eko kide izan zen eta 1892tik aurrera Akademiaren buru. Halaber, 1870etik Parisko *Société Philologique*-eko buru izan zen. Abbadieri eta haren garaiari buruzko xehetasunetarako, ik. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia (1998) eta Urkizuk (2002) bildutako bibliografia bikaina.

tipologikoekin nahastuta, euskara gainerako hizkuntzetatik bereizten duten ezaugarriak aurkezten ditu. Haien artean aditz-jokoa dago, jakina:

[P]eu d'entre eux [filologoak — R.G.] avaient vu que ce qu'ils appelaient verbes n'était que des noms employés sous diverses formes d'inflexions: que leur auxiliaire *Dut* n'est qu'un cas particulier de la forme conjuguée *Niz*, *nintzan*, et que tout se réduit, en dernière analyse, à des noms *iz*, *izan*, *izaite*, qui servent à exprimer, sous différentes formes, la seule idée verbale proprement dite, l'expression de convenance entre un nom et son attribut, le verbe être. Plusieurs philosophes, quoique raisonnant d'après des langues où l'idée d'existence est syncopée et confondue avec des modifications actives ou passives, étaient cependant arrivés, par abstraction, à ne reconnaître qu'un verbe. Cette assertion, pleine de sens, se trouve réalisée dans la langue *Eskuara*. (Abbadie 1836: 2)

Darrigolen proposamenen zantzuak nabari daitezkeen arren, ideia berriak ere aurki ditzakegu Abbadieren aurreko pasartean. Darrigolekin lotzen dira hurrengoak: infinitiboak izen deklinatutzat hartzea; *niz* eta *dut* aditzak aipatzea; aditza kopula delako ikuspegia; euskaran aditzaren analisi logiko-filosofikoa formalki gauzatzen dela baieztatzea. Hala ere, diferentzia nagusia da Abbadiek —euskalaritzan aurreneko aldiz— argi eta garbi adierazten duela euskaran aditz bakarra dagoela. Agian, goiko pasartea Darrigolen eta Chahoren ideien arteko zubitzat jo liteke; Chahok, ikusiko dugunez (§7.7), aditz bakarraren analisisa xehetasun handiagoz garatuko du.³²⁹

³²⁹ Oyharçabalek (1998: 445) ohartarazten duenez, paradoxikoa gertatzen da euskal gramatikagintzan aditz bakarraren teoria ageriki sartu dutenak batik bat zubereraren oinarritu diren bi egile izatea, hain zuzen, Abbadie eta Chaho. Izan ere, zubereraren ongi bereizten dira laguntzaile bakoitzari dagozkion aditz jokatuabeak, nahasmendurako aukera itxuraz txikiagoa litzatekeelarik: *izan* iragangaitza (*niz* laguntzaileari dagokiona) eta *ükhen* iragankorra (*dut* laguntzaileari dagokiona).

Aurreraxeago, Abbadie saiatzen da hizkuntzen bilakabiderako bide bat proposatzen, lau egoera bereizten dituelarik:

1. Lehenengo egoeran izenak eta euren flexioa besterik ez zegoen; izen konkretuak aurrenik eta abstraktuak, adjektiboak, kasuak eta abar gero. Adibidea Afrikako hizkuntzetan aurkitzen du:

Comme on peut le voir par l'éducation du sourd-muet, tout langage commence par des noms concrets; puis on apprend à généraliser: de là naissent lentement les noms abstraits et qualificatifs, les cas et les terminatives dont on trouve des vestiges dans toutes les langues. Tel est le langage de tant de peuplades nègres; c'est ainsi que des nations peu avancées bégayent leurs idées. (Abbadie 1836: 25)

2. Bigarren egoeran aditza sartzen da, izen-osagaietatik aterea. Abbadiek euskararen adibidea ematen du:

Pour arriver au verbe, au lien de la proposition, il a déjà fallu un grand perfectionnement dans une nation. Les noms abstraits de l'existence présente ou passée combinés avec les noms abstraits des personnes, auront formé les premiers éléments de la conjugaison, c'est-à-dire le présent et le passé. Les formes *niz* (*ni iz*), *nintzan* (*ni izan*), montrent les traces du nom qui s'est fondu avec [c] l'*iz*, essence ou base du verbe. [...] Dès qu'on a possédé le verbe être, on l'a combiné avec les noms verbaux pour exprimer les noms d'action. Cette marche est naturelle, positive, et a dû se présenter d'abord dans l'enfance de la société. (Abbadie 1836: 25-26)

Formari dagokionez, Darrigolekin dagoen diferentzia hauxe da: Abbadiek aditza osatzen duten bi izenen konbinaketa ikusten du; Darrigolek, aldiz, *ni* + *-z* azterketa egin zuen. Oroit bedi Darrigolek erabat bereizten dituela *niz* aditza eta *izan* infinitiboa. Abbadieren ustez (eta Chahoren ustez ere bai), *iz* eta *izan* euskal aditzaren oinarriak dira. Bestalde, eta filosofiaren lekuari dagokionez, aintzat har bitez Abbadiek darabiltzan “natural” eta “positibo” terminoen erabilera.

3. Hirugarren egoerak adizki “sinkopatuena”, laburtuen, agerpena du bereizgarri; hau da, adizki trinkoak, “où le nom verbal s’intercale dans le verbe dédoublé” (Abbadie 1836: 26). Euskarak honelako adizkien adibide zenbait eskaintzen ditu eta, bistan da, Abbadien uste du, Darrigolek bezala, trinkoetan “aditz izena” adizkian tartekatzen dela. Hirugarren hau da orobat latinari zegokion egoera.

4. Azkenik, hizkuntza analitikoetarako aldakuntza dugu, frantsesa adibidez. Hizkuntza hauetan deklinabidetik preposizio sistema bat sortzen da eta aditz-jokoan izena apurka-apurka aditzetik “askatzen” da. Halaber, Abbadien uste du egoera honetan kokatzen du aditz aktiboen sorrera, hau da, objektuarekiko komunztadura duten aditzen sorrera (*ibid.*).

Abbadieren ikuspegian hipotesi glotogoniko hau gizakien pentsamoldearen bilakabidearekin lotzen da: “Les langues des races noires, le basque, le latin et le français, peindront successivement cette transformation dans la manière de rendre la pensée” (*ibid.*). Hogeitabi urte geroago, Alemanian Schleicher-ek hizkuntzen eta gizartearen bilakabideari buruzko teoria arrakastatsu bat proposatuko zuen (ik. §4.2.2 eta bertan aipatutako bibliografia). Abbadierenarekin erkatuz gero, zenbait antzekotasun ditu, baina baita diferentzia nabarmen batzuk ere. Nagusiki bi dira: Schleicher-ek azaltzen duen bilakabidea nahitaezkoa da, naturala; Abbadieren ikuspegian, ordea, ez dago horrelakorik, bilakabide historiko hutsa da (Oyharçabal 1998: 448). Bigarrenik, Schleicher-ek proposaturiko bilakabidea R. S. Wells-ek (1987: 58) *acmenistic* deitu zituenen gisakoa da —hots, lehenik hobekuntza garai bat dago eta ondoren okertze bat—; aitzitik, Abbadieren lanari ikuspuntu *progressivist* bat antzematen zaio —non egoerarik onena azkena baita—: “Les nations les plus

complexes par leur origine, les langues les plus hétérogènes par leurs emprunts semblent être appelées à guider l’avenir de l’humanité. [...] Les langues d’analyse ont pris le dessus dans le monde” (Abbadie 1836: 27-28).

7.7 Chaho (1836)

Aurreko atalean esan bezala, Joseph Augustin Chahok³³⁰ “Grammaire euskarienne” idatzi zuen, Abbadieren “Prolégomènes”en ondotik agertzen dena. Chahok, Lécluse eta Darrigolen moduan, aditzaren banaketa bitarra jasotzen du; alabaina, Abbadiek bezala, *dut niz*-en aldaeratzat hartzen du. Horrela, Chahoren iritziz, euskaran aditz bakarra dago, aditz substantiboa. Eta aditz substantiboaren erroa *iz* da. *Iz* erroa eta *hitz* izena erlazionatzen ditu, eta azken hau zeharka Jainkoarekin lotzen du. Baina Chahok, bestalde, hitz mota bakarra onartzen du, izenak (*noms*); hau da, deklina daitezkeen hitzak. Beraz, aditza ere izenen sailean sartzen du.³³¹ Horrelaxe hasten da bere gramatikan aditzari eskainitako atala:

³³⁰ Chaho (1811-1858) ezagunagoa da, agian, idazle erromantikoa izan zen aldetik; besteak beste, Aitorren alegia idatzi zuen eta bigarren karlista gerratean Euskal Herrian zehar egindako bidaia baten kontakizuna utzi zigun (Chaho 1836b). Autore honi buruz, ik., bereziki, Juaristi (1984-85) eta Urkizu (1992a).

³³¹ Cf. “La langue euskarienne ne reconnaît qu’une seule espèce grammaticale de mots (*hitzak*), qui est celle des noms (*izenak*), régie par un système universellement régulier de déclinaison” (Chaho 1836a: 35), edo beste pasarte hau: “Nous savons déjà que le radical *iz* est un appellatif harmonique que la déclinaison modifie: le système euskarien ne reconnaissent qu’une seule espèce grammaticale de mots, le verbe lui-même se trouve rangé dans la classe de noms; il n’a point d’infinitif” (1836a: 170). Ik. orobat Oyharçabal (1998: 439).

Le mot ou *hitz*, créateur, le verbe fécond *IZ*, modifié par la déclinaison et combiné avec les divers pronominaux, forme à lui seul tout l'appareil de la conjugaison euskarienne. (Chaho 1836a: 51)

Analisi honen arabera, *niz* adizkia *ni* izenordaina gehi *iz* hitza besterik ez da, Abbadiek ere adierazi zuenez. Ohartarazi behar da, halere, Chahoren analisisa ez dagoela Darrigolen hartatik guztiz berezirik; azken batean, biek ikusi uste dute *niz* adizkian *-z* deklinabide-marka. Izan ere, Astarloaren ideiak gogora ekartzen dituen azalpen batean, Chahok *iz* erroaren honako interpretazio hau eskaintzen du:

La vocale *i* dont l'émission exige la plus grande contraction de l'organe vocal, et qui se trouve être la note la plus aiguë et la plus vibrante, le son le plus élevé de l'échelle parlée, se combine en euskarien avec la forme déclinative *z*, signifiant appartenance, pour exprimer l'idée de la vie et de l'existence, *iz* est, sois, soit. (Chaho 1836a: 10)

Gramatika kategoria bakarra izaki, aditzak ere deklinatzen dira eta izenak, aldiz, joka daitezke. Ideia honetan oinarritzen da, *iz* erroatik abiatuz eta deklinabide edo eratorpen atzizkiak erantsiz, adizki jokatu gabe deitzen ditugunak azaltzeko, hala nola (ik. Chaho 1836a: 170-173):³³²

a) *iz* + *-an* (“positif”, hots, inesiboa) = *izan*

b) *izan* + *-en* (genitiboa) = *izanen* (geroaldia eta baldintzazko modua)

³³² Gainera, edozein *hitz*, deklinatua zein ez, joka daiteke *-tu* atzizkia atxikiz gero; cf. “Le *tu* leur imprime le sens actif que leur simple appellation ne saurait comporter” (Chaho 1836a: 176) eta “Non-seulement tous les mots euskariens sans exception prennent valeur active et se conjuguent avec un brillant cortège de relations déclinatives et de modifications secondaires, mais encore chacune de ces modifications, de ces relations marquées par une terminative, se conjugue à son tour” (1836a: 178). Chahok adibide batzuk eskaintzen ditu: *hebenkotu niz / dut*, *hebenkoarentu niz / dut*, etab. Honen

- c) *izan* + *-ik* (ablatiboa) = *izanik* (frantsesezko partizipioaren ordaintzat duena)
- d) *izan* + *-a, -aren, -ari...* (“défini singulier”) = *izana, izanaren, izanari...*
- e) *iz* + *-te* (‘ugaritasuna’ adierazten duen atzizkia) = *izate* (‘existentzia’ adieraziko lukeena) eta, berau deklinatuz gero, *izatean, izaten, izatera, izatetik, izatia...*

Chaho joko perifrastiko eta trinkoen arazoaz mintzo da, ohi duen estilo iluminista erabiliz. Hiru joko mota bereizten ditu: “abstraktu eta substantiboak” existentzia eta jabego absolutua adierazten ditu eta, berauek Jainkoaren atributuak direnez, gizakiak ezin du erabili eta egiatan joko hau ez da sekula erabiltzen. Bigarrenak, analitiko edo “elkartua” izendatuak, existentzia osagabe eta iheskorra adierazten du, gizakien ezaugarriak:

Tout nom se décline, toute déclinaison se conjugue dans la belle langue Eskuara. Les divers modes de la conjugaison abstraite et substantive expriment plus particulièrement l’existence et la possession absolues, qui sont les attributs de Dieu; mais dès que le verbe prend une valeur auxiliaire dans la conjugaison composée, les temps se divisent et se modifient de manière à exprimer les situations accidentelles, qui sont le partage de toute existence fractionnelle et passagère, comme l’homme. (Chaho 1836a: 171)

Bigarren joko mota honetan aditz bakarrak laguntzaile gisa jokatzen du, beste hitz batzuekin elkartzen delarik (infinitibotzat hartzen ez dituen hitzak, jakina; ik. *supra* 331. oh.): “*Niz* accompagne alors les modifications neutres ou passives. *Dut* caractérise toutes les conjugaisons actives et régissantes” (1836a: 156). Azkenik,

antzeko ideia bat aurkitu genuen Astarloaren lanean (ik. *supra* 315. oh.).

joko sintetiko edo “sinkopatua” aipatzen du eta Darrigolek bezalaxe aztertzen: “La fusion du nom avec le verbe forme la conjugaison syncopée” (1836a: 180-181).

7.8 Inchauspe (1858)

Inchauspe kalonje zuberotarra³³³ da, ezbairik gabe, euskarak aditz bakarra duela sutsukien defendatu zuen euskalaria. Aski da bere *Le verbe basque* liburua (Baiona/Paris, 1858) nola hasten duen irakurtzea, Bonaparte printzeari egindako eskaintzaren ondoren honelaxe esaten baitu: “La langue basque n’a qu’un verbe” (Inchauspe 1858: 1). Izan ere, liburuaren gainerako orrialdeetan baieztapen hori frogatzen ahalegintzen da. Halaber, hainbat eta hainbat taula eta paradigmaren bitartez, euskal aditzaren aberastasuna ere erakutsi nahi du, hala modu, nola denbora, pertsona eta gainerakoei dagokienez.

Inchauspek bi boz edo eratan banatzen du aditz bakarra, boz iragangaitza (*da*) eta boz iragankorra (*du*),³³⁴ eta garbi utzi nahi du ez direla bi aditz desberdin. Berau frogatze aldera, ohartarazten du euskaraz aditz iragankorrek (edo aktiboek)

³³³ Emmanuel Théodore Inchauspe (1816-1902) Bonaparte printzearen laguntzaile izan zen eta, haren enkarguz, zenbait lan erlijioso itzuli zituen zubererara. Beste lan erlijioso batzuen egilea izan zen eta 1864an Axularren *Geroko Geroren* hirugarren argitalpen zuzendu bat atera zuen (cf. Villasante 1979).

³³⁴ Aktibo-pasiboaren orde, bozei dagokiela “iragankor-iragangaitz” terminoak erabiltzea ez da inondik ere Inchausperen asmakizuna, ezta berak baino lehenago terminoak euskarari aplikatu zizkion Zabalarena ere (1848). Zabalaren hitzak irakurriz gero —“A esta ultima [pasiboa —R.G.] llaman también neutra, media é intransitiva: y á la activa transitiva” (Zabala 1848: 1)—, argi dago terminologi nahasketa artean hedatuta zegoela (cf. Gómez Asencio 1985 eta batez ere Iglesias 1991).

iragangaitzari dagozkion laguntzaileak hartzen dituztela eraikuntza bihurkari eta sasi-pasiboak osatzeko:

Ces deux voix sont le complément l’une de l’autre et ne doivent être considérées que comme composant un seul verbe. En effet, la même action a besoin des deux voix, de même qu’elle a besoin des divers modes, pour exprimer ses divers rapports [...]. Pour rendre *il l’a offert*, on dit *eskéntu* DU avec la voix transitive; pour exprimer *il s’est offert*, *eskéntu* DA avec la voix intransitive; *il le commençait* se dit *hásten zían*; *il commençait à*, *hásten* ZEN; *il l’aura perdu*, *gáldu* DUKE; *il se sera perdu*, *gáldu* DATE, etc. (Inchauspe 1858: 1)³³⁵

Aditzaren definiziorako, bidenabar ematen duena, irizpide sintaktikoa baliatzen du nagusiki, Port-Royaleko gramatikan bezalatsu, eta formala bigarrenik:

Le rôle du verbe en basque est de lier les idées exprimées par les noms et d’en indiquer les divers rapports, et ces rapports s’exprimant par les formes, les modes et les voix, l’ensemble de ces formes, de ces modes et de ces voix constitue le verbe complet (1858: 1-2)

Esan gabe doa, pasartearen hasieran aipatu izenen artean Inchauspek *noms verbaux* izendatzen dituenak daude —adizki jokatu-gabeak alegia— eta aurreko autoreen moduan ez du uste aditzak direnik: “Nous ne comptons pas l’*infinitif* parmi les modes du verbe; les terminatifs que, par analogie, on a cru devoir rapporter à ce mode, appartiennent au nom verbal” (1858: 3).

³³⁵ Cf., orobat, “Ces noms, que nous appelons transitifs, se conjuguent avec les formes transitives et intransitives. Lorsqu’ils se conjuguent avec les formes transitives, leur action se porte sur un objet étranger au sujet, et alors ils rendent le sens des verbes appelés actifs en français. Lorsqu’ils se conjuguent avec les formes intransitives, l’action qu’ils expriment retombe sur le sujet, et alors ils rendent le sens des verbes appelés en français *réfléchis* et *passifs*” (Inchauspe 1858: 21).

Nahiz eta aditzaren definizioan Inchauspek ez zuen baieztapenez deus ere esaten, testuan aurrerago agertzen da, aditz izenen eta benetako aditzen arteko aldea zehaztu behar duelarik:

On ne conçoit pas de verbes sans affirmation, sans indication de mode, de temps et de personne; or ces termes [aditz izenak — R.G.] exprimant simplement une idée, une manière d’être ou d’agir, sans aucune affirmation, sans indiquer aucun rapport soit au temps, soit aux personnes, sont dépourvus des propriétés essentielles du verbe, tandis qu’ils ont tous les caractères des substantifs et des adjectifs: ils se déclinent au défini, à l’indéfini, au singulier et au pluriel (1858: 7)³³⁶

Bestalde, Inchausperen iritziz, izen eta adjektibo horiei “aditz izenak” dei diezaiekegu, aditzarekin lotzeko aproposak direlako eta ekintza edo egoera bat adierazten dutelako. Ekintza objektu bati helarazten badiote, aditz izenak boz iragankorarekin (*dut*) lotuko dira. Aitzitik, ekintza subjektuan bertan islatzen bada —pasiboetan eta bihurkarietan bezala— edo inork jasotzen ez badu —neutroetan—, aditz izenak boz iragangaitzarekin (*niz*) lotuko dira.

Inchauspek eskaintzen duen aditz trinkoen —edo, berak deitu bezala, *formes contractées* direlakoan— analisia Darrigol eta Chahoren lanetan ikusi berri

³³⁶ Baieztapen honen ostean adizki jokaturgabe guztien analisi xehe bat dator eta, Darrigolek bezala, izen edo adjektibo deklinatutzat hartzen ditu Inchauspek. Aski da hurrengo pasartea irakurtzea bi egileon proposamenen arteko antzekotasunez jabetzeko, batik bat euskarazko adibideak frantsesera nola itzultzen dituzten aintzat hartuz gero (cf. *supra* 320. oh.): “Les noms verbaux indiquent les diverses manières d’être et d’agir; le verbe unique exprime les relations de ces manières d’être et d’agir avec les personnes et les temps. Ainsi, dans *ebilten niz, je suis en marche, je marche*, — *ebilten, en marche*, exprime le genre d’action qui se fait; *niz, je suis*, exprime le sujet de cette action et le temps présent” (Inchauspe 1858: 12).

ditugunak bezalakoxea da (Inchauspe 1858: 445-446) eta, hortaz, ez du merezi hemen xehetasun gehiago ematea.³³⁷

Liburua amaitzeko, Inchauspek apologi kutsua duen solasa dakar. Bertan Jainkoari —hots, Aditzari, “Verbe Eternel” deitzen baitio— zuzentzen zaio eta iradokitzen du euskal aditzaren perfekzioak hizkuntza Jainkoaren dohaina dela frogatzen duela, orobat, euskaldunek euren hizkuntzan gorde ahal izan dituztela lehen hizkuntzaren ezaugarri batzuk —gainerako hizkuntzek galdu dituztenak—, egiazko fedeari eusten jakiteagatik:

Au milieu de cette universelle dégénérescence du langage, l’esprit s’arrête avec complaisance devant ces magnifiques restes de grandeur et de perfection que nous offre la langue Basque et qui nous donnent une idée de ce que pouvait être la langue de l’homme avant sa chute [...] [T]ous ces caractères ne sont-ils pas autant de traits divins qui nous révèlent encore, ô VERBE incréé, votre manifestation dans la parole humaine? — Est-ce à sa fidélité au culte du vrai Dieu que le peuple Basque doit de les avoir mieux conservés que tous les autres peuples du monde? Nous aimons à le croire. (1858: 508)

³³⁷ Nolanahi ere den, ez dut aipatzeke utzi nahi *díot*, *dioát*, *diózu*... adizkiei buruz proposatzen duena. Gainerako aditz trinkoetan ez bezala (*noa* = *joan* + *niz*, *darámat* = *eráman* + *dut*,...), forma hauetan *érran* partizipioa ikusi ezin baitu, latinetik edo erromantzetik letozkeela adierazten du, *dicere*-tik alegia (cf. gazt. *digo*): “Les formes *diot*, *dioát*, *dioe*, *diok*, *dion*, *diózu*, *diozie*: je dis, ils disent, tu dis, vous dites, sont empruntées au latin ou à l’espagnol; elles peuvent parfaitement être remplacées par la conjugaison régulière de *érran*, mais elles n’en sont pas composées comme les autres formes régulières” (Inchauspe 1858: 446).

7.9 Bonaparte (1869, 1876, 1877)

Bonaparte printzeak,³³⁸ han-hemenka utzi zizkigun gramatika-lanetan, euskal aditzaren sailkapen bat baino gehiago proposatu zituen. Sakabanatze honek maizegi haren aditz-teoriaren ikuspegi orokor bat erdiestea zailtzen du. Bonaparte, oso *sui generis* bada ere, aditz bakarraren teoriaren aldekoa da. Ez du sekula baieztatzen benetako aditz bakarra dagoenik, baina aditz formen arteko hierarkia argi bat ezartzen du, adizki zenbait beste batzuk baino huts edo garbiagoak direla adieraziz eta, horretarako, arazo formal eta apologetikoak —are metafisikoak ere— nahasten dituen argudio sorta bat erabiliz.³³⁹ Beste alde batetik, adizki iragankorrek beti objektua adierazten duten Darrigolen ideia bere aditz teoriaren erdigunean kokatzen du Bonapartek. Hurrengo lerroetan, bi gai hauek ahal den modurik laburrenean azaltzen saiatuko naiz.

Adizki jokatuen sailkapenaren barnean Bonapartek izen adiztuen (*noms verbisés*) eta aditz-bukaera hutsten (*terminatifs (verbaux) purs*) arteko bereizketa egiten du.

³³⁸ Aski ezaguna denez, Louis-Lucien Bonapartek (1813-1891), Napoleon Iaren ilobak, euskalkien lehen sailkapen zehatza burutu zuen. Euskalki guztietako laguntzaileez inguratu baitzen, testu erlijiosoen hainbat itzulpen biltzea lortu zuen. Haietariko batzuk bakarrik moldiztegitatu zituen (ik. Arana Martija 1989), 1870ean Frantziako III. Inperioa desagertzearekin diru baliabideak galdu zituelako. Euskal aditzari buruzko argudio teorikoak zenbait artikulutan (ik., batez ere, Bonaparte 1876, 1877c, 1884a) eta *Le verbe basque en tableaux* (1869b) bere lan nagusian sakabanatuta daude; oraingoz ez dugu Printzearen aditz teoriari buruzko monografia sakonik, baina hurbilketa aski xehe baterako ik. Suárez (2000). Bonaparteren bizitzaz eta gainerako lanez, ik. §4.1 eta bertan aipatutako bibliografia.

³³⁹ Euskal aditzari buruz idatzi zuen liburuaren azalean (Bonaparte 1869b) honako pasarte bibliko hau sartzen du, bere asmoen aitormentzat har daitekeena: “In principio erat Verbum.”

Lehenbizikoek izen-etorkiko erroa dute; bigarrenek, aldiz, ez dute inolako errorik agertzen:

a. Aurreneko sailean euskal aditz eta laguntzaile gehienak sartzen dira: adizki trinkoak, “*izan iragangaitza*” (*naiz, da*), eta *iraun*³⁴⁰ (*diro, ziroen, diroke*), *adi* (*dadin, nadila*) eta *ki*³⁴¹ (*dakion, zekiola*) laguntzaileak; Bonaparteren ustez, “*izan iragankorra*” deitua (*dezadan, dezake*)³⁴² eta *egin* (*dagidan, dagizula*) bi sailen arteko zubia lirateke, ez baitute indikatiboko adizkirik (Bonaparte 1869b: 159).³⁴³ Printzeak *izan iragangaitzaren* eta *izan iragankorraren* arteko bereizketan Inchauspek proposatu bi bozak frogatzeko oso argudio egokia aurkitzen du:

2° que le nom verbal *izan*, dans la majorité des dialectes,³⁴⁴ a le sens de *être* et celui de *avoir*; on sera forcé de conclure, que dans les noms verbisés les plus importants et les plus usuels du basque, le radical du transitif est le même que celui de l'intransitif, et que ce sont bien deux voix et non pas deux verbes que cette langue

³⁴⁰ Ekialdeko adizki laguntzaile hauen erroa *iraun* dela uste du Bonapartek (1876), van Eysek (1874b, 1875) proposatu zuen *eroan*-en aurka (ik. §5.2).

³⁴¹ Adizkion erroa *egon* edo *egoki* (Bonaparte 1877c: 42) *izan* litezke, baina *ki* bera ere badu izentzat (1877c: 44).

³⁴² Jakina, gaur egun azken forma hauek **ezan* aditz berreraikiari dagozkiola pentsatzen da. **Ezan* aditz laguntzailea, baita **edin* ere, van Eysek berreraiki zituen bere gramatika konparatzailean (1879: 196 eta hh.). Laurogeietako hamarkadaren bukaeran aditz hauek leku handia hartuko zuten Berlingo *Euskara* aldizkarian Bonaparte, van Eys eta Vinsonek Etxepare eta Leizarragaren hizkeren inguruan *izan* zituzten eztabaidetan (lan hauen aipamenerako, ik. Gómez 1989 eta tesi honetako 4. kapitulua).

³⁴³ Cf. “Les deux noms verbaux *izan* et *egin* ne peuvent donc être assimilés aux autres que morphologiquement. Ils forment classe à part, quant au sens, et servent, pour ainsi dire, de transition entre les terminatifs verbaux purs et les noms verbaux ordinaires” (Bonaparte 1869b: 159). Alta bada Bonapartek ez du inon argiegi azaltzen zertan datzan “trantsizio” izate hori.

³⁴⁴ Oroit bedi 329. oin-oharrean esandakoa.

nous présente en *nintzan* ‘j’étais’ et en *nezan* ‘que je l’eusse’ (*je l’avois*, en vieux labourdin). (Bonaparte 1869b: xxvii)³⁴⁵

b. Aditz-bukaera hutsen bereiztea, bestalde, Bonaparteren aditz-teoriaren funtsezko puntua da. Errorik gabeko adizkiak dira; izan ere, adizkiok izenordainez (subjektua, objektu zuzena, zeharkako objektua, alokutiboak³⁴⁶), modu- eta denborahizkiez eta “letra eufonikoez” osaturik daude.³⁴⁷ Eta osagai hauen guztien elkartzea da, hain zuzen ere, *aditza* sorrarazten duena eta, horrela, aditzari baieztapena adierazteko gaitasuna agerrarazten diona:

Les éléments constitutifs des terminatifs verbaux consistent essentiellement en pronoms soit à l’état de sujet, soit à l’état de régime direct ou indirect, soit à celui d’allocution. Ils se trouvent tantôt au singulier, tantôt au pluriel. Des lettres pronominales, tenant lieu de pronom, des syllabes caractéristiques de mode ou de futur, des lettres euphoniques pour faciliter l’union intime de tous ces éléments, complètent la série. Au moment de l’union, le Verbe avec sa qualité essentielle, l’affirmation, se manifeste. (Bonaparte 1869b: 159)

³⁴⁵ Cf. orobat Bonaparte (1876: 8): “Ce nom verbal [*izan* — R.G.] qui signifie en même temps ‘eu’ et ‘été’ dans cinq des huit dialectes basques, de même que *ill* ou *hil* signifie ‘mort’ et ‘tue’, est un argument très-favorable aux deux voix dans le verbe”.

³⁴⁶ Diodan, bidenabar, “alokutibo” terminoa Bonapartek berak sartu zuela euskalaritzan, euskarari buruzko bere lehenbiziko lanean (Bonaparte 1862: 19).

³⁴⁷ “Letra” eta silaba hauen guztien zerrenda osoa da, euskalki bakoitzean jasaten dituzten aldakuntzekin batera, Bonapartek bere liburuaren taulen aurretik eskaintzen dituen “Observations” direlakoan gaia (1869b: ix-xxxii). Nabarmendu nahi nuke Bonapartek ez diela batere begirunerik erakusten hots aldaketa erregularrei —adiera hertsian, garai hartan ezin baita oraingoz “lege fonetikoez” mintzatu—; aurreraxeago Printzearen jokamolde honen adibide bat eskainiko dut.

Garbitasun hau, aditzik gabeko aditz hau, oso deigarri gertatu zitzaion Bonaparteri, eta horrexegatik eskaini zion Printzeak leku berezia bere ohar teoriko urrietan, kutsu metafisikorik falta ez bazaio ere:

Le Verbe pur est pour nous quelque chose d’insaisissable, qui se manifeste toutefois au milieu d’éléments matériels fort saisissables et qui, loin d’en être le produit, les domine de toute sa puissance en les vivifiant. Le Verbe c’est la Vie. (*ibid.*)

Alderdi formalari bagagozkio, Bonapartek proposatzen du *dut* bezalako aditz-bukaera hutsetan, betiere iragankorrak izaki, hirugarren pertsonako objektu zuzena adierazten duen erakusle bat aurkitzen dugula:³⁴⁸

De toutes les permutations que l’on observe dans le verbe basque, celles des syllabes *au*, *dau* sont sans contredit les plus nombreuses et les plus importantes. Ce sont bien ces syllabes en effet, ou leurs permutations (et c’est en cela surtout que consiste notre théorie du Verbe basque) celles qui représentent le régime direct singulier de troisième personne, *au* n’étant lui-même que le démonstratif français *ceci*. (Bonaparte 1869b: xi)

Hau da, Bonaparteren iritziz, *dut* = *dau* + *t*, *nau* = *ni* + (*h*)*au*, etab. Beste alde batetik, *dau* erakuslearen aldaera bat baino ez da (*au*, *hau*, *haur*, *gau*, *kau* eta *kaur* gainerako aldaerekin batera)³⁴⁹ eta aditz-bukaeretan bilakaera franko izan ditzake euskalki, azpieuskalki eta hizkeren arabera:

³⁴⁸ Berebat zeharkako objektuari dagokionez, non -o- < *oni* proposatzen baitu (Bonaparte 1869b: 159).

³⁴⁹ Eta *dau*, bestalde, *gau*-ren aldaera litzateke, Printzearen teoriaren bertsioetariko batean behinik behin (Bonaparte 1877c: 37).

Nous disons donc que la syllabe *au*, telle qu'elle existe dans son intégrité primitive en *dau* 'il l'a' du bisciaïen, peut se transformer en *a, e, i, o, u ü, ai, ei, eu, aa, ao, ie, ii, io, iu, iü, oo, üi, üü*. (Bonaparte 1869b: xi)

Ondoren, Bonapartek bilakaera guztien adibideak ematen ditu, bakoitzaren geografi jatorria ere zehazten duelarik.

Hortaz, Chahoren analisiaren oso antzekoa dugu Printzearena, nahiz eta teoria konplexuago batean txertaturik egon. Azken batean, bien helburua adizki iragankorretan objektuak nahitaez agertu behar izatea formalki azaltzea da. Eta, Bonaparteren kasuan, aditz-bukaera hutsak deiturikoek errorik ez dutela aldarrikatzea. Azken ideia honekin Vinson edo Zabala bezalako autoreen kontra agertzen zen; lehenak (Vinson 1867) *-u-* bokala *uk(h)an* aditzaren erroa zela zeritzon eta bigarrenak (Zabala 1848), aldiz, *eduki* aditzarena.³⁵⁰

Adizki iragankorretako erakuslearen beste adibide bat Bonapartek “*izan* iragankorra” deitzen duen aditzean (= **ezan*) kausitzen dugu:

Le changement de l'*i* initial de *izan* en *e* dans *dezan*, est dû au démonstratif qui s'amalgame, pour ainsi dire, avec l'adjectif verbal. (Bonaparte 1876: 8)

Alegia, *dezan* “izen adiztuan” *dau* erakuslea, *iz(an)* “aditz izena” eta subjuntiboaren ezaugarria den *-n* kausitzen ditugu. Puntu honetan ere hurbiltzen zaio Bonaparte Chahori, baita *iz* erroa (*h)itz* izenarekin parekatzen duelarik (Bonaparte 1877c: 42); oroit bedi latinean *verbum* hitzak duen esanahi bikoitzaz.

³⁵⁰ Esan gabe doa, gaur egun *dut* paradigmako adizkiak **edun* aditz berreraikiari atxiki nahiago da, *uk(h)an* eta *eduki* haren partizipio eratorriak lirakeelarik.

Bonaparteren aditz teoria zail da kokatzen bere garaiko ingurunean, hizkuntzalaritzan metodo historikoa garatzen ari zen garai bati baitagokio. Badakigu Bonapartek ederki ezagutzen zituela hizkuntzalaritzaren azken aurrerapenak —baina, jakina, ezagutzeak ez du esan nahi ados egotea—. Zernahi gisaz, ezin dugu zuzenean lotu gramatikari filosofoen tradizioarekin ere (Darrigol, Chaho eta Inchauspe bezala). Aintzat hartzeko faktoreak dira, orobat, euskarak Bonapartegan sor zezakeen lilura eta Printzearen kristau fede sakona, hala nola Inchausperen eragin nabarmena eta, oro har, gramatikari euskaldunen teoriekiko agertzen zuen hobespena, ziurrenik teoria osoa azaltzeko adinako arrazoiak ez izanagatik.

Laburbilduz, bistan da Bonapartek, euskaraz aditz bakarra dagoenik sekula esan gabe ere, aditz bakarraren teoriaren zenbait alderdi jaso zituela, hala nola aditzak ‘baieztapena’ edo ‘existentzia’ adierak³⁵¹ izatea, edo adizkiak funtsean izen-etorkiko osagaiez eratzea, ondorioz benetako aditz-errorik ez dagoela iradoki zuelarik.

7.10 Azkue (1891)

XIX. mendearen hondarrean, gramatika logiko-filosofikoen berpizte bat azaltzen zaigu, baina oraingoan Hego Euskal Herrian gertatzen da. Haren pizgarria, segurki, 1883an Astarloaren *Discursos filosóficos* argitaratzea izan zen, mende hasieran idatziak izan arren ordu arte argitaragabe baitziren. Joera honi atxikitzen zaizkion

³⁵¹ Bigarren esanahia, espero zitekeenez, *izan* iragangaitzean aurkitzen du Printzeak: “Quant aux terminatifs intransitifs à base de *izan*, nous pensons que l’adjectif verbal auquel ils s’unissent représente un simple attribut, tandis qu’ils se trouveraient contenir *izan* dans le sens d’existence” (Bonaparte 1876: 8).

egileek euskararen ustezko lehengo egoera berreraiki nahi dute, bai eta erabilarazi ere, *a priori* ezarritako espekulazio logikazaleetan oinarrituz (Alberdi 1989b). Berpizte honen lehen emaitza *Euskal Izkindea* izan zen, Azkuek³⁵² Bizkaiko Diputazioaren Euskarako katedrarako prestatu zuen gramatika-liburua hain zuzen ere (Azkue 1891). *Izkindearen* iturri nagusia, Lakak (1986: 712) nabarmendu zuenez, Astarloaren *Diskurtso filosofikoak* dira, hain zuzen ere, nahiz eta euskal aditzaren azterketari dagokionez Azkue sarritan apaiz durangarraren proposamenetatik urruntzen den.

Euskal “aditz miragarri ta Iaungoikozko au” (Azkue 1891: 145) behar bezala argitzeko zailtasun han-hemen errepikatuak aipatu ondoren, Azkuek aditzaren honako definizio hau eskaintzen, eta azaltzen, du:³⁵³

«Gauzen izamen langotuan edo langogean itz agergarria» daila aditza uste daut.	Creo que verbo es «palabra expresiva de la existencia calificada ó no calificada de las cosas.»
--	---

Gizan izateak baino ezdagoz.	En la naturaleza no hay más que
------------------------------	---------------------------------

³⁵² Resurrección M^a Azkue (1864-1951) xx. mendeko euskal hizkuntza eta kulturaren ikertzaile handienetakoa izan zen. Haren lan eremu nagusiak hizkuntzalaritza, literatura, musika eta folklorea izan ziren. Beste hainbat lanen artean, euskara batua sortu arte hizkuntzalarien zein idazleen ezinbesteko tresna izan zen hiztegia ondu zuen (Azkue 1905-1906), baita euskal morfologiari buruzko lan ospetsu bat ere (Azkue 1925). Halaber, 1918an Euskaltzaindiaren sortzaileetariko bat izan zen eta, hil arte, euskaltzainburu. Azkueri buruz, besteak beste, ik. Arana Martija (1983) eta Mitxelena, Caro Baroja & Tovar (1966).

³⁵³ *Euskal Izkindea* bi zutabetan antolatuta dago: ezkerrekoan, Azkuek berak proposatutako hizkuntza eredua erabiliz idatzitako testua dugu (Dodgsonek *azcuence* izendatu zuena, alegia, eta ia ulertezina dena); aldameneko zutabean gatzelaniazko bertsioa dugu, maiz euskararen sintaxiari lotuegi badago ere.

Langotasun ta bezte gainerantzeko guztiak izateetan bizi daiz. Izate guztiak *izakizuna* ta *izamena* daukez: izakizuna’ izenak agertu daroe, izamena’ aditzak. Izamena (bardin izakizuna bere) langotua nai langotu bagea izan leike: gertaldi biotan *aditza* esan oi dakio izamena agertuten dauen itzari, estu estuan aditz egiazko bat baino ezegonarren.

seres. Las cualidades y todos los demás accidentes en los seres viven. Todos los seres tienen *esencia* y *existencia*: la esencia suelen manifestar los nombres, la existencia los verbos. La existencia (como también la esencia) puede ser calificada ó bien no calificada: en ambos casos se llama verbo á la palabra que suele expresar la existencia, aunque en rigor no haya sino un solo verbo.

(Azkue 1891: 146)

Jakina, Azkuek aipatzen duen “aditz egiazko” hori *izan* aditza da, “izamen langogea edo utsa” (*ibid.*) adierazten duena. Azkuek honela jarraitzen du: “bezte aditz guztiak izamen lagotuak agertuten dauetz, edo obeto esateko, izamenan langotasunak / todos los otros verbos suelen manifestar existencias calificadas, ó para decirlo mejor, cualidades de la existencia” (*ibid.*). Hauxe baita Azkuek euskal aditzean ezarritako lehen bereizkuntza: “langogea=no calificado (sustantivo)”, *izan* alegia, eta “langotuak —calificados”, hau da, gainerakoak. Bistan da, Azkueren sailkapena aditz substantiboaren eta aditz adjektiboaren arteko bereizkuntza ezaguna baino ez dugu (cf. §7.3). *Izan* aditz substantiboari dagokionez, bestalde:

Egintza bi daukaz aditz onek: batzuetan bakarrik oituten dai, bezte batzuetan aditz langotuak mugatu ta irabiateko balio izaten dau. Bakarrik oituten dainean’ *izamen utsa* agertu daroa, erderaz *ser*. Bezte aditzen laguntzailatzat oituez gero’ erderazko *haber* ta *haberse*-n agerkizuna euki

Este verbo tiene dos oficios: á veces se emplea sólo, otras veces suele servir para limitar y conjugar los verbos calificados. Cuando se emplea sólo suele significar *existencia pura*, en otra lengua *ser*. Empléandose por auxiliar de los otros verbos, suele tener la significación de *haber* y

daroa: *haber*’ langotasun biralkoiakaz batuten dainean, eta langotasun euskoiakaz *haberse*. *haberse*: *haber* cuando se junta con cualidades transitivas, y *haberse* con cualidades intransitivas.

(Azkue 1891: 148)

Hortaz, Azkueren ustetan laguntzaile guztiak, hala iragangaitzak nola iragankorrak, *izan* aditzari dagozkio,³⁵⁴ zeinahi modu edo denbora dutelarik ere (Chaho eta Inchauspereen ildo beretik, hain zuzen). Izan ere, aditz “langotu” guztiek, *izanen* mende baitira, ‘existentzia’ adierazten dute. Bestela esanda, Azkuek ezaugarri horri egozten dio euskal aditz-jokoa batez ere analitikoa izatea:

Augaitik’ aurrerantzean ikusiko dainez, *izan* aditza edo aditz langoeari daue aditz guztiak irabiateko. Euskaraak daukan lege au iakituriz beteriko legea dai, gizako legea dailako; gizako legeak barriz euren Egile Iakintsuari iarraitu daroakioe. Gizako legea dai’ langotasunak euren ezin bizi al izatea, izateetan bititokia eukitea: aditz langotuak edo izamenen langotasunak *izatean* (*izan* aditzean) irabia ta bizi bear daue.

Por esto, como se verá en adelante, todos los verbos necesitan para ser conjugados el verbo *izan* ó el verbo sustantivo. Esta ley que tiene el euskara es ley llena de sabiduría, porque es ley de naturaleza; y las leyes de la naturaleza siguen á su Sabio Criador. Es ley de la naturaleza el que las cualidades no puedan vivir en sí mismas y que tengan su vivienda en los seres: los verbos calificados ó las cualidades de la existencia deben conjugarse y vivir en el *ser* (en el verbo *izan*).

(Azkue 1891: 147)

³⁵⁴ Itzulpenak gorabehera; izan ere, gaztelaniazko ordainetarako *haber(se)* hautatzen du Azkuek, ziurrenik horixe delako gaztelaniazko laguntzaile bakarra ere.

Aurreko pasartean nabari daitekeenez, Azkuek, elizgizona izaki, ez du aukerarik galtzen erlijioarekin lotutako argudio apologetikoak behin eta berriz erabiltzeko. Honela bada, laguntzaile guztiak *izanen* sartzen dituelarik, Azkuek euskal aditz-jokoaren aniztasuna eta aberastasuna erakutsi ahal ditu, modu erraz bat baliatuz eta, aldi berean, euskararen jainkozko izaera aintzat hartuz (Laka 1986: 729). Hala ere, gramatika-liburuaren beste toki batean, Azkuek onartzen du laguntzaile bat baino gehiago daudela. Zehazkiago, Astarloaren (1883: 481-484) ideia bati jarraituz, Azkuek proposatzen du edozein aditz trinkok balio duela laguntzailearen eginkizuna betetzeko.

Beste alde batetik, eta espero zitekeenez, Azkuek euskaran aditz irregularrak izatea ukatzen du, “[g]ure izkeraak ez dauka[lako] araugetasunik” (1891:146). Aditz trinkoen jatorriaz den bezainbatean, Azkuek berriro ere baliatzen ditu gramatikaz kanpoko argudioak, berak “irabiagarri” deitzen dituen adizkiok euskaran badirela justifikatzeko³⁵⁵ eta *izan* aditz bakarrarekin erlazionatzeko:

Ene ustez’ *aditz irabiagarri guztiak*’ IZAN *aditzetik eratorri daiz*. *Zelan* eratorri daizan ezin bururatu badaut bere’ *zergaitik izan-etik* eratorri daizan badakitala uste daut.

Ezin argitaratu leikezan gauza asko dagoz’ ukatu bere ezin leikezanak.

A mi juicio *todos los verbos conjugables se han derivado del verbo IZAN*. Aunque no puedo discurrir *cómo* se han derivado, creo que sé *por qué* se han derivado de *izan*.

Hay muchas cosas que no se pueden demostrar y que tampoco se

³⁵⁵ Beste toki batean euren zerrenda eskaintzen du (“Zenbat daizen aditz eurenez irabiagarriak”, 1891: 156).

Aufse iazoten dai *eskutapenakaz* bere: euren *izamena* ezaun ezauna daugu, euren *izakizuna* andien andienaz ta argitasunan argitasunaz ezin beragandu dau gizonan adin t̄sat̄sarrak. Euskal-aditza dain miraritsua ezin ulertu leike: bere mirariak eta eskutapenak gizakoak daiz baina andiak; eurak zakonduten dabilenak’ (gizako bezte mirari guztien astertzaileak legez) gizonan adina ta almenak baino adin argiagoa ta almen edatsuagoak daukazala euren egileak’ nai-ta-nai-ez autortu bear dau.

pueden negar. Esto mismo sucede también con los *misterios*: su *existencia* nos es muy conocida, su *esencia* por su extrema magnitud y claridad no la puede hacer suya el menguado entendimiento del hombre. No puede comprenderse cuan misterioso sea el verbo eúskaro: sus maravillas y misterios son naturales, pero grandes; el que se ejercita en profundizarlos tiene que confesar por necesidad (del mismo modo que el escudriñador de todas las demás maravillas de la naturaleza) que su creador tiene entendimiento más claro y potencias más extensas que el entendimiento y las potencias del hombre.

(Azkue 1891: 157-158)

Aditz trinkoen izaerari dagokionez, Azkuek aditz-denboren teoria konplexu bat³⁵⁶ garatzen du, Jaime Balmesen *Filosofía fundamental* lanean oinarriturik, aditz trinkoen beharra agerrarazteko. Azkueren eskema labur azalduz —xehetasunetarako ik. 1891: 161-168—, adizki *irabiagarriak* beharrezkoak dira “aidako usteak / ideas de momento”³⁵⁷ direlakoak adierazteko, hala “urrekoak / próximas” (adib. *dakart*) nola “urruneakoak / remotas” (adib. *nekarren*). Aitzitik, *ekarten daut* edo *ekarten*

³⁵⁶ *Izkindean* proposatzen den aditz-denboren sailkapenari buruz, ik. Laka (1986) eta bereziki Gutierrez (1999).

³⁵⁷ Aditz-denborari eskainitako kapituluari zehar “ideas momentáneas” eta “ideas presentes”

neuan bezalakoetan “uste oituak / ideas habituales” agertzen dira.³⁵⁸ Beraz, ikusi ditugun beste autore batzuk ez bezala, Azkuek argi eta garbi bereizten ditu adizki trinkoak eta esanahi bertsuko adizki perifrastikoak.³⁵⁹

7.11 Arana-Goiri [ca. 1888]

Aditz bakarraren teorian oin hartu zuten euskal autoreen gainbegiratu hau amaitzeko, aurkez dezadan Arana-Goiriri buruzko ohartxo bat.³⁶⁰ Gaztaroko lan batean (Alday haren argitaratzailearen arabera, 1888 ingurukoa litzateke), bizkaierazko aditzaren

terminoak ere erabiltzen ditu gaztelaniazko zutabeen; euskarazkoan, “aidako uste(ak)” dagokie beti.

³⁵⁸ Cf. “Ezdaiz aidako usteak eta *uste oituak* nastu bear: aidakoak gitsi daiz (475 garren esaldian ta urrengotetan erakutsi itzazan), oituak edozein aditzetan egon leikez. / No deben confundirse las ideas *presentes* y las ideas *habituales*: las presentes son pocas (se manifestaron en el párrafo 475 y siguientes), las habituales existen en cualquier verbo” (Azkue 1891: 168). Nahasi samarra da Azkueren aditz teorian *uste oituek* betetzen duten lekua. Terminoa aditz-denboraz aritzean erabiltzen dituen antzekoa da (“uste” hitza erabiltzen baitu, alegia); alabaina *-ten* “irazgaia” hartzen duten adizkiez “Aditz mugean aldamenak eta aldagaiak / Modificaciones y modificativos del verbo infinitivo” izeneko atalean dihardu (1891: 189). Bertan *-ten* hizkia “ekanduzko aldamera / modo habitualario (habitual ó consuetudinario)” delakoa adierazteko bide bat izango litzateke, *oi* “aldagaiarekin” eta *eroan* edo *ioan* aditzak laguntzaile gisa erabiltzearekin batera (1891: 190). Hala eta guztiz ere, eta hona nahasmendurako beste arrazoi bat, Azkueren sisteman “aditz mugean aldagaiak” ez dira hizkiak edo “irazgaiak”, grafikoki bederen bereiz idazten diren hitzak baizik; “aditz irabiarikoen aldagaiak”, berriz, hizkiak dira beti (cf. 1891: 171). *-Ten* izango litzateke, hain zuzen ere, sistema honetako salbuespen bakarra. *Izkindeako* aditz-moduen sailkapenez, ik. Madinabeitia (1999).

³⁵⁹ Diodan, bidenabar, adizki mota hauek adierazitako denboren artean erabat bereizteak eta, ondorioz, adizki trinkoen premia osoa izateak berehalako eragina izan zuten. Honela bada, XX. mende hasieran zenbait autorek, Arana-Goiri buru zelarik, paradigma trinkoak asmatu zituzten sekula halakorik izan ez zuten aditzetarako (ik. Plazaola 1999).

³⁶⁰ Sabino Arana-Goirik (1865-1903), euskal nazionalismoaren sortzailea izateaz gain, gramatikalan txo batzuk idatzi zituen. Euskarari buruzko lanotan ortografiaren eta lexikoaren eraberritzeaz jardun zuen batik bat, irizpide logikazale eta garbizaleetan oinarritu zelarik.

sailkapenaz ari zelarik, Arana-Goirik hiru sailkapen mota bereizi zituen: “1.^a *clasificación morfológica*; 2.^a *clasificación morfológico-significativa*. 3.^a *clasificación significativa*” (Arana-Goiri 1991: 40). Hirugarren sailkapenari eskainitako atalean, *ixan* aditzaren bi esanahi bereizi zituen:

El verbo *ixan* (ser) tiene dos distintas significaciones: una la de *existir*, y por ella se llama *sustantivo*; otra, la de aplicar, a un sujeto, un predicado o atributo, y por ella se llama *copulativo*. *Jaungoikua da* (Dios es o existe) es ejemplo de lo primero; *Jaungoikua da deun* (Dios es santo) es ejemplo de lo segundo. (Arana-Goiri 1991: 63)

Adiera kopulatiboaz ari delarik, Arana-Goirik Port-Royaleko lanen kutsu garbia erakusten du, azken buruan euskal partizipio bat adjektibo + *izan* formularen bitartez azaltzen baitu (oroit bedi §7.3 atalean esandakoa):

Como *copulativo*, el verbo *ixan* (ser) se resuelve con el verbo *haber*, el cual en Euskera se expresa con la raíz *eu*, que en su origen fue *au*; al efecto, no hay más que convertir en adjetivo abstracto el adjetivo concreto que en aquél significa el atributo. Así *Jaungoikoa da deun* (Dios es santo) es lo mismo que *deundasuna dau Jangoikuak* (Dios ha santidad). Más aún este *au* (haber) se resuelve a su vez con el *ixan* (ser): *Jaungoikua da deundasunaren eu-le* (Dios es *habente* de santidad).

Por esto, todos los demás verbos equivalen a *l* + *ixan*, representando con *l* el adjetivo que cada cual contiene, y sólo los transitivos a *l* + *au*. Así: *igan* (ascender) es *igale-ixan* (ser ascendente); *irakuñi* (leer) es *irakuñle-ixan* (ser leyente) y *bera irakuñi neuk* (leerlo yo) es *bera irakuñtzen au neuk* (haberlo yo en leerlo o leyendo), y *beraren irakuñle neu ixan* (ser yo leyente de ello). (Arana-Goiri 1991: 63)

Ohartarazi behar dut, hala ere, bere lanaren hurrengo orrialdeetan Arana-Goiri ez dela berriz analisi logiko honetaz baliatuko.

7.12 Ondorioak

Kapitulu honetan erakutsi dut XIX. mendean euskal autore batzuek euskarak aditz bakarra duelako ustea aldeztu zutela, nork ozenki nork apalkiago. Nire iritziz, euskal gramatikagintzan honelako joera bat sortzeko arrazoi nagusiak ondoko hauek dira: lehenik, euskal gramatikagile gehienen helburu apologetikoa, euskararen aberastasun eta betegintzarrea erakutsi nahi baitzuten; bigarrenik, euskal aditzaren beraren egitura, non aldi berean aurkitzen baititugu paradigma analitiko bat —bereizkuntza gramatikal gehiago dituen eta aditz guztiek duten paradigma— eta paradigma sintetiko bat —aditz bakan batzuetan baino ez dagoena—; azkenik, gramatika orokor eta filosofikoak gorpuztutako aditz bakarraren teoria, bereziki Ipar Euskal Herriko autoreengan, Frantziako tradizioan hezi baitziren, eragin zuzena izan zuena. Hortaz, aurkeztu ditudan autore askok euskal aditzean formalki gauzaturik ikusi uste zuten gramatikari filosofoek ikuspuntu erabat logiko batetik proposatu zuten analisi hura. Autoreon arabera, honelako aditz-sistema bakun eta erregular batek euskararen perfektutasuna frogatuko luke.

Halarik ere, aditz bakarra nola edo hala onartzen duten lanetan euskal aditzaren azterketa guztiak ez dira berdinak: zenbaitentzat benetako aditz bakarra ‘baieztapena’ edota ‘existentzia’ adierazten duen *izan* aditza da (Abbadie, Chaho, Azkue); beste batzuek bitan —*izan* eta **edun*— banatzen den aditz bat proposatzen dute (Darrigol eta Inchauspe, aldeak alde); errorik gabeko aditza ikusten duenik ere badago (Bonaparte); azkenik, formulazio argiegirik ematen ez duten Humboldt eta Arana-Goiri aipa litezke. Gainerako aditzak ez dira egiazko aditzak, izenak + *izan* (edo **edun*) baizik; beraz, infinitiboa, partizipioa, etab. izenak edo adjektiboak dira.

Bistan da, euskal aditz perifrastikoa oso egokia bide da aditz bakarraren teoria garatzeko eta orobat adizki jokatuabeak aditzat ez hartzeko, bi zatiak ongi bereizten direnez. Aitzitik, garai hartan kontrako joera batek adierazi zuen euskaraz edozein hitz bihur daitekeela aditz: Astarloa, Lécluse eta Zabala, besteak beste.

Gai honi loturiko autoreen zerrenda, haatik, ez litzateke osoa aditz bakarraren teoriaren aurka idatzi zutenak ere aipatuko ez banitu: alegia kapituluan zehar ikusi ditugun autore gehienei Willem Jan van Eysek (1867, 1874, 1875, 1879) eta Julien Vinsonek (1872, 1874a, 1874b) egin zizkieten kritika gogorrenak. Berauen ustez, euskal aditzak erro desberdinak ditu, nahiz eta laguntzaileak bi multzotan bana daitezkeela onartzen duten. Bestalde, ez dugu ahaztu behar aditz bakarraren aldeko analisitik abiatu zirela XIX. mende hondarrean euskal aditzaren pasibotasuna aldarrikatu zuten autoreak (ik. Oyharçabal 1991 eta hemengo §8.4).

Amaitzeko, aditz bakarraren inguruan interesgarri gerta daitezkeen beste aztergai batzuk aipatu nahi nituzke. Esate baterako, autoreok aurkeztutako aditz-sistema hain logiko eta erregular bat izateak euskara ikasterakoan ekarri ahal dituen onura eta abantaila; Darrigolek eta Inchauspek aipatzen dute alderdi hau. Beste gai jakingarri bat izan liteke adizki trinkoak laburketatzat hartzen dituzten autoreak eta adizki trinkoak hurbileko forma perifrastikoen baliokidetzat (*nator = etortzen naiz*) hartzen dituzten autoreak erkatzea.

8 Objektu-komunztadura XIX eta XX. mendeetako euskal gramatiketan

8.1 Sarrera*

Gauza jakina da euskararen aditz flexioan zenbait komunztadura markatzen direla: argumentu absolutibo, ergatibo eta datiboarekikoak eta, behar denean, komunztadura alokutiboa. Bestalde, euskararen morfologia ergatiboa dela-eta, egitura iragangaitzen —zehazkiago, ez-akusatiboen— argumentu bakarrak eta egitura iragankorretako objektuak kasu berbera eta komunztadura-hizki berberak dituzte, absolutiboari dagozkionak alegia. Baina XIX. mendean eta, neurri txikiagoan bederen, XX. mende hasieran, tradiziozko gramatikagintzaren moldeek, nagusiki latin gramatikan oinarrituek, oraino sendo diraute eta latinaren morfologia nominatibo-akusatiboaren eredua —besteak beste, subjektuarekiko komunztadura besterik kontuan hartzen ez duena— da hizkuntza guztien gramatikei aplikatu ohi zaiena.

* Kapitulu honen oinarria Gómez (2001b) da.

Kapitulu honek XIX. eta XX. mendeetako euskal gramatikagintzan, latin eredutik abiatuz, objektu-komunztadura nola ulertu den eta zein azterbide proposatu diren azaldu nahi luke. Euskal aditzaren objektu-komunztadurari buruzko azterketen bi abiaburu aurkeztuko ditut, alegia (aurreko mendeetarako, ik. §7.2):

- a. Astarloaren ideiak (§8.2): euskal aditzaren lehen analisi morfemikoa dugu harena. Astarloak pertsona-komunztadura hizkien tradiziozko analisiaren oinarriak ezarri zituen, bereziki *Diskurtso filosofikoetako* (Astarloa 1883) “Características de personas” (465-468. or.) izeneko kapituluan.
- b. Gramatika orokorraren ideiak eta, batik bat, “aditz bakarraren teoria” deiturikoa.³⁶¹

Halaber, hiru analisi mota bereiziko ditut, analisi bakoitzak hirugarren pertsonako objektuarekiko komunztadurari eskaini dion ikuspegia aintzat harturik. Hiru ikuspegiok ez dute inondik ere elkar baztertzen; aitzitik, historikoki loturik agertzen zaizkigu eta, noizik behin, elkarren osagarri ere gertatzen dira, ikusiko dugunez. Honakoak dira:

- a. Gramatika orokor eta filosofikoa (§8.3) eta, zeharka bederen, teoria pasibista (§8.4): aditz “iragankorretan” hirugarren pertsonako objektua beti markatzen dela aldarrikatzen dute, are objekturik ez dagoen kasuetan ere. Pasibisten formulazioa apur bat konplexuagoa da, haatik.

³⁶¹ Gramatika orokorrari eta “aditz bakarraren” teoriari buruz, ik. aurreko kapituluko §7.3 eta bertan aipatutako bibliografia.

- b. Tradiziozko teoria (§8.5): *d-*, *z-* (\emptyset -), *l-* eta *b-* aurrizkiak hirugarren pertsonaren markatzat hartzen dira eta, batzuetan, ustezko izenordainekin erlazionatzen dira.
- c. Aspektu-denborazko teoria (§8.6):³⁶² *d-*, *z-* (\emptyset -), *l-* eta *b-* aurrizkiak (antzinako) modu-aspektu-denborazko markak dira.

8.2 Astarloa (1883 [1805])

Astarloak euskal aditzaren aurreneko morfema-zatiketa burutu zuen. Euskal aditzaren zatiketari ekiteko aintzat hartu zituen oinarri teorikoak ez dira kapitulu honen aztergai (ik. horretaz Gómez 1999 eta hemengo §1.5); oinarriok albo batera utzirik, pertsona, denbora, modu eta abarren markak aski zuzen identifikatu zituela ohartarazi nahi nuke. Nolanahi ere den, gure gaiari loturik baitaude, Astarloaren teoriaren bi puntu bereziki gogorarazi nahi nituzke, alegia ekonomia hatsarrea eta euskaran —hots, jatorrizko hizkuntzan, hizkuntza “naturalean”— zortzi pertsona bereiztea:

Astarloaren formulazioan, naturaren arabera adierazi behar den oro adierazteko, hizkuntzak ahalik eta baliabide formal gutxien erabiltzea eskatzen du ekonomiak. Honekin batera, Astarloak hizkien edo ezaugarrien (*características*) eta esanahien arteko bana-banako erlazioaren perfekzioa aldarrikatzen du. Ondorioz, erlazio honi

³⁶² “Tradiziozko teoria” eta “aspektu-denborazko teoria” deiturak Gómez (2001a) lanean erabiltzen dira lehen aldiz, zenbait ideia biltzen dituzten etiketa identifikatzaile gisa. Kasu bakoitzean ideia hauek biltzen dituen ardatza haien antzekotasun “tipologikoa” da; izan ere, paralelotasunarekin jarraituz gero, batzuetan ez dute inongo “ahaidetasun genetikorik” erakusten.

ekonomiaren hatsarrea erantsiz gero, Astarloak behin eta berriz aldezen du bereizkuntza batean ezaugarrietariko bat betiere ezaugarririk eza dela. Edo, egungo terminoetan emana, kategoria bakoitzean aurkaritzaren terminoetariko bat zero morfemak (\emptyset) markatzen duela. Areago, ezaugarririk gabeko hori oro har semantikoki markatugabea da (adibidez, numeroan singularra, kasuetan *paciente* edo absolutiboa, etab.). Astarloak gramatikaren kategoria eta azpikategoria guztietan ezartzen du ekonomia hatsarrea, sistema sendo eta zehatza lortuz.

Bestalde, zortzi pertsona bereiztea (1883: 424-426) bigarren pertsona singularra hirutan banatzeak dakar: eztabadako tratamendua (*cortés*), hitano (*familiar*) maskulinoa eta hitano femeninoa, alegia (ik. *infra* 10. taula). Bereizkuntza honek agerian jartzen dizkigu Astarloaren *a priori*-zko planteamenduak. Izan ere, aitorturiko helburuen arabera jatorrizko hizkuntzaren gramatika bilatzen ari delarik ere, argi dago alde zurretik euskara duela buruan eta ez dituela beti hain irizpide logiko eta naturalak erabiltzen. Horrela, bada, ekonomia hatsarrea pertsona-hizkiei ezarri baitie, Astarloak dio ezaugarririk eza, batetik, singularreko hirugarren pertsona egilean eta, bestetik, singularreko bigarren pertsona maskulino jasailean gertatu behar duela, naturak hala agintzen duelako gertatu ere:

Por la misma economía suponemos que el no tener característica alguna de persona el auxiliar, ha de ser señal de que el agente es tercera persona de singular, y el paciente la segunda masculina del mismo número. (Astarloa 1883: 465)

Honen arabera, adizki laguntzaile “ekonomikoena” *au* (\emptyset -*au*- \emptyset) ‘hau’ litzateke. Ondoko taula honek Astarloak (1883: 465-468) proposaturiko pertsona-hizki guztiak

aurkezten ditu, arazo konplexu edo zalantzazkoak argitu nahian oin-oharretan Astarloaren beraren pasarte batzuk gehitzen ditudalarik:³⁶³

	jasaila (<i>paciente</i>)	egilea (<i>agente</i>) / hartzailea (<i>recipiente</i>)
1	<i>n-</i>	<i>-t-, -t</i>
2c	<i>z-</i>	<i>-zu-, -zu</i>
2f ³⁶⁴	<i>∅-LAG-n</i>	<i>LAG-n</i>
2m	<i>∅-</i>	<i>-aa-, -k</i>
3	<i>d-, fam. ∅-</i> ³⁶⁵	<i>-∅ / -a-, -a</i>
1p	<i>g-</i>	<i>-gu-, -gu</i>
2p	<i>z-LAG-z</i>	<i>-zu(b)ee</i> ³⁶⁶
3p	<i>-z</i>	<i>-(b)ee</i>

Hamargarren taula: Astarloak proposatutako pertsona-hizkiak

³⁶³ Honako laburdura hauek erabili ditut: c = *cortés* (eztabadakoa), f = femeninoa, fam. = *familiar* (hitanoa), LAG = laguntzailea(ren erroa), m = maskulinoa, p = plurala.

³⁶⁴ Cf. “La segunda persona femenina tendrá por característica paciente la letra *n* pospuesta al auxiliar, á quien no antecederá persona alguna cuando esta persona es paciente, y cuando es agente ó recipiente, se conocerá por la característica de paciente que antecederá á dicho auxiliar” (Astarloa 1883: 466). Edo beste pasarte hau: “En la segunda conjugacion [*Au-na* — R.G.] se ven dos letras más que en la primera, esto es, la *n* y la *a*. La *n* es característica de segunda persona femenina paciente y la letra *a* es letra eufónica. Si la *n* se coloca despues de la radical *au*, y no ántes como lo tiene de costumbre el bascuence en todos los tiempos reales con las características de personas pacientes: el motivo es el no confundirse con la primera persona de singular paciente: por esto es que la *n* inicial es característica de primera persona paciente en el tiempo real y agente en el apostrófico; pero para que la *n* sea característica de segunda femenina ha de hallarse al fin ó en medio de dición” (1883: 716).

³⁶⁵ Cf. “La tercera persona será paciente en las conjugaciones cortesas cuando precede al auxiliar la letra *d*, y en las familiares no necesita de característica alguna ni para ser agente ni para ser paciente; de modo que cuando en estas conjugaciones no hay característica de agente ni de paciente, será señal de que una tercer persona de singular es el agente, y otra tercera del mismo número el paciente” (Astarloa 1883: 466). Edo beste pasarte hau: “otra tercera persona del mismo número singular paciente, caracterizada en la *d* inicial de dicho auxiliar [*d-eu-ts-a-t* — R.G.]” (Astarloa 1803: 150).

³⁶⁶ Cf.: “Las características de agente y recipiente, se pluralizan añadiendo á las letras que las indican, una doble *e* cuando tienen consonantes; pero siendo vocales se sustituyen por la dicha letra *e* doble” (Astarloa 1883: 466).

Azkenik, Astarloak datibo-ergatibo hurrenkera erlatiboaz ohartarazten du:

Las personas recipientes se distinguen de las agentes en que aquellas van colocadas inmediatamente despues del auxiliar, y por consiguiente anteriores á las personas agentes. (1883: 466)

Behin baino gehiagotan Astarloak iradokitzen du pertsona-hizkiak pertsona-izenordainetatik datozela (*z-* < *zu*, *n-* < *ni*, *g-* < *gu*):

En la tercera conjugacion [*Z-au* — R.G.] hallamos por característica paciente la letra *z*, nota de segunda persona cortés, como que viene del pronombre *zu*, usted. [...] En la cuarta conjugacion [*N-au* — R.G.] la característica paciente es la *n* y denota primera persona del singular, como que viene del pronombre *ni yo*. [...] En la sétima conjugacion [*G-au* — R.G.] la persona paciente se halla caracterizada por la letra *g* y nos dá á entender la primera persona del plural, como que es la misma *gu*, nosotros, suprimida la *u*. (1883: 716-717)

Edo izenordain erakusleetatik datozela, hirugarren pertsona hartzaileez den bezainbatean:

En la conjugación 18 [*Autza* ‘Aquél te le ha muerto’ — R.G.]³⁶⁷ la persona recipiente es tercera de singular indicada en la letra *a* final, que es nota de esta persona, pues es el mismo pronombre con que damos á entender el *aquel* de la lengua castellana. [...] y en la conjugación 20 [*Autzee* ‘Aquél te les ha muerto’ —

³⁶⁷ Astarloak, euskal aditz sistema osatze aldera, NOR-NORI-NORK izeneko paradigmán lehen edo bigarren pertsonako argumentu absolutiboa duten adizkiak “berreraiki” zituen. Gaztelaniaz halakoetan klitiko konbinaketak ezinezkoak direnez —cf. *María me (DAT) lo denunció* / ***María me (DAT) te denunció*—, Astarloak itzulpenak bortxatu egin behar ditu, klitikoen hurrenkera arrunta aldatuz: hortaz, uler bedi ‘Aquél (ERG) te (ABS) le (DAT) ha muerto’, eta orobat hurrengo adibideetan. Zabalak, erabilerari atxikiago, “conjugaciones anticuadas” izendatu zituen eta ohartarazi zuen ez direla erabiltzen (Zabala 1848: 8). Ik. halaber 213. oin-oharra.

R.G.] la tercera de plural es la que recibe, ó el dativo indicado por las dos *ee* que viene del pronombre *aeec*, aquellos. (1883: 718)

Astarloak ez ditu iraganaldiko (*tiempos apostróficos*, bere sisteman; ik. §1.5.4.2) komunztadura-hizki bereziak aipatzen —364. oin-oharreko bigarren aipuan bidena-bar agerturiko *n-* izan ezik—, ezta adizki irrealisen (*l-*) eta aginterazkoenak (*b-*) ere. Euskararen aditz-jokoa azaltzen duelarik, orainaldiko adibideak erabiltzen ditu nagusiki.

Laburbilduz, Astarloaren lanak euskararen komunztadura-hizkien tradiziozko analisiaren oinarrizko gai nagusiak agertu zituen; bide batez, ondoko autore batzuen lanetan baino askoz landuago agertu ere. Izan ere, aurreko paragrafoetan Astarloak honako gai hauek ezarri zituela ikusi dugu:

- a. Argumentu motaren arabera komunztadura-hizki desberdinak daudela ohartaraztea.
- b. Kasu bakoitzean zein hizki d(ir)en zehaztea.
- c. Pertsona-komunztadura hizkien jatorrian izenordainak daudela iradokitzea.
- d. Pertsona-komunztaduraren eta numero-komunztaduraren arteko nahasketa.³⁶⁸

³⁶⁸ B. Oyharçabalek (a.a.) gogorarazi didanez, kontuan izan behar da *sagarra jan dut* bezalakoetan (ez, ordea, *ondo afaldu dut* bezalakoetan, segurki) objektu-komunztadura badela, ageriko morfemarik ez izanagatik; baina ez pertsona-komunztadura, numero-komunztadura baizik (singularrekoa, noski). Horrelakorik ez onartzera, nekez azal dezakegu pluraleko komunztadurarekiko aurkaritza.

8.3 Aditz bakarraren teoria eta euskal aditzaren objektu-komunztadura

Ekin diezaiogun, bada, XIX. mendean euskal aditzaren objektu-komunztadura aztertzeko aditz bakarraren teoriaren ereduari jarraitu zioten saioen aurkezpenari. Oro har, proposamen hauen egileek berariazko ahaleginak egin zituzten euskal aditzak forma ugari dituela eta, halarik ere, sailkapen zeharo logiko, erraz eta erregular batean bil daitezkeela erakusteko. Egile hauetariko batzuek euskal aditza ikasteko erraztasuna ere aipatu zuten (Darrigol eta Inchauspe, kasu).

Ikusmolde logiko horren barruan, aditz iragankorrek betiere objektu-komunztaduraren hizkia badutela proposatu zen, are objektu jakinik ez dagoen kasuetan ere. Izan ere, bestela, adizki iragankorrek ez badituzte beti egilea eta jasailea barneratzen, zertarako ote?, zergatik haien orde ez erabili iragangaitzak?

8.3.1 Darrigol (1827)

Darrigolek ez zuen euskal aditzaren egitura Astarloak bezain xeheki aztertu. Aitzitik, aditzaren analisiak helburu garbia du harengan: euskarak bi aditz besterik ez duela erakustea (*n(a)iz* eta *dut*). Hala ere, bi aditzok, azken buruan, aditz bakar baten bi aldaeratzat har daitezkeela iradoki zuen (Darrigol 1827: 109; ik. halaber §7.5); eta badirudi honelaxe ulertu zutela Darrigolen gogaideek (ik., 323. oin-oharra).

Abiapuntu honen ondorioz, oroit bedi, Darrigolek proposatzen du adizki jokatuabeak ez direla benetako aditzak, izenak edo adjektiboak baizik; orobat, adizki trinkoak (*verbes subalternes* izendatzen dituenak) *niz* edo *dut* benetako aditzetariko baten eta adizki jokatuabe baten nahastearen emaitza baino ez direla. Hain zuzen ere, Darrigolek pertsona-hizkiei buruz eskaintzen dituen azalpen

bakarrak adizki trinkoen azterketa honen barruan kokatzen ditu, euren iturburua diren *niz* eta *dut* aditzekiko paralelismoaz ohartarazi nahi baitu, bere teoriaren bermetzat erabiliz (Darrigol 1827: 137 eta hh.):

et l'on verra d'abord que la première articulation, qui est l'expression du sujet, est constamment la même, soit dans les inflexions du verbe primitif (*niz*), soit dans les inflexions correspondantes du dérivé *nago*. Dans l'un et dans l'autre ce sont les initiales communes *n, h, d, g, c, d*. (1827: 140)

Aipu honetan esanak aintzat hartuz gero, irudi luke *d-* hirugarren pertsonako subjektu-markatzat hartzen zuela Darrigolek. Damurik, NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK paradigma “iragankorrak”³⁶⁹ aurkezten baditu ere, ez du objektu zuzenaren eta zeharkako objektuaren markei buruzko inolako oharrik egiten, eta ezin dugu jakin paradigma horietako *d-* aurrizkia pertsona-hizkitzat jotzen ote zuen, halakorik susma badezakegu ere.

³⁶⁹ Darrigolek darabilen terminologian “iragankor” terminoak esanahi bikoitza du: batetik, pertsona bat baino gehiago dituzten aditzak dira, bata nominatiboan (hots, absolutiboan) eta bestea(k) zeharkasuren batean; aditzaren esanahia pertsona batetik bestera “iragaiten” da (NOR-NORI paradigmari buruz ari delarik baino ez du adiera hau erabiltzen, letra etzanez erabili ere; ik. 1827: 118). Hauxe da, hain zuzen, besteak beste Larramendik darabilen adiera (Larramendi 1729: 170 eta hh.). Eta hauxe da, orobat, terminoaren lehen adiera, azken buruan, Priszianorenganaino gibeleratu daitekeena. Baina, beste alde batetik, Berpizkundeko latin gramatiketan nagusi da aditz iragankorren saila “aktiboen” barruan sartzea; hots, objektu zuzena dutenak dira iragankorrak (ik., Antzin Aroko eta Espainiako tradizioei buruz, Gómez Asencio 1985: 128 eta hh.). Denbora aurrera joan ahala, “aktibo” ezaugarri semantikoa eta “iragankor” ezaugarri sintaktikoa gero eta nahasiago agertuko ziren eta hori da Darrigolen lanean aurkitzen dugun bigarren adiera, adiera nagusia alegia. Larramendiren kasuan, honako aditz sailkapena dugu: aktiboak eta neutroak, eta aktiboen barnean bi aditz-joko absolutu (*dut*, *ditut*) eta hogeita bat aditz-joko iragankor edo erlatibo (NOR-NORI-NORK eta NOR-NORK paradigmegi dagozkienak).

Dakidalarik bederen, Darrigolen lanean agertzen da lehenbizikoz gramatika orokorrari jarraitzen dioten autoreek —eta ez hauek soilik— behin eta berriz errepikatuko duten iritzia, alegia adizki iragankorretan objektu-komunztadura beti adierazten dela:

Il a été dit que le mécanisme de ce verbe [transitive — R.G.] consiste à présenter toutes les combinaisons que peuvent exister entre les pronoms *je, tu, vous, il, nous, vous, ils*; de telle sorte que chacun de ces pronoms paraisse successivement en nominatif, en régime direct et en régime indirect.³⁷⁰ Conformément à cette doctrine, nous n’aurions pas le moyen de traduire les formules françaises *j’ai, tu as, il a, &c.*; car notre verbe transitif, pris dans toute sa force, renfermant toujours l’expression d’un complément déterminé, les formes *duc, dut, du, [sic]* ne disent pas seulement *j’ai, tu as, il a, &c.*, leur sens est, *je l’ai, tu l’as, il l’a, &c.* Mais rien n’empêche qu’on ne fasse abstraction de tout complément déterminé; et c’est en effet par le moyen d’une abstraction autorisée par l’usage, que nous disons, *jan dut* (j’ai mangé), *ikhusi dut* (j’ai vu), *entçun dut* (j’ai entendu), &c. (Darrigol 1827: 137)

Ordea, harrigarria badirudi ere, sintaxiari buruzko atalean euskal aditza objektuarekin numeroan komunztadura dela aipatzen du, baina ez du deus ere esaten objektuekiko pertsona-komunztadurari buruz (cf. §3.4.5).

³⁷⁰ Cf. “Affirmer l’influence la plus étendue que se puisse imaginer, l’action la plus générale possible d’un sujet sur un autre, telle est la valeur première et la fonction essentielle de notre verbe actif. Renfermer en soit les pronoms tant singuliers que pluriels des trois personnes; épuiser avec un laconisme parfait toutes les combinaisons mathématiquement possibles entre les six pronoms personnels, en les présentant d’abord deux à deux, puis trois à trois; exprimer, avec une facilité qui étonne, une variété qui enchante, une rapidité d’expression que rien n’égale, toutes les attitudes ou situations respectives que peuvent prendre ces divers pronoms, employés en sujet et en complément, en complément direct et en complément indirect; tel est le mécanisme intéressant et la richesse singulière de ce verbe incomparable” (Darrigol 1827: 125-126). Pasarte honetan “aktibo” deitzen badio ere, hamar bat orrialde beherago “iragankor” berba erabiliko du (cf. aurreko oharrean

8.3.2 Chaho (1836)

Aurreko kapituluan (§7.7) ikusi dugunez, Chahok ere euskal aditzaren bikoiztasuna onartu zuen, Lécuse-k (1826) eta Darrigolek proposatu zuten bezala. Baina, Chahoren iritziz, *dut* ez da *niz*-en aldaera bat baizik. Chahok uste du euskarari aditz bakarria dagoela: *iz*; aditz hau, gainera, izen bat da jatorriz: *hitz*. Egia esan, Chahok bere gramatikan hitz kategoria bakarria onartzen du, izena.

Halaber, Darrigolek adizki iragankorrek objektua beti adierazten dutela ohartaraztea besterik egin ez zuelarik, Chahok, horrekin batera, uste hau berretsi nahi duen analisi formala eskaintzen du eta, aldi berean, adizki iragangaitzak eta iragankorrak aditz bakar baten aldaeren multzoan biltzen ditu:

L'on a dit que la langue euskarienne reconnaît deux verbes *Niz* et *Dut*, je suis et j'ai. Cette assertion n'est exacte que sous un point de vue de division grammaticale. Il est certain que la forme *Dut* n'est que la troisième personne du verbe *Niz*; *da*, avec combinaison d'un double rapport: *dahoura* lui est, il est: le *t* final exprimant une relation personnelle à l'individu qui parle. *Dut* signifie en définition, lui est à moi, je l'ai, j'ai. Voilà la vraie raison pour laquelle la conjugaison de *Dut* emporte l'expression d'un régime j'ai, je l'ai. (Chaho 1836a: 82)

Esan nahi baitu, *dut* adizkiaren osagaiak hurrengo hauek lirake: *da* adizkia, *houra* 'hura' erakuslea eta *-t* lehen pertsonako hizkia. Gauza bertsua gertatzen da iraganaldian eta aginteran. Lehenari buruz hauxe dio: "Le passé de *Dut*, *nian* ou *nuen*, j'avais je l'avais, offre dans sa décomposition syllabique *nihurane*, lui, était de moi: ainsi des autres modes" (Chaho 1836a: 82). Analisi konplexuagoa da, beraz,

esandakoa).

iraganaldirako proposatzen duena: *nian / nuen* = *ni* + *houra* + *ne*. Aginterari dagokionez, azkenik:

L'impératif de *Dut*, *ezak ezadak*, qui n'a jamais de valeur que comme forme auxiliaire, dérive de l'impératif *iz* avec déterminante *a* et relation *k*; il s'écrit *izak*, *izadak*, dans la plupart des dialectes, et se combine avec les noms actifs pour compléter la conjugaison. (Chaho 1836a: 82)

Alegia, *ezak* adizkia *iz* aginterakoaz, *a* mugatzaileaz eta *-k* bigarren pertsona maskulinoko hizkiaz osaturik dago.³⁷¹

Chahok paradigma ugari eman zituen bere lanean, baina ez zuen adizkien morfologia egituraren azterketa zehatza burutu. Ohar bat edo beste eskaini zigun han-hemen, besterik ez; esaterako —goraxeago azaldutakoez gain eta kapitulu honetako gaiari dagokiolarik—, baldinkerako hirugarren pertsonan *l-* *d-*ren lekuan dagoela dio (Chaho 1836a: 72).

8.3.3 Inchauspe (1858)

Inchauspek euskararen aditz bakarra bi “bozetan” sailkatzen du: iragankorra eta iragangaitza (ik. §7.8). Inchauspek adizki iragankorrek objektua nahitaez adierazten

³⁷¹ Bidenabar esanda, Chahok beste argudio bat ematen du *niz* eta *dut*-en batasunaren alde: *niz*-en forma alokutiboak eta *dut*-en bigarren pertsonakoak berdin-berdinak dira (ik. Chaho 1836a: 82):

<i>Nuzu,</i>	vous m'avez (vous singulier).
<i>Nuzu,</i>	je suis (vous dis-je, vous singulier).
<i>Nuk,</i>	tu m'as (toi masculin).
<i>Nuk,</i>	je suis (parlant à toi masculin).
<i>Nun,</i>	tu m'as (toi féminin).
<i>Nun,</i>	je suis (parlant à toi féminin).

dutelako uste ezaguna errepikatzen du, baina ez du haren aldeko argudiorik ematen: “DU exprime toujours une relation avec un objet autre que le sujet et demande un complément direct” (Inchauspe 1858: 22).

Darrigolek eta Chahok ez bezala, Inchauspek subjektu, objektu zuzen eta zeharkako objektuaren markak azaltzeko atal bat eskaintzen du (Inchauspe 1858: 435-439). Lehenik, begien bistako kasuetan (batik bat pluralekoetan) pertsona-izenordainekiko erlazioa iradokitzen du (*n-* eta *ni*; *h-* eta *hi*; *g-*, *-gu* eta *gu*; *z-*, *-zu* eta *zu*; *z-*, *-zie* eta *ziek* ‘zuek’). Bestalde, hirugarren pertsonako subjektuari dagokionez, Inchauspek honako hizki hauek proposatzen ditu: “*D*, *L* ou *Z* initiales pour les deux voix; l’impératif a de plus le *B* initial” (1858: 436). Hala eta guztiz ere, ez du *d*-aurrizkia egiazko pertsona-hizkitzat jotzen, sendogarri artikulatortzat baizik. Hasierako kontsonante hori ez dela orainaldiko hirugarren pertsonako adizki guztietan agertzen du irizpide:

La troisième personne indéfinie est la plus simple dans toutes les formes, et elle semble devoir être considérée comme étant la forme radicale. Cependant, il serait possible que la forme radicale primitive fût plutôt A, U, et que la D, dans *da*, *du*, eût été introduit pour donner aux voyelles *a*, *u*, une articulation plus distincte et plus forte. Ce qui donnerait du fondement à cette opinion, c’est la disparition du D dans la composition des terminatifs; ainsi de *da*, il est, on a fait: *záit*, il est à moi; *záiku*, il est à nous; *záyo*, il est à lui; et le Biscayen, au lieu du *z*, emploi le *y*: *yat*, *yaku*, *yako*. Le D de la voix transitive DU se conserve plus généralement dans les terminatifs; cependant, il disparaît aussi dans certains terminatifs; ainsi on dit *nai* ou *nau*, pour exprimer il a moi; *hai*, *hau*, pour il a toi. Ces terminatifs sont composés de *ni*, moi; *hi*, toi; et du verbe DU ou U, AU. (Inchauspe 1858: 437)

Azkenik, hirugarren pertsonako objektu zuzenaren hizkiei buruz ari delarik, ez ditu aurrizkiak errepikatzen eta “adizki sinple edo zehaztugabeen” bidez adierazten direla baino ez du aipatzen:

La troisième personne du singulier, exprimée en français par *le, la*, et les régimes directs animés ou inanimés indiqués par les mêmes articles, se rendent *par la forme simple ou indéfinie* (Inchauspe 1858: 438; azpimarratua nirea da)

Halaxe egitea espero genezake, kontuan hartzen badugu lehentxeago aurrizkiak subjektuaren markatzat hartu dituela eta, beraz, ezin dituela orain objektu zuzenaren markatzat ere jo.

8.3.4 Bonaparte (1869, 1876, 1877)

Bonaparteren aditz teorian toki berezia dute Printzeak “aditz-bukaera hutsak” izendatuek, *dut*-en paradigmakoek alegia (ik. §7.9). Honelako adizkiek, oroit gaitezen, ez dute inolako errorik eta, besteak beste, izenordainez eta bestelako hizkiez osaturik daude. Halaber, Darrigol, Chaho eta Inchauspek bezalatsu, Bonapartek uste du aditz-bukaera hutsetan objektu zuzena beti adierazten dela, baina horretarako proposatzen du adizkiotan erakuslea (*dau* eta haren aldaerak) agertzen dela.

Horrenbestez, Bonapartek ez ditu hirugarren pertsonan agertzen diren aurrizkiak pertsona-markatzat hartzen, bere teorian pertsona-hizki guztiak izenordainak baitira, ez dezagun ahaztu. Oroitarazi berri dudanez, *d*- erakuslearen zatia da; aldiz, *z*- eta *l*- “letra erredundanteen” sailean sartuko lirateke, Printzearen aburuz:

Le *d* préfixe qui se trouve au présent de l’indicatif à régime de troisième personne et aux temps qui en dérivent, disparaît au passé et aux temps du même type. A la troisième personne on a un *z* redondant, qui à son tour se change en *l* au présent du conditionnel, au présent et aux futurs du potentiel conditionnel, ainsi qu’aux suppositifs et aux optatifs correspondants. (Bonaparte 1869b: xi)

Irudi luke, bada, aurreko pasarteak nolabaiteko bilakaera iradokitzen duela: *d-* > *z-* > *l-*, alegia. Azkenik, aginterako *b-* aurizkia *ba* baieztapenetik eratorritzen du: “Nous avons en outre la suppression du *d* initial, et à la troisième personne l’addition de la syllabe affirmative *ba* fondue avec le terminatif: *dezan*, *beza*” (Bonaparte 1869b: 158). Izan ere, Bonaparteren analisisan hirugarren pertsonako subjektuaren marka berez \emptyset da beti; gogoan izan bedi objektuaren marka *dau* erakuslea dela, dituen aldaera guztiekin izan ere:

Que le *z* et le *l* de la troisième personne des temps passés et conditionnels soient rédundants [*sic*], en tant du moins qu’ils n’expriment pas le sujet, c’est ce qui est amplement prouvé par le bisciaïen qui supprime très-souvent ces consonnes initiales. Le sujet est toujours supposé être de troisième personne lorsqu’il n’est ni de première, ni de seconde. (Bonaparte 1877: 45)

Bonapartek bere lehenbiziko lanetatik azpimarratu zuen euskararen objektu zuzenak dukeen berezitasuna: adizki iragankorretan beti adierazi behar da objektua, objekturik ez dagoelarik ere: “En basque la voix transitive du verbe est toujours objective pronominale” (Bonaparte 1862: 22). Honen aldean, zeharkako objektua guztiz kontrako egoeran legoke: perpausean zeharkako objektua dagoelarik ere, gerta daiteke, Iparraldeko euskalkietan behinik behin, aditzarekiko komunztadurarik ez izatea. Gertakari hau, Printzearen ustez, gazteleraren klitiko-bikoizketarekin lot daiteke, gazteleran euskararen eraginagatik gertatu baita; Iparraldeko euskalkietan, aldiz, klitiko-bikoizketarik ez duen frantsesaren eraginez gerta daiteke komunztadurarik eza (Bonaparte 1862: 23; gai honen beste azterketa baterako, ik. Ortiz de Urbina 1994).

8.3.5 Campión (1884)

Campiónek funtsean Bonaparteren aditz-teoriari jarraitu zion. Haatik, Printzearen ideietatik urrundu zen *z-*, *l-*, *b-* aurrizkien etorkiari dagokionez; izan ere, Campiónen ustez, aurrizkiok antzinako izenordainen aztarnak liriateke:

La conjugación nos revela la existencia de un sistema de pronombres más rico que el actual, con serlo tanto. Incorporados al verbo se han salvado de una total sumersión uno de primera persona, *t—d* «yo» y tres de tercera *z*, *l* y *b*, además de varios sufijos de pluralización ó abundanciales que yá no entran en la composición ni derivación nominal (Campión 1884: 787-788)

Halaber, Campiónek Bonaparteren aditz-teoriaren arazo nagusietariko bat berraztertu zuen: *dut*-en paradigmán objektu zuzena markatzeko (*d*)*au* erakuslea azaltzen den ala ez. Zabalaren (1848) eta, beroni jarraituz, van Eysen (1875, 1879) proposamenaren bertsio aldatu batean oinarritzen da; autore hauen iritziz, *dut*, *du*, etab. *daukat*, *dauka* eta abarren laburketak baino ez dira. Campiónek, aldiz, *eu* “erroa” dela *euki*-tik datorrena uste du: “EU está tomado de EUKI directamente, no de EUKI yá conjugado, como suponen Zabala y Mr. Van Eys” (Campión 1884: 792). Eta, gainera, *euki*-ren etimologia proposatzen du; ‘honekin’ esanahia izango zuen:

Su etimología parece ser la siguiente: EU variante de au «ésto» y KI, nombre primitivo que, á juzgar por sus derivados, significa «compañía, reunión[»], ú otro concepto análogo (Campión 1884: 792)³⁷²

³⁷² Kontuan izan bedi zenbait urte lehenago Bonapartek (1877: 43) iradoki zuela *-ki* aditz atzizkia (*eduki*, *egoki*) eta *-ki(n)* deklinabide atzizkia gauza bera direla eta, hortaz, biek ‘kidetasuna’ esan nahi dutela.

Hau da, *ni euki* ‘yo con esto’ eta *nik dut, nik daukat* ‘yo he, yo tengo’ pare-pareko adierazpenak lirateke.

Baina non sartzen da *d*- aurrizkia proposamen honen barruan? Campiónek uste du *deus*-etik datorrela, hitz hori erromantzetiko mailegu garbia dela konturatu gabe. Irtenbide honen bitartez, Bonaparteren (eta Darrigolen, Chahoren eta besteren) iritzia salbatu ahal du, alegia adizki iragankorretan objektuarekiko komunztadura beti dagoelakoa —nahiz ez duen arazoa zehazki azaltzen— eta, abiapuntu horretatik, hipotesi tipologiko ausart bat plazaratzen du:

En cuanto al origen de la *d* aventuraré una hipótesis: que es un resto del vocablo DEUS «algo» [...]. Mi hipótesis presupone el hecho, también del todo hipotético, de que la lengua euskara ha pasado por un período de incorporación [...]. La incorporación, por lo tanto, correspondería á la infancia de la raza euskara. (Campión 1884: 795)

8.3.6 Azkue (1891)

Aditz bakarraren teoria aldez edo moldez baliatu zuten autoreekin amaitzeko, Azkueren *Euskal Izkindea* (1891) gramatika-liburuaz zertxobait azaldu nahi nuke. Gorago azaldu dudanez (ik. §7.10), Azkueren lan honen iturri nagusia Astarloaren *Diskurtso filosofikoak* dira. Alabaina hainbatetan Azkuek Astarloaren proposamenak gainditzen ditu, ustezko jatorrizko euskara berreraikitzen ahalegintzen baita, erabilera praktikora eramateko asmoz.

Astarloarengandik abiatzen den ideia bati jarraituz (cf. §8.2), Azkuek ere pertsona-komunztadura hizkiak pertsona-izenordainekin erlazionatzen ditu, *-t* atzizkiak³⁷³ zalantzak dituela aitortzen badu ere. Hirugarren pertsonako objektuaz den bezainbatean, urrundik ere Benveniste-ren formulazio ospetsua gogora ekartzen duen honako hau dio:

Las cosas singulares ó las llamadas terceras personas¹ [1Muchas veces no suelen ser personas; *locutivos* nunca. Véase el párrafo 205.] solemos indicarlas con tres elementos: *d*, *b* y *l*. (Azkue 1891: 185)³⁷⁴

Ondoren, aurrizki bakoitzaren banaketa zehatza ematen du eta, geroztik, Campiónek proposaturiko izenordain-jatorriarekin bat dagoela adierazten du:

¿Qué son, pues, *b*, *l* y *d*? ¿Cuál es su origen? Yo no lo sé.

Entre todos los pareceres que conozco, el de Campión es á mi juicio el que anda más cerca de la verdad: dice el escritor nabarro que parecen rastros de pronombres perdidos. (Azkue 1891: 203)

8.4 Teoria pasibista

Jatorriz, teoria pasibista XIX. mende hondarrean sortzen da, zenbait hizkuntzaren morfologia ergatiboari azalpen berri bat eskaintzeko asmoz; izan ere, latin gramatikaren ereduak markatzen zuen nominatiboa eta subjektua lotzeko joera handiegia baitzen oraindik ere. Aurrenik, Kaukasoko hizkuntzetan ezarri zen

³⁷³ Bestalde, *-k* eta *-n* atzizkiei dagokienez, Azkuek, guztiz Astarloaren erara eta zehazki Errori jarraituz, ‘sendotasun’ (1891: 110) eta ‘ahultasun’ (1891: 183) esanahiekin lotzen ditu, hurrenez hurren: “*N*, a juicio del escritor de Erro, suele indicar debilidad y cuadra bien á hembras”.

³⁷⁴ Gogoan har bedi *z-* ez duela aipatzen gramatika bizkaieran oinarritzen duelako eta iritzi

pasibotasunaren teoria eta geroxeago sartu zen euskalaritzan, lehenbizi Müller-en (1885) eta ondoren, xehetasun handiagoz, Stempf (1890) eta Schuchardt-en (1893) eskutik. Hein handi batean Schuchardten ospeak hartaraturik, hainbat euskalari, atzerritarrak batik bat, teoria pasibistari atxiki zitzaizkion, iragan mendearen 60etako hamarkada arte nolabaiteko dotrina bihurtu zelarik, “une espèce de dogme” Oyharçabalek (1991: 966) dioskunez.³⁷⁵ Pasibismoaren teoriak honako puntu hauek proposatzen ditu (erabilitako argudioen zehaztapena alde batera utziko dut oraingoan):

- a. Aditza subjektuarekin komunztatzen da.
- b. “Nominatiboa” (hots, absolutiboa) da beti perpausaren subjektua, bai perpaus iragankorretan, baita iragangaitzetan ere.
- c. Ondorioz, perpaus iragankorretan aurkitzen duguna subjektu jasailea baino ez da. Hortaz, egitura pasiboak dira eta aditza aditz pasiboa dugu.
- d. Azkenik, ergatiboa egile-osagarritzat hartzen dute, latineko egile-ablatiboaren antzera eta instrumentaletik oso gertu.

Tesi-lan honetan nabarmendu nahi nukeena hauxe da: absolutiboa beti subjektutzat jotzen dutenez, eta aditzaren eta subjektuaren arteko komunztadura derrigorrezkotzat hartzen dutenez, absolutiboarekiko komunztadura —hots, “gure” objektu zuzenarekiko komunztadura— nahitaezkoa da teoria honen barruan. Teoriaren alderdi honek aditzaren pasibotasuna hein batean Darrigolek-eta

garbizaleek hartara eramaten dutelako.

³⁷⁵ Euskalaritzatik at ere izan zen egitura ergatiboaren pasibotasunari buruzko eztabaida; ik. Seely

adierazitako analisiarekin lotzen du. Ildo honetatik Oyharçabalek (1991) ohartarazi digu teoria pasibistaren eta aditz bakarraren teoriaren arteko loturez eta Chahoren gramatika-lanean aurkitu ditu, hain zuzen ere, “les premiers éléments de la théorie de la passivité” (1991: 969).

8.4.1 Stempf (1890)

Areago dena, Stempf-ek berak aitortzen du Chahok egindako *dut*-en analisisa (oroit bedi, *da+houra+t*) izan duela abiapuntu; hau da, euskarak ez duela egiazko adizki iragankorrik, denak direla *izan*-en adizkiak (Stempf 1890; *apud* Oyharçabal 1991: 969, 12. oh.). Orobat, Chahok aditz bakarraren alde eskainitako beste argudio batzuk ere aurki ditzakegu Stempf eta Schuchardten lanetan euskal aditzaren pasibotasuna aldezteko, hala nola (Oyharçabal 1991: 970-972):

- a. **Ezan*-en adizkiak *izan*-en paradigmaren barruan sartzea (Bonaparteren ideiekin ere zuzenean lotuz: ik. §8.3.4).
- b. *Niz*-en paradigmako adizki inplikatioak eta alokutiboak (*zaitugu; nauk, dun...*) *dut*-en paradigmakoekin parekatzea. Gogora bedi Chaho ere ohartu zela honetaz (ik. *supra* 371. oharra).

Hala ere, Chahok edo Bonapartek ez bezala, Stempf-ek ez du *-u-* erroa erakusletzat hartzen, *ukan* aditzaren errotzat baizik. Proposamen hau Vinsonek plazaratu zuen lehenbizikoz, Bonaparteren eta van Eysen³⁷⁶ teoriei erantzuteko hain

(1977: 197-199).

³⁷⁶ Van Eysen, lehenbiziko lanetan behinik behin (1874, 1875), *dut*-en paradigmako adizkiak *eroan-*

zuzen ere. Horrela bada, adizki iragankorretarako Stempf-ek ematen duen analisiak garbiro Darrigolez geroztik adizki trinkoetarako eman zena dakarkigu gogora (Stempf 1890: 4-8; *apud* Oyharçabal 1991: 972-973):

i.	<i>nauzu</i>	= <i>naiz</i>	+ <i>ukan</i>	+ <i>zuk</i>	
	tu m'as	= je suis	+ eu	+ par toi	
ii.	<i>nintuzun</i>	= <i>nintze(n)</i>	+ <i>ukan</i>	+ <i>zuk</i>	+ <i>n</i>
	vous m'aviez	= j'étais	+ eu	+ par vous	
iii.	<i>nakarzu</i>	= <i>naiz</i>	+ <i>ekar</i>	+ <i>zu</i>	
	vous me portez	= je suis	+ porté	+ par vous	

8.4.2 Schuchardt (1893, 1895, 1923)

Ezer baino lehen, ohartarazi behar da Schuchardtek ez dituela erabiltzen Stempf-ek hain gogoko zituen goiko asmakuntza horien gisakoak (Oyharçabal 1991: 973). Azter dezagun orain pasibotasunaren aldeko azaltzen zaien hurrengo arazo hau: pasibisten ustez, subjektuak —betiere nominatibo-absolutiboan markatua— aditzarekin komunztatu behar badu eta, aldi berean, laguntzaile iragankorren (*du*) hirugarren pertsonako “subjektuarekiko” komunztadura hori markatzeko erakuslea dagoela (*-u-* osagaien alegia) arbuiatzen badute, nola burutzen da, orduan, hirugarren pertsonako “subjektuarekiko” komunztadura adizki “pasibo” edo iragankorretan? Schuchardten konponbidea tradiziozko teoriara itzultzea da: alegia, *d-* aurrizkia izenordain-jatorrikoa dela proposatu eta, bestalde, *-u-* osagaia aditz-errotzat, zehazkiago *ukan*-en errotzat, hartzea. Ikus ditzagun Schuchardten (1895: 208) adibide batzuk:

en forma laburtuak zirela proposatu zuen.

- i. *darot* (=dit) = *da du (ki) t*
 cela avoir à moi
- ii. *dakot* (=diot) = *da (du) k(i) o t*
 cela avoir à lui moi

Izan ere, Vinsonek analisi hauxe hartzen du, besteak beste, pasibotasunaren aurkako argudioen artean:

Quand on traduit *du* «il l'a», l'expression manque du signe du sujet, puisque *u* est le radical «avoir» et *d* le pronom régime de troisième personne; quand on le traduit comme M. Schuchardt «il est eu par lui», c'est l'instrumental «par lui» qui fait défaut, ce qui est beaucoup plus difficile à comprendre. D'autre part, le pronom régime direct de troisième personne, pour nous, c'est-à-dire le sujet de M. Schuchardt, manque absolument aux formes de l'imparfait. Tout cela est fort étrange. (Vinson 1895: 81)

Vinsonen azken baieztapen hau egoki ulertzeko, esan behar da Schuchardtek ez zituela orainaldiko adizkiak bakarrik aztertu eta aurrizki bakoitzaren jatorria proposatzen ahalegindu zela, orainalditik eta aginteratik kanpo izenordainen aztarna gutxi aurkitzen duelarik ere, itxuraz bederen. Zernahi gisaz, Schuchardten analisiok aski arrakastatsuak izan ziren hurrengo urteetan eta, gehienak Lafonek (1943) onartu ondoren, bat edo bestek egun arte iraun du. Jarraian, aurrizki bakoitzaren analisiak Schuchardtez geroztik izan duen bidea laburtuko dut:³⁷⁷

- a. *D(A)*:- Agertu berri ditudan adibideetan ikusi ahal denez, Schuchardten (1893 [1972: 271]) iritziz, **da* hirugarren pertsonako antzinako izenordaina izan zitekeen. Ildo bertsutik, Jacobsenek (1975) **do* hirugarren pertsonako antzinako izenordaina berreraiki zuen, hortik *d-* eta dat. *-o* markatzaileak esplikatzen nahian. Geroxeago, Traskek (1977) *d-* aurrizkia aspektu

progresiboaren edo ez-burutuaren markatzat hartu zuen; cf. *dator* (progresiboa) vs. *etortzen da* (ohiturazkoa), baina ing. *he comes* (ohiturazkoa) vs. *he is coming* (progresiboa).

- b. *Z-*: Schuchardtek (1893 [1972: 222-223]) hedapen analogikoa proposatu zuen hemen, *zan*-etik abiatu zelarik; adizki honetan *z-* osagaia *izan*-en erroaren zatia litzateke. Analogia *za-n* → *z-an* berranalitik abiatuko litzateke, lehenik *z-* aurrizki berria *z-uen* adizkira eta, geroago, gainontzeko aditzetara hedatuko zelarik.
- c. *L(E)-*: Uste dut Schuchardtek (1923 [1947: 44-45]) iradoki zuela aurreneko aldiz *l-* aurrizkia *ahal*-en arrastoa izan zitekeela.³⁷⁸
- d. *B(E)-*: Schuchardtek (1923 [1947: 56]) aurrizki hau hirugarren pertsonako *bera* izenordainekin lotu zuen, lehenago van Eysek bezala (1865: 59, 1867: 104; cf. §5.4.8).

8.5 Tradiziozko teoria

Ikusi dugunez, aditz bakarraren aldeko azken autoreak (Camiñón eta Azkue: ik. §§8.3.5 eta 8.3.6) eta pasibotasunaren aldekoak, azken buruan, tradiziozko teoria izendatu dudanarekin elkartzen dira: izan ere, haiek guztiek *d-*, *z-* (*ø-*), *l-* eta *b-* aurrizkiak hirugarren pertsonako (izenordain-)markatzat hartu zituzten. XIX.

³⁷⁷ Xehetasunetarako ik. Gómez & Sáinz (1995: 254-256).

³⁷⁸ Cf. orain Aldairen (1998, 2001) hipotesia; autore honen arabera, *l-* aurrizkiaren etorkia hirugarren graduko erakuslea izango litzateke, **hal* (> **har*) alegia. Dena dela, Aldairen ustez, aurrizkiaren eginkizun zaharra inpersonal ez-burutua markatzea litzateke; cf. fr. *on*, gazt. zah. *omne* < lat. *homine(m)*; al. *man* < *Mann* ‘gizon’; gazt. mod. *uno* ‘bat’, etab.

mendeko beste egile batzuek ere aldarrikatu zuten, esplizituki edo inplizituki, aurrizkiok pertsona-hizkiak zirela, hala nola Lécuse, Zabala, Lardizabal, Vinson, van Eys, Ribáry, etab. Azken hau hartuko dut hizpide, alde batetik, ziur aski aipatu guztietarik ezezagunena delako eta, bestetik, zenbait proposamen interesgarri egin zituelako. Ondoren, XX. mendean oso eragin handia izan zuten Azkueren morfologian (1925) eta Lafitte-ren gramatikan (1944) agerturiko iritziak laburtuko ditut, tradiziozko teoriaren erakusgarri.

8.5.1 Ribáry (1877)

Ferencz Ribáry hungariarra zen eta hungarieraz idatzi zuen bere euskal gramatika. XIX. mendearen bigarren erdiko euskalarien artean erdietsi zuen entzutea, urri samarra izanik ere, Vinsonek eginiko frantses itzulpenari zor zaio eta, batik bat, itzulpenarekin batera Vinsonek berak idatziriko sarrera eta ohar osagarriei, Bonaparteren erantzuna merezi izan baitzuten (Bonaparte 1877c). Ribáryren datu-iturri nagusiak Larramendi eta Lardizabalen gramatikak dira eta, euskararen gaineko hausnarketei dagokienez, Mahn-en liburuxka (1875), ordea.

Nabari da Ribáryk ez dakiela euskaraz ia ezer, ezta euskalaritzaren aurreko tradizioaz ere, eta honek hurbilketa arras berria baina, aldi berean, aski nahasia sorrarazten dio. Hori dela-eta, liburuan zehar nahiko kontraesan eta iritzi aldaketa aurkitzen ditugu; analisi xehe batek erraz arbuiatzen dituen proposamen burugabeak han-hemen sakabanatzen ditu, eta erabat garatzen ez duen zorioneko intuizio bat edo beste ere kausi dezakegu.

Esate baterako, lehen pertsonako *-t* atzizkia *denik* edo *dunik* formen laburketa delako proposamen harrigarria Mahn-engandik hartzen du (Ribáry 1877: 31). Halarik ere, aldi berean *-da* atzizkian “1. pertsonako izenordain zahar baten datiboa” ikusi uste du (1877: 37). Jakina, egun badakigu lehena bigarrenetik datorrela.

Aurrizkiei dagokienez, ahal den neurrian izenordainetatik eratortzen saiatzen da —gainerako pertsonetako hizkietan aski garbi ikusi duena—, noizik behin ustekabeko emaitzak lortzen dituelarik:

- a. *D-*: objektu zuzenaren markatzailea delakoan dago, antzinako izenordain baten aztarna izanik (Ribáry 1877: 32-33).
- b. *Z-*: proposamen ezin gaurkoagoa dakar (cf. Gómez & Sáinz 1995: 255, 266):

la dérivation du suff. de 3^e pers. est obscure, le *z* ou *se* ne peut se tirer de *ark*: on pourrait songer au pronom *zer*, *zerk* «lequel, quoi», mais c’est vraiment à peu près impossible. (Ribáry 1877: 46)

- c. *B-*: Lafonen iritzia aurreratzen du, itxuraz bederen:

Le *b* des 3^e pers. sing. et plur. est identique avec le préfixe *ba*, qui exprime le désir [*sic*], comme en français la conjonction *que*; ainsi *beza* = «qu’il ait», *bédi* = «qu’il soit». (Ribáry 1877: 48)

8.5.2 Azkue (1925)

Tradiziozko teoria XX. mendearen lehen erdian eraginik handiena izan zuten bi gramatiketan ere aurkitzen dugu: Azkueren morfologian (1925) eta Lafitte-ren gramatikan (1944), hain zuzen. Azkuek aurrizkien distribuzioaren berri ematen du egoki, baina guztiak “características de paciente” direla dio:

En las terceras personas hay varias características: 1^a *d* en indicativo, subjuntivo y potencial próximos: *dator* viene, *datoréla* que venga, *datorke* puede venir. 2^a *z* en

los mismos modos remotos: *zetořen* podía venir. En dialecto B la característica de esas flexiones es cero en casi todos los verbos conjugables: *etořen*, *etořela*, *etorkean*. 3^a *b* en imperativo: *betor* venga, siendo de advertir que tal elemento paciente, en la mayoría de los pueblos del B, sólo se usa hoy en tratamiento de *berori* vuesa merced [...]. 4^a *l* en hipotético, condicional y potencial remoto: *baletor* si él viniera, *letorke* él vendría, *etoři leiteke* pudiera venir. Las terceras personas plurales tienen las mismas características. Se distinguen de las flexiones singulares en el elemento pluralizador *z* de los pacientes y *e* de los agentes. (Azkue 1925: 539-540)

Aurreko aipua hobeki ulertzeko, ohartarazi behar nuke Azkuek *Euskal Izkindean* (1891) erabili zuen aditz-denbora hurbilen eta urrunen (*próximos* eta *remotos*) arteko bereizketa *Morfologían* ere badarabilela: *dakart* / *nekarren* (cf. Azkue 1925: 529).

Azkuek aurrizkien etorkiari buruzko aurreko proposamen batzuk berrikusten eta iruzkintzen ditu:

- a. Schuchardten (1893) *z*-ri buruzkoa (ik. §8.4.2) aipatzen du, baina ez du inolako iritzirik ematen; pentsa genezake, beraz, Azkuek *z*-aurrizkiaren etorki analogikoa onartzen duela.
- b. Campiónen (1884: 794) *d*-ri buruzkoa (ik. §8.3.5) kritikatzeko du, *deus* —*ezer* bezala eta *zerbait* ez bezala— ezezkako polaritadedun testuinguruetan baino ezin baita agertu, gaurko hitzez adieraztea zilegi bazait. Onartzen du, ildo beretik, Schuchardtek proposaturiko etimologia: *deus* < proventzerako *degus* ‘inor ez’.³⁷⁹

³⁷⁹ *Deus*-en etimologiaz, ik. Agud & Tovar (1991: s.u.).

- c. Schuchardten *d*-ren gainekoari harrera ona egiten dio. Areago dena, Azkuek egoki deritzo aitzineuskarako osagaien (*elementos prevascos*) zerrenda zabaltzeari, *l*- aurrizkia eta *-z* pluralizatzaila ere sartuz. Izan ere, Azkueren ustez, hiru osagai hauek ez dute gaurko izenordain-sisteman inongo kiderik, aginterako *b*- aurrizkiak ez bezala: *berau*, *berori*, *bera*, hain zuzen (Azkue 1925: 542; baina ik., horren kontra, Gómez & Sáinz 1995: 255-256).
- d. Bonaparteren *-o-* eta *d*-ri buruzkoak (ik. §8.3.4 eta 348. oh.) ez ditu onartzen; Azkuek ez du uste bi hizkiok erakusleetatik datozenik.
- e. Azkenik, Bonaparteren *b*-ri buruzkoa ere (*beza* < *ba* + *dezan*; ik. orobat §8.3.4) arbuiatzen du. Azkueren ustez, *b*- aurrizkia baieztapenetik baletor, ezin izango lirateke aginterako adizkiak ezeztapenarekin batera erabili, bere iritziz adizki bakarra osatzen baitute. Hortaz, “*ezbedi (ezpedi)*” (Azkue 1925: 542) bezalako forma batean kontraesan bat izango litzateke, nolabait.

8.5.3 Lafitte (1944)

Lafitte-k erakusten digun honako taula honi (eta beste hainbati) erreparatzen badiogu, garbiro ikus dezakegu bere gramatika tradiziozko teoriaran koka daitekeela:

	PRESENT	IMPERATIF	EVENTUEL	PASSE
<i>Le</i>	D — =	B — =	L — =	Z — =
<i>Me</i>	N — =		Nind — =	Nind — =
<i>Te</i>	H — =	H — =	Hind — =	Hind — =
<i>Les</i>	D — z =	B — z =	L — z =	Z — z =
<i>Nous</i>	G — z =	G — z = n	Gind — z =	Gind — z =
<i>Vous</i> (s.)	Z — z =	Z — z =	Zind — z =	Zind — z =
<i>Vous</i> (pl.)	Z — z = te	Z — z = te	Zind — z = te	Zind — z = te

Hamaikagarren taula: Lafitte-ren pertsona-hizkiak (1944: 244)

Nolanahi ere den, Lafitte-k ez du hirugarren pertsonako aurrizkien jatorriaz ezer zehatzik adierazten, ez izenordainetatik ez beste nonbaitetik datozenik. Beste alde batetik, Lafitte-k uste du hirugarren pertsonako objektua agertu gabe ere ulertu behar dela, are objektu jakinik ez dagoen esaldietan, aspaldi Darrigolek eta Chahok iradoki eta Bonapartek bere teoriarik garatu zuen bezala:

En français, on peut dire: *il chante, je mange, tu bois*; en basque, il faut exprimer le complément en quelque manière; et, s'il est indéterminé, on suppose une 3^e personne du singulier de valeur indéfinie ou neutre. (Lafitte 1944: 357)

8.6 Aspektu-denborazko teoria

Kapitulu honetan zehar erakutsi dudanez, *d-*, *z-* (\emptyset -), *l-*, *b-* aditz-aurrizkiak denbora eta moduen arabera banatzen direla aski goiz hautemandako zerbait da (ik., esaterako, Bonaparteri buruzko ataleko aipuak §8.3.4). Halarik ere, luze itxaron beharko dugu aurrizkiok pertsona-komunztadura hizkiak direlako iritzia baztertu eta, haren ordean, modu, denbora edota aspektuaren markatzaileak direla proposatu arte.

Alberdik (1989b: 778) Saroïhandyri (1918) egotzi dio gogoeta honen lehentasuna, nahiz eta Saroïhandyk berak aitortu zuen ezin zuela aurrizki bakoitzaren etorkia argitu. Ondoren, pentsabide hori *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaraturiko bi artikulutan berragertu zen, artean ia inork erreparatu ez bazien ere: Pennaod (1970) eta Oregi (1974), alegia. Haatik, Traskek (1977) bere kasa gisa bereko proposamena plazaratu zuenetik, gero eta euskalari gehiago atxiki zaizkio;

esan liteke gaur egun ia aho batez onartzen dela.³⁸⁰ Ezbairik gabe esan liteke teoria honi bultzada handia eman ziola De Rijk-ek (1992) proposatu zuen *d*-aurrizkiaren etimologia: laburki esanda, **da* aitzineuskararen ‘orain’ adierazteko hitza dugu eta, hortaz, orainaldiko adizkietan agertzea zeharo ulergarri gertatzen da (hala ere, *d*-ri buruzko ikuspuntu desberdin baterako, ik. Rotaetxe 1998).

Komunztadura-markei dagokienez, aspektu-denborazko teoriaren berehalako ondorioa honakoa dugu: hirugarren pertsonan agertzen diren aditz-aurrizkiak modu, denbora edota aspektuaren markak badira, hirugarren pertsonako argumentu absolutiboak —hala subjektu iragangaitzak nola iragankorretako objektuak— adizki-komplexuan pertsona-komunztadura hizkirik gabe geratzen dira, agerian behinik behin. Hala bada, argumentu ergatiboen egoerara hurbiltzen dira nolabait.

Teoria honetatik abiatuz, azken urteotan arazo hauen inguruko azterketak ugaltu dira: besteak beste, Laka (1988), Gómez (1994), Elordui (1995), Gómez & Sáinz (1995), Fernández (1997), Albizu eta Eguren (2000) eta Ormazabal eta Romero (2004).³⁸¹ Nolanahi ere den, aurrizkion jatorriaz adostasun ia erabatekoa den arren, zenbait lanetan aurrizkiak hirugarren pertsonaren markatzailatzat hartzen jarraitu da,

³⁸⁰Aipa dezadan, erakusgarri gisa, Euskaltzaindiaren gramatikak ere onartu duela azterbide hori (Euskaltzaindia 1987: 143).

³⁸¹ Beste ildo batetik, Oyharçabalek (1993, 1997 eta, bereziki, 2000) aginterako *b*-aurrizkia menderagailu gisa aztertzea proposatu du. Horren alde darabiltzan argudioak honakoak dira: alokutibotasunik eza (***bedik*, ***bezak*), beste menderagailurik hartzeko ezintasuna (***bedila*, ***bitzala*) eta euskalki batzuetan pertsona-markekin batera agertzeko ahalmena (*benaza*).

kasuan kasuko egileak bere analisi diakroniko edota sinkronikoan hala jokatzea egokiagotzat jo badu.

8.7 Ondorioak

Aurreko orrialdeetan euskal aditzaren objektu-komunztadurari buruz XIX-XX. mendeetan izan diren ikusmoldeak aurkezten saiatu naiz. Arreta berezia jarri dut, halere, zeresan gehien eman duten hirugarren pertsonako aurrizkien izaeraz eta jatorriaz esan direnetan, hauexetan nabarmentzen baitira, nik uste, teoria desberdinen arteko alderik markagarrienak. XIX. mende hasieran kausitzen ditugu euskal aditzaren morfema-egiturari buruzko lehen azterketak, nola edo hala gramatika orokorrari atxikiak gehienbat. Astarloari zor diogu, hain zuzen, euskal aditzaren aurreneko morfema-banaketa, baita tradiziozko teoria deitu dudanaren oinarriak ezartzea ere. Ondoren, XIX. mendeko autore gehienek gramatika orokorrean hainbesteko arrakasta izan zuen aditz bakarraren teoriaren eredura egituratu zituzten beren azterketak. Mendearen hondarrean euskal aditzaren pasibotasunaren teoriak lortu zuen euskalarien harrera ona, eta halaxe iraun zuen XX. mendeko 60etako hamarkada arte. Hala aditz bakarraren nola pasibotasunaren aldekoek —zeinek bere jarrera teoriko desberdinetik— hirugarren pertsonako objektu-komunztadurari buruzko ondorio bertsua erdietsi zuten: euskal aditzean objektu zuzena (pasibistentzat subjektua dena) beti markatzen da, are esaldian objektu jakinik ez dagoenean ere. XX. mendeko 70etako hamarkadan, ikuspuntua zeharo aldatzen da; hirugarren pertsonan agertzen diren aditz-aurrizkiak ez dira geroztik pertsona-hizkitzat hartzen eta modu, aspektu eta denborarekin lotzen dira; ondorioz, aspektu-denborazko teoriak hirugarren pertsonako objektu-komunztadura ez dela agerian markatzen proposatzen du.

Nabarmentzekoa iruditzen zait azken puntu hau; izan ere, mende bat eta erdiko epean adizki iragankorretan hirugarren pertsonako objektua beti markatzen dela (are objekturik ez dagoenean ere) pentsatzetik objektu-markarik inoiz ez dagoela (are objektua dagoenean ere) proposatzera igaro da.

9 Ondorioak

Tesi honen helburua azaltzean, XIX. mendeko euskal gramatika ideien historia azterteko xede nagusia adierazi dut, orduko egile eta gai batzuen aurkezpena eta analisisa eginez. Halaxe egin dut aurreko kapituluetan, eta ondorio zehatzak kapituluz kapitulu aurkeztu ditut, halaxe eskatzen baitzuen kapitulu bakoitzaren gaiak. Hortaz, uste dut ez duela merezi haiek guztiak berriz hona aldatzea; bai, ordea, aurreko orrialdeetatik atera ahal diren ondorio orokorrak, agian orokor izateagatik beragatik tesian zehar behar bezala nabarmendu ez direlako. Hauexek begitantzen zaizkit bereziki aipagarri, kronologikoki aurkezturik:

- **XIX. mendea arteko euskal gramatikagintzaren ekoizpena —ekoizpen urria bidenabar esanda— eredu klasikoaren menpe dago, Europako Mendebaldean bezala.** Halakoxeak agertzen zaizkigu, esaterako, Oihenarten (1638/1656) eta Larramendiren (1729) lanak, garai honetako gramatika-lanik garrantzitsuenak. Oso kasu bakanetan lortu zuten autoreok latinaren eta Berpizkundeko gramatikagintza arruntaren eruedetatik aldentzea eta euskararen azterketa beregaina erdiestea: adibidez, Oihenartek *-a* eta *-ak* euskal artikulak zirela aldeztu zuen (ik. §6.3.1), Berpizkundeko definizio “klasikoan” ohikoa zen genero eta kasuarekiko lotura albo

batera utziz, bai eta euskal artikulua inguruko hizkuntzetakoekin erkatuz gero agertzen dituen desberdintasun grafiko eta tipologikoak gaindituz (ik. §6.2.2).

Izan ere, latin ereduari jarraitu zioten euskalariek zailtasun nabarmenak izan zituzten euskal gramatikaren zenbait ezaugarri egoki azaltzeko, baita sarriegi haietaz ohartzeko ere. Esate baterako, izen morfologiari dagokionez, eredu klasikoak muga aski estuak ezartzen zituen: bi numero —singularra eta plurala— eta sei kasuko deklinabidea eskaintzen zituen izenaren flexioa deskribatzeko. Hortaz, euskararen paradigma mugagabea, morfologia ergatiboa, partitiboa eta kasu adberbialak (leku-denborazkoak, instrumentala, destinatiboa, soziatiboa, etab.) azaltzea ez zaizkie erraz gertatuko euskal gramatikari zaharrei. Ildo honetan, Oyharçabalek (1993) ederki aztertu eta konparatu ditu Oihenarten eta Larramendiren lanetan arazo hauei emandako irtenbideak: oro har, Oihenartek kasuen eta marken arteko bana-banako erlazioa bilatu zuen; hots, irizpide morfologikoari jarraitu zion (ik. orobat Oyharçabal 1998) eta irizpide honek egungo ergatiboa eta partitiboa deklinabide kasu berezizat hartzeko bidea ireki zion (ik. §0.6). Larramendik, aldiz, latinaren sei kasuak gordetzen saiatu zen, kasu bakoitzean ahalik eta euskarazko marka gehienak sartzen ahalegindu baitzen, irizpide funtzionala dei genezakeena baliatuz alegia; hortaz, besteak beste, ergatiboaren atzizkiak, subjektuak markatzeko erabilirik, nominatiboaren barruan sartu zituen, edo partitiboarenak nominatiboaren zein akusatiboaren barruan.

Alabaina autoreok deklinabidetik kanpo beste atzizki batzuk ere ikusi zituzten, gehienbat leku-denborazkoak. Izan ere, latinaren eskemak ablatiboa beste aukerarik ez zuen uzten euskararen kasu adberbialak (leku-denborazkoak eta bestelakoak) eta

-ko atzizkia sartzeko. Sei kasuko sistemari eutsi baitzioten, euskal gramatikari zaharrek beste bide batzuk bilatu behar izan zituzten: funtsean, postposiziotzat edota adberbiotzat hartu zituzten atzizkiok (ik. orobat 137. oin-oharra).

Aditz morfologiari dagokionez, euskal gramatikari zahar gehienek, Larramendiz geroztik, paradigma perifrastikoaren aberastasun eta erregularitasuna hobetsi zuten eta, ondorioz, aditz-joko trinkoa irregulartzat, berriagotzat eta bigarren mailakotzat hartu zuten (ik. §7.2). Puntu honetan ere Oihenart dugu garai honetako salbuespen bakarra, aditz-joko trinkoa euskaran berezkozat (*propria*) hartu baitzuen. Bestalde, aditzak sailkatzeko modu nagusia bi talde semantikotan bereiztea izan zen:³⁸² aktiboak (*dut*-en paradigma) eta neutroak edota pasiboak (*naiz*-en paradigma). Hala ere, inoiz edo behin —Larramendik kasu— irizpide sintaktikoa ere agertzen da adizki absolutuak eta iragankorrak edo erlatiboak bereizteko (Larramendi 1729: 56-57; ik. §7.2); iragankorrak komunztadura anizkuna dutenak dira, hau da NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erakoak.

Jakina denez, garai honetako gramatikarik eraginkorrena Larramendiren *El impossible vencido* (1729) da. Nolanahi ere den, oraingoz ez da eragin honen bidea behar bezain xeheki aztertu, baina agian Larramendiren lanaren arrakastak azaldu lezake XVIII. mendeko gramatikagintza ekoizpen urria, aldez bederen. Bestalde, bistan da XIX. mendeko gramatika askotan haren oihartzuna nabaritu daitekeela (Añibarroren eta Lardizabalenetan, besteak beste; ik. bigarrenaz §6.3.5). Oihenarten

³⁸² Berpizkundeko gramatikek aditzaren sailkapenetan erabilitako terminoen historiarako, ik.

gramatika-lanaren eragina askoz urriagoa izan zen, beharbada *Notitia* historia-liburu handi baten barruan urturik gelditu zelako. XIX. mendearen hasieran Humboldték jaso zituen zuberotarraren analisi batzuk eta, haren bitartez, van Eysek jaso zituen (ik., esate baterako, §5.4.3).

• **XIX. mende hasieran, Astarloa eta Humboldtén eskutik, Europako filosofiaren joera berriak sartzen dira euskal gramatikagintzan.** Astarloaz den bezainbatean, pentsamolde sentesualistei atxikita, munduko lehen hizkuntza euskara izan zela frogatu nahi izan zuen eta beronek eraman zuen euskararen deskribapen zehatz eta sakona burutzera (ik. §1.5.4); batez ere, hotsen esanahi naturala aldezteko morfologi analisi zorrotza egin behar (eta ahal) izan zuen. Humboldték, bestalde, hasiera eman zion atzerriko euskalaritzari eta, aldi berean, euskara bete-betean uztartu zuen hizkuntzalaritza orokorraren gogoeta-gaiekin.

Humboldték Astarloaren gramatika azterketak oso kontuan izan zituen (ik. §2.2) eta bereziki markagarri eta erabilgarria iruditu zitzaion durangarrak eredu greko-latindarrarekin hausteko egindako ahalegina.

Bi autoreok irizpide sintaktiko bat erabili zuten kasuak eta preposizioak edo postposizioak bereizteko, alegia lehen mailako eta bigarren mailako erlazioak bereizi zituzten (ik. §§2.4.4 eta 6.3.3). Honen arabera, lehen mailako erlazioak artikuluen edo deklinabidearen bitartez adierazten dira munduko hizkuntzetan eta bigarren mailako erlazioak, preposizio edo posposizioen bitartez. Irizpide honi jarraituz,

adibidez, Astarloak egun kasu eta postposizio deitzen ditugunak hiru sailetan banatu zituen: *artikuluak* (egungo kasu gramatikalak, gutxi gorabehera), *aditzondoak* (egungo leku-denborazko kasuak) eta *postposizioak* (gainerako postposizio batzuk).

Astarloak gramatikagintzan egindako ekarpen nagusia euskal hitzen morfemazatiketa dugu. Lehen hizkuntzaren perfektzioa frogatzeko aintzat hartu zituen analogia eta ekonomia hatsarreak aplikatuz, euskal izen eta aditz morfologiaren hainbat flexio-hizki identifikatu zituen eta, halaber, zero markaren kontzeptura hurbildu zen (ik. §§1.5.4.2 eta 8.2).

Esan berri dudanez, Astarloaren eragina jaso zuen aurrenekoa Humboldt izan zen. Zernahi gisaz, uste dut Astarloaren eta Humboldten eragina izan zitekeena baino apalagoa izan zela, bi autoreok ez baitzituzten beren gramatika-lan nagusiak argitaratu. Astarloaren *Diskurtso filosofikoak* 1883an kaleratu zen aurreneko aldiz eta, Humboldti dagokionez, euskal gramatikari buruzko ideiak agertzen dituzten eskuizkribuak Garatek (1933) itzuli eta argitaratu zituen, edo oraingoz argitaragabe daude. Hala ere, Humboldten lan argitaratuen eragina mendearen bigarren erdiko autore batzuek jaso zuten; adibidez, van Eysek bere lehen gramatika-lanetan (ik. §5.4.1) eta, zer esanik ez, eusko-iberismoari buruzko hipotesiak (nagusiki Humboldt 1821) Bonaparteren eta beste zenbaiten lanetan (ik. §4.5).

• **XIX. mendearen lehen erdian gramatika ideia interesgarrienak eta berritzaileenak Ipar Euskal Herrian aurkitzen ditugu, gehienbat gramatika orokorraren korronteari lotuak: Darrigol, Abbadie, Chaho, Inchauspe eta, apalago bada ere, Lécuse.** Autore hauetako gehienek gramatika orokorraren analisi logikazaleak baliatu zituzten euskara deskribatzeko eta, neurri handi batean, euskara

hizkuntza erregular, filosofiko eta aberatsa zela erakusteko; Abbadien, ordea, euskara kategoriatik lexikalei eta hizkuntz aldaketari buruzko gogoeta teorikoa eta orokorragoen barnean sartu zuen. Nekez aurkitzen dugu, ordea, mende hasieratik Alemanian bereziki sortu zen hizkuntzalaritza berriaren oihartzunik; ik., hala ere, Abbadien Bopp-en aipamena (1836: 17). Bestalde, oihartzunik ez izate hori guztiz ulertzekoa da, gramatika historiko-konparatzailearen eragina ez baita mendearen bigarren erdia arte Frantziako eta Espainiako tradizioetara iritsiko (ik. Bergounioux 1997 eta Ridruejo 2002).

